

WALT DISNEY

JENDEAK ETA BIZILEKUAK

DEPOSITO LEGAL: S. S. 359 - 67

Industria Gráfica Valverde, S. A. • Gral. Mola. 27 - S. Sebastián









«PEOPLE AND PLACES»
Walt Disney-en
filma



WALT DISNEY

JENDEAK ETA BIZILEKUAK

JANE WERNER WATSON *idazlea*
WALT DISNEY ELKARTEKOEN laguntzarekin
LARRESOROK euskeratua

ARGITARATZAILEA
EDICIONES GAISA, S. L.
VALENCIA

iñaki beobide
DONOSTIAN
BANATZAILE BAKARRA



Argazkien etorkia:



Ernst A. Heiniger
Herbert Knapp
Amleto Fattori
Fileco, Roma, Italia
Raymond Bricon
Rickard Tegstrom
John Hardman
Kennet Talbot
Betty O'Connor
Joe O'Connor
James R. Simon
Hugh A. Wilmar
Lloyd Beebe
Jane Werner Watson
Johnson Motor Co.
Waukegan, Illinois
Photo Researchers, Inc
Jean eta Tom Hollyman
Ed. Drews
Robert J. Bezucha

Margoen etorkia:

Art. Riley, Joshua Meador eta Joseph Cellini.
PEOPLE AND PLACES
Walt Disneyren filmari jarraituaz egina.

Baita ere lan haueri:

Maurize Croizard eta Pierre Galante-ren «Les Hommes Bleus de Maroc».
Pierre Metais-en «Polinesia, Samoak».
Clyde Kluckhorn-en «Navajoak».
Pierre Boulle-ren «Siam».



(c) 1967. Walt Disney Productions
Ludi osorako eskubideak
(c) Ediciones Gaisa S. L. argitaratzailea
iñaki beobide, Donostian, euskal itzulpenen
banatzaile bakarra
Donostiako Industria Grafica Valverde-ren
Irakorlan egina.







AURKIBIDEA

HITZAURREA	**11**
LAPONIA **Ipar-orkatzen lurraldea**	**13**
ESKUALDE GARAIAK **Eskozia-ko pitxia**	**25**
SUIZA	**37**
DANUBIOA **Europa-erdialdeko ibai-bidea**	**47**
PORTUGAL **Ozeanoaren ertzean**	**57**
ZERDEÑA **Afrikatar mutur bat Europan**	**69**
MAURITANIA **Gizon urdinak**	**83**
AMAZONIA **Oihanean ur-gaztelu bat**	**99**
NAVAJOAK **Oroitarrien harana**	**113**
SAMOA **Uharte sakratuak**	**129**
JAPON **Uharteetako inperioa**	**147**
THAILANDIA **Herri zoriontsu baten sorlekua**	**163**











Walt Disney

HITZAURRE

Denak du bere funtsa eta bere adierazpena. Ohitura bitxietan gure begi zibilizatuak ez du askotan berezten edertasun-mota igarokor bat baizik; baina itzurtzen zaigun arrazoinen batek sortuak izan dira, noski. Alegia harrigarri horiek, gure ustez eragabe eta bitxi, zalantzarik gabe ez dira zenbait gertakari apartaren irudi markets eta kaskaildua baizik; ez derrigorrez jatorri ipuiezkoena. Herensugeek hamaika begitarte egiazko har dezakete; eta gure kosmoa Eguzki-jainkoa bezain fantesiako diren indar-iturriz beterik dago. Rito hertsi batzutan ez dugu guk beharbada somatzen arima siniskorraren olerki-ekarri funsgabeaz besterik; alegia, misterioaren jainkoekin etsaitzeko bildurrak urduri eta ikaraturik atxikitzen duen arima zoratua. Baina rito horiek,beharbada, guna galdua duen jakinduria txit zahar baten aztarna dira.

Eta horretara, arbaso jakintsu haien ondorengo ezjakinek jadanik konprenitzen ez dituzten keinuak eta zerimoniak berretzen dituzte gaur, ausaz inoiz itxura horietan jatorrizko izpiritu hura berriz itsatsiko den itxaropen nahasian. Ideia uher bat da, egiptotarrek beren hilen gorputzak beren hartan gordetzeko zuten nahi gartsuaren antzekoa agian.

Itxurazko magia horren barne-muina inoiz Zientziak ulertu eta argitu zai, senaz, artistak geroko jakintsuen lana prestatzen du. Hauxe egiten dute, eskola paregabean, Walt Disney-k eta honen taldeak, liburu eder honetan egia izkutuaren aztarna argitsuak, iduri eta kolorezko adostasun honen bidez betirako biziaraziz.

Pitxi-sorta dotore batetan, maiz gertatu ohi da ez dela diztiranteena denetan baliosen gertatzen. Bere itxura apalean disimulaturik agertzen bide zaigu hau, bere balioaren ezagutzak axaleko diztira eta itxurakeriak mespretxa arazi balizkio bezala. Begira zazue: horixe gertatzen da Samoa-ko uhartedian. Herriburu-arentzako bizilekua eraiki behar denean, lan hau inguratzen duten zerimoniek txundituta uzten gaituzte. Baina, kasu: lanean ari delarik langileren bat loak hartzen badu, azkar doakio buruzagia eta palma-estalki bat eraikarazten, horrela itzalean hats-har dezan.

Horra hor dena. Idazleak ez du solasik batere erasten, eta kamarak ez du istorio txikia erreparatu. Diamante hutsak bere burua aski. Ugazaba batek era harrigarri horretara jokatzen —hori ziur dakit— nik bezala pentsatu dukezue: garaia dutela gure teknikorik onenetako batzuek Samoa-ko herritarrengana azaltzeko, eta zibilizazioaren oinarriak han ikasteko.

PIERRE BOULLE



LAPONIA

Ipar-orkatzen lurraldea

Mendi gaitzen beheretik orroatsu, orein-antz talde bat doa. Orpoz orpo, patin bakar bateko lera hauskorren gainean, eta atzetik pilatzen ari diren hodei hurbilei beti so, lerratuz doaz artzainak, emazteak eta seme-alabak lagun dituztelarik. Hausnartzaileen elia ipar-orkatzek osatzen dute; eta bidariok Ipar-Nagusiko laponiarrak dira, ipar-orkatzen jabeak.

Izotz-eskualdeetako Iparraldean, Noruega, Suezia, Suomi eta Errusiko lurrak Gerriune Artikoak zeharkatzen dituen eremuetan, Laponia dugu. Herri, hizkuntza eta kultura bereziak ditu lurralde honek, nahiz bertan erresuma bat ez izan. Lurralde basa eta gogor hartan ez errepiderik ez hiririk: politika-mugek ez dute batere inportantziarik. «Lapon» hitzak herrari, bidari edo etxegabe adierazten du suezieraz. Laponiarrek, aitzitik, «samer» deritzate beren buruari.



Gauerdiko eguzkiaren lurraldean laponiar artzain pare bat, galdaren inguruan afaritan.

Askatasun osoa dute lau erresuma mugakideetan barrena, bai han-hemenka ibiltzeko, bai ipar-orkatzen taldeak hara eta honera eramateko. Itun edo Araudi nazioarteko berezi batek gerizatzen du haien eskubidea. Mugek zatitutako gure mundu burokratikoan, ordea, ez bide dakigu pasaporterik gabe bizitzen. Eta laponiarrek ere ba dute erresumatasun bat: haien abere-taldeek urteko parterik luzeena pasatzen duten lurraldekoa. Orrialde honetantxe ageri den fotografiako laponiarrak, esate baterako, Suezia-ren mendeko edo hiritarrak dira.

Arrazaz txikiak dira, baina azkarrak. Emakumeen luzera ozta-ozta da metro bat eta erdikoa; eta gizonezkoak ez dira askoz ere luzeago. Haien odol-jatorrian ez dago eskandinabiar sustrairik; eta, dirudienez, ez dira, arrazari dagokionez, ez kaukasotar ez mongoliar. Ezin esan daiteke nundik datozen, ezta lurralde ipartar horietan noiz finkatu ziren. Halaz ere, Itsaso Artikoko itsasertzean barrena Ekialdetik Mendebaldera sakabanaturik aurkitu diren zenbait eltzegintza-hondakinek eta giza-zibilizazio aztarnek hau idaroki diete etnologilariei: Ural-Mendietatik etorriak direla laponiarrak. Garai urrun hartan bertan ere, itxura denez, ipar-orkatz basatien taldeei jarraitzen zitzaizkien, hauek azken Izotzaldi-koan elurren ondotik Iparralderuntz aldatzen zirelarik. Harrezkeroztik ipar-orkatzen orpotik ari dira beti laponiarrak.

Milaka urtetan zehar, ehizetik ez bestetarik bizi izan dira «samer»-tarrak. Geziak gabiak eta arteak baliatuz, hamaika mendez hil dituzte ipar-orkatzak gupidarik gabe; baina, abereok haztea merkeago eta errezago izango zela erreparatu zuten piskanaka. Taldetan banatu zituzten orduan. Eta, hori dela bide, «sita» edo familia-multzo txikitan bidegiten dute laponiarrek. Artiko-ko sasoin-bilakaera geldian, «sita» bakoitza bere talde bereziari jarraitzen zaio bidaldi luzetan.

Orain dela zenbait urte, gero eta laponiar gehiagok hautatzen du bertan-berako bizimolde bat, bizileku - aldairarik gabea. Arrantzale bihurtzen dira batzuk, are nekazari ere beste batzuk. Oraindik ba dago, halere, segidan azalduko dugun familia ibiltari honen antzekorik: alegia, egutegia ipar-orkatzen gora-beheren arabera taxutu, eta urte guzian abere-taldeen atzetik ibiltzen den laponiarrik.

BIDEETAN BARRENA.—Gizon hauen ustez, urteak ez ditu lau aro, zortzi baizik. Lau aro-erdietan egiazko bizilekutan eta tokiz aldatu gabe egon ohi dira. Tarteetan, berriz, alegia: udaberri-udara, udara-udazken, udazken-negu eta negu-udaberri aldaguneetan, *bidean barrena abiatu ohi dira.*

Negu-udaberri gunea maiatzaren erdialdean heldu ohi da. Lurra elurrezko estalpe edo garapa lodi batek estalirik egon arren, mila eta bostehun bat ipar-orkatz Iparralderuntz abiatzen direla ikus dezakegu: udara zelai garaietan igarotzera doaz.

Talde haundi hau talde txiki batzuen bilera da, egia esateko. Jabego-ikur batek berezten ditu familia honen eta haren abereak: ikur hori belarrietan egindako ebakidura bat da. Laponiar familiek, hauen abere-taldeek bezala, elkarrekin egiten dute bidaia: *horretara, arriskuz beterikako bidaldian,* elkarri lagun dizaiekete denek. Elkarrekin osatzen dute «sita» delakoa.

Gurutzatu behar duten eskualdea urbidez edo isurbidez beterik dago; eta, ohiturako joairen garaian, urbide horiei jarraitzen zaizkie ipar-orkatzak. Iparralderako joairaren lehen aldian, hormatutako lakuak eta ibaiak hartu ohi dituzte bidetzat; eta «akjas» edo «pulkas» deritzan laban-oski bakuneko *elur-lerak, ipar-orkatzek garraiaturik,* trabarik gabe lerratzen dira.

Abilezia eta erraztasuna ageri, laponiarren eskuzko trebetasunaren lekuko dira lera horiek. Benetako itsasontziak dirudite: laban-oskia bakarra izanagatik ere, kanoek bezain oreka bigun, malgu eta dotorea dute. Premialdiei buruz ere, nahiz haien barnea ozta-ozta 15 cm. takoa izan eta luzera metro bat eta erdikoa, irazgaitzak dira guztiz, hau da, uraren kontra osoki kukuturik daude.

Leraren gidariak ipar-orkatz bat bakarrik lotzen du bere besotik. Horrela, bere gurdi arina uzkailiko balitzaio ere, aberea galtzeko arriskurik ez du.

Noski: abereak ez darama ez buru-uhalik, ez gidarik; eta ez dago bi pertikaren artean estekaturik. Larru zabarrez egindako hede bakar batek, aberearen sabel azpitik eta atzeko ankatartetik pasatuz, lotzen du



Udaberrian Iparralderako bidaia luzerako abiatzen dira ipar-orkatzen taldeak.



Bide luze eta zailetan barrena, familia batzuk eta haien abere-taldeak elkarrekin doaz.

Iparraldean, urrun, mendi-mazela goretan daude udarako larreak.





Janariak babestutzeko, «luovvo» deritzaten bizkar hauetan ezartzen dira.



Bazkaltzekotan gelditzen direlarik, artzainak ez dira etzauntzarik eraikitzeko arduratzen.

Erreka izoztutik ateratako arrain freskoa, mokau bikaina da.



lerarekin. Hauxe bide da zuhurrena, ipar-orkatza ez bait da guztiz hezitako alimale bat. Garraiabide honek, bestalde, bere soinaren mogimenduaz gobernatzera eta aldapetan geldiaraztera behartzen du leraren gidaria.

ETZAUNTZA. — Orkaztaldea gelditzen denean, laponiarrek pausategi edo etzauntza bat eraikitzen dute. Elurraren azpian jaiotzen diren goroldio gizenak eta harrokei itsatsita sortzen diren liken guriak bilatzera abiatu-eta, gizonak,ipar-orkatzek garraiatutako zamak lurrean pausatu ondoren, «kata» izeneko denda aldagaiak zabaltzen hasten dira. Oihal arruntez egiten dira eskuarki karpa edo denda hauek; eta aguro eraiki daitezke hagazko habe-multzoaren gainean. Gero, zoru gisa, abarrezko maindire bat zabaltzen dute lurraren gainean.

Dendaren barruan, eta ataria zeharkatuz, egur lodi bat ipintzen da. Edozein ikusle, nahiz hartara ez gomitaturik izan, denda-barrura sar daiteke; zeren-eta lurralde artiko haietan hil-da-biziko kontua bait da askotan aterpe bat aurkitzea. Ez da zilegi, ordea, familiaren ganbera berezten duen egurretik at sartzea. Ez da joan behar ere erdialdeko sutegitik haruntz, dendaren zolan hornidurak eta janariak metatu ohi direlako: dendaren jabeek ez bestek dute horrengatik haraino iristeko baimena. Era berean: gaua hantxe igarotzeko gomitatua baldin bada arrotza, ez du honek familiak lo-egiten duen sutegi-alde berberean lo-egingo; beste alderdian du beretzako etzaleku berezia.,

Erdialdeko sutegian prestatuko dute bazkaria: uxol izoztuan harrapatutako arrain freskoa agian; edo-ta, maizago, ipar-orkatzen haragia, ipar-orkazkia beraz, hormaturik edo lehorturik. Afaldu eta segituan, estali egiten da sua. Zabaldu egiten dira lurrean ipar-orkatzen larruak lo-egiteko (egunez zela edo zaltokitzat erabiliak izan diren berberak), eta isilik egoten da etzauntza harrezkero. Isilune honek ez du luzaz irauten, ordea, ipar-orkatz-emeak berriro abiatzeko urduri daudelako.

Akka-mendia dute helburu. Honen mazeletan erditu ohi dira. Hantxe eraikitzen



Belar trinkozko azal berezle batek estaltzen du laponiar familiaren udara-etxola.

dute bidariek beren etzalekua geldialdietatik batetan. Eta berehala, banan banan, jaiotzen dira orkazkumeak, beren ankatxoetan koloka. Berretu egiten dute orduan beren zaintza laponiarrek; ezen otso artikoa ipar-orkatzaren etsai errabiatua bait da, ume jaioberri horiek harrapakin ahul eta kilikagarri zaizkiolarik.

Lehendabiziko beroak heldu direlarik, laponiarrek metatu egiten dituzte arta haundirik gabe enbor batzuk, talai-antzeko pilo bat eginez. Negurakoan eta Hegoalderako itzuleran berriz jaso dituzten negu-larru aztunak ipintzen dituzte gainean. Udara osoan era horretara larruak utziagatik ere, ez dago gal ditzaten batere arriskurik: jende prestuak dira laponiarrak, eta ez litzaieke sekula bururatuko ere besterenik ezertaz jabetzea.

Ozta dira ipar-orkazkumeak bidegiteko gauza, eskualde garaietaruntz abiatzen dira berriz ibilkariak. Urte batetik bestera atxikitzen dituzten etxolak han daude zai, udaran berriz bizileku izateko prest.

Igazko etxolak aurten familia-talde osoa gerizatzeko aski ez badira, beste berri batzuk eraikitzea ez da zaila. Haga nagusi bat finkatzen da aurrenik lurrean, eta honen gainean trebeska habe bat. Segidan, eta honen gainean zeharka, egur batzuk; eta hauxe besterik ez da txabolaren habedia. Aizkorakada trebe batzuk aski gero urkiak ohol-zerrenda luze eta mehetan prestatzeko. Ondorenean habe zeharrak estaltzen dituzte esku trebeek. Haurrak berak pozik hasten dira lanean; eta azalezko hormak, haurrek bildutako belarrez estaltzen dira. Era horretara jasotzen da etxola berria: iltzerik batere gabe beraz, baina ipar-haize hotzei ekuru eta irazkaitz egongo zaien txabola berria halere.

SUAREN INGURUAN.—Bizitzeko arrazoin bakarra bere familia duelako, ganbara ba-



Labeko ogi ona dute laponiarrek hazkurri nagusi.

karreko etxe honetxek dauzka barrenean laponiarraren altxor guziak. Han egoten dira maiz haurrak, zakur leihal zahar bat lagun, txikienak zaintzen. Hantxe ere bizi da emaztea, zintzo eta maratz, oihal bero eta nabarrak iruten eta anztinako marrazkiz apaintzen.

Ikustamenik gertatuz gero, emazteak kafea prestatzen du. Zerimonia oso bat! Aurrenik, suaren gainean zintzilik dagoen burdinazko ontzi batetan beztu behar dira aleak, errealdi guzian horiek txotx batez eraginez. Gero xehatu egiten dira errotaño zahar batetan ale urrintsuak; eta honen ondoren irakin egiten da kafe ehotu hori eltze batetan. Kafearen urrina usaitzen hasten denean, arrain bat erasten zaio —hezurrak eta guzti— kafearen kondarrak lotu nahiz. Honi esker, anbarrea bezain gardena atera ohi zaie kafea.

Gatz larrizko kristal batzuk gaineratu, eta gertu da orduan urkizko gatilutara isur-

Laponiarren artean, biziki istimatzen dute jatordua bertako haurrek.



Gauerdiko eguzkiaren lurraldean, etzateko garaian bertan ere eguzkia ongi ageri dago.



tzeko. Gatilu hauek burruntzali itxura dute, eta antzinako kutsuko marrazkiz ederki apainduak d i r a. Zerbitzaldi bakoitzaren aurretik eta ondotik garbitzen dira arta haundiz.

Erretilu luze eta hestu batetan zerbitzatzen da kafea. Erretilua eta gatiluak marrazki-mota berberaz apaintzen dira, eta gisa berean azukre-andela. Azukre-puskak hartzeko matxarda bereziak erabiltzen dituzte. Lehendabizi azukrea ahoan sartu ohi dute laponiarrek, eta gero pozkarioz kafea edan.

Ahuntz-gazta zahar eta bixi bat eskeintzen du beti etxekoandreak. Batzutan pusketa bat jartzen du gatilu batetan, ur berotan bustintzen segidan, eta edari koipetsu eta azkar bat bihurtu arte eragiten.

GAUERDIKO EGUZKIA.—Egunak luzatu eta luzatu, azkenean egunsentia eta ilunabarra elkarri lotu egiten zaizkio. Zenbait astez eguzkiak inguratu egiten ditu bazterrak, beti jiratuz, eta behin ere izkutatu gabe. Udara da, udara argitsu laburra: lore diztiranteak ageri dira, zoritzen diren ahabale *garratzak munoetan, eta ur gardenetako* aparrean arrain jauzkariak.

Ez dute orduan kontu erraza haurrak egun-betean eskuratzen eta oherarazten; baina nagusiak berak zoriontsu dira argi horrętan, eta eginbehar asko dute. Arraina bilatzeko mementoa da; eta emazteek, sareak eta gupelak harturik, arrantza-bila jotzen dute aintzira ipartarretara. Gizonak ere arrantzara doaz; edo, kalean gero saltzekotan, larru baliotsua duten alimaleen ehizetara.

Denborarik luzeena, halere, ipar-orkatzen gorabeherei ematen diete laponiarrek, horiek bait dira haien ondasun-iturri nagusia. Ipar-orkatzek ematen die ez hazkurria eta jantzia bakarrik; baina baita truke-sos bikain bat ere: udaran hirietako merkatuetan salgai jarriko diren soinekoak, ipar-orkatzen larruaz eginak.

IPAR-ORKATZ LARRUAK.—Ehize berri diren abereen larruak, hedatu eta lehortu egin behar dira. Ipar-orkatzaren haragiari dagokionez, aski da zakurren eskuarretik at zin-



Elkarrekin doaz arrantzara gizonak eta emakumeak Laponia-ko aintzira artikoetan.



Ahabale-loretxoak biltzen ari direla pasatzen dute ordu asko laponiar neskatxek eta emakumeek.

Arrain freskoa xeheki garbituz erabiltzen dira egokiro udara artikoan egun azkengabeak.



tzilikatzea. Halako giro hotzetan ez da beste konturik hartu behar, usteltzeko arriskurik batere ez bait dago.

Arretaz garbitu behar dira larruak. Laztasunak lehuntzeko, igurtzi egin behar dira. Batzutan baita uxola hormatuan ere behar dira murgildu. Horrela prestatu eta apailatu ondoren, burusi, tapaki, tapiz, soineko eta larru berdezko bota bihurtuko dira.

Bota hauek erosoak eta iraunkorrak dira; eta etengabeko ibiltari haien aburuz hain dira garrantzitsu, agurtza - modurik usuenetako bat hau izaten dela: «Zer moduz oin horiek?».

Beti dago moldagintzan bota pare bat. Ipar-orkatzen zainez egiten da josteko haria, eta emakumeak berak prestatzen du. Biru mehetan ebakitzen ditu zainak, masailaren kontra bihurtzen ditu gero, hortzen bidez tinkatzen, eta horrela oso malgutua den hari bat lortzen du, urari buruz iraganezinezko josturak eginez.

Bota horien ezin-iragantasuna segurtatzeko, emakumeek eskuarrean atxikitzen dute aspaldiko ehutegi batetan, polaina gisako zerbait. Belaunetaraino ura horretara



Hartaz bota-pare bat egin aurretik, ipar-orkatzaren larrua prestatu egin behar da.

babesturik, gure ibiltaria ez da ez haizearen bildur, ez uraren. Ez du galtzerdirik jazten; baina bere botak ihi ebaki-berriz forratzen ditu. Hau dela-ta, boten forradurari oski-belar deritzate laponiarrek.

Ipar-orkatzaren l a r r u a z besterik ere (galtza, beroki, soineko) egiten du laponiarrak. Berotu nahi duenean, ilea barneruntz jazten ditu horiek; eta giro epelago denean, ilea kanporuntz. Baina igande-kari, eskuz irundako beste soineko bat jantzi ohi du, politago eta egokiago.

Boten lokarriak ipar-orkatzaren larruzkoak dira, eta abere beraren zainez egindako hariz josiak.



Laponiarrek «bellingar»ez egiten dituzte botak; alegia, ipar-orkatz anka-larruz.





Udara bukatzeko zorian dagoelarik, joaira berriz pentsatzen hasten dira laponiarrak.



Orain dela 200 urte kristautu dira laponiarrak, eta hau bezalako elizak dituzte.

IGANDEROKO BILERAK.—Laponiarraren bizimodua lurrari egindako goratzarre bat da. Izarren egoeraren bidez daki ordua; eta zerura begiratu hutsarekin asmatzen du geroko eguraldia. Biziera errazak ez du kilikatzen; lurralde gogorretan bizi izandako *lagun xinpleak aski ditu jainkotasuna eskertzeko. Horregatik, izpirituaren gorabeherekiko begirunez beterik, eta eskerron batek eraginik, bere joairan barrena eta izadi basaren muinean eraikitzen ditu otoitzlekuak.*

Osoki erlijiokorrak dira laponiarrak, eta elizkizunetara joatea laket zaie.



Antzina, bere leinuaren jainkotzat harturik, eguzkia, oinaztarria eta haizea gurtzen zituen. Bere ustez, oinak zapaltzen duen lur puska orotan, jaungoiko berezi bat bizi zen. Apaizek, atabal goitarren bidez, jainkoak nola baretu eta baketu erakasten zien, bai familia zorionean eusteko, bai bere ipar-orkatzen taldeekin bidaia on bat egiteko.

Leinuaren jaunik haundiena «xaman»a zen: erdi azti, erdi petrikilo, eta beti ere asturu-emaile nasai.

Orain dela berrehun urte, laponiarren artera kristau fedea predikatzera etorri ziren misiolariak. Populu guzia egin zen kristau; alegia, 35.000 bizilagun gaur. Kristau suharrak dira egungo egunean, eta ez dute inola ere ahaztutzen iganderoko elkar-otoitzaldia.

Ba ditu herri ibiltari honek bere eskolak. Sueziar gobernuak maisuak bidaltzen ditu, eta hauek 'sita'k jarraitzen ditu haien joairan barrena. Ikastaldiak bereziki horretarakoxe eraikitako 'kata' edo denda berezian egiten dira. Denda hau apaltxo da goratasunez, eta hestu; eta haurrek ez dituzte beren ikaskaiak zutik azaltzen, belauniko baizik. Sueziera erakasten zaie, karkuloa, haien herrialdeko geografia, eta eskualde zabal hartako landare eta alimaleen gorabeherak oro. Era berean, beren bizimoduari dagozkion bizilegeen arabera jokatzen ikasten dute.



Negu artikoa datorrenean, Akka-mendiko udaralarreak uzten dira.



Ibaiak oraindik hormatu ez direlarik, ontziz hasten du joaira familiak.

Hautaketa egiteko, udazkenean hesi-arte zabalen barruan sartzen dira orkaztaldeak.



NEGUA HURBIL.—Udara artikoa ez da diztiraldi labur bat baizik. Basa-loreak laister zimeltzen dira; giroa azkar freskatzen; lehenengo elurteak neguaren zantzu agertzen, eta ipar-orkatzak asaldatzen hasten. Hauxe da irtenaldiaren seinalea laponiar familietan. Hotzaren bultzada bortitza baino lehenago abiatu behar Hegoaldera: ez gizakumeek ez ipar-orkatzek ez luteke jasan ahal izango Iparralde Nagusiko neguaren hotzaren hotza.

Abereek eta kristauek, 'sita'ko guziek, aldapa gogorretan zehar atzera egiten dute utzitako aztarnetatik. Zelaiko ur-isurietaraino doa gainbehera taldea. Oraingoan, ordea, hormarik gabetanik a i n t z i r a k eta ibaiak, trabakizun zaizkie abere-taldeei.

Familiei, berriz, errazago zaie bidaia bolada honetan: urez egin bait dezateke itzuleraren parte haundi bat. Gaur egun laponiar askok ditu motorezko ontziak. Halaz ere, tristea izan ohi da irteera, oroitzapenez beterikako lurralde haiei zaharrek beharbada azkeneko aldiz agur egiten dietelako.

Eguerdiko eguzkiak lurrertzean musu egiten du, eta itsasoak udazken-kolorez leinuratzen hodei urreztatuak. Edertasun harrigarri eta basati horrek negua eta honen ekaitzak iragartzen ditu. Zuhurtziaz beterik, arretaz aditzen dute zantzua laponiarrek, eta ez dute alferrikako mirespenetan betarik galtzen. Motorren burrundaran nahasirik, bai gizonezkoak bai abereak bapatean abiatzen dira, beren atzetik ur geldiak urre urtu gisa harrotuz.

UDAZKENEAN BERRIZ BILTZEN. — Bidaia gogorra da itzulera ipar-orkatzentzako: bide hormatutatik eta elurrez nabartutako bideskatan barrena joan beharrean, igeri-eginez igaro behar dituzte erreka izoztuak; eta eginkizun honetan ez dute batere xarmarik erreparatzen.

Ozta gidari dagoen ipar-orkatzak abiatzea erabaki du, atzetik darraikio orkaztaldea. Baina ustekaberik xumeena gertatzen bada —mogimendu zakarren bat, eman dezagun, edo soinu bitxi bat— ta ertzean

gelditu diren abereak ikarak hartuko ditu.

«Judas» deritzan ipar-orkatz gidariari adarretan soka bat lotzen zaio; eta, tiratuz, ertzeraino eramaten da, eta gero ur barneraino. Motoreen burrunba eta «judas» bildurtuaren murgil-hotsa ken, eta egintza hau isiltasun oso eta bildurgarrian egin ohi da. Aberea laztu egiten da, igeri-egiten hasten ontziaren atzetik, honi baita korronte beteak jarraikiz. Abere-talde guziak uretara bere burua bota duenean, lasaitu egiten dira pitin bat ontzi-gainetan dauden gizonak.

Gurutzaldia istilurik gabe burutzen da. Astindu egiten du taldeak bere burua ibaiertzean; eta horra hor berriz bideari ekiteko gertu. Denborarik galtzerik ez dago. Hasiak dira, zurrunbilotan agertzen, lehendabiziko maluta arinak, elurte gaitzagoen aintzindari. Betzainek eta zakurrek abereak akuilatzen dituzte. Senak, bestalde, hamar mila urte horretan jarraitutako bideari eustera bultzatzen ditu ipar-orkatzak.

Horrela bada munoetarik lur behereetara (hemen dena pinu eta urki) jeisten dira abere-taldeak. Berehala gertu egongo dira berriz beren hesigunean.

Ipar-orkatza, horrela, zabaleta haundien adiskide, hesien atzetik ari da jiraka. Orkazkumeak etsipenean deitzen dituzte beren amak. Ar gazteek amorruz inarrosten dituzte beren buruak. Eta korapiloak adarren artean biltzen direlarik, urrutirago doa nahasketa.

«Ranking»en garaia iritxita, elkargandik berezten dira taldeak, urtean bi aldiz, usadio zaharrari jarraituz. Belarriaren mozkerari esker ezagu ditzake bereak jabe bakoitzak. Eta nahiz belaxeta zutik eta geldirik daudelarik botarik, ez dute oso bakanka Laizik hutsegiten harrapakizuna.

Abere-taldeetan egiten den hautaketa honek ez du norberaren alimaliak berezteko soilki balio; baina baita hazkuntza egitekotan, zein abere den on finkatzeko, eta haragitarako zein utziko den.

Batzuk margo-ikur batez markatzen dituzte, segidan akabatzekotan. Beste batzuk saldu egiten dituzte, eta horrela bildutako



Neguteko pausalekuetaraz gero, laponiarrek ba dute betarik merkaturik merkatu ibiltzeko.



Jende guzia oporretan dagoelarik, uztartutako ipar-orkatzen laisterketa izaten da neguaren ezagugarria.

Aldareruntz doan bikotea, agintzak egitera, adiskideak eta ahaideak dituzte lagun.



dirua zaharren eskuetan uzten da. Beste zenbait ipar-orkatz umegintzarako aukeratzen da, abere-eliaren arraza hobetzeko.

Belaxetez edo bistoz harrapatutako ipar-orkatza askatu egin daiteke, eta inguruan ibiltzen da taldea. Hesituretan gizona nagusi. Soinua haundia izanagatik ere, taxua ez da inoiz aldatzen.

NEGUTE-BAKANTZAK. «Ranking» delakoa bukatua denean, neguteko beren pausalekuetaruntz abiatzen dira, eta bakantzak hasten.

Kalera irtetzeko garaia heldu da, merkatu nagusi bila .Eta hara doaz, udaran eskuz pretatutako moldakinak eskeintzera. Aukera baliatu ohi dute kanpoko mundutik ekarritako gauza bitxiak miresteko eta erosteko.

Han beste laponiarrekin egiten dute topo. Xamarretan ageri diren apainduren bidez, emakumeek jazten dituzten enkajezko txanoen bidez, eta gizonen kapeloen koloreen bidez ere, berezten dute elkar leinuek.

Dendaurreetan denetarik aurki daiteke: oihal, larru, estalki, galtza, bota, xamar eta panpin.

Baina gizonek besterik nahiago dute ibilaldi alfer horiek baino: laponiar kirol jator bat: ipar-okartz-laisterketa, beroiek lera arin azkarretara loturik.

Eztai aroa ohi da ere negua. Laponia guzian barrena entzun daiteke kanpai-hotsa. Adiskideak eta ahaideak biltzen dira bikotearengana, eta denak batera iristen elizara. Ezkongaiak multzoaren erdian datoz.

Zerimonia bat baino areago zaio ezkontza laponiarrari. Agintza bat da etorkizunari buruz, familia berri baten hazi eta jatorria ere bada: eta honek gero nomadismoaren ohitura prestuari atxikiko dio.

Ezkonberriek bizimodu berri bat hasten dute. Elkarri emanak, eta asabengandik jasotako ausardiak bizkorturik urtezaroen erronda aurrera jarraituta, mendi-aldera aguro jotzeko unearen zai daude. Berriro ere, ipar-orkatz taldeak bezala, entzun egingo du deia ipar-orkatzaren herriak, eta beste joanaldi bati ekingo dio.

Bakardadean horren luzaz egon ohi den herri horrek, oso gogoko ditu neguko bilkurak.





ESKUALDE GARAIAK

Eskozia-ko pitxia

Itxura zabarra du herriko kale bakarrak. Dirudienez, bi teilatu-zerrendek hodei ilunez osatutako zerua garraiatu bide dute. Azken euri-jasaren ondoan, diztira egiten du orandik galtzarako arrimu xahar leunduak. Baina kaleburuan gizon bat agertu da, gaita bat zintzilik; eta, bapatean, haize lanotsu hartan, bajoaren burrunba pleini etengabea sortu da, aide alai baten nota arinen sustrai gor gisa. Bakar baten txaranga horretan, ibiltari guzien bihotza hunkitzen du gure gizonak, eta ba dirudi soinu horren giroan, hodeiak berak deuseztu egin direla. Eta horra hor eguzkia, Eskualde Garaietako ostarte ezagun horietako batetan; eguzkia berriz diztiratzen ari.



Eskualde Garaietan eztai bat ez da benetakoa itxuraz, gaita bat eta honen soinu-jotzailea lagun ez baditu.

GAITAK ETA TARTANA. Eskualde Garaietako (Highland'etako) eskoziarren belarrientzat ez dago soinu atseginagorik gaiten kantu itun eta jarraikia baino. Antzina herri bakoitzak, etorki bakoitzak ere, bere gaita-jotzaile talde berezia zeukan, horretara emana. Hau gabe ez zegoen ez jairik ez benetako gudaldirik. Musika bitxi horrek leuntzen zituen nekazarien lan gogorrak, eta jasangarriago egiten munoetan barrena galdutako artzainen bakardadea.

Gaita ez zen Eskozian jaio. Eskoziarren arbasoek Irlanda-tik hartu zuten; baina irlandarrak berak ez dira gaitaren gurasoak. Egia esateko, lehen-lehenengo gaitak Kaldea zaharretik heldu dira, orain dela sei bat mila urte. Artzainen xirula xinpleari, agure azkarren batek larru-moltsa edo hauspo bat erantsi zion, aidearen gordailu, eta horrela hasi zen aldakuntza: jatorrizko soinu-tresnatik Pan-en txistura pasa ziren. Organoa agertu baino lehenago, maiz erabili ohi zen gaita-soinua irlandar elizetan.

Baina gaita inun baino areago itsatsi eta etxekotu zen Eskualde Garaietan: gure egunetan beretan ez dago herririk gaita-jotzailerik ez duenik; ezta haren musika berezia entzun gabetanik gertatzen den eztairik. Edonun, edozein kale-kantoinetan, edozein etxe-ondoko lantegitxotan, artesano zahar bat topa daiteke, lanean ari, eta bere aprendizari gaitagintza zaharraren eskola erakastekotan.

Gaur berton ere Eskualde Garaietako soldadu-errejimentu guziek dute beren gaita-taldea, eta hauen zuzendaria Edinburgoko Gazteluan ikasia da. Aspaldiko gatazka askoren patua, aurrera jotzea erabaki zuten gaita-jotzaile ausartek itzulikatu zuten, zentzuak atzera egitera bultzatzen zuelarik.

Horra hor gaitari dagokiona.

Mintza gaitezen orain «tartan» delakoari buruz. Irlanda-tik zetozen lehenengo eskoziarrak iritxi zirenean, denak zijoazen gutxi gora-behera modu berean jantzirik. Baina gero, etorki eta klan bakoitzean nork bere burua berezteko gogo bizia hartu zuen —baita beharbada adiskideak eta etsaiak aisa ezagutzeko beharra— eta klan edo leinu bakoitzak ezagugarri bakar bat hautatu zuen bere oihal-marrazki eta laukizko margoetan. Hauxe da «tartan» deritzana, gaur berton ere hertsiki eta goratzarre merezi lukean eran errespetatua.

Nazio-jazkera jatorrean «kilt» delakoa da denetan ezagunena: gona motza eta tolosturatua, bide zailetarako txit erosoa. Orain jaka bat eraman ohi dute eskoziarrek «kilt» arekin batera. Antzinako beroki txikia, lehenago kapa gisara erabili izana, «plaid» delakoa bihurtu da gaur: txal baten antzekoa, ezkerraldeko soinburuan eraman ohi da batzutan. «Kilt»ak poltsikurik ez duenez gero, gerritik soka batez zintzilik eraman ohi du eskoziarrak «sporran» deritzana; eta buruzagiak «tam-o-shanter» deritzan txano xarmanta.

Nor dira jende hauek, aspaldiko jazkera bitxi eta xahartu horri horren harroki atxi-

kiak? Eskualde Garaietako eskoziar gogorrak dira, ondoko lerroetako mintzagaia.

Egiazki, Mendebaldeko Kulturari utzi dion ekarriaz, harrosko dago Eskozia. Ba ditu unibertsidade haundiak, erakustokiak, liburutegiak, eta Midikuntza-Ikasguak. Mundu guziak ezagutzen du, era berean, haien industria eta merkatalgoarengatik. Eskozia-ko ontzitegi modernoetan egiten diren ontzi dotoreak, haren ospearen mezulari ezin hobeak dira munduko itsasoetan barrena. Baina eskoziarrak, beren teknikabideez harrotzen badira ere, areago daude harro, eta barnetiago, beren folkloreaz.

Highland eta Eskualde Garaietakoek, izpiritu-nagusitasun garratzak ekarria, tradizinoarekiko senditzen duten atxikimenduak etsaigoa ere sortzen du batzutan Eskualde Behereko biztanleekiko. Hauek Eskozia-ko Ekialdeko lur oparoetan bizi dira. Halaz ere, Eskualde Garaietakoak lekurik hotzenetan gogorki iraun arren, hauetxek dira eskoziar tradizinoari lotuenak.

PIKTOAK ETA ERROMATARRAK. Orain dela 2.000 urte Julius Cesar-en erromatar lejioek britaniar ugarte haundiaren okupazioa hasi zutenean, Eskualde Garaietako populuak ba zuen izen haundia eta ongi plantatua. «Picto» zeritzaten (alegia: «pintatuak»); eta nahiz meheak eta txikerrak izan, gudari-izakerak ezagutaraziak zituen gehien bat. Lurpean moldatzen zituzten bizileku arkaikotan bizi ohi ziren. Beren balentriak ez zituzten beti asmo onaz egin ohi; eta horrela inguru haietan iratxo eta sorgin mordo ugari bat sortua zuten, oraindik ere Eskozia-ko baserritarren artean bizi-bizirik.

Erromatarrek etsi egin zuten piktoen menderatzeari dagokionez, eta Hadriano enperadorearen errege-aldian murru eskerga bat eraiki zuten uharte guziaren zabaleran, leinu gudazale haien bidea hesteko. Ba dira oraino zutik «Hadriano-ren murrua» ren arrastoak, antzinako eskoziar haien izpiritu-askatasunaren lekuko.

Beren Eskualde Garaietan bakarrik egon balira, ba liteke piktoak zoriontsu izatea. Baina ez zen hala gertatu. Zeltak Inglaterrako Iparralderaino igo ziren. Eskoziarrak, Irlanda-tik etorriak, Mendebaldeko itsaser-



Aspaldiko denboretan aldatu ez den arte bat da gaitagintza.



Erosle bat dendan gaita saiatzen ari.

Picto-ak uxatzeko eraiki zen murru hau Hadriano enperadorearen errege-aldian.





Egina! Eta eskukada batez sinatua.

tzean barrena topatu zituzten uharteetan. Noruegatarrek kostaldeak eta uharteak hartu zituzten, baita zenbait aldiz bertan geratu, beren lege-bidea onhar-araziz.

Mila urtez iraun zuen gatazka etengabe bat izan zen, noruegatarrak eta eskoziarrak gudari bortitzak bait ziren, pikto etsai burrukalarien beren pareko.

Azkenean elkartzea erabaki zuten gudari-leinu azkar haiek, eta, piskanaka piskanaka, gudu-mende askoren buruan, herri bakar bat osatzea. Ez ziren liskarrak eta istiluak hala ere bukatu —klanak elkarren artean—. Eskualde Garaietakoek kondatzen dituzten istorio gogorrenetan, klanen eta etorkien arteko etsaigoak eta hilketak aipatzen dira. Eta oroitarririk errespetatuenak zenbait gudaketaren lekuko dira, edo haietako gizaurenen hilobiak.

Gaur egun, burrukarik eta liskarrik gabe isurtzen da bizia Eskualde Garaietan, musika aurretik doalarik. Gaur txit bizimodu liferentea darama nekazari apalak, bakardadean bai etxolaren barruan bai etxolatik at, landa hotz eta lanotsu haietan ahariak zaintzen ari. Eskuarki ba ditu ere idi-behi batzuk. Nahiz Highland-etakoak, ile luze eta latzekoak, ez oso azkar hazi, eta nahiz horien haragia ez oso mota onekoa izan, ba dute beren balioa halere: ahariak belardi hobetan alatzen direlarik, behiek belar gogorragoak jaten dituzte.

Ahari-ileari esker bizi dira Eskualde Garaietakoak. Eta Eskozia-ko Ipar-Mendebaldean dauden Hebridak dira lekurik egokiena horretarako —bai itsas-hegiko ugarteak, bai itsaso-betekoak—. Horietan jarrai daitezke ongienik ile-moldakuntzaren aldi guziak: ile-mozketatik has, eta soineko baten prestaeraraino. Eskualde Garaien parte bat direla dirudi —parterik bakartiena, hain zuzen—. Bisitatzaileak bederen hori uste du bazter lazgarri eder haietara iristean: itsaso nahasian galduak direla deritza.

Mendebaldeko Hebrida horiek, bestalde, ez dira Eskualde Garaiei geologiaren aldetik soilik lotuak. Ia osoki atxiki dute, bakardadeari esker, zelten ondasuna. Atze-

«Puffer»a laister heldu dela jakitean, baserritarrak bere gurdia prestatzen du.





Zola laueko «puffer» bat, Eskozia-ko hondartza batetara maribeherak eramana.

rriarekin duten lotura bakarra «puffer»ak dira: alegia, zilindro bakarreko motorea duten ontzitxoak.

«PUFFER»A AINGURATURIK. Oso kai gutxi dago Hebridetan, egia esateko. Zenbait uharte txiki malkortsutan ezta bat ere.

Hori dela-ta, arrokarik gabeko hondartza bat aurkitu behar du «puffer»ak, bertara marigoran iristeko modukoa. Zola lauari esker, hantxe pausatuko da lasai maribeherakoan itsasoa txikitzean, eta kapitainak beta aski izango du hurrengo marigora artean lehorreko eginbideak burutzeko.

Baserritarrak, bestalde, ba duke denbora oparo bere gurdia lotzeko, baita zaldia gostuan maribeherak azaldutako hondar leun aratzean barrena bere gisara ibil dedin. Marineleria, bere aldetik, lasai jets ditzake gurdira ontzitik zuzenki, ekarritako baliakinak. Batzutan marineleriak ez du beste eginkizunik kaian garaiz hara bihurtzekoaz besterik. Horretara, hurrengo marigora arteko hamabi orduak kalakan pasa ditzakete, azkeneko berriez mintzatuz, eguneko gertakariak aipatuz, edo —zergatik ez?— lehorrean bazkari on bat prestatuz.

Etxola askotan emakumeen lana da fameliaren diru-irabazpide nagusia. Gizonezkoak tratuan ari ohi dira, kabalak saldu nahiz, edo-ta abere-taldeak munoetan zainduz. Batzuk arrantzara doaz oraindik, naiz arrantza-industria gain-behera joan azkeneko urteotan.

Baina «Harris Tweed» famatua da uharte hauetako industriarik haundiena. Baita, bidezko harrotasunez, batzorde berezi bat sortua dute. Eskozia-ko artilez egina da «Harris Tweed» delakoa. Bertako biztanleek eskuz, eta beren etxeetan (Lewis, Harris, Ulust, Barrs eta gainerako «Itsaso Zabaleko uharteetan») harildua, tindatua, ma-

«Puffer»eko marinelak merkantziak baserritarraren gurdira jesten ari.



naiatua eta iruna da.

HARRIS TWEED. Egia esateko, Harris ez da benetako uharte bat. Lewis eta Harris deritzan uharte luze baten erdia baizik. Uharte honek bi konderri ditu, eta maiz «Uharte Luze» esan ohi zaio; baina «Long Island» izenaz esan ohi da, era berean. Itsaso-Zabaleko Hebrida-Uhartedia.

Ba dirudi huts baten ondorio dela «tweed» hitza. Orain dela ehun eta berrogei-ta-hamar bat urte, eskoziar industrilari batek «twill»-keta bat bidali zion londondar merkatari bati. Hots, «twill» en eskozierazko kidea «tweel» idazten da. Garai hartan ez zen ezagutzen idaz-makina, eta merkatalgo-gutuneria eskuz idatzi ohi zen. Hau dela-ta, ortografiazko hutsak ez ziren urri... Hori dela bide, londondar enpleatu batek oker irakurri eta «tweed» ikusi uste izan zuen (ez «tweel»). Eskozia-ko oso ibai ezagun baten izena horixe izanik, biziki gogoangarri iruditu zitzaion, baita beste anitzi ere. Oihala «tweed» gisa saldu zen. Gaur jende askok uste du zuzena dela izen horien kidetasuna.

Izenari dagokionez zernahi den ere, ospe internazionala hartu du «Harris Tweed» ak. Batzuen ustez, zeltengandik etorri da iruteko antze hori.

«Harris Tweed»aren eskaera hain da haundia, eskeintza ez dela sekula aski... eta eskabideek itxaron egin behar dute, zerenеta uharteotako herri harroskoak ez bait du hargatik ere fabrikabidea aldatuko. Lehen bezalaxe egiten da gaur ere «tweed»a: ba-



Nekazari bat «crottal» izeneko goroldia biltzen ari, tinduak prestatzeko.

serritarraren etxolatxo bakartietan. Eskuarki, emaztekiek iruten dute oihala, antzinako tresneria berbera erabiliz gutxi gora-behera; alegia, fameliako lagunentzako aski zen huraxe.

Garai hartan bertako ahariak ematen zuen behar zen artile guzia; baina gaur bere horretan ez litzake inolaz ere aski izango. Eskualde Garaietako muno harkaitsuak ez lirake gauza izango behar lirakean ahari-taldeak bertan elikatzeko. Eta, hau bestela balitz ere, uharteetan ez litzake behar hainbat ahaltzain atxemango. Hori dela-ta, Britania Nagusitik ekarri ohi da artilea, garbi eta garbaturik, «puffer» delakoetan.

Emakumeek banan-banan iruten dute ar-

Jatorrizko tinduak irakinaz lortutako saldan murgil-arazi ohi da artilea.



Famelia-eskola bat da «Harris Tweed»aren irutea.



tilea, gehientsuek goru zahar kirriskatzaileetan. Artilea prestaturik erosten dutenek bakan batzuk besterik ez dira; eta, honetara, «eskuz iruna» etiketako salmentako herrenkadetan ez da artile-mota hori agertu ohi.

Noski, artilea irun aurretik tindatu egin behar da. Tindaketaren teknikek, era berean, bertako tradizinoaren parte bat dira, baita tornuak eta goruak ere. Egiazko «Harris Tweed» etan ez dago sintesi-kolorerik: landare-tindu naturalak besterik ez da erabiltzen, batez ere marroi ilunak eta urdinak. «Crottal» deritzan goroldi batetik datorren tindua da erabiliena, eta marroi gorriskak ematen ditu. Harkaitz agirietan itsatsia sortzen den liken bat du oinharri. Eguratsean eta orbelazko su usaintsuaren gainean irakiten da uretan. Urdinak lortzeko, sabrikapikorrak edo masustak irakin-arazten dira gatz kiratsetan. Bestelako sustrai, goroldi eta hostorik ere erabili ohi da prestaketan, beti ere beroiek uretan irakinez. Horrela lortutako tinduan bustitzen da gero artilea, nahi den kolorea osotara hartu artean. Gero xukatu egiten da artilea, geroago garbitzen eta azkenean lehortzekotan hedatzen.

Ehuletegian tinkatzen dira orduan hariak; eta emakumearen oinak behatzen araberako abiadan hasten lanean, tuta abiarazten eta hariak estekatzen.

Gorutik ateratzen den «tweed» landugabe hori latza eta gogorra da. Leuntzeko eta haren plegua emateko, oihala tinkoa izan dedin, azkeneko operazio bat behar da: «waulking» delakoa, bolaketa edo zapalketa. «Waulk» ez da «walk» hitzaren (=ibil) eskozierazko idazkera besterik. Eta hala da izan: antzina oinaz zapalduz leuntzen zen oihala. Egun bereon ere «walking» deritza lan horri zenbait eskualdetan. Baina, gehienetan, makinek egiten dute gaur lan hori.

Zenbait aldiz, halere, tradizino-lanbide hura erabiltzen da. Kasu horretan, ozta ur xalbointsutan oihala blai-blai jarri da, mahain zabal batetan zabaltzen da. Honen inguruan eseritako emakumeek marruskatu egiten dute oihala, eskutik eskura iraganez, eta egiazko ore bat balitz bezalaxe eskuztatuz. Mogida ritmiku bat emateko —baita eginkizuna eramangarriago egiteko— zapalketaren kantua ematen dute; eta gaelikerazko abots zorrotz haiek barnetxo iluna betetzen dute.

Bolaketa edo oin-zapalketaz leundutako oihala lehortzera hedatzean, «tweed»a txikitu egin da, laburragotu, baina baita sendotu ere. Oraindik heze dagoelarik, hestu-hestu hariltzen da kuzkur baten inguruan. Horrela ttentte gelditzen da oihala, eta ez da behar baino areago txikitzen. Ba dugu gertu bidaltzeko, eta Britaniar Elkargoan eta mundu guzian saltzeko.

«CEILIDH» DELAKOA. Gaua etortzean ehuletegiko goruen eta tornuen zurrumurrua isildu danean, batzutan «ceilidh» bat muntatzen da («kéli esan). Jai gaeliko jator bat da. Mendebaldeko uharteetan eta Eskualde Garaietan beretan garrantzitsuena. Herriska urrun bat baino gehiagotan topa daiteke «ceilidh»-etxe bat, ilunabarreko

Ehuletegitik ateratzerakoan, «tweed» delakoa oihal latz eta zabarra da.



Irun-berri den oihala leuntzeko emakumeek elkarrekin lanegiten dute mahain baten inguruan.



alai-aldietarako biltzar-leku. Nola ospa alaikiago urtemuga bat, «ceilidh-etxe» batetan kanta-saio baten bidez baino?

Izan ere, ezerk ere ez du berotzenago zelten bihotza kantuak baino. Egiazko altxor bat osatzen dute gaelikerazko kanta-zaharrek; eta edozein baserritarrek daki horietako mordo bat. Noizean behin, bakar batek kantatzen du, eta segidan talde osoak erantzuten kantaren leloa. Jakina; abotsak leuntzeko freskagarriak zerbitzatzen dira —teia emakumeentzako, «puffer» etako barrukietan ekarritako whisky on bat gizakumeentzako—. Dantza ere egin ohi da. Gizon batek «fling»-saio bat egiten du; edo-ta bi bikotek (edo gehiagok) «reel» alai bat hasten («fling» eta «reel» dira eskoziar dantza jatorrak). Beti ba da jatekorik ere-gomitatuek opa hainbat-eta kantuak eta umore ona ez dira eskas Eskualde Garaietako fameliabilkuretan.



Eskoziar dantza bat, ikusleen kantuez lagundua, ikuskari atsegina da.

OMIASAINDU (XI-1). Gazteentzako, beharbada Omiasaindu-bezperan egin ohi den jaia da denetan alaiena. Hauxe da, izan ere, Druida-Urteberriaren festa. Druiden eta baso sakratuen erlijioak tradizino eta usadio asko utzi du Eskualde Garaietan; eta hauen etorburua pikto-engan eta kristau bihurtu-aurreko eskoziarrengan bilatu behar da.

Omiasaindu-ko zerimonian xarma magiko bat erasten du druidak urtero urtero.



Druidek naturaleza gurtzen zuten, Eguzkia bereziki. Ongi egile gisa Eguzkia gurtzen zutenez gero, gaitzaren deabruek beren indar-gailurra neguteko gau luzetan iristen zutela sinisten zuten. Hau dela-ta, urteko azkeneko gaua zetorrenean —gure egutegian Urriaren 31-a, beraz— druida-apaizek muno-gainetan alimaleko sutzarrak irazekitzen zituzten, eta jainkoei opagaiak eskeintzen.

Botere gaizkileen kontrako jainkoengandik babestutzeko egiten zituzten zerimonia horiek; eta, sutzarrak itzali baino lehenago, guziak piztutzen zituzten gar sakratu haietan, jainkoaren babesa berekin atxik ahal izateko. Zuzi horietxek dira Hallowen-go eskutargien aintzindariak: itxura bildurgarritan moldaturik, gaitzaren izpirituak izuarazteko erabiltzen dira, baita beroiek ihes eragiteko. Gaur egun arbi bat hustuz prestatzen dituzte maiz eskoziar haurrek eskuargi horiek, beren gisara antolatuz: zeren-eta Eskualde Garaietan arbi-uzta betean bait daude Omiasaindu garaian.

Apaingarritzat hosto iharrak erabiltzen dira, bolara honetan naturaleza orriz biluzten delako. Ur-adarrak dira apaingailurik

istimatuenak, «aztien zuhaitz sakratu kuttuna»: zur honetaz egiten ziren makilatxo magikoak.

Alegiak dionez, urtea bukatzen den gau horretan, izpirituak eta giza-mundua berezten dituen oihala urratu eta deuseztu egiten da, izpirituak lurrera jesten dira, hilak beren bizileku-ohira bihurtzen pozkariotan; maitagarriak eta elfoak dantzara doaz ihesi; eta sorginak ikarak harturik, izkutuan batzartzen dira leku bakartietan, hilerrietan bereziki.

«Marka berezia» dutenek, egun berezi honetan soma eta uler dezakete etorkizuna, horretarako arrautza-zuringo bat uretan gesalduz, begiak kukuturik behatzak ontzi batetan sartuz, eta hazkurriek gau horretan eskeintzen dituzten magia-zantzuak oro ikertuz.

Zerimonia-buruak druiden soineko luze zuria jazten du, eta koroa gisa —hau Zuhurtziaren ikurra delako— haritz-hosto mordo bat darama. Ur-makilatxoa eskuan berak zuzentzen ditu jokoak: sagarrak biltzeko murgilak, soka-dantzak eta beste nolanahiko jolasketak. Makilatxoaren jirabira guziak Eguzkiaren abiadaren arabera egin behar dira, druidek egiten duten bezala; ez inolaz ere, sorginek bezala, itzuletara, egintza honek zoritxarra ekartzen bait du. Era berean taldeak ere, Eguzkiaren arabera egin behar ditu bere soka-dantzak. Hertsiki gorde den tradizionari jarraituz egiten da Eskualde Garaietan urteberriaren sarrera, zerimoniak eta guzti.

«CURLING» DELAKOA. Eskualde Garaietan golf-ean jostatzen da udaran; neguan, aldiz, eguratseko kirol kuttuna den «curling» delakoan.

Pertsona azkar eta sendoentzako jokoa da. Aide fina eta bortitza behar da, oso horma gogortua, soineko lodia, pontxe bero bat edo «scotch» botila bat. Hormak gutxi gora-behera 1,50 metrotako lodiera harrigarria iritxi duenean, dena gertu dago partida haundi bat hasteko. Jiraka bixi-bixian eraginez, jokalariek hogei kilotako harri leun eta zilindrikoak lerrarazten dituzte urmael edo laku hormatuaren gainetik. Halabeharrez han-hemenka ur-putzutxo bat agertuz gero, berehalaxe doa hara jokalariren bat erratza eskuan, hura garbitzekotan. Oso politak izaten dira curling-jokoan erabiltzen diren harriak, piko-harrian pikatuak eta kirten katez ornituak. Harri-mokor hauen gerta-bidea eskoziar industria jator bat da. Pikor-harri edo granitoa Firth of Clyde deritzan Aisla Craig uhartetxo garaitik etorri ohi da, hura bera ere curling baten itxurakoa. Uharteak pikor-harrizko monolitotzar malkortsu bat ematen du; eta honen holtzak aide presatuzko mailu batez puskarazten dira, mokorrak inguratzeko, eta hauek segidan ontziratzeko. Harri-puska landugabe



«Curling» harri-mokorrak prestatzeko, elektrikazko mailuz eta dinamitaz puskatzen da granito edo pikor-harria.

Pikor-harrizko pusketak, beren horretan, pilatu egiten dira aurrenik, ontzitara aurretik; eta gero lantegietara garraiatzen.





Eskualde Garaietako negu hotz bortitza «curling»-partiden aroa izan ohi da.

hauek jokorako prest daudenak baino pittin bat haundixeagoak izan ohi dira.

Gero Eskozia-ko bereko lantegietan pikatzen dira, oso galtzairu gogorrezko laban-gurpila baten laguntzaz. Gero arte haundiz esmeril-eztaran leuntzen dira.

Prestaera-aldi honetan barrena, baita ondorengo pulitzearenean —eta horretarako esmerila eta beste abrasibo-mota ezagugaitzak behar dira— ura bera erabiltzen da harrien lubrifikagarri eta freskagin gisa, igurztearen berotasunaz artezi ez daitezen. Erdialdeko partea, jokoan barrena kolpeak hartuko dituena beraz, ez dago leundua: eta horretara hauspenen eta pitzaduren aurkako babes-banda bat bihurtzen da.

Kirtena, zenbait aldiz marrazkiz apaindua, harria zeharkatzen duen abisa bati lotua dago. Harria higatzen denean, edo erabiltzearen ondorioz hobentzen, kirtena alderdiz aldatzen da, eta harria beste aldeko aurpegiaren gainean lerratzen da. Ez dago eskoziarra ezer aisa alferrik galtzekotan! Eta nola edo hala atarramendurik haundiena lortzen du denetatik.

ARRENKEA. Noski, hau denen kontua da: bai lan horretan ari direnena bai ez direnena. Ezen eskoziar askorentzat arrenke-arrantza da bizibide nagusia, baita belaunez belaun arrantzaleak utzitako ondore bat. 709-gn. urteko izkribu zahar batetan, lanbide errotu baten gisa aipatzen da arrenkearen arrantza.

Arrenke-sardak edo saldoak Eskozia-ko itsasertzean gaindi hedatzen dira, urtezaroen arabera tokiz aldatuz. Egia esateko, urte guzian zehar egin daiteke arrantza hau, nahiz harorik egokiena udara izan.

Curling-partida batetan, bi jokalari hormaren gaina erkaztatzekotan, ageri den ur apurrak harri-mokorren abiadura tenk eragin ez dezan.





Ilunabarrean, arrenke-arrantzaleak itsas-ertzeruntz.

Eskoziar udarako ilunabar hodeitsu luzakorrean, diesel-motorea duen ontziak itsaso nahasian barrura abiarazten du bere branka, arrain-saldo bila. Urak esne-itxura hartzean, edo antxetak zeruan inguruka ikustean, arrenkea bertan den seinale.

Izaki ñimiñoz osatutako plankton-a maite dute oso arrenkeek, eta honengatik ura esnea bezain zuri agertzea batzutan. Gauez arrenkeak planktonerako kutixia ezin gogozago jatera gainaldera igotzen direnean, antxetak ere orduantxe eta hantxe jaurtitzen dute beren burua arrenkeen gainera.

Arrenke-saldoak aurkitzea zail da, beren nagusi-tamaña hartzerakoan ikusmenetik gerizatzen dituen kolore bat hartzen dutelako. Itsas-ondotik, arraintzar harrapakariak ez du ezer berezten ahal, pantaila zuri zilarraide bat baizik, eta zerutik iragazten den argi-zirrintan arrenkeen sabel zuriak dir-dir ari. Arrantzaleak aldiz, goitik, bizkar urdin-berdeak besterik ez du ikusten, eta hauek itsasoko kolore aldakor eta urdin-berdearekin ere nahasian. Janari bila gose diren antxetek ez bestek errepara ditzakete arrenke-saldo trinkoak, ur-gainaldetik hurbil direnean, albistea oihu zorrotzez barreiatuz.

Sareak hedatzeko unea etorri da. Arrantzaleria guzia erne, hautatutako lekura iristean kapitainak motorea itzaltzen du, eta bordagainetan botatzen aidera sare-mordoa. Hau sare-sorta luze bat da, soka baten bidez balizatua eta lotua; eta kilometro pare batetik gorako murru bat osatzen. Luzera honetako sare-multzo batek hirurogei ta bat sare-atal ditu, eta hauetako bakoitzak lau metro t'erdi. «Buffles» deritzan oihalezko flotaginei esker beti ur-gainean.

Arras geldi dago orduan motorea. Ontzia olatuen arabera bere gisa ari da kulunkan. Hau dela bide, «drifter» esan ohi zaio (inglesez libroki eta norarik gabe kulunka joatea «to drift» esaten delako). Ontziaren atzetik seinale bakar batek salatzen sareen egona: olatueetan kulunkatzen diren «buffles»en zirgilu zurien herrenkada luzeak. Gau urdinskan, itsas-haize hotzek balantzarazten dute ontzi apala, eta marinel-jendea izoztutako haizez besarkatzen. Baina arrantzaleak «buffles»-ei so daude erne. Noiz-edo-behin, gizonen bat loak hartzen saiatzen da lipar batez, gogorrena eginkizun dagoela dakielako. Hobe, ordea, eustea eta eguraldiaren gora-beherak ongi jarraitzea, zeren-eta, ekaitz-gau batez, neke bait litzake oso itsasertzerainoko 50-80 kilometroak burutzea. Hobe da ere sareak arretaz zaintzea, arrain-saldo baten etorrera zakarrak sareak porroka ditzan bildurrez.

Froga egiteko sare bat ateratzeko agindua eman du kapitainak, eta bepuru tinkoen azpian alaitu egin dira haren begiak, sarea gainezka beterik bait dator, zilarraidezko zama aztuna eta asaldatua barnean daramalarik. Egiazko lana sareen multzo osoa altxatzeko agindua ematen denean. Ontzi-bizkar busti eta labainaren gainean, zenbait aldiz zura hausteko zorian itxuraz, gizonak makurtu egiten dira sareak erabiltzeko; eta blai egindako sokak, eta arrain izkutuen zamak aztun bihurtutako sareak, hauen esku nagituetan lerratzen dira.

Betebehar lantsu honek anitz orduz irauten du. Batzutan, udaran eta itsaso barean,

aski dira hiru ordu, arrantza hori biltzeko. Eskuarki lan etengabeko bederatzi ordu behar izatean dira. Eta zenbait aldiz, ekaitzaldian, haize bortitzak bai gizonak bai sareak inarrosten dituenean, sare guziak biltzeko hamabi ordu, are hamalau ere, behar izaten dira.

Nolako poza, halere, arrenkeen mordo gaitz eta zilarraidea ontzi-bizkarrean higitzen denean! Marigora baten antzera dardaratzen da bizi-bizi. Tranpa ireki, eta arrenke-saldoa ontzi-barrukietara erortzen da, Han kajen beteketa hasten da. Kajak errara metatzen dira, behereko arrainak gainekoen zamak zapal ez ditzan. Eta sareak banan-banan igo ala, zilarrezko hazta barrura doa eten gabe. Sarritan, arrainak berriz erortzen dira ontzirakoan uretara, zalaparta haundian; baina, ia eskierki, ontziari berari estekaturik dagoen sare bereziaren barrura erortzen ez badira, oraindik ere uretan zauden sareek biltzen dituzte.

Azkeneko sarea bildua izan denean, lana kitto da, eta motorea burrundaran abiatzen da berriro. Itsaso nahasian barrena hasten da orduan lehorrerako bidaia.

Arriskua ez dago halere guztiz baztertu rik. Argi ibili behar da kairako itzulera horretan; marinel horiek ez dira, gainera, salariatu hutsak, sozio baizik: bai galtzairetan bai irabazpenetan. Hori delata, kapitainaren kezka berbera dute marinelek ere; eta ez zaie itzaltzen arik-eta arrantza, lehorrera ondoren, saldua izan den artio.

Urte-zaroa eta eguraldia oso garrantzitsuak dira alde askotatik. Udaran gaudelarik, arrenkea koipetsuago izaten da beste urte-zaroetan baino. Honengatik, izotz-ezarengatik, fitetzago honda daiteke. Bestalde, freskoenak galestienik saldu ohi dira eta, tradizinoari beti jarraikiz, preziorik onena kaira lehendabizi iristen den ontziak lortu ohi du.

Diesel-motoreak, beraz, eginahaletan bortxatzen dira, eta ontziak zama bizi horren pean ozta-ozta agertzen dute beren burua itsasoko gainaldean. Ekaitz-hodeiak pilatu egiten dira, mehatxu ikaragarri baten zantzu; eta aski da motorea hondatzea edo gelditzea arrenke-ontzi hauek, sobera kargaturik, urak hartu-eta itsas-zolara joan daitezen. Baina horra hor, urrutian ageri, kaieko teilatuen begitartea ,lanbroan poliki argitan emanak. Eta ontziek bortua iritsi dutenean, gizonak arinduta somatzen dute beren burua zama aztun bat kendua bait lieten.

Eskualde Garaietako herriska eder bat, itsas-golko baten ertzean, arrenke-arrantzaren hiriburu.





SUIZA

Kondaira eta tradizino zaharrak aztertzen baditugu, Europa erregeen eta gazteluen lehordia dela erreparatuko dugu —baita guduen lehordia ere—. Baina antzinatik, arrazen, hizkuntzen eta erlijioen arteko liskar, istilu eta etsaigoa horien gainetik, eta aspaldiko erregetzen itzalean, demokrazia bat hozitu zen, gero indartsuago finkatua.. Demokrazia horrek gero ere bizidun eta emankor iraun du. Alpeetako holtze eta murru gaitz gogorren artean, ehun urte eta gehiago da bertako herriak bataila-orroarik entzun ez duela. Herrialde horren kondairaz mintzatuko gara segidan, helvetia-rren eskualde eder menditsuaz.



Kanpoaldeko mundutik babesten dute Suiza mendi-kateek.

LURRALDEA ZATITURIK. Oso erresuma txikia da Suiza, itsasorako irteera gabea, lakuz eta mendiz, haran berdez eta belardi bikainez, tontor gupidagabez eta uxol zalapartatsuz osatua. Alpeetako mendi-katea elurtsua bazterrei nagusitzen zaie. Suiza-ko zabalera, harkaitzez, horma-gailurrez, glaziarez, arrailaz, malkorrez eta holtze xutez beterik dago bere hiru bostenetan.

Murru menditsuen artean haran meharrak daude, edertasun-motaz eztiago, baina ez hargatik motelago edo xarmagabeago. Aldaparik leunenak pentze berdez estaliak dira. Uxolak ertz loretsuen artetik isuritzen dira diztiran; eta lakuetako ur geldi urdinak tontor goren haunditasuna biltzen du haien irudietan.

Behereko eskualdeetan, eta lakuen ertzean maiz, Suiza-ko hiri nagusiak daude: Luzerna, Ginebra, Zurich: denak xarmangarriak. Haran garaietan, mendi artean sakabanaturik daude herriska ñimiñoak, zenbait urte-zarotan hirietatik eta elkargandik berengandik ere berezirik. Jakina denez, neguan elurrak trabatzen ditu higierak oro, nahiz kaminoen multzoa bikaina izan, eta burni-bideek 5.000 km. iritsi. Beste urte-zaroetan, beren bizi-maila gorari eusteko lanegiten dute bertakoek, eta ez dute betarik aurkitzen beren herrialdean barrena atsegin-bidaiarik egiteko.

Hori dela bide, helvetiar ohiturak eta tradizionak —baita mintzaera bera ere— erruz aldatzen dira herri batetik bestera.

Suizan lau hizkuntza mintzatzen dira, eta horietatik batto ere ez da bertakoa. Lau hizkuntza horiez gain, beste hamaika hizkelgi dago. Romanxera, denetan aspaldikoena, ez dute erabiltzen %-1-ek baizik. Latineratik sortutako dialektua da hau, erromatarren garaitik honera ia aldatu gabea. Biztanleen hiru bosten, suiza-alemaneraz mintzo dira. Eta gainerakoak frantsesez edo italieraz. Herriarren parte haundi batek inglesez ere ba daki.

Suiza-ko parte bat katoliko da, bestea protestante. Kondairan zehar, herrialdea odolztatu dute mila erlijio-guduk; baina gaur denak bizi dira baketan, aberriarekiko maitasun sakon batek hertsiki elkartuak...

Goazen, beraz, menditarrez oratutako

herri hau ikertzera. Herriskako biztanleei lan-urtean barrena jarraituz, Suiza-ko herri guzietako bizimoldea zertsu den somatuko dugu.

HERRIKO BIZIMODUA. Hona hemen herriska *bat: postal-gai litzakean herriska* egiazko bat. Ez da harritzekoa margolariek eta fotolariek Suiza-ko herriska horiek hainbestetan hautatuak izatea, oso xarma berezia bait dute. Etxe-murruak, barneko paretak bezain dotore, artesano antzatsuek eta etxeko-andreek baizik eman ezin litzaketen artei esker. Edonun, teilatu-gailur gorak ageri dira, hauen aldapa gaitza da —elurra lerrarazteko— eta eskola haundiaz landuak. Leihoetan maiz dira ageri, apaingarritzat, zurezko ontziak; eta hauetan, maitagunez zaindurik, loreak ikus daitezke, jeranioak eta begoniak batez ere. Bestetan mahatsondo bat ari da goruntz, ondoko oholpanel gurutzamenduari atxikia. Etxeetako paretak ere erlijio-imajinez edo aspaldiko esaeraz apaindurik daude.



Urte guzirako izendatua izan den gazte batek zaintzen ditu ahuntzak.



Guarda, Suiza-ko herriska jatorra.

Apainkera barrutiaren araberakoa da; baina, edonun, gauza ageria da nork bere etxeari eta herriskari dion atxikimendua.

Dotorekeriak bitxi gertatzen dira herrian; eta baita gaurko konfor modernoa ere, gauza bakana. Lana eskuz egiten da, poliki-poliki, eta inork ez du denborarik galtzerik. Baita haurrak berak ere lanean ari dira; eta horietan lanpetuena herriko artzaintzat aukeratu dutena dela dirudi. Honek goizero, oso goizik, famelia bakoitzaren ahuntzen bila joan behar izaten du, inguruetan alatzera eramateko.



Suizar etxeak, oso apainduak, suizarrek zura lantzeko duten dohainaren lekuko dira.



Egunero belardi gizenetara eramaten ditu artzain gazteak ahunz-taldeak.

Egun guzian zaintzen ditu, noizpehinka zenbatuz. Zoritxarrez abere bat galtzen badu, arrisku guziak gaindituz ba doa ariniketan artzaina bilatzera, harkaitz xutetan barrena, abeltaldearen erantzule delako, eta bakar bat galtzea barkatu ezina izango litzaiokealako. Saritzat diru apur bat jasotzen du, fameliek txandaka eguerdiko oturuntza ematen diotela.

Garbiketa-egunetan, herriko enparantza-

Neskatilek udaletxeko labean hartzen dituzte ogi xamur beroak.



ko iturria udaletxeko garbitoki bihurtzen da. Ogia egosten den egunetan, kupula-itxura duen elkar-labeak ba du zabalerarik aski hiri oso bat elikatzeko. Emakumeek etxen bertan prestatzen dute orea; eta gero zurezko erretilu luzetan jarririk eramaten dute labera. Egun horretan haurrek ba dute zer eginik. Egurra eta txotxak ekarri behar dituzte, labe-sua mantenduko bada. Labealdi batek zenbait astez iraun dezake, eta ogiak ba du hurrengora arte horretan zura bezain gogor jartzeko denbora. Baina menditar haiek ogi horixe maite dute, eta usain



Herriko iturriaren ondoan, leku bizi-bizia da udaletxeko aska.

eta zapore berebizikoak dituela iruditzen zaie.

UDABERRI-JAIAK. Sukaldeko eta gobarako lana urte guzian barrena egiten da; baina beste eginkizun batzuk urte-zaroen arabera aldatzen dira. Urtea udaberrian hasten da benetan, epelaldiaren eta elur-gesalketaren zantzu gisa Hegoaldeko lehendabiziko haize-balak etortzen direnean. Mendi-mazelek beren azal zuria galdu ala, edonun ernatzen dira bapatean primurak, otso-belarrak, errostak eta beste.

Gorago leontopodioak daude, lore-hos-



Behiak mendi-larreetara eramatea, jatortasunezko kutsuz betetako zerimonia bihurtzen da.



Goiko larreetako belar gizen zaporetsu hau ezin maiteago du haziendak.

Ba du antxumeak joko-lagun bat: suizar muttiko hau.



toak balusa-aide; eta zenbait aste beranduago, herronka, edertasun harrigarria darion lore-estalki batez jazten dira mendimazelak.

Haunditasun ezinago eder horretan, jakina, udaberria iristen ikusteko gogo bizia nabaitzen dute bertakoek. Martxoaren lehenean, mota guzietako zintzilikarioak jazten dituzte haurrek —bai behiarranak, bai lera-ezkilak, bai uztar-zintzarriak— lepoaren inguruan lotuz edo bizkargainetik dilindatuz. Taldeko haziena hautatzen dute buru orduan, eta honek talde bitxi horren abeltzain gisa jokatzen du. Txikienek behiarena egiten dute; eta, zintzarri-hots alai eta sorgarri batetan murgildurik, kalejira bat egiten dute. Buru egiten duena, binbitartean, bere «abere-taldea» biltzen saiatzen da. Denek egiten dute oihu eta irri. Makilak hartzen dira eskuetan. Eta haurrek, esker-sari gisa, opariak, intxaurrak edo frutuak hartzen dituzte. Ezen —diotenez— zalaparta alegera horrek mendietako jainkoei gogorazten bait die udaberria berriz jaregiteko unea heldu dela.

Hiriek ere beren erara ospatzen dute udaberriaren etorrera, karrosa-ibilketaz. ihauteriz eta kale-jiraz. Zurich-en, enparantza nagusiaren erdi-erdian irazeki ohi da sutzar eskerga bat, urtezaro txarraren amai hirrikatua ospatzeko. «Boog» deritzan panpintzar bat da neguaren irudia, ezin itsusiagoa.

UDARA LARREETAN. Udaberria baita mazelarik gorenetan ere nagusitzen da, belardi lodiz estaliz: garaia da behiak alatzera eramateko. Zenbait haranetan famelia osoak aldatzen dira abere-taldeekin batera, eta larreetatik ez oso urrun eraiki dituzten harrizko etxolatan pausatzen. Batzutan, baita eskola-maisuak berak jarraitu behar ditu; zeren-eta ikastaro-adineko hamar haur elkarrekin gertatuz gero, suizar legeak beroiei eskolak egitera behartzen bait du erakaslea.

Baina haranik gehienetan, gure herriska barne, eginkizunak bertakoek banatzen dituzte beren artean; batzuk abere-taldeaz



Udaberriak behiei mendirako deia egiten dienean, zintzarriak kanporarazten dira berriz.

arduratzen dira; beste batzuk berriz esnezko janariez.

Era horretan, artzain banaka batzuk igotzen dira larre garaietara kabalarekin, eta hantxe zaintzekotan gelditzen. Besteek esnea biltzen dute, eta ètxe bakoitzeko produzioaren kontu xehea daramate. Beste batzuek gurina prestatzen dute, gazta gertatzen, eta kontu-liburuak segitzen. Udaratea bukatzean, denen artean eta leihaltasun osoan banatzen da produzio guzia.

Negua bukatzen, behiek estalbia uzten dute, eta ba doaz «alpe»-etaruntz (Suizan «alpea» ez da mendi-katea, mendi-gailurretako larrea baizik). Herri guziak festa-kutsua hartzen du, eta abereak berak lorez apaintzen dira. Herriko erretorak behin eta berriz ematen du bere bedeinkazioa, aberetaldeak udarako larreetara ari. Ba da beti inguruan soinu-jotzaileren bat, eta batzutan musikari batzuek batera laguntzen dute alaitasun-giroa sortzen. Kanpaiak ere bà dira; ez bakarrik behien zintzarriak, baina musikaren arabera eragiten diren kanpaiak ere; eta Tiroldar-eresien kantariak ez dira inoiz falta.

Larreetarako bidean ohiturako behi-talka egin ohi da. Ez da zaila izan ohi behiak elkarren kontra axatzea, eta irabazlea taldeko erregin izendatzen da. Aurkari guziak baztarrera bota dituenean, lore-girlandaz apaintzen da, adarren artean erregetasunaren ezagugarritzat jeits-aulki bat ezartzen zaiolarik.

GAZTAREN PRESTAERA. Herrian utzi dute artzainek gaztaren prestatzailea, ofizialki hautatua eta bertakoek pagatua. Hau herriko bihitegian jarri da, bere laguntzaile eta tresneriarekin (hau beti arkaiko eta xinple). Behiek ematen duten esnea eramaten diotenean, lehendabizi gaina kentzen dio, gero eragin egiten du gurina egiteko, eta xerra loditan metatzen. Bere laguntzaileekin, gazta jasoko duten gupelak garbitzen ditu, gainik gabeko esnea ontzi haunditara isurtzen du, gehigarri bat erasten gatzatzen laguntzeko, eta horrela gazura arin urtsuaren berezketa erraztutzen du.

Behar den epea pasata gero, zapi bat, ez oso trinkoa, sartzen da ontzian, eta bortiz-

Esnea eta gatzatua berezteko, ontzi haunditan eragiten da gaztaren orantza.



Gaztak maneatu ondoren, etxabeetako apaletan jartzen dira lehortzeko.



ki eragiten da gazura baztertzeko. Gero oihal-puska hori ateratzen da, eta gatzatuan ez da gelditzen gazura-arrastorik. Zapaldu egiten da orduan horrela lortutako gazta zurezko moldetan, eta bertan behera uzten da.

Eguneztuak eta markatuak, zurezko moldetan ezarriak, etxabeko apaletan ipintzen dira gaztak, eta hantxe uzten dira urte-zaroa bukatu arte. Eta orduan esnea ornitu duten behi-jabeen artean partekatzen dira.

SEGAKETA. Suizak ez du laborantzako lurralde txiki bat baizik. Hori dela-ta, ezina da landua ez den tarterik batere uztea. Mahastiak aldapan gora itsasten bide dira, kilometro batzutan barrena doan zurezko ubidetxo baten bidez ureztatuak. Artalandak, garilandak eta belardiak ageri dira munoen mazeletan.

Patar horietan, desberdin eta mehar, laborantza-mekanika modernoek ezer gutxitarako balio lezakete. Horrengatik, atxurraz lantzen dute gaur berton lurra Suizarrek, belaunez belaun erabilitako lanbide baten arabera .Luzea eta lantsua lana, famelia guziak batera egina. Egia esateko, nekazariek ez dute beste inun etekin hoberik lortzen.

Udararen bukaeran, segaketa-aroa dator. Larreetaruntz abiatzen dira famelia osoak, kirtena luze eta muturrean sega makurra duen tresnarekin; eta saskiak anuz bete-beterik. Belar-uzta hau izango da neguan zehar hazienda guziaren hazkurria: belar-izpiak oro ezinago istimagarri. Belar-sortak gurditan metatzen dira, sokaz gogorki estekatzen, eta gero zaldi iaioak han doaz, aldapan beheiti, herriko barruki zabaletaraino.

Berehala datorkio gariari bere sega-aroa: moztu egiten da, sortak moldatzen dira, eta gero haizatu egiten da oso lanabes zaharren bidez. Garbitu egiten da orduan alea antzinako ur-errotetan. Hemen, zurezko txirrita-hortzen garrasi zorrotzari, mastaren zaratari, zakutan eta saskitan biltzen ari den alearen zurru-murru leuna erasten zaio. Uzta ona izan da. Eta horrela, errotariarekin ordain-saria moldatu ondoren, famelia bakoitzak ba duke ondoko elur-hi-



Belar usaintsua pilo haunditan biltzen da, eta herriskara garraiatzen.

labeteetan ogia egiteko behar duen irin-keta.

ARTALDEEN ITZULERA. Gaueko ortzean, herriaren gainetik, mendiak islatzen dira, itzaltsu eta bildurgarri.

Eta han goian, pausagune malkortsu

Belarrerakoan famelia guzia doa mendira, segak lagun.





Haran zabalak betetzen dituzte beren marruez alpetar turuta hauek.

hartan, alaitasunezko su batek diraki. Bertakoak betestera bildu dira. Artean suzko bola bat lerratzen da agirreetatik, bere gar urrezkoak zipriztinak zabalduz. Heldu diren seinalea da.

Biharamunean, arratsalde erditsuan, aidea kanpai-hotsez betetzen da bapatean. Behiak herrira hurbildu ala, ozenago egiten da soinua. Beheretik, haranetik, abereen irudia ikus dezakete bertakoek, zeruan ageri, marruka eta bultzaka, benetan iristeko gogoa balute bezala.

Herriko kantari-taldeak artaldearen itzulera ospatzen du famelia-kantu zaharrez.



Berehala entzun daiteke haranean Alpeetako turuta-orroa burrunbatsua. Zurezko musika-tresna honek, adar luzeska eta makur baten tankerakoa, suizarren bihotzei txit atsegin zaien soinua hedatzen du. Dei hori dela bide, herritar guziak biltzen dira, artaldearen itzulera behar bezala ospatzeko. Haurren garrasiak, nagusien farrak eta txaloak, behien marruei eta arranen txilingari erasten zaizkie. Artean burruka-saioak eta horrelako joko ikusgarriak eratu dira; eta, zalaparta horretan gailen, mutilen abots gazteak entzuten dira.

Eskuarki mendi-jai bat antolatzen da, dantzaz eta kantuz ornitua. Gero gazta-bila joaten dira etxabeetara, eta fameliei banatu aurretik, dastatu egiten dira.

Uztaroa jai egiteko aitzekiarik egokiena izanik, ez ote da bada artaldearen ekarria gazta hori?

Alasa-zoletatik festa-soineko zaharrak ateratzeko unea etorri da horretan —ederki brodatuak, batzuk txano ederrez eta maskara dotorez osatuak—. Zuzizko kale-jirak eratzen dira. Herriko enparantzan egiten da dantza; eta egiten ez dutenak, dantzan ari direnei so entretenitzen dira. Ba daude ere jinasia eta kantu-txapelketak, baita nolanahiko antze-jokoak. «Hornussen»en jokoa, esate baterako oso da herrikoia. Behin egiten da bakarrik: segaldia amaitzerakoan, soroak libro eta hutsik daudelarik. Kautxuzko pilota haundi bat talde aurkariaren atera joan-arazi behar da lizar-makila luze bat erabilitz. Jokoak indarra eta mogimenduen azkartasuna izatea eskatzen du.



Guarda-ko jaietan, beren folklore-dantza alaiak egiten dituzte herriko biztanleek.

NEGUTEKO HILABETE LUZEAK. Sega bukatuta segituan, lanoa heldu da. Hostoak oriska bilakatzen dira, eta haize izoztuen etorrerarekin batera erortzen. Berehala pilatuko dira mendi-mazeletan lehenengo elurretan. Herriskak bere negu-soineko zuria jazten du, eta biziaren abiada moteldu egiten da: opor-aldi bat da negua.



Negua etorri baino lehenago, edertasun berri batez apaintzen du harana. Edertasun igarokorra, ondikotz!

Baserriak eta larreak elurrarengatik bazterturik daudelako, baserritarren arreta etxeko lanetara biltzen da. Etxe bat baino gehiagotan gorua lanean ari ikus daiteke, oihal lodi bat irutekotan. Leiho-egi batetako geldieran, josteko orratzen tikitaka entzuten da; eta nun-nahi, josleen behatzen artetik, hari diztiranteak marrazki baten arabeskoa zeharkatzen du.

Era berean, laban zorrotzak ebaki-berria den zurean sartzen dira: gizonak zura lantzen hasiak dira, jostailuak eta kutxak egiteko. Haurrak berak ere neguko egun luze horietan, lanean ari dira: josten, modelatzen edo margotzen. Eguberri heldu! Eguberri: urteko festarik ederrena. Eta suizar etxe guzietan ekintza gaitza dago. Opaltzeko jostailuak behar dira prestatu, hirian saltzeko.

Garai honetan usaintxo gozoa eta heldua darie sukaldeei. Labetik ateratzen di-

Neguan, fameliek zura lantzen dute, eta etxeko lanez arduratzen.



ren Eguberri-gozokietatiko urrina da; eta haurrak zirikaldi betean daude, pusketa bakoitza dastatu nahiz, itxuraz inoiz baino zintzoago eta zuhurrago agertu arren.

Egun horietan zintzo jokatzea oso inportantea da. Abenduaren 6-a Nikolas Saindua delako. Denek dakite: San Nikolas-ek (baita Santa Klaus deitua) haur onentzako opariak ekarri ez-ezik, zoritxarrez gaizki jokatu duten haurrentzako zigorrak banatu ere egiten du. Eta, kostata, bere bizar luze zuria eta soineko laxo zabalekin datorrelarik, ba dauzka beti gertu esku batean intxaurrak eta frutuak; baina bestean makilatzar bat dauka! San Nikolas-en atzetik zuriz jantzitako sehi mordo bat dator, maiz egundoko txanoz burua estalita, eta hauetan herri-biziaren eginkizunak irudituz. Han, txiki-txikitan, behiak larretara joaten ari mirets daitezke, gazta-prestatzaileak bere etxola-barruan lanean diharduela, aizkolaria zuhaitz bat ebakitzekotan. Batzutan, barnean ezarritako argizagi batek argituak agertzen dira ikuskarri horiek.

Suizarrek Eguberri-bezperan antolatzen dituzte Gabon-pinutxoak, argizagiz, sagarrez, intxaurrez eta gozokiz apainduz. Fameliak Gabon-kantuak kantatzeko biltzen dira, hauzoei eresi batzuk eskeintzeko, edo leran paseatzeko. Eta gero denak elkartzen dira elizan, oilar-meza entzutera.

Era horretan, erosketaren sukarra eta almazen haundietako metaketak ezagutu gabe, apaingarri zailetan eta jostailutan deusik eralgi gabe, Eguberriko berotasuna eta pozkarioa herriskan zehar hedatzen dira, Abendu-ondarreko elurte baten leuntasun berberarekin.

Ba dago ere beste jolaspiderik anitz Suizan. Turismo-lekuetan lera-lasterketak antolatu ohi dira, baita eskia ere; ba daude «bobs-leigh» izeneko lasterketak, bideska hormatuetan behera habaila bildurgarrian beheiti. Ba daude ere elurreztutako tontor-igoerak. Baina herriko bizi-lagunek soseguzko bizikera bat, lanean eta zuhurtasunean eramana, nahiago izaten dute, eta aski. Herrialde menditsu zoragarri honen babesean, aberri maitatuan patxaran, atzerriarekin eta beren buruekin baketan bizi, benetan: herri zoriontsua da hau.

Mendigoizaletasuna da Suiza-ko kiroletan kuttunetako bat.







DANUBIOA

Europa-erdialdeko ibai-bidea

Horren ederra den Oihan-Beltza-ren bihotzean, hiru uxol txikik biltzen dute beren ura Danubioa sortzeko: Europa-ko ibai-bide nagusia.

Europan zehar Mendebaldetik Ekialdera isurtzen den ibai haundi bakarra da. 2.680 km. ditu, Erdialdeko Europa alde batetik bestera igarotzen du, eta zenbait herrialdetatik datozkion hirurehun ibai-adarren ura hartzen. Ekialdean, oso urrun, Itsaso Beltzean itsasoratzen da azkenean, Erdialdeko Europa guzietatik erauzitako buztinez ugertua. Ezen Danubioa-ren isuraldea ia 800.000 kilometro laukitakoa bait da.



Hegoaldeko Alemanian jaiotzen da Danubioa, alpetar lakuen muinean.

DANUBIOA ASPALDIKO MENDEETAN. Bi mila urte eta gehiago ba da betekizun garrantzitsu bat izan duela Danubioak. Alegiazko Troya-ko Guduaz geroztik, Ekialdeko Mediterraneo-ko zibilizazio aberatsak Danubioan gora igo ohi ziren Ipar-Europara iristeko, are Inglaterra-raino bereraino ere; eta horrelaxe egin dute gero ere mende askotan barrena. Erromatar Inperioaren garai gogoangarrienetan, aginte-eremu horren mugatzat hartzen ziren Danubio-ko ur diztiranteak. Ibaiaz bestaldera teutondar leinu hezkaitzak zeuden. Oraindik ikus daitezke, mendeetan zehar loak harturik, 240 km. luzerako harresi-kate baten arrastoak: Trajano-ren Murruaren aztarnak dira, eta erromatarrek harlosa zabalez egiten zituzten galtzara famatuen puskak ez dira falta. Zenbait hondar-plazaren hondakinak ere ikus daitezke, erromatar lejioen oinkada-hotsak ahazturik dauzkaten eskualdeen erdian eraikiak, eta hamaika armadaren martxa aztunak behin eta berriz zapalduak.

Ezen Danubioaren haran hau, Europako bihotzean moldatua, beti izan bait da Ekialdeko okupatzaileen sarbide kuttuna. Erromatar Inperioaren azkenaldian huno-tarrak, Asia-Erdiko larrezabaletatik zaldisko azkarretan etorriak, Danubioan gora joan ziren oso urrutiraino, bidean aurkitu zuten guzia lapurtuz. Hurrengo mendeetan, eta Asian lehorte gaitzak jasan ondoren, Mendebaldera jotzea erabaki zuen herri askok. Avaro-tarrek, eslabo-tarrek, magiar-tarrek, eta segidan turko-tarrek harana deuseztu zuten, gero okupatzaile gisa bertan finkatuz. Turkotarrak, Konstantinopla hartu ondoren harropuzturik, Viena-ko ateetarainoxe iritsi ziren 1683-an, baina geldiaraziak izan ziren. Danubio-ko zenbait eskualdetan 500 urtez goiti egon dira jaun eta jabe.

Beste okupatzaile batzuk Mendebaldetik etorri ziren: francotarrak, Karlomagnoren agindupean; bavaro-tarrak, Eskualde Santuetarako bidaian Guruzadan abiatuak; eta askoz beranduago Napoleon-en eta alemandar Reich-aren armadak.

Erdi-Aroan, harresi eta gaztelu mordo bat eraiki zuten aiton-semeek Danubioan barrena, konkistatzaileen uhina geldiarazteko. Batimendu izugarri horiek, beren murru-zuloetan gaur enara-kabi bihurtutako hondakin, ibaiaren gaineko munoetan irauten dute oraindik. Gudu-murru horiek direla-ta, «Gaztelu-Herria» deitu izan da batzutan Ekialdeko Austria; eta, hiri askotan, kondaira-oroigarri dotoreren bidez begietara ohi da gaur antzinako ospe hura.

Baita geronen egunotan ere, bakea ez dago guztiz eta betirako sendoturik Danubioaren hegietan. Ertzetako herriak bi mundu gerrate-etan eta gudartean etsaitu zituen eztabaida eta desberdintasun garratzak, ez dira arras itzaldu. Errusitarrek Viena utzi zutenez geroztik, ez da denbora luzea igaro; eta haien irteerak markatu egin du garbiki berebiziko berritzapena eraikieran, industrian eta arteetan; turkotar mehatxutik libratzean, Vienak ezagutu zuen gertakarietan bezalaxe. Gaur egun, uraren hildo-barrutiek ezagutarazten dute oraindik muga: alde batean Austria utziz, eta Txekoslobakia eta Hungria bestean. Eta bai Yugoslabian sartzean, edo Bulgaria edo Romania gurutzatzean, edonundik pasatzen da ibai ospatsua, erresuma-mugez eta politika-etsaigoez jaramonik egin gabe.

OIHAN-BELTZA. Oihan-Beltzaren basopean dautza kolore ezin urdinagoa duten alpetar lakuak. Eta hauetan hartzen omen du, alegiak dionez, izena eman dion kolorea: «Danubio urdin ederra». Baina horren erromantiko ez diren izpiritu batzuek diotenez, Danubioa ez zaie horren urdina iruditzen maiteminduei baizik. Honek, halere, ez du alegia ukatzen; eskualde honek aspaldidanik hartua bait du, eta azkarki itsatsia, erromantiko-entzutea. Gazteek, mendez mende egin izan dituzte maitasun-zinak eta betirako agintza beroak, Alpeetako lakuetako malkor zaharrek bultzatu dituzte urte luzetan zehar.

Gaur Oihan-Beltza da berriz mendi-txangoen, alaitasunaren eta kantuen biltoki hauta. Uxol zaratatsuetan aurki daiteke han arrantzalea, eta kaminoetan aurrera polikipoliki doaz aurrera belar-gurdiak. Kementsuenak ibaieko laster-guneetan abiatzen dira kaiak-etan. Eta ibaiaren gainetik agertzen diren muno hestuek, mendi-ikuskari zoragarria osatzen dute; mendi-mazeletan kabi gisa, panpin-herriska ttikiak; basoen gainetik ageri, elizen kanpandorre zorrotzak; eta amildegi-gaineko tontorretan gaztelu ederrak, koroatzat.

Era horretan, itsaso gainetik 600 metrotan Dannaueshingen-en jaiotzen den ibaia, Tuttlingen-dik pasatzen da gero, Sigmaringen gurutzatzen geroago, eta Ulm aldera jo.Hemen munduan dagoen kanpandorrerik gorenetako baten irudia bihurtzen du. Eta hantxe ere, bareago eta sakonago egiten da Danubioa, ontzibide bihurtuz.

Ahalik eta gehienik baliatzen du Ulm-ek bere ibaia. Bertako gazteria mainu-joko guzietara jalkitzen da; eta urte oroz, biztanleek umore onean segitzen dute ontzi-ibilketen ur-kirola, irri eta iseka ugari eginez.

BAVIERAN GAINDI. Danubioan barrena, biziera ez da beti atsegin eta joko huts. Industria eta merkatalgo-lana ere obratzen da, mugaren aniztasunak ekintza geldiarazi arren. Halaz ere, ikatzez, gariz eta, beherago, petroleoz zamaturik, ibaian barrena doa-



Oihan-Beltzean askaltzera joaten dira gazteak belargurditan.

Hamaika xoko xarmanta du oihanak, belar gainean askari alegera bat egiteko ezin aproposagoak.





Bikote gazteak Hohenzollern-gaztelu erromantikoaren ondoan arraunean ari, Sigmaringen-en ondoan.

Riedlingen merkatalgo-hiri zaharra gurutzatzen du Danubioak bare-bare.



zen ontziak ugari dira. Bide laburretarako bidari-garraioa ederki dago; eta arrantza hain da oparoa, egiazko industria bilakatzen dela.

Regensburg-hiria, Ekialdeko Bavieran, aspaldian lotura-kai garrantzitsu bat izan zen. Gaur berton eguratsean antolatzen duen azokaz harrosko dago, arrainaren freskoarengatik oso famatua. Esaten denez arrainak berak dira harrituenak, eta harrapatuak izan direla ez omen dute sinetsi nahi. Regenburg beti izan da kondaira-bidarte bat, eta honetantxe datza haren inportantzia.

Hiri honetan egon zen 500 urtez, eta gehiago, Erromatar Inperioaren mugako aintzindaritzarik garrantzitsuena. Zenbait mende beranduago, Ekialdeko bere gatazkaldian, hantxe jarri zuen bere agintaritza nagusia. Eta gero, Jerusalen-a lehorrez zihoazen Guruzatuen bil-leku bihurtu zen. Garai hartan Regensburg-eko marinelak Itsaso Beltzeraino jesten ziren ibaian behera; eta handik Konstantinopla zahar eta hantusteraino menturatzen ziren. Honetatik atzera itzultzean, ondasunez eta jakinduriaz beterik ohi zetozen; eta, hauek erabiliz, oraindik ere ibai-ertzean zutik dirauten bizileku zoragarriak eraikitzen zituzten.

Danubio-ko ipar-ertzaren gainetik, Baviera-ko oihanaren muno leun borobilak, eta urrutian galtzen-edo diren mendi lanotsuak elkartzen dira. Eta zenbat-eta beherago joan ibaiaren isurian, hanbat-eta hurbilago mendi horiek. Geldi gaitezen hemen, ordea, lipar batez; eta goazen Isar ibai-adarrean gora, Landshut-hiria ikustera.

LANDSHUT-EKO POLONIAR PRINTZESA. Kondaira-tradizinoak ez dira inun hertsikiago gorde, hiri honetan baino. Aspaldiko kutsuak harturik, orain dela bost mende izan zen hiriaren oso antzekoa da; eta hiritarrak oso harro daude antzinako orrialde bat berriz biziaz.

Erloju-saltzaile ibiltariak aspaldian bere arbasoek egiten zuten bezalaxe gurutzatzen du herrialdea.



Gaur dakusgun udaletxe berera bildu ziren Landshut-eko agintariak 1475-ko egun batez, Duket poloniar Printzesa batekin ezkontzea ontzat ematea komeni ote zenetz erabakitzeko.

Antzinako soinekoz jantzirik, areto berberera biltzen dira urtero. Mahain berberaren inguruan exertzen dira, eta, handi-handiro, orduko elkar-hizketa berbera birregiten dute. Eztabaida bero baten ondoren, bai poloniar Printzesa bai honen zerbitzariak errezebitzeko elkar hartzen dute. Ezkongai den Jorje Duke gaztea, mendekoen albiriste artean hartua da; eta, denbora berean, zaldiz doaz beste batzuk «printzesa»ren bila. «Printzesa» bertako neska gazte politenen artean hautatzen da.

Xehetasun bakoitza ahalik eta zinkienik berriztatzen da; eta Printzesa, 1475-an Eduvigis ederrak Polonia-tik ekarri zuen karrosa urraide berberean iristen da. Arloteak eta ibiltariak, haundikien atzetik jarraitzen zaizkio, aspaldian gertatu ohi zen bezalaxe. Eta orduan tronpeta-soinuz iragartzen da eztaia.

Zerimoniaren ondoan, egiazko senargaiak Traunitz-ko mugako gaztelura eraman zuen bere emaztea, bere arbasoen lurraldeetara. Hots, gaztelu hau zutik dago oraindik. Horrengatik, XVgn. mendeko mundutar Europan gertatu zen pasadizurik diztiranteena ospatzeko, hantxe berritzen dira eztai-dantza eta jarraiki zitzaion ballet-ikuskaria.

HAURREN GARAITZAPENA. Bide beretik, ibaiaz Iparraldeko Dinkelsbühl-en oroitarazten da oraindik antzinate nahasi hartako gertakari bat. Leizen aztarnak eta harresiak dira lekuko: bertako kondaira istiluz eta gatazkaz beterik dago. Hogei-ta-hamar Urteetako Guduan, sueziar armada konkistatzaileak hiria setiatu zuen, ateen ondoan plantatuz; eta hiriko biztanleek ziur egon uste zuten: garaitzapena lortuz gero, sueziar jeneralak Dinkelsbühl lapurtzea eta sarraskitzea erabakiko zukean.

Gizaurenki defenditu ondoren, hiria



Zerimonia erromantiko eta zahar baten gertalekua da Landshut-hiria.

Aspaldiko karrosa urraidean datorren Printzesari ongi-etorria egiten dio Dukeak.



erreditu egin zen; eta orduantxe gertatu zen ahaztu ezinezko gertaera bat; garaitzailea ateez bestaldera pasa zen, baina ez zuen deus ikusi haur mordoska bat besterik; jakina: ez burruka egitekotan etorria, urriki-eske baizik. Lehenengo herrenkadan, sueziar jeneralak galdu berria zuen bere seme batekin antz haundia zuen mutil bat zihoan. Urrikalmendu-bihozkada batek eraginik, bere oinazeak berak argiturik, samurtu egin zen jenerala, eta hiria barkatu zuen.

HERENSUGEEN GARAIA. Aspaldiko denboren oroitzapen eder horien ondoan, ba dago ere Bohemia-ko Oihaneko alegietan sortutako jai bat. Alegia horiek, bestalde, bertako biztanleen ustez, kondaira-gertakari bat bezain egiazkoak dira. Herri-famak



Sueziar konkistatzaileengandik libratu zuten behinola beren hiria Dinkelsbühl-go haurrek.

Urteroko jaian, gazte-bandak ospatzen du aspaldiko garaitzapena.



dionez, aspaldian herensuge ikaragarriak bizi ziren oihan horietan. Sua zerien ahotik, eta gizonak jaten zituzten. Herensuge ikaragarri horietako bat piztutzen da gaur Danubio-ko folklorean.

Oihanetik irteten delarik ba dator herensuge oriska nekez mogituz: Erdi-Haroan

Furth-im-Wald-eko herensugearen festan, herensuge ikaragarri bat irteten da oihanetik.



ugari ziren bildurren eta siniskerien sinboloa da. Belardian zehar dator, sudurretatik sua dariola; eta Furth-im-Wald-eko ate nagusira hurbiltzen da. Alegiak dionez, eta orain gure begien aurrean pizturik, gizonezkoak gudura joanak ziren. Ez zegoen hirian inor, emaztekiez eta haur errugabeez besterik; hauek, esperantzarik gabe bestalde, kontra egin beharko ziotekean herensugeari. Eta munstroak igaro egin zituen hiriko murruak!

Baina, emakumeentzako eta haurrentzako dena galdua zirudien unean, horra hor, gerratik itzulian, hiriko soldaduen artean ausarditsuena. Salbatutzat eman zuten denek beren burua. Baina, horra hor abots bat entzun-arazten ari bazterretan, eta zoritxarrez abots horrek dionez, soldadu hori ez da aiton-seme; eta herensugeen kontra aiton-semeek ez bestek egin dezakete burruka.

Horretan, jendearen arteko batek burutazio argitsu bat izan du; eta ezpata bat hartuz, «Zaldun Zuri» izenaz zalduntzen du soldadua.

Aiton-seme eginik, aiton-seme eginkizunak ere has ditzake, eta «Zaldun Zuriak» herensugearen alde gidatzen du zaldia, hura akabatzeko asmotan. Tradizionak dionez, lehenengo ezpata-kolpean herensugearen odola isurtzen hasten baldin bada, salbaturik egongo da hiria hurrengo urtera arte.

AUSTRIA. Passau-n Danubioak bi ibai-adar errezebitzen du: *ill* deritzana, meharra, eta Iparraldeko barruti harkaitsuetatik ausarki jetsi dena; eta Inn deritzana, zabala

Zaldunak, Erdi-Aroko bere jazkeran, herensuge ikaragarriaren zai.



Hego-Alpeetako ur hotzak biltzen dituena. Inn-ek beste zerbait dakar ere: Salzburgeko eresien, kafetegi alaien, eguratseko jaialdien, kanpandorre ugarien, eta musikarekiko zaletasunaren oihartzun xarmangarriak.

Salzburg-inguruko laku batetan, mundu guzian bakarra den diana edo tiratoki bat ikus daiteke. Ibai-hegi batetik tiratuz gero, lehendabizi balak ur-gaina ikutu behar du, eta honetan jauzi eginez, diana jo behar du segidan beste hegian.

Nahiz orain dela gutxi herrialde honek istilu batzuk jasan, Danubioak giro baketsuan igarotzen du Austria. Herrietan, kontzertoak ematen dituzte bertako musika-taldeek, eskualdeko jazkeraz jantzirik, eta zuzizko kalejirak ikus daitezke, eta kafetegi eguteretan arrats-musikaldiak entzun.

Mazeletan, poliki aurreratzen dira uztartutako behiak, eta larreetan behi-zintzarrien hotsa entzuten. Muno-gainean, Erdi-Haroan herrialdea gobernatzen zuten haundikien gaztelu-aztarna gotor garratzak ageri dira.

Haundiki haietako batzuk beren erantzukizunaz jabetzen ziren, eta txiroen alde jokatzen zuten; baina gehienek abere-gisa tratatzen zituzten zerbitzariak eta jopuak; eta batzuk ez ziren baroin lapur, anker eta bihozkabeak baizik. Hauetako bat Aggsteingoa: gaztelutik 300 metro beherago isuritzen den ibaian zehar kate bat tinkarazi zuen ertzetik ertzera, honen bidez handik igarotzen ziren ontzi guziak geldiarazteko. Kapitainari ez zion uzten aukera negargarri hau baizik: edo bere burua askatzeko diruketa gaitz bat ordaindu, edo... hil egin behar. Ordaintzeari uko egiten ziotenak (nahi ez zutelako, edo ordaintzerik ez zutelako) gaztelu-ondoko labar batetara eramaten zituzten, eta han bigarren aldiz aukera lazgarri bat egin behar zuten: edo jauzi, edo gosez ezarian hil. Baroin odolzale honen mamua, errari dabil oraindik Danubio-inguruetan.

Horren gaiztagin ez diren beste izpiritu batzuk ere ibilki dira ibaian gaindi Linz ikusgarrian, baita Melk-en ere: honetan gau batzutan, linternaz apaindutako ontzien artetik pasatzen dira, ur-gainean igerika, egurpuskatan finkatutako argitxoak, anitz, uretan mila argi-printz errainutuz.

Rikardo Lehoin-Bihotz-aren oroitzapena dabil ere, Dürnstein-go gazteluan errari. Honetan altxatu zuten preso Guruzadatik itzultzean. Eta bere ezkutaria zen Blondelek salbatu zuen: koblakari gisa antzaldaturik, handik ibili zen kantari, haren nagusiaren aire maitatuenak kantatuz. Leihaltasun honek bere frutua eman zuen azkenik; eta behin Dürnstein-gazteluaren ondotik kantari zihoalarik, goitik heldu zen beste abots bat erantsi zitzaion bereari: Rikardo errege gatiguarena.



Urtero, Zaldun Zuriak, berriz zaldundua, herensugea akabatu eta hiria salbatzen du.

Schönau-n, gizon-talde bat ostatu baten aurrean «Schuhplattler» delakoa dantzatzen ari.



Passau-n, Alemani-Austria-ko mugan, Inn eta ill ibaiadarreak Danubiora isurtzen dira.





Austrian barrena, zaharrakatutako gaztelu askoren albotik isurtzen da Danubioa.

Horrela jakin zuen Blondel-ek galdua zegoen bere jauna nun zegoen, eta hura askatzeko eskatua zen ordaina bildu, eta eman egin zuen. Beharbada zuek ere, udarako gau eder batez, orain dela 700 urteta-ko Blondel-en kobla hura bera entzun ahal izango duzue gazteluaren hondakinen artean. Ezen kondaira ez bait da inoiz hiltzen barruti honetan.

VIENA, DANUBIO-KO ERREGINA. Vienatar oihan berde trinkoaz bestaldera, Danubio-ko ibarraren gaineko munoek uzten duten zabalgune batetan, Viena ederra dago: argitan murgildutako bere batimenduekin, bere iturri jauzkariekin; eta zenbait mireslek harrizko iturritzat hartzen duten etxegintza barroko dotorearekin.

Herri bakoitza, Viena-ko xoko bakoitza, Habsburgo-ko errege-etorki loriatsuaren oroitzapenez josia dago; eta hiriburu harroak haiei zor die gehien batez oraindik gaur duen haunditasun-kutsua.

Hor dugu Viena, Vals-aren aberria, giro leuneko kafetegiena, goxokien dendena, eta krema harroz estalitako «vienatar» kafe famatuarena. Aberritzat hautatu zuten musikarien aireak hemen eta han gaur ere dira kanta-gai: Beethowen, Mozart, Haydn, Schubert, Brahms, Mahler eta Johann Strauss, Vals-aren errege. Udazkeneko «week-end»etan, trabena-atarietan zintzilikatzen diren belar-sortek egiten diete harrera vienatarrei; eta hauek, batetik bestera doaz errondan, ardo berria dastatzera. Hurrengo udaran, herrietako kafetegietan elkartzen dira berriz, aurreko udazkeneko uzta uxtiatzera, eta taldetan kantatzen dute.

Hiriburu eder honek, halere, makurraldi gaitzak sofritu ditu. Lehenengo mundugerratean inperioa galdu zuen. Eta ekonomikrisi izugarria gainditzen hasten zelarik, nazien uhina gainera zitzaion. Eta, finean, azkeneko gerra-ondoko hastapenetan, lau armada elkartuek okupatu zuten zenbait urtez.

Baina Viena bir-eraikia da. Hiri zaharra inguratzen du «ring» eder batek, lehen bezala. Mendebaldeko muno zuhaitsuetatik, zirkulo erdi akats-gabea dirudi «ring»ak, Danubio-ko isurpidean pausatua bait legoan. Honen hegietan hedatua dago Prater delakoa, talde alaien zalaparta etengabe, eta jolaspide-lekua.

Baina oraindik ere vienatar kantuak gure belarrietan entzun daitezkealarik, ibaian behera abiatzen gara. Anitz mendiskatatik erauzitako buztinez nahasirik, urak arre ageri dira. Hegoaldetik gurutzatzen ditu ibaiak Alpeetako azken mendialdeak, eta Iparraldetik Karpato-etakoak, Hungria-ko zelai mugagabeetara agertuz.

HUNGRIA-KO ZELAIA'K. Ibai-ertzetan iraulitako lur-banda batek markatzen du muga: haizeekiko ageria, zaharrakatutako bigira-dorreek zatikatua, zakurtzar bildurgarrik zaintzen eta kurritzen dute.

Antzinako errege-jauregik koroatzen ditu Iparraldeko munoak, ahaztutako urteen lekuko apain gisa. Ezen Hungria-ko zelaiak eta mendiskak oso mundu desberdin batetan bizi bait dira gaur, komunismoaren galtzairu-oihalaz bestaldera.

Hiriburuko batimendu barroko ugarietako bat Vienako Opera da, «Staatsoper» delakoa.



Hemen ibaia hazi eta zabaldu egiten da; eta kanaberazko holtzeren artetik doa, eta lertsunek gordalekutzat hautatzen dituzten zumalakarretatik. Lurra pitin batez goititzen denean, poxelua inguratzen du ibaiak nagi-nagiro, eta zenbait besotan zatitzen da: isuriaren erdian horrela uharte-ilara bat eratzen dute munotxoek. Hungria-ko zelai eskerga hau mendiz inguratutako barne-itsaso bat izan zen oso aintzinan. Baina Danubioaren urek zulatu egin zuten mendizko murrua Ekialdean, eta itsasoa hustu egin zen. Gaur zelai hori belarrezko eta barazkizko itsasaide hedatsu bat da.

Baserriak oso zahar-kutsukoak dira oraindik ;eta herriak beren buruetara bildurik bizi dira lasai. Etxeetako leiho hestuak barnealdeko patioetara begira daude. Kaleak murru begigabe artean doaz, eta xehetasun honek gogorazten du kaleetan gaindi igaro ohi zirela turkotar gorrotatuen gerrari-taldeak.

Magiar hiriburua zen Pozsony gurutzatzen dugu ,gero Bratislava deitua, eta geroago alemandarrek Presburg izenaz bir-bataiatua. Danubio-ko hiriek jasan dituzten izen-aldaketen etsenplu bat besterik ez da hori.

Eta horra hor, gure aurrean ibar-eskuinean zutik, Alpeetako azken harkaitzetan, Buda hiria; eta honen barruan aspaldiko bizilekuak; eta legarrezko arrimuko kale patarretan jauregi izanak. Ibar-ezkerrean, beherago, Pest dago, hiriburuaren erdi moderno industriduna. Bi hiri elkartu ziren hemen gaurko Budapest izenekoa sortzeko. Haratago «puszta»ren amaigabetasuna dago, aspaldian hungriatar ausartek beren artaldeak zaintzen zituzten ordokieta.

Egurats-biltokietan elkartzea maite dute Viena-tarrek.



Dozena erdi bat zubik, zein baino zein xarmantagoak, Budapest-en bi erdiak lotzen ditu. Garai haietako bidariek diotenez, Budapest zen Europako hiririk liluragarriena; baina orain, gerratearen ondorioz, ez du erakusten hobenik eta orbainik baizik. Bi hirien arteko bide erditsuan, Margareten-uharte gustagarria dago, langabeentzako xarmaz betea: ba dago bertan belardirik, basorik, lore-baratzarik, zurrumurru leuneko iturbururik eta eguratseko kafetegirik.

BURDIN-ATEAK. Haruntzaxeago Hegoaldera okertzen da ibaia. Yugoslavian nasaiki sartuz, eta Danubio-ko gari-lurraldeetan emankorrena den «backa» gurutzatzen. Ez dugu Belgrado hiriburua ikusiko, aldameneko mendiska batetan eraikia. Hiri hau hamasei aldiz izan da ezereztatua, eta oraindik ere gehiagotan ezagutua du Balkanetako, kondaira nahasian barrena atzerritar zanpaldia. Orain dela 100 urte baino gutxixeago, oraindik otomandar inperioko gazteluburu bat zen.

Ibarrean barrena herronka dauden herrietan, murruetako harria landugabea da, eta gizonezkoek oraindik ere bonbatxo galtza zabalak jazten dituzte, turkotarrek bezala, zangoen artean izur sakonak utziaz eta puntta gakoduneko oskiak. Oraindik ere zenbait gaztelu bitxi ikusten da, Transilvania-ko mendi-gailurrak tarteka-marteka oharrarazteko eraikita baleude bezala. Eta hona hemen nabigazioarentzako arrisku larrikoa den lehendabiziko ateka: Kazan-go arroila harkaitsu gaitza. Hemen 45 metrotako barnea duten urek, bi labar gogorren artera bilerazirik, zurrunbilo bortitzak sortzen dituzte, eta habaila harrigarritan isurtzen.

Urrutixeago bigarren ateka lanjerosa agertzen da: Danubioak Karpato-katean zulatu duen arroila, antzinak hungriatar zelaiaren lekuan zegoen barne-itsasoa hustuz. Ibaiak hemen, holtze xuten artean harrapatua, azkarrago abiatzen da berriro, eta Romania-Yugoslavia-ko muga ezagutarazten duen «Burdin-Ate»ko arroilari buruz joaten.

Erromatarrek, nabigazioa erraztutzeko,

lastergune hauek inguratzen zituen ubide bat moldatu zuten; batez ere ibaian gora zihoazen ontzien fagoretan. Gaur, nazio-arteko egoera aldakorra dela bide, Danubio-ko eskualde honetan oso ibai-garraio urria dago.

ITSASOA. Burdin-Atea igarota gero, ibaia moteldu egiten da, eta bere gisara aurreratzen bide da lasai bere isurpide zabalean. Orain bi balkandar erresumaren arteko muga da. Iparraldean Romania-ko aintzirak daude, eta herriak urri; eta noizean behin, kanaberen artean izkutaturik, arrantzale-txabolaren bat agertzen da. Hegoaldean Bulgaria-ko mendi apalak ageri dira, tontorretan hiriska batek koroatuak. Baina hauek ibaiaz bestaldean dauden romaniatar herrisken aurrez-aurre egon arren, gutxitan aurki daiteke lot ditzan ontzirik edo pasaiarik. Egiazki: Danubioa muga bihurtu da hemen.

Bulgaria, turkotarrengandik 1878-an eta 500 urtez okupazioa jasan ondoren askatutako nazio barnekoia, ez da eskuarki Danubio-ko herrialdetzat hartzen, nahiz mugatik joan ibaia. Eta, egia esateko, oso ibai-adar gutxi, eta labur eta xuhur horiek, jesten dira hemendik Danubio-runtz, beren urak hari erasteko. Bulgaria-ko bi ibairik inportanteenak, Egeo-Itsasoan isurtzen dira, Hegoalderago, Grezia gurutzatu ondoren.

Ipar-alderuntz begiratzen badugu, Romania-runtz alegia, hiri langileago eta biziagoak aurkitzen ditugu; baina beste gauza batez ere ohartzen gara: Danubioan behera joanago, eta denboran antzinago goazela. Ezen Romania-ko bizimodua bertago bait dago asiatar tradizino zaharretatik, Europa modernotik baino. Edonun topatzen ditugu botatzar haundiak, larruzko txanoak, batzutan baita turkotar kapeloak eta turbanteak, eta tipula itxurako kanpandorreko eliza ortodosoak.

Zatitu egiten da orain ibaia anitz beso axaletan, eta hauek delta aintziratsuko kanaberetan barrena nahastutzen dira. Barruti basa da hau: ba daude bertan lohiagak, ubide nagiak, eta artez eta pagoz betetako uharte apalak. Denborarik bagenu, basurdeak eta otsoak ikusiko genituzke. Eta, igarotzean, zenbait pelikano erreparatu dugu, arrain-ketan.

Danubioan gaindi egin dugun bidaia luzea azkenetan dago. Alpetar laku sakonetatik, elurrak elikatzen dituen mendi-uxoietatik, kondairaz betetako eskualdeetatik, eta laborantzara jalkiak diren haranetatik etorri eta bildu diren urak, orain denak batera itsaso Beltzean funditzera doaz.

Danubioan gora eta behera ibiltzen den ontzi honi «Johann Strauss» deritza.







PORTUGAL

Ozeanoaren ertzean

Mendiska-mazelatik zeharka doan errepidetik ikusita, arrantzale-herritxo bat da Nazaré, eta hutsik dagoela dirudi egunargi betean. Kubo zuriz egindako montaje bat dela pentsa liteke. Legarrez arrimatutako karrikak, aldapa gaitzean behera jeisten dira itsasoraino. Baina hurbildu ala, berehala erreparatuko dugu Nazaré ez dela batere zuria: etxeetako hormek, kolorezko oihalen errainu dirdaitsu berberak dituzte: urdin, berde, gorri. Batzuk lore - apainduraz txukunduak ageri dira beste batzuk marrazki geometrikoz. Herria ez dago hutsik, ezta gutxiagorik ere; baina orain haren bizilagun guziak hondartzan daude, sardinontziak iritsi berriak dira-ta.



Portuges kaitxo bateko kale-musikari hauek, soinu-tresna zaharkote eta harrigarriz baliatzen dira.

KAIA. Hondartzan ere dena da bitxi eta kolore, gizonagandik hasita. Nazare-ko gizonek eskoziar ohalak maite dituzte. Itsasoko haize, eguzki eta kresalak higatutako jazkerak daramazkite batzuek, adabakiz beteak; baina halaz ere, oraino gotorrak, eta marrazkia garbiki ageri. Gizonak urrats haundika ibiltzen dira hondarrean, oinutsik edo eguneko gertakariez solastatzera biltzen dira taldetan. Eskoziar laukien geometria zaila ukatuz bezala, txano beltz luzeak jazten dituzte buruan.

Kolorez beterik ere, ontziak heldu dira hondartzara, sahets zabal eta branka urgulutsuak erakutsiz. Beren tamaina ttikikoak izanagatik, ontzi hauek ezinago gotorrak dira. Zori ona omen dakarten bi begi haundi eraman ohi dute maiz brankan margoturik, fama denez itsaso zabalean bide xuxena aurkitzen laguntzaile. Baina Nazare-ko arrantza-ontzietan gotortasuna lehenago da apaintasuna baino, hondartzan diharduen zakarria Atlantiko latz eta hotzetik bait dator zuzen-zuzen. Marigora oso arrisku haundikoa gerta daiteke: Ozeanoa, eguzki beroarekin bare eta dirdaitsu, brauki nahas daiteke; eta horrengatik, idi-uztartuek arrastaka eramanak, hondartzan urrun xamar pausatu ohi dira. Garraioa bukaturik, hondar gainean etzaten dira idiak patxara haundian.

Esaten denez, bai ontziek bai arrantzaleek feniziar merkatarien garaikoen kide dira. Haiek, Ekialde-Mediterraneo-ko Tiro eta Sidon-dik etorriak, zabalera guzian barrena gurutzatzen zuten urdin sakonen barne-itsasoa, eta Herkules-Ate-ko harkaitz bildurgarrien artetik pasatzen ausartzen ziren (hauetako alderdi bati Gibraltar deritza gaur), eta azkenean ozeanora azaltzen ziren. Jesukristo baino 1.000 urte lehenago, feniziarrak izan ziren ozeanoko alegiazko arriskuak oldartzen ausartu ziren lehendabizikoak: itsas-sugeak, munstro goseak eta, azkenean ozeanora azaltzen ziren. Jesukristo baino 1.000 urte lehenago, feniziarrak izan ziren ozeanoko alegiazko arriskuak oldartzen ausartu ziren lehendabizikoak: itsas-sugeak, munstro goseak; eta, urrunean, lanbro eta ekaitzen artean galdua, munduaren amaigunean itzasia zegoen amildegia. Ausardiaz beterik, kostal-

dea inguratu zuten, eta Iparraldera jo. Batzuen ustez are Inglaterra-raino ere heldu ziren, han estainuaren bidez merkataritza egin nahian. Beste batzuen iritziz, irabazpide galantak lortu zituzten beren bidaietan; eta kolonoak lehorrera zituzten, hauen bitartez gaurko portuges itsas-ertzean lan-leku batzuk sortuz.

Nazare-ko arrantzaleen aurpegi ilun eta gogorrak ikertuz, aisa antzematen dira asiatar zantzuak eta Ekialde-aztarnak haien begitarte azkarrean eta begi irazekietan.

EMAKUMEAK LANEAN. Anitz eginkizunetan egiten dute lan emaztekiek. Arraina hautatzen dute, eta sardinak gero herrenkadatan ezartzen, xuka daitezen; sareak adabakitzen dituzte, eta hegiraino betetzen dituzte otarreak harrapatutako uzta zilarraideaz. Emaztekiok kolorez hitsago dute jantzia. Baina Portugal guzian daramazkite herriko alabek, soineko zimelduen gainetik, kolore bizitako mantalak, eta belarrietan urrezko zintzilikariak. Ibilera xarmanta dute, beren buru-gainetan nolanahiko fardelak orekan atxiki-beharrez hartua: arrainez betetako otarre, ura darien lurrezko txarro luze (arrantza-ontziak bezain aspaldikoak), arropa bilduma aztun, edo tasaski zabal eta txapal. Hauetan lore sorta zoragarri bat gailendu ohi da barazki piloaren gainetik.

Portuges emaztekietan zakarrenak eta eskuragaitzenak «varina» deritzatenak dira: alegia, arrain saltzaileak, bizi eta erneak. Azokara beren saskiekin iritsi direlarik, berehala inguratzen ditu jende-pilo batek. Jakina denez, portugesek oso maite dute merkatzea, eta honetantxe datza haien abilezia: haseran zenbat eskatu behar den, eta zein unetan jetxi behar den prezioa jakitean, tratua orduantxe eginez.

Noski, ba dago arrainaz beste salgairik portuges azoketan. Baserritartsa batzuk egunsentiarekin, edo lehenago, jeiki; eta beren barazkiak saltzera etorri dira. Oinutsik joan dira mendisketako bide-txigorre-



Portuges arrantzale hauek, gorunzko brankaren ondoko ontzietan, sardina-arrantzaz mintzo.



Herriko biztanleen adia-leku bixia da Nazaret-ko hondartza.

Emakumeek eta neskatilek askotan eraman ohi dute hondartzara *jostura-lana*.





Sardin-ontziak uretara herrestatzeko, idi-pare bat behar da; edo bestela gizon sendo indartsu mordo bat.



Sardinaren aukeraketa egitekotan herriko emakume batzuk.

Portugal-go emaztekiek fardelak buru gainean eraman nahiago dituzte.



tan barrena, buruan saski aztunei eutsirik; eta, hozpera, gau-mineko terraletik gerizatzekotan, bular gainean gurutzatuta daramate txala.

Errepidera iristean autobusaren zai jartzen dira, motorearen burrunba bihurgunean igarri zai. Egunero, autobusaren gaineko tegian pilatzen dituzte beren saskiak; gero eserlekuak hartu eta berriketari ekiten diote larik. Autobusa hirira irestean, saskiak jesten dira; eta emakumeak, burura azkarki jaso ondoren, azokara abiatzen dira antxintxiketan; zeren-eta iristen lehendabizikoak, aurrenik eta hobekienik saldu ohi bait du bere salgaia.

ITSASOKO UZTA. Hondartzaraz gero, inkantean saltzen da arrantzarik gehiena, segituan bidali eta kontserbatan jartzeko. Beste herriekiko, jokabide desberdin xamarra dute portugesek; eta inkante-salmentarako ere ba dute teknika berezi bat. Oso prezio apaletik hasi, eta eskeintzak gora eta eroslerik onenari salgaia eman zai egon beharrean, portuges inkantatzailea ehunetik hasten da beti; eta gero prezio-saila jesten du habaila harrigarrian. Lehenengo postura, hortaz, denetan galestiena da. Eroslearen maltzurkeria, horretara, eroskide asmo gordeen igartzean datza; eta. horrela, haiek baino lehenago eros-eskeintza egitean. Ez goizegi hau, jakina, prezio goregirik ez ordaintzeko.

Arrantzatutako sardinaketa xuka dedin, bahetan hedatzen da.





Goroldi eta aloka biltzaileek darabilten ontzi lirain apalak dira «molineiro» delakoak.

Kortserba-sardinek, bertako olio batetan prestatuak, munduko merkatu-mailako ospea hartu dute. Beste alde batetik, arrantza da herrialdeko bigarren industribidea. Atunaren, makallaoaren eta karramarro-ahaideen arrantza dela bide, urte guzian barrena egoten dira ontziak itsasoan.

Ipar-Portugal-en, hondartza zabaletako hondarrean dautzan arrantza-ontziek, itxura desberdina dute: branka gora eta nabarmen, xopa makur, zirkulo-erdi gisa ederki uztaitua. Iparraldeko itsasertzetik at, zingira batzuk daude; eta hauetan «varech» delakoa bil daiteke —itsas-goroldia— ezen itsasotik har daitekean gauza balios bakarra ez bait da arraina. Ontzi aproposak behar dira, «molineiro» delakoak, mineralgaitan aberatsa den «varech»a biltzeko. Ontzi hauek meharrak dira; eta hestuegi direlako, itsas-zabaleko inarrosiei ihardukitzeko desegokiak. Ur gainean ibilki, beltxarga-lepo bat dirudi haien brankak; baina «molineiro»aren erdialdean borda-gaina uraren pareraino jesten da, arrestelu-lana eta goroldi-keta eskonfaide aztunen zamaera erraztutzeko. Arrantzaleek, soineko zuri motzez eta buruan txano batez jantzirik, ontzia aurrerarazten dute haga luze baten bidez, hau ondo gorolditsuan iltzatuz. Ontzigainean, goroldiak azal loditan metatzen dira; hainbestetaraino nun, itsasertzetik, beren hazta pean ontziak ondoratuko direla pentsa bait daiteke.

Arrestelu luzez orniturik, «fucus»en arrantzale hauetatik txiroenek ur hotzetan sartu behar izaten dute belaun koskorretaraino. Aberatsenek berriz ontzi bitxi harrigarriak erabiltzn dituzte lan honetarako, belaun askoren ondorea den trebetasuna baliatuz artesanoek eginak. Esaten denez, artesano hauek inolako planorik gabe egiten dute lan; eta hain dute eskola haun-

Batelariak haga-bidez aurreratzen dira, itsasondo gorolditsuetan barrena haiek pausatuz.





Ardogintzarako mahatsa, Duero-garaiko zabaltzatan lantzen da.

dia, eze oraindik zutik dagoen zuhaitzari begirada huts bat emanez, aski omen dute ontziak hartuko duen molde luzeska xeheki somatzeko.

Jakina: ez dute Portugal-go arrantza-ontzi guziek xarma zahar margotsu hori. Hauetatik askok motorea eta irrati-postua du; sareak hedatu, eta arrainak bertara gatibatu zai egon beharrean, sardina edo atun-taldeak aurkitu diren lekuetara aldatzen dira azkarrean.

Baina mendetan barreneko ohitura zaharrak artesania-lanetan atxiki dituzte arrantzale mardulek, orain dela belaunaldi askoz geroztik, laukizko koloreko alkandorak eta txano beltzak jantziz. Iraganean bezala egun ere, itsasora aurretik, hondartzara biltzen dira buru-has, herriko apaizaren bedeinkazioa hartzera; eta arrantza ona eta ozeanoa bare egon daitezen egiten dute otoitz famelian.

OPORTO-ARDOA. Duero-ibaiondo harkaitsuen sahetsetik, «riveiro» edo «rebelo» delakoak doaz, zali itxurako ontziak. Hauen moldea feniziar harotik jaso dute. Hondar-meta eta barneguneen artetik aurreratzen dira ontzi hauek, haizeari buruz konkor ageri den bela lauki eskerga bati esker. Tilapea motz, arrokek kontrako tankateko ak baztertzeko, bizkargainean metatutako ardo maitatuak daramazkite gupelatan, eta Portugal-en ikus ditzakegun azken ontzi molde-zahar eta jatorrizkoa dira. Baina hauxe da, herrialde honetan aspaldidanik eta sendoki finkatutako industria garrantzitsu eta bitxiarekin dugun lehen harremana: ardogintza, Portugal-go ardoetan famatuenaren ardogintza; «oporto»arena.

Duero-garaian, mahastiak ibarretan barrena agertzen dira lerro-lerro ibaiondoko zabaltzetan. Neguan turmoiak eta haize hotzak karraskan ari izaten dira zabaltzen kontra, altzoak deseginez eta baratza-lur bikaina alferrik erauzi eta beheruntz erakarriz. Zabaltzak konpondu eta bir-eraiki behar izaten dira etengabe, era onetan egon daitezen. Udaberrian inausketa egiten da. Udaran zomorroen kontra burrukatu behar da; eta, eguzkiak erre ez ditzan, landareak begiratu. Geroago, Iraila-ondarrean edo Urriaren haseran, molko helduen beilegia urdin ilun bilakatu delarik, uzta hasten da.

Beste urte-zaroek orduantxe dirudite, uztaro honen ondoan, lososta baketsu. Ezen dena behingoan egin behar da, eta geldiunerik gabe. Mahatsak bere gosturik onena eman dezan, zorhite berean hartu behar dira molkoak, eta segituan lakoan zapatu.



«Douro»ko haraneko gizonezkoak Uztaro Jaietan dantzan.

Gizon baten tamainako saskiekin doaz orduan emakumeak mahastira, eta mahatsondo-ilaren artean esertzen dira. Urrutitik ikusiak, buruetan daramazkiten zapi koloretsuek pinpilinpausa haundi dirudite, mahatsondo batetik bestera jauzkari.

Hauen behatz trebeek mahatsondoak larrutu eta saskiak molko ederrez bete artean, gizonezkoek saski beteok garraiatzen dituzte bideska patar eta txigorretan aurrera. Herrenkadan ibilki, herritxoaren aldera doaz urrats haunditan, aurretik xirula-jotzaile bat daramatela.

Harrizko mahatsandel haunditara botatzen dituzte molko mardulak; uztaroa bukatuta, hortxe izango dira zapatuak. Lan akigarria hau, baina portugesen jiteak benetako jolasketa bihurtua. Galtzak biltzetik hasten dira gizakumeak, beraz, eta ankak eta oinak garbitzen dituzte azkarki. Mahatsez betetako ontzitzar horietara sartzen dira gero, gorago aipatutako mahatsandeletara; eta jiraka hasten dira oso poliki, eskuz esku lotuak, eta mahats pilo gaitzaren gainean zapalketa jarraikian hasten. Gero musikari batek xirula jotzeari ekiten dio; geroago beste bat erasten zaio horri, danborraren bidez abiada markatzen. Ritmoari lotzen zaizkio gizonak, baita azkartzen hasten denean ere: musika arinago, eta berek ere azkarkiago mahatsa zapatzen. Soinuari abotsak erasten zaizkio, basa-kutsuko kantatan. Uzta-biltzaileek beren nekea ahaztutzen dute, zuku gozozko tanto lodiak zapaldutako mamitik jalgitzen ari ikusten dituztelarik; eta dantzari ekiten diote, belaunetaraino itsasaide gorri gorrindol hartan ondoraturik.

Ardo-ezti edo fardiluna udaberrira arteraino hartzitzen da piskanaka. Iragazi egiten da orduan; eta hartziera geldiarazten duen koñak bat erasten zaio. Rubi-koloreko isurgaia arta-zurez egindako gupelatara isurtzen da orduan, eta hauetan uztaren urtea idazten da arretarik haundienaz. Gaur egun, burnibidez edo kamioi bidaltzen dira gupela horietako batzuk Oporto-raino. Baina eskuarki ibaiez bidali ohi dira, ondo

«Oporto» famatua emango duten molkoak biltzen ari dira neskatilla hauek.



txapaleko «rebelo» delakoen bizkargainean lotuta, Douro-an behera 90 km. jetsiaz.

Gupelak idi-gurdietatik deskargatuta, ibaiontzien bizkargainetan gotorki estekatu ondoren, haizerik baldin badago, bela haundi bat hedatzen da.

Besterantzean, arraunak hartzen dituzte arrantzaleek; edo, gondolariek bezalaxe, haga luzeak baliatzen dituzte. Batzutan gizonek berek tiratzen dituzte ibaiontziak, soka batez bi alderdietan indarka makurturik; eta ibaiertzetik doaz horrela. Nola edo hala, haizeak bultzaturik, urak bare egon edo lastergunetan zurrunbilotsu, mehargune sakon eta ur-laster faltsutan gaindi ibili ondoren, bere pilotu trebeak gidaturik ibaiontzia beti heltzen da bortura osorik, eta bere zama preziatuarekin.

Betarik baldin badute, ibarretan barrena nekazaritza-ikuskari baketsuak ikus ditzakete herrenkadan. Haize-errotak aurrenik, oihalez jantzitako beso gaitzekin, eta herrialde hauetan oso maiz eskuarrean duten indar-iturri bakarra. Zeru urdinari begira zutik, antzinateko argidorre geldiak dirudite. Sahetsetik, nagi-nagiro, mandoak eta astotxoak doaz, alezko zakuz gainezka zamatuak. Emakumeek, buruetan koloka daramazite «caneca» delako pegarrak, lurrezkoak eta ura garraiatzeko eginak; eta bela eaukiko ibaiontziari so gelditzen dira.



Uzta-Jaien kariaz, ardo-kupelak gurdi alaitan garraiatzen dira.

Oporto-ra hurbildu ala, biziago agertzen dira ibai-hegiak. Ertzetik gorako malkor bete-betean isegirik antza, kolore azkarretako teilatuak dituzten etxeak agiri zaizkigu. Harrizko zubipeetan, aspaldian bezala elkartzen dira emakumeak, gobara eta berriketa egitera.

Mehargunearen amaian, ia larre huts diren munoetan, Villa Nova de Gaia dago; eta hantxe bukatzen da gure «rebelo»aren bidaia. Ardo-gupelak hantxe deskargatzen dira, eta barruki gaitzetan ezartzen; eta hantxe egoten ere, aski zahartu arte, eta esportatuak izan ahal izateko. Inglaterra-ra batez ere, «oporto»a han bait da bereziki istimatua. 1703-z gereztik, tratu batek lotzen ditu Inglaterra eta Portugal: oporto keta aldagabe bat segurtatzen zaio Inglaterra-ri, eta honek ordainez errenteri-zerga apalak jartzen dizkio.

Aidera zabaldutako beren bela zabal zuriez argitzen dituzte Portugal-go bazterrak gari-errotek.



TORTOTX-OIHANETAN. Zibilizazio modernoak aldatu ez duen industria bat dago Portugal-en: tortotx-azalarena; alegia, kortxoarena. Tortotx-oihanek herrialdeko mendiak estaltzen dituzte, eta munduak behar duen

kortxoaren erdia ematen dute. Tortotxondoak oso mota berezikoak dira; zuhaitz gutxik jasan bait dezake hil gabe bere azalaren larruketa.

Kontuz erauzten baldin bada azala, kortxoaren sustraia berriz hazten da, eta handik bederatzi edo hamar urtetara aski lodi egiten da berriro erauzia izateko. Egintza probetxagarri hau, horrela, arbolak diraueno berrizta daiteke; eta tortotxondoa 120/150 urtez bizi ohi da.

Zuhaitzaren azala ateratzeko, bi banda luzetan ebakitzen da goitik behera; eta ahal delarik, zoritxarreko aizkorakadarik gerta ez dedin saiatzen. Tortotx-azal lodiaren pusketak pilatu egiten dira —larrutu ondoren doi gris oriska hartu ohi dute— eta eguratsaren agerrian gelditzen dira, horretara laster gorriztatuz. Azala berriro hazi ala, enborrak gero eta ilunago jartzen dira; eta hamartsu urteren buruan, behar den lodiera azalak lortua duenean, berriz erauz daiteke.

Gizonen parte bat arboletan lanean ari den bitartean, besteek azal metatuetan egiten dute aukeraketa bat, eta gurditan kargatzen. Gurpila bete trinkotako gurdi hauek, erromatar lejioetatik jasoak izan bide dira; herrialde honetan barrena oso gurdi antzekotan garraiatzen bait zituzten erromatarrek beren hazkurriak.

Portuges hirietan, edonun entzun daitezke, bide triste baketsuetan kirrinka, ardatz koipegabeen intzirinak. Herrestatzen dituzte idiek, oso uztar apaina daramate: «canga» delakoa, mende batzutan zehar aitagandik semeagana iragana. Uztar bakoitzak arabesko batzuk ditu apaingarri, maiz kolore bizitan margotua; eta elkar diruditen bi ez daude.

Gurdi hauetan garraiatzen den hazta idien buruen gainetik ez da estonagarri, batez ere hazta hori kortxo arinez egina delarik...

Bazkaritako orduan, elkar-su bakar batetan prestatzen dute oturuntza emakumeek; baina ez dute dena eltze bakar batetan prestatzen halere. Ezen nork bere emazteak gertatu dion janari goporra ekarri bait du. Gopor horiek guziak elkarrekin atxikitzen dira epel-epel goiz osoan, elkar-su haundi baten ondoan.

Merkatuetara iristen den ia kortxo-zama guzia, esporta-gai da. Soberakina jos-

Tortotx-enborretatik erauzi berri diren azalak, eguzkitan lehortzera jartzen dira.





Etorkizun egokia izan dezaketen zezen gazteak, arretaz zaintzen dituzte zezentzainek.

tailu bihurtzen da: botila-tapoi margotu, edo mota horretako salgai ttiki. Jostailuak, eta gauza bera lurrezko txilibituak, eskuzko enkajeak, kolore bizitako erredizak, kristalezko potoak eta bertako artesania-ekoizpenak oro, orain dela belaun asko saltzen dira portuges azoketan.

ZEZEN-PLAZAN. Ribatejo-ko zelai aberatsetan, Lisboa-ko Hegoaldean, abereak beren aisian alatzen dira. Taldeen artean, zaldiz, «cow-boy»ak ibiltzen dira, «campesino» delakoak, buruko txanoak gorri eta berde, alegia, portuges ikurrinaren koloreetakoak. Belaxetak eraman beharrean, hauek burdin-ziriko haga luzeak daramazkite; eta, lauhazkari utzi gabe, haien begi trebatuek zezenik gartsuenak ezagutzen dituzte. Iker-erronda bakoitzean, oldarkorrenak eta beroenak hautatzen eta berezten dituzte, «corrida»ra eramateko. Portugesek darabilzkiten kiroletan herrikoiena, zezen-korrida da. Eta zezenaren kontrako burruka-moduan ezagun dute ongienik beren izakeraren jatortasun eta berezitasuna.

Haien zezen-festaren izakera berezia korridaren hastapenetik ageri da. Zezenak eta zaldiak elkarrekin eta beren gisara korritzen uzten dituzte portugesek; hauen korrida moldean, oso betekizun inportantea bait dute zaldiek ere. Españatar kulturako herrialdeetan, berriz, plazarako zaldiak abere argal gupidagarriak izaten dira maiz. Alderantziz gertatu ohi da Portugal-en: korridako zaldiak, arabetar odola ere daramaten abere bikainak izaten dira. Zezenaren burruka-hirrika bezain miresgarri izaten dira zaldiaren xarma eta zalutasuna. Kotoinezko albardoi batek babesten ditu zaldiaren sahetsak zezenaren adar zorrotzetatik; ezen eskola, bizkortasuna eta xarma portugesek istimatzen dituzten bezala, odola, gogorkeriak eta heriotza gorroto bait dituzte.

Hori dela-ta, Portugal-en ez da behin ere egiten heriotzaren «suerte»a. Larrienean «torero»ak bildu egiten du ezpata, eta zezenaren heriotza idurikatzen du horren buru-kaskoan «banderilla» izeneko bi makilatxo iltzatuz, biak erruz apainduak. Banderilla hauen ezartzea heriotzaren sinboloa da, eta toreroaren garaitzapena adierazten du.

Egia esateko, minutu horrek biziaren akabera markatzen dio abereari. Zeren, gizonaren kontra behin frogatua izan ondoren, ia segurki hil egingo luke hurrengoan. Akabatu egin behar da beraz zezena. Baina hori giza-modura egiten da mataderian, eta haragia dendetan saltzen da. Horretara zezenak bere loria-gunea ezagutua du.

Portugal-en benetako nazio-gizaurena da toreroa, USA-n «base-ball»-eko txapeldun bat bezala, edo futboleko bat Frantzian: portugues gazte guzien ametsa, torero bilakatzea da. Horrengatik edonun hazten dira zezenak. Larreetan eta zelaietan mutil gazteak ageri dira, kaparen eta banderillen erabilkeran trebatzen ari. Lehenengo pausuak egitekotan, lagun batek bi adar eramaten ditu, eta zezenarena egiten du. Toreroa, iduriketan diharduelarik, jauzika zeharka doa harengana, bere bizia burruka horretan garaitu-ez garaitu kontua balitz bezala. Geroago, dohainak erakutsi baldin baditu, zekor batekin saiatuko da, edo beharbada herri txikietako korridetan parte hartuko. Ausaz zirko-torero izango da, eta bere trebetasun eta abileziagatik, so-egileen irri-algarak bilduko ditu; eta ez hiri-nagusietako plazetan ez bestetan jaso daitekean ospea.

Egiazko torero inoiz bilaka ez badadi, gutxienez egiazko zezen batekin gertatzeko era izango du noizpait. Aukera hau, ze-

zenak kale hestuetan barrena plazara eramaten direnean presentatuko zaio. Hiritarrak bidearen luzean metatzen dira ikuskaria ez galtzekotan; eta pizti-taldea marruka pasa ohi da lauhazka.

Batzutan taldetik berezten da usterik txikienean zezen bat, eta soegile zoritxarrekoren bat kolpatzen saiatzen da. Haina zuhurra baldin bada, aurki dezan lehendabiziko eskaratzan gerizatuko da korrika; baina gaztea bada, eta ospearekin ameslari, zezenaren aurka plantatuko da deplauki, kapa gisa edozein zapiz axatuz. Argi-eta-garbi ager dedinean gure mutil ausartak beretzako bakarrik lanketa larregi hartu duela, soegileak zezena beste alde batera barreiarazten saiatuko dira, baita baretzen eta urrunarazten.

Plazaraz gero, erregela zailez antolatuko ikuskari ospatsu baten egile gertatzen dira zaldiak, zezenak eta toreroak. Hauek bezala zaldia ere trebatua izan da, zerimoniak behar duen dantza akonpasatu eta zaila era onean emateko. Lehen oldarraldia zaldiz egitenda; eta zezenari egin zaion «faena'k» liskarrerako kemena eta garra piztu badizkio ere komedia-jokatzaile izateko baino areago, halaz ere zaldia bezain ttente eta dotore agertzen da zezena.

Korridetako ausarten artean ausartena «fercado» delakoa da agian: esku-hutsik eta iskilurik batere gabe ihardukitzen du zezenarekin. Ferkadoak taldetan ari izaten dira: adarretatik heldu behar dute zezena, eta kordegaberik eta zurrundurik utzi arte inarrosi behar izaten dute.

Ferkadoen burua da plazaratzen den lehendabizikoa: esku bataz zezenaren isatsa oratzen du, eta besteaz adar bati agudo heltzen. Aberea haserre bizian, jiraka hasten da hondarrean, eten gabe, ferkadoa lurrera bota arte. Gizona askatzen bada, edo zezena atzera itzuli eta atakatzen, gainerako ferkadoak plazara ateratzen dira, kapaz besterik ezer ez daramatelarik, aberea barreiatu eta beren laguna heriotza segurutik salbatuz.

Ikuskari honek, epikoa eta haunditasunez betea, ausardia eta kemena galdegiten ditu; baina portugesek umore on eta atse-



Hegoaldeko Portugal-go zelaietan, bare dirudite zezen gazteek.



Portuges gazte guziek torero bihurtzea amets.

Portugal-go nazio-gizaurenak dira toreroak. Horra hor txalo-andana luze bat hartzen ari.



gintasun-ttantta bat erantsi diote, biak haien izakeraren ezagugarri jator.

Zalantzarik gabe, Lisboa-n ikus daitezke korridarik ederrenak: hiriburu hau, xarmaz eta soseguz betea, eraikikuntza-jostailu batetan bezala, zenbait mendiskatan hedatzen da pastel kolorez. Haren kaleak eskailerak bezain aldapak dira batzutan; baina, noiztanik ez dakigularik, kale-nagusi eder bat izateaz harro daiteke herria: Tajo-a, zabal eta ospatsu, ateen ondotik beretik isurtzen ari.

Tajo-ak darama itsasoa Lisboara; eta itsasoa izan da Portugalentzat atzerrirako bide nagusia, baita antzinako ondorea izan den ondasun —eta ahalmen— iturria. Aurkikunde nagusien mendean, Portugaldik abiatu ziren itsasoruntz kapitainik ausarditsuenak.

1488-an, Bartolome Diaz izan zen lehenengoa Buena Esperanza-ko lur-muturra inguratzen. Hamaika urte beranduago, urrutiago menturatu zen Vasco de Gama, eta Indietaraino iritsi. Bi gertakari hauek izan ziren agian Portugal-en kondairan inportanteenak, hindutar aberastasun itzelen kutxak ireki zizkietelako, geroko inperioaren oinarri eta iturburu.

Kondairak ezagutu duen esploratzailerik haundienetako bat eman du Portugal-ek: Fernando de Magallanes, lehendabiziko mundu-inguraketa zuzendu zuena.

Jasan duen anitz eraginen aztarna atxiki du Portugalek: erromatar hiri-hondakinak, jauregi mairuak (1855-ko lurrikara ikaragarria Lisboak ezagutu ez balu, arabetar eraikikuntza izango zitzakean nagusi Lisboan gaur berton), Iparraldean zeltar gaitak, eta arrantza-ontziak, feniziar jatorrikoak.

Halaz ere, eragin guzien artean, itsasoarena izan da haundiena. Urgoretan herrialdearen muinetaraino igotzen da itsasoa ibaietatik, eta itsasertzak alimaleko uhinez astintzen. Itsasoari egiten zaion goratzarrearen lekuko dira portuges batimendu nagusietan ageri diren itsas-apaindura ugariak: sokak, aingurak, are maskurrak ere ez dira falta. Kondairan barrena alboan duten ozeano horrekin baketan bizitzen ikasi dute portugesek. Ikastaldiaren luzea! Nola ez soma, beraz, eragin nagusi hori Portugal-go biztanleen indar trankilean, askatasunarekiko behar gorrian, eta tradizino zaharrekiko atxikimenduan?

Nazareko arrantzale-herria, Atlantiko-aren gainetik azaltzen diren mendien mazela-pean.







ZERDEÑA

Afrikatar mutur bat Europan

Zerdeña-ko eskualde garai harkaitsuetatik nekez ibiltzen den trein ñimiñoan sartuz gero, eta honetatik bazter basa eta lehor haiek begiratuz, ezina da uhartearen itxura bakarti eta idor horretaz pentsakor ez gelditzea. Dena da han ttikia: bai larre harritsuetako behiak, bai mendi-bidesketako zaldiak eta astotxoak, bai topatzen diren jendeak. Ba dirudi luzaroan egonak direla kanpoaldekiko ebakirik.

Mendebaldeko Mediterraneoan erdi-alde xamar gertatzen da Zerdeña, Italia-tik hurbilsko; baina Italia-ra begira dagoen kostaldea jasangaitz eta gogorregia da, eta ez du kairik batere; eta, hori dela bide, Zerdeñatarrek ez dute sobera harremanik Italia-ko bizimoduekin. Beste alde batetik, menperatzaile askoren menpean egona da bere kondairan zehar; eta horrengatik beti izan du bere burura biltzeko joera.



Zerdeña-ko artzain honek uharteko muno idorretan zaintzen du bere artaldea.

IRAGAN NAHASI BAT. Benetan gaztelu berezko bat dirudi uharte arrokatsu honek; eta hala ere ez da behin ere gauza izan bere burua gerizatzeko, batez ere bere jendetzaren urriarengatik. Kondaira-aurreko garaietatik beretatik, bertako hondartzetan ainguratzen zuten itsasontzi etsaiei bildur zaitzaizkien zerdeñatarrak, okupatzaileen sutzarrek gaua gorriztatzen zutelarik. Honengatik, bigira-dorre mordo oso bat eraiki zuten Brontze-Arotik, oraindik batez beste zutik. «Nuraghe» izeneko dorre horiek harri borobilez eginak dira, oinarrian bederatzi bat metrotako diametro dute, eta gora-ala hestutu egiten dira. Gaur berton «nuraghe» horien hondakinak aurki daitezke nunnahi uhartean barrena. Mendi gainetako haitzetan daude, gailurrak koroatuz; eta mehargune basetan eta ibarretan ageri dira. Haundienak setialdi bati ihardukitzeko eginak ziren. Ba dute maiz putzu edo iturri bat. Sarguko iskilu-zuloetan begiraleak egon zitezkean luzaz; eta eskailera baten bidez igo zitekean murru-talaira eta goiko estaietara. Dorre nagusien artean, dorre txikiagoak eraikitzen ziren, eta hauek kateaaren luzeran batetik bestera seinaleak bidal ahal izateko elkarretatik aski hurbil eraikitzen ziren.

Mende batzutan zehar, Zerdeña-ko biztanleak aski azkar eta ugari izan ziren, eta bai lapurreta maite zuten greziar marinelei bai kolonizazio baketsuari kontra egin zieten. Baina J. K. aurreko 500-ean lehenengo aldiz jausi zen uhartea menperatzaile ezagunen eskuetan: kartagotarrenetan. Merkatari-hiri bat zen orduan Kartago gaztea, azkar eta indartsu, Ipar-Afrikako itsasertzean sortua; eta Erroma Mediterraneoan nagusitu zitzaion artean, Zerdeñaren jabe egon zen. Zerdeña orduan garaitzaile berriaren kateapera pasa zen, baita gerotik gari-zama ugariak eman Erroma-ko armada eta hiritarrentzako. Beste anitz lekutan egin zuen bezala, hiri haundiak eraiki zituen Erromak Zerdeñan. Ba dago bat oraindik ere itsasertzetik joanaz ikusgarri: hondakinak uraren hegian ageri dira. Hantxe daude, argitasun harrigarritan bildurik, haren zutarri motzak; eta, oso oso dirdira ahul epeletan, hondarrak erdizka estali duen mosaikozko zorua.

Erromatar inperioa erortzean, sarrazenoak okupatu zuten Zerdeña, eta Islam-en

mezua eraman zuten bertara. Oraindik gaur Arabetar eraginaren aztarnak aurki daitezke, musikan batez ere.

Uhartea kolonizatzeko mairuek egiten zituzten ahaleginen amaia markatu zuten Guruzadek. Baina ez zuten bakealdi luzerik ekarri. Hain zuzen, italiar hirien indarra gora zihoan mende horretan; eta Genovak eta Pisak, elkarren etsai, uhartea biltzeko asmoa zuten amets. Aragoi-ko erreinua bolara batez jabetu zen uharteaz, eta gero Austria; eta 1770-an doitzat eman zitzaien Savoie-ko italiar duke printzipeei.

Baina zerdeñatarrak aspaldidanik menperatzaile-segida hori jasan beharraz uzkurtu eta higuindurik, mendiko herrisketara bilduak ziren babes bila. Aginteak oro gorroto zituzten, nundik nahi zetozen ere. Bazter lehor haietan, kanpoaldeko mundutik etenak, beren buruetara hetsi ziren osoki, talde txikiak osatuz, eta hauzoekin berekin harremanik ez loturik. Herri barnakoi horretan laister hasi ziren liskarrak; eta berriki arte miseriaren haundiegia zela-ta, herri osoak bizi izan dira ohointzaz.

Mendiska hauetako biztanleen harrera, ordea, bakardadean zoritua, haien ostatu-zabalera bero eta bihozkorraren lekuko da: bidariak besoak zabalik hartuak dira, nahiz etxekoek eskeingarri joririk ez izan.

MENDIETAKO NEKAZARITZA. Haizearen erosioak Zerdeña-ko haitzak zulatu ditu; eta nekazaritzarako gai den lur axala izugarri mehatu da, ezin landuzko bihurtuz, ezpada oso kontuz eta pazientzia haundiaz makila batez arakatuz. Lurrik gehiena basoekin batera galdu da; zeren hauek, ikatza saltzekotan, arbolak moztu eta erre egin bait dituzte tratalari dirukoiek, osoki fundituak gertatu arte. Gaur ez da ia deusik aurkitzen, ez bada han eta hemen tortotxetaren bat, enborrak azala erauzi berrian gorri. Ba daude ere olibondoak, hostoak berdaska hits, eta arrokak bezain lehor eta korapilatsu. Ba dago ere, azkenik, zenbait laranjo-do, kaktus, gaztainondo, arte eta pinu; eta, batez ere, ba dago barruti askotan gaindi harri lehor gorri anitz.

Harriaga hauetan hazten diren garagar-zurtenak, loreak balira bezain leunki pikatzen dira. Ale guziak balios, eta baño ere ez da galdu behar nekazariek uzta izena merezi duen zerbait bilduko badute.

Ba dago mendi hauetan beste lur-lan bat, ez esandako hori bezain zabaldua: gaztainarena. Zuhaitzera igotzen da gizon bat, eta morkotsak eraatxi nahiz, banan banan astintzen ditu gaztainondoaren adarrak. Neska mutilak orduan, makila pare bana harturik, gaztainketan hasten dira, morkotsak makilen puntaz tinkatuz, eta saskiak eta mantalak beteaz.

Harri batez, edo bestelako edozein gau-

Barazkien uzta urria da. Kontuz bildu behar da, beraz, ezertxo ere alferrik gal ez dedin.



za gogorrez irekitzen ditu, gaztaina atxikiaz. Hauetxek izango dira janaria, azukreztaturik edo gaziturik, negute gogor garratzean.

GARAGARREZKO OGIA. Irin egitekotan eramaten da garagarra errotara. Errota oso da molduragabe eta arkaikoa, eta maiz baserri berean jarria dago. Errota-harriak, Pompeya-ko aztarnetan eta hondakinetan ikasi dugunez, zehatz-mehatz gogoratzen dizkigu orain dela bi mila urte gari-ehoduran erabiltzen zirenak. Batzutan enborrez eta buztinezko ontziz egindako xali edo karranka batek ematen du indarra; beste batzutan, begiak estalirik, eten gabe errota-harriari eragiten diola, astotxo pairatsu batek ematen du. Hamabi urte-lanetan 3.000 kilometrotako tarte bat bete lezake; hau da, uharteari hamasei inguraketa bere errota behin ere utzi ez arren. Jatorduan begietako benda kentzen zaio, eta zahia ematen. Jaten bukatu dueneko berriz estaltzen zaizkio begiak eta, agindu aurretik ere, astotxoak ibilketari ekiten dio eten gabe.

Buztinezko txarroak Oristano-ko eltzetegiko labera txandaka joan aurretik zai.



Goiz-lan baten barrena bost bat libera irin lortzen da horrelako errota batetan, eta segituan baliatzen dira. Prestaldi guziak gela berean egin ohi dira, garagar-burua ogi-mami bihurtu arte. Bertan egiten da alearen aukeraketa, bertan garbitzen, ehotzen, eta bertan bahatzen ere irina zurezko bahe batetan. Hantxe era berean uraz nahasi, eta eskuz oratzen eta, azkenik laberatzen. Herriko etxe bakoitza bisitatzen duten ofizio-okinek egin ohi dute egospena, aste osorako ogia behingoan egosiz. Alokairutzat, okinak bere ogi-partea hartzen du ogitan, opil borobil haunditan.

Eztai-otoruntzetan, beti prestatu ohi da ore bikainik.



Opil horiei «carta de musica» derizte (musika-papel), pergamino hits orizta baten antza dutelako. Oso erosoak dira ez platerarik ez beste sukalde-eltzerik ez dagoen etxe hauetan; opila erdibituz gero, erdiak beste jakientzako azpil gisa erabil daitezkealako. Baina horiek urri izanik, Zerdeñan ugaria den jende xehe txiroaren hazkurri nagusi bihurtzen da ogia bera.

Ez da ogia soilki egosten halere. Zerdeñatarrak oso gogoko dituzte pastel apainak, batez ere edozein festaren karietara. Pastel horiek benetako zoragarriak dira maiz, bai haien itxura zailaz, bai haien apainduraz eta egiazko pitxi dirudite. Bai opilak

bai pastel horiek ofizioko okinen lana izanik, artegintza hutsa dira; eta anitz txorimotaz, bihotzez eta azukrezko hostoz apaintzen dituzte.

EZTAI BAT. Litxarreria fin hauek, jakina ez dira eguneroko bazkari-legea. Onenak eztaiaren oinarria dira. Ezkontza oso zerimonia garrantzitsua da; bakardadean bizi diren menditar guziek bezala, errespetu haundia atxiki bait dute zerdeñatarrek emakumeekiko. Ganbiamendu den guziari buruz uzkur, antzinako ohitura zaharrari eutsi diote begiramendu haundiz eta batere aldakuntzarik gabe. Hori dela bide, hertsiki atxiki diren tradiziooen arabera gertatzen da ezkontza, beste edozein fameliagertakari baino areago.

Ia munduko parte guzietan musika dute lagun eztailiarrek, eta gauza bera gertatzen da Zerdeñan. Hemen xirula mota batek alaitzen du festa: pittin batez eskoziar gaitak oroitarazten dituzte, baina ez dute aidemoltsarik. Musika temakoi hori entzutean, Afrika-ren eta España-ren abotsak aditzen dira. Italia-ko aire alegeretatik urrun dago oso, eta antza haundiagoa du arabetarren



Herritarrak kale-musikari baten soinuarekin biltzen dira eztailagunengana.

eta mairuen zinkurinekin. Ez dago horretan zer harriturik, ezen Zerdeñako itsasertzean barrena Ipar-afrikatar lur puska nabarmenak aurki bait daitezke, eta beste batzuk propio Españatik garraiatuak itxuraz.

Baina bihur gaitezen eztaietara. Soinu bat erantsi zaie xirulei, eta berehala hasiak dira denak biltzarrean kantari. Senargaiaren adiskideek andragaiaren laudorioa egiten dute hitz loretsuz: «Atsegin da zu horren eder ikustea. Ai letsa Jainkoari biok aingeru gisa baketan elkarrekin bizi ahal izatea!». Gero senargaiak berak kantatzen du kobla bat. Eta eztai-damatxoek batera ematen dute aire hau gutxi gora-behera: «Idatzirik zegoen elkartu behar zinatena. Patuak ez zuen haizu utzi zeron begiradak behin baino gehiagotan gurutza zitezen, baina hau berau aski izan duzue»...

Gomit guziak doaz orduan barrura, eztai-ohearen gainean ezarritako ezkontza-opariak betestera, eta oturuntzako mahaina betetzen duten janariak begiratzen dituzte. Horrelako jai batetarako arkume edo basurde izaten da, ardoz gertatu, eta patioan jasotzen den labean errea. Ba dago

Eskola haundiaz apaindutako soineko batez jantzirik, musika entzuten du andragaiak.





Zenbait arrantzalek bide luze egiten du idi-gurdian jaioterriko festetara joateko.



Ia jaialdi guzietan proosio bat antolatzen da kaleetan barrena herriko Saindua ohoratzeko.

«Capo Ardia» deritzan zaldi-laisterketa gogoangarria irabazi du mutil honek.



ere bertako ardoa; eta, jakina, era horretarako pastelak daude, pitxiak balira bezain dirdaitsu eta apain.

Festako inportanteena halere dantza da, batzutan zenbait egunez luzatua. Jirabira eroan egiten dituzte dantzariek beren pausuak. Orduak aurrera, eta dantzariek ekin ta ekin. Begiraleak aspergarri atxeman ditzake dantza horiek, baina parte hartzen dutenak ezin poziago ari dira beretan.

ZERDEÑA-KO JAIAK. Eguneroko betebeharra oso gogorra duten guziek bezala, zerdeñatarrek ahalik eta probetxurik oparoena ateratzen dute beren jai eta jolasetan. Jaiera haundia diete sainduei; eta horrengatik patroinaren egunak eta besteek ez dute elkarren iduririk batere izaten. Famelia batzuek horrela egun horri buruz zenbait hilabete aurretik prestatzen dituzte beren janariak. Eta sainduari eskeinitako herria urrunsko dagoelarik, famelia osoa abiatzen da haruntz bi gurpiletako gurdi batetan, eta han egoten da jaialdi guziaz.

Ikuskari bitxia da mendi-bideskatan barreneko ibilaldi hau, gurdiaren gurpil beteen kirrinka zorrotza lagun. Bideazkoek dilingailu bat montatzen dute gurdian, honen alderdi bakoitzean sukalde-kadira bana lotzen, emakumeentzako edo puntuzkoren batentzako ohorezko eserleku gisa. Hauek bidearen gainetik zintzilikaturik itxuraz egingo dute bidaia, jauziak eta guzti. Fameliako gainerantzekoak gurdiaren barruan jartzen dira, eta nor nola koltxoien gainetik metatzen, sukalde-eltze, gazta, opil, lusagar, eta karia horretara hil-berri diren arkumeen eta antxumeen artean. Kandela batzuk eraman ohi dira ere, sainduaren eliz-aldarean erregai eskeintzeko.

Udara kiskalgarri eta errautsu betean, eguzkitan erretako bazterretatik doaz gurdiak hiriruntz. Baita populu errumesak berak, baita aker-usaina darion jende xehe horrek berak, itxura alegera eta koloretsua hartzen du orduan; eta proosioa, sainduaren imajina buru, aurrera doalarik, pozaren poza! Edo-ta kale nagusiko goialdean zaldiak, ustekabean askaturik, laisterketa zoroan beheruntz abiatzen direlarik!



Garrasiak eta lehertzapenak ugari, zaldunek eliza inguratzen dute.

Festa batek erakartzen ditu uharteko barruti guzietako herritarrak: «ardia« delakoa. Honetan kondaira-gertaera bat ospatzen da: Erroma-ko ateen ondoan gertatu zen batalla batetan, zaldun multzo batek salbatu zuen Constantino enperadorearen ikurrina. Zaldizkoak, zaldun multzo ausarta haren iduritzaile, eliza gaineko munora biltzen dira, ikurrina tinko eta haizean harro-harro hedaturik. Munopean oinezkoak biltzen dira, ahal badute ikurrinaz jabetzera deliberaturik. Momentu horretan, hain da eragabea ikusten dugun zaldi-laisterketa, hain da eroa, hain dira hiriko ateetan eta harresien luzeran gertatzen diren bultzadak nahasi, non ezagutzaile argi ez den batek ezin bait ditzake ekintzaren gorabeherak garbiki jarrai. Iduriketa bukatu aitzin, bederatzi jira egiten diote zaldunek elizari. Oihuak, tiroak, harrapaketak eta zaldiek tope egiten diote elkarri. Denak libertitzen dira gogotik.

JAI-SOINEKOAK. Jolasketa horien koloretasuna hein batez bederen herritarrek harrotasunez jazten dituzten soinekoetan darietako bakar baten prestaerak zenbait hilabete-lan beharko lukeala. Gauza eskuarra da nekazarisa bat ehunka milaka libera balio duen horietako batez jantzirik ikustea.

Herri askotan folklore-soineko horiek desmodaturik daude, eta ez dira gaur egunero jazten; baina jai-egunetan berriz agertzen dira. Eta uhartearen ezagutzaile batek berehala igar dezake emakume bat zein herritako den, soinekoa begiratu hutsaz. Ko-

Zerdeñatar alaben jai-jazkera desberdina da eskualde batetik bestera.





Herri urrun batetarik etorritako dantzari hauek, beren txandaren zai daude jai batetara agertu aurretik.



Herri batzutan, horrelako txano koloretsu diztiranteak eraman ohi dituzte emakumeek etxe-barruan.

Jai-soineko bat prestatzeko, lan pairatsu eta trebea egin behar izaten da zenbait hilabetez.



tza. Hauen apaindurak hain dira zailak, holorerik usuena gorri bizia da, pikor koloredunen zukuaz prestatua batez ere herriko artilez eta eskuz irundako gonentzako.

Guztiz izurtuak, sarritan daude brodakinez apaindurik gona horiek. Blusa zuri batekin jantzi ohi dira, eta bestetan gerruntze batekin, hau ere doi diztirante urdin eta oriz edertu eta brodatua.

Mota bereko soineko bat daramate alarguntsek, baina guztiz beltza hau. Herri batzutan neska gazteak beltzez jazten dira: izur-estalgi antzeko batek izkutatzen die begitartearen behereko partea, mairuen zapalaldiaren garai zaharretan bezala emakumeek aurpegia oihal batez estaltzen zutelarik.

Gizonezkoek ere soineko mota asko darabilte. Hemen balusa berdez jazten dira, bota luze beltzekin; han alkandora zuriaz, txaleko edo txaketa beltz edo gorriekin. Batzuek artile latzezko gona motza daramate, anka-tartetik oihal horren banda bat pasatuz; beste batzuek oihalezko galtza motzak daramazkite, artile beltzezko polainak eta tupikizko botoinak dituen txaleko bat, honen gainean ahari-larruzko jaka bat erantsiz.

Zerdeñatar tradizinoan buru-jazkerarik jatorrena «errotari-txanoa» da: beltza da, eta 45 bat zentimetro ditu, eta punta zorrotza alde batera zintzilika. Gauza txikiak gordetzeko oso eroso atxematen dute txano hau baserritarrek, baita urdaila zerbaitez elikatu behar denean ere. Herri urrun batetarako bidaia hastean, oso gogoko dute txanoa hurbil izatea, goseak hestutzen dituenean ahora otamen bat eraman ahal izateko.

AHARIEN GERIZALEKUA. Gailur pikorrarritsuetan, noiz-behinka lasto estalpeko txabola punta zorrotz bat ageri da. Ez urrun ahari-talde bat dagoen seinale, artzain baten etxola bait da.

Uharteko zoko galduetan «muflon» delako ahari basak ere aurki daitezke: hauetxek izan ziren uharteko mendietako lehen bizilagunak, eta antzinan horrelako asko zegoen. Baina ehiztariak hain funditu dituzte, ia garaurik utzi ez dutela. Salbatutako ba-

naka hauek lege-babespean bizi dira gaur.

Baina edonun aurki daitezke horren lehengusuak, etxeko ahariak, uharteko biztanleentzako nahi-ta-ezkoak. Horien artilea, horien esnea, eta esne horretaz prestatzen diren gurina eta gazta, herri jan-xuhur honen janarien parte haundi bat dira.

Goiz eta arratsalde, ardiak jeisten dira jaitziak izateko. Esnea esne gisa erabiltzen da gehienik; baina gurin ere egiten da hartaz; eta «pecorino» deritzan gazta bat bereziki, oso ona eta usaintsua.

Gaztaren prestaera oso operazio luzea da. Duen usaina hain da azkarra, batzutan mendi betean egin behar izaten dutela. Prestagintza horretarako egokiena maiatza izaten da, honetan belar berri gizena dagoenean. Jeitzi berritako gatzatua hartu, eta gaina kentzen zaio, esnea gaztanbera bihurtuz. Egon horretan arkume puska batzuk urreztatzen dira surtan, gero lankideen artean zatitzeko.

Bai ardi-esnea, bai ahuntz-esnea erabiltzen badira, gazta beti lantzen da eskuz. Ontzian olioa erasten da maiz, baita beste eraskin batzuk, baserri-usain azkarra emateko. Irailera arte pausatzera uzten da gazta. Orduan ba dagoke neguan zehar azokan saltzeko eran.

Noski: ahariaren hazkuntzatik datozen ekoizpenetan garrantzitsuenetako bat artilea da. Bazkalekuetan beretan egiten da murrizketa. Emakumeek artilea hartzen dute beren gain, eta lehendabizikorik ur beroa duen ontzi batetan bustitzen; eta gero uxol hurbilaren ur freskotan, arrokazko ondoan igurtziz. Funtsean artilea deskoipetzea da kakoa, halere berez daukan bere berezko koipekina ez erauziz; zeren-eta, irun ondoren, oihal gotor, latz eta iletsu bat eman behar bait du artile horrek, «orbacio» deritzana. Honen gaitasunetan nagusia ia ezin-iragazia izatea da, hain zuzen atxiki duen koipekin arrasto horri esker.

Uxolondoan artilea aski garbitua izan denean, zakutzar haunditan pilatzen dute emakumeek, eta hauek gero beren zalditxo sendoen gainean zamatzen. Eta, arre! Herri aldera!

Ez zaldirik ez astokilorik ez badute, emakumeek berek eramaten dituzte zakuok;



Murriztu berria den artilea ur berotan murgiltzen da marmita batetan, koipea arras kentzeko.



Segidan ondoko errekaren ur freskotan xautzen da.

Ondoren lehortu egiten da artilea eta segituan zaku hauetan garraiatzen baserrira.





Artilea aspaldiko moldeko orratz berezitan garbitzen da; eta honen bidez harilketa prestatzen.

urtezaroen arabera ale-zakuak, egur-sortak eta axuriak eraman ohi dituzten bezala.

Hori dela bide, ez da harritzekoa gertatzen dena: Zerdeña-ko baserri-alabak, hain polit eta xarmant gaztaroan, azkarkiegi xahartzen, konkortzen eta nagitzen direla.

OHIALA EHULETEGIAN. Menditar herrietan emakumeek garbatzen dute artilea, eta hariltzen. Ehuletegian tinkatu aitzin, kalean zehar herrenkadan jarririk tiratzen dute. Iruten hasi baino lehenago, makila berezi-ren inguruan bildu behar dute berriro, mataza haundiak eginez.

Ehundegiak ehun urte edo gehiago du batzutan. Ehunka urte lehenago asmatua, oso eredu zahar baten modura egina dago. Lantzadera bakar bat ibiltzen da harietan, eta goitik beherako kolpe bakoitzean, kateaz bestaldera, hariak beti joaten dira xuxen beren helburura. Ehundegiaren abiada berean, kirrinka eta kirriska ari dela, hasten dira emakumeak kantu malenkoniatsu bat ematen. Hau honela izanik ere, oihalen koloreak bizi eta alegera izan daitezke. Oihal batez alfonbrak edo kolore dirdaitsutako moltsa bat egingo dute; beste bat, beharbada, eguneroko mantal edo gona sendoak egiteko erabiliko dute; eta beste bat, finago eta arinago agian, festa-soineko dotore bihurtuko da.

Oihala ehuletegitik irtetzean lana ez dago amaiturik, ez urririk eman ere.

Ehundegi hauek, oso xinpleak, orain dela mende batzuz geroztik erabiltzen ziren.





Atun-arrantzaren mentura heldu da, eta ba doaz hondartzaruntz sare luzeak harturik.

Ezen oihala bihurtu eta bolatu behar bait da oihala leuntzeko.

Azkenean ebakitzeko eta josteko momentua etorri da. Zerdeña-ko emakumeek ezin gogozago egiten dituzte orratzezko lanak harrokerian, artetsu eta filigranatu bezain zail egin nahi balituzte bezala. Baina aitortu egin behar da, lana bukatu dutenean zuzenetsita izan litekeala agian erakutsitako harrokeria-izpia.

Zerdeñatar mutiko horiek larrainean ikasten dute idiak gidatzen.



GIZONEN LANA. *Zertan ari dira gizonak*, kiloarekin, ehundegiarekin eta orratzarekin emakumeak ari diren bitartean? Batzuk artaldeak zaintzen ari dira alaguetan, beste batzuk soroetan lanean, beste batzuk tortotxondoak larrutzen edo uharteko harrobietan karezko harri-mokorrak aserratzen, edo kanaberazko saski gotorrak egiten. Herrik bere berezia.

Nahiz Zerdeña uharte izan, eta nahiz bertako herritar batzuk itsasoaz bizi, egia esateko zerdeñatarrek ez dute batere maite bizimodu hori. Uhartean genovatarrak eta gainerako italiarrak arduratzen dira arrantzaz, bihotzezko marinelak direnez. Bertako beharrak betetzen dituzte antxoaz eta sardinaz; eta errunaldian, itsasertzean gora talde trinkotan agertzen direnean, atun ezin haundiagoak harrapatzen dituzte beren sareetan.



«Heriotzaren ganbara» deritzan sare-tartean harrapatutako atunak harpoinatzen dituzte arrantzale horiek.

Operazio garrantzitsu hau martxo-ondarrean hasten da antolatzen, eta prestaera apirrila osoan eta maiatzean ia azkeneraino jarraitzen da. «Rais» izeneko buruzagi baten agindupean, ontzien osotasuna ikertzen du atunzaleen taldeak, zenbait kilometrotako soka biltzen, eta sareak adabatzekotan hedatzen.

Atunaren pisua jasateko (batzutan 500 kilo) etenkor dirudite sare horiek, baina ez dira horretarako eginak. Atuna erraza bait da nahastutzen; eta sareak, itsaspean benetako iraganbideak moldatzeko botaiak, preso altxatua izango den tokiraino gidatzen balio bait dute, eta ez zamarik jasaten.

Dena gertu dagoenean, itsasora jaurtitzen da sareak atxikiko dituen soka nagusia. «Rais» delakoa zutik dago ontzian, eta operazioak begiratzen ditu. Denak ari dira lanean karraskan, baina inor baino areago bera, «Rais» delakoa, arrantzaren arrakesta honen zuhurtziaren eta eskolaren kontu direlako.

Soka nagusia bere helburura denean, hiru kilometro daude itsasertzeraino, eta sareen hedaketa hasten da orduan. Bi ontzik botatzen dute itsasora soka nagusiaz bi alderdietan. Zein bere lekuan dagoela dirudienean, azkeneko ikertaldi batetan sare-gartzetan bere burua askatu nahiz inarrosten den arrain ezpata bat aurkitzen da. Zenbait puntutan urratua du sare erraldoia, eta berehalaxe, arrainak heldu baino lehenago, behar da konpondu galamu-hariz.

Ondoren atunen hurbilerari so paratzen dira gizonak. Sokak ainguru zuzenetan gurutzatzen diren lekuan, gurutze bat ezarri da: honek arrainek igaro behar duten lakioaren sargua markatzen du. Hauxe da «heriotzaren ganbera» deritzana.

«Ganbera» delakotik atun aski sartu delarik, «rais»ak kinua egiten du. Marinelak arraunetan hasten dira, eta ontziak lehenengo «mattanza» egiteko elkarganatzen dira. Lauki bat egiten dute, honen barruan txalupa bat besterik ez sartuz. Gizonak aurrez aurre jartzen dira buruzagiarekiko, eta hau laukiaren erdian dago. Momentu larri hauetan otoitz egiten dute denek buruhas. Gero, eskuaz kinu bat egiten du «rais»ak bere txalupa txikitik. Gizonek berriz jazten dute beren txano beltza, eta sareak tiratzen.

Ahuntzak jiratu eta sokak igoarazi ala, sareek gora ateratzen dituzte atunak, eta hauek jauzika itzulikatzen dira. Ura irakiten hasi dela dirudienean, «rais»ak hurrengo lanaldiaren hastapena iragartzeko jeisten du bere arrauna, eta hilketa hasten da. Gizonek ontzi-gainean lotzen dituzte arraintzarrak, eta ontzi-zubira altxatzen. Jasotakoan aurreruntz makurtzen dira borda gainetik, besoa edo bizkar-hezurra hauts lizaiekean buztankada indartsuetatik gerizatzeko.

Egunaren bukaeran, ontziak arrainez beterik bihurtzen dira kaira.

Baina bihotza alai dago, joritasuna (joritasun apala, egiazki) beren eginbide lantsua bukatu duten arrantza ondoan zai dagoelako.

TRISTURA ETA SINISKERIA. Biziera bakoitzak ba du beti bere atsekabe-aldia; eta Zerdeñatarrek etsi dute, eta eguneroko lanari eta pozei lotu ohi zaizkien penak eta hesturak jasaten ikasi.

Heriotza datorrenean, elizarako bidean urrunskotik laguntzen dute pertsona maitatuaren katabua ahaideek, bihotza erdibiturik. Hildakoarengana hurbildu aurretik, lutozko kaputxa beltz batez (txal beltz batez xuxen) estaltzen dira denak. Hileta-kantuak eta negar-saioen abiada hiletari profesionalek zuzentzen dituzte. Hauen ritual klasikoa oso antzinatik jasoa da. Horrela ohoratzen dute heriotza herritarrek, bizieraren amai normal gisa, jaiotza edo hatsa bezain normala.

Oso ohitura zaharrei lotuta dago hildakoarekiko errespetua, baita eguneroko bizimoldeari ere; esate baterako: haurtzaroko eritasunen sendabideari. Haur batek ohean egon behar duenean, herriko aitajaunari otsegiten zaio, eta honek petrikilo-errremedioak erabiltzen ditu gaitza sendatzeko. Sendaketarik baldin badago, galtzairuari erauzitako txinpartaren magiari esker izango da; hau da, harri batez labana igurtziz ateratzen denari.

Nola azal sendabide horren frutua? Sentonek berek ez dakite: ritual honen iturburua denboren gauean sùntsitu da. Ez dakite «zergatik», baina ba dakite erremedioa «nola» erabili behar den.

Oraindik ere ba dago hori baino sendabide harrigarriagorik. Hona hemen bat, gaurko egunean bakandu egin den eritasun baten kontra burrukatzeko.

Zerdeñatarrek uste zutenez, haur bat gauez irtetzen baldin bada, eta horren buruaren gainetik hegaz ontz bat pasatzen bada, arriskua du aurrerakoan ez hazteko. Zoritxar hau haur batek izan ote duen jakiteko, lokarri batez neurtzen da: lehendabizikorik haren luzera, gero haren zabalera besoak zabaldurik. Zabalera hau luzera baino haundiagoa baldin bada, zoritxarrak ikutua dela segurta daiteke. Ontzaren egintza gais-

Haurrek izuti begiratzen dituzte arrotzak.



toaren kontrako sendabidea erantsi behar, beraz.

Honetarako, magiazko zuku bat prestatzen da haurra neurtzeko erabili den sokaz; puska txikitan zatitzen da, eta plater batetan nahasten dira haurraren ile xerlo batekin eta arropa-atal batekin. Pospolu bat piztutzen da, eta honetaz kandela bat. Garretik pasarazten da oihal puska hura, eta honen bidez su ematen zaie beste nahaskin magikoei. Handik laister ez dago horren guziaren arrasto izpirik ere, ez bada hauts beltzezko ahurtara bat. Hauts hauek orduan kafe beltzarekin nahasten dira, eta dena haurrari harrerazten zaio xarmabide guziak eginez, eta haurraren nazka eta goragale guzien gainetik. Dena ondo baldin badoa, gaitzaren kontrako deabru-iraizketa obratua da, eta haurra ederki haziko da handik aurrera nagusien luzera izan arte, ontzaren zori gaisto hura behin gertatu arren.

Hazi egingo da, beraz, ezkondu egingo da, famelia bat sortuko du; herriko festetara joango da, noiz-edo-behin agian kandelaren bat iziotuko du elizan, nahiz jaiera hauek emakumeen kontuak izan. Bizi guzian lanegingo du mantendu beharrez, eta bere lana kantuz eta solas alaiez gazituko du.

Hau eginez geroko belaunei irits-araziko dizkie famelia-bizimodu xinple baten ohitura nasaiak. Bizimodu jenerala Zerdeña-ko herri langile eta gogorrean.

«Launedda» kanaberazko soinu-tresnaren musika, oso ongi egokitzen da uharteko bizimodu apalarekin.







MAURITANIA

Gizon urdinak

(Marice Croizard eta Pierre Galant-en «Les Hommes Bleus de Maroc»-etik hartua)

Horra hor geldi-geldirik, imajina-kutsuko izur urdinen artean, basamortuko gudaria. «Bere askatasuna defenditzen ez duen mairua miresten dut —zion St. Exupéry'k— basamortuan nornahi libro delako; bere altxor agiriak defeditzen ez dituena, basamortua soila dagoelako; baina erreinu izkutu bat defenditzen du».

Marroka-ko Hegoaldean, Atlas eta Anti-Atlas mendi-katea bikoitzaren ondoan, Mendebaldetik marinel ontzi-galduak beste inork ikutzen ez zuen itsasertz bizigaitz eta traidore batek babestua, 30.000/40.000 arabitar seme bizi dira oraindik —xuxen zenbat diren ez dakigu, estadistikaren zerbitzua ez bait da oraindik iritsi haraino—. Arabia-ko menperatzaileen ondorengo: —horra hor munduko azken etxegabe edo nomada nagusiak.



Nahiago du «gizon urdinak» bere askatasuna, zibilizazio modernoaren aisea baino.

GIZON URDINAK. Nomada haundiak, etxegabe haundiak. Izen honetxek berezten ditu, mendebaltarren iritziz, etxetarrago diren beste etxegabeengandik: Marroka-ko berebber edo tuareg-engandik, alegia (hauek Hego-Arjelia-ko seme sorkuraz). Baina azken hauek beren bidaia errarietan, palmadietatik eta bizigaiak aurki ditzaketen lekuetatik zenbait ehun-kilometrotara ibiltzen badira, lehendabizikoek basamortu osoa hartzen dute erreinutzat. Beren salgai bakarra diren ganbeluak Tinduf-en, Gulimin-en, edo baita Marrakech-en ere saltzeko, eta hantxe garagarra, datilak, azukrea eta teia erosteko, Mauritania-ko zolatik etorri ohi dira batzutan, apurka, lau edo bost astetan, mila, mila eta bostehun, are bi mila kilometro ere ibiliz. Gero Hegoaldeko beren larre lehorretara bihurtzen dira; eta ia segidan beste bidaldi bati ekiten diote.

Gaur azoketara eramaten dituzten ibilketa luze horiek, antzinako ibilketen aztarnak dira; baina orduko haiek nobelatsuago eta gupidagabeago izan ohi ziren: karabanen aldera eta herrien aldera joaten ziren orduan, eta sarraskitu egiten zituzten. Gudari harro, idor, eta erten, eta gure aurrerapenen mespretxatzaile, sarraskia zen-'rezzu' delakoa —haien tradizinozko eginkizuna.

Galdutako itsas-gizonak basamortuko korsario hauek harrapaturik, jopu-merkatuetan saltzen zituzten gero; eta birrerospen baten truke erosirik, hauetxek izan ziren lehenengoak haien berri ematen: herri menperatzaile, nahasle, garratz, gogor eta libro, gogorkeriaren aldeko; baina baita solasaren lagun, eta berdintasunarena bereziki. Ankerra batzutan bizia arriskutan ikusten duelarik, baina egiati eta haurrak bezain irribera. «Kolore bitxiko giza-arraza bat» esan zuten behin; eta «gizon urdinak» bataiatu.

SOINEKO URDINAK. Kolore hau ez da, egia esateko, inolako arrazaren ezagugarri; baina haien larruarena zen. Gero, ordea, Sahara-ko frantses aintzindariek gizon hauekin lehenengo harremanak lotu zituztenean, izkutukiaren kakoa lortu zen: soinekoen kolorea zen urdin hori; eta soinekoak destindatu egiten ziren larruaren gainean.

Arabetarrek soildu egiten dute burua. Gizon urdinak, kontrara, bere ile guzia atxi-

kitzen, bi partetan emanez: bata kopetaren gainean, garaitearen gainean bestea. Itxura muzina ematen dio adats ugari bildurgarri beltz horrek. Hau zenbait metro luzerako kotoinezko banda bildu eta bihurtuaren azpian —'cheche'— izkutatzen da hein batean, batera turbante eta txal gisa zerbitzatuz. Baina «cheche» horrek beste baliotasun asko izaten du: gizon urdinak buruan ez daramalarik, sokatzat baliatzen du, estalkitzat, zaku edo gerrikotzat, eta gauez burukotzat.

Eguzkiak beztu eta indigoak urdindutako beren aurpegietan, denek dute bizarra: sinbolo bat da. Aspaldian irain bat mendekatzea zinegiten zuenak, odolaz igurzten zuen bere bizarra. Gaur dena galdua duen gizon batez hitzegitean, bizarra eraузteko keinua egin ohi da. Eta antzinan zenbait leinutan, hauek ziren zigorrak gogortasunean gora joanaz, famelia-buru traidore edo zinfaltsu arnegari bat gizataldeak zigortu nahi zuenean: haren bizi-denda erre, haren emazteari burua soildu, eta azkenean, bizarra moztutzea; hain zigor haundia, eskuarki inoiz erabiltzen ez zela.

Soinen eta bizkarren gainean, «dorraa» izeneko oso alkandora kotoinezko zabala jantzi ohi du gizon urdinak. Sarritan batzuk daramazki, bata bestearen gainean, basamortuko berotik gerizatzeko modurik onena oso ongi estalirik egotea bait da. «Serual» izeneko galtza, motza eta oso zabala da. Oskia —«nail»— lokarri batez lotzen den larruzko zola bakana da. Lokarria oineko behatz haundiaren eta ondokoaren artean igaro-arazten da, horrela azkar kentzeko moduan hondarra oso kiskalgarri ez dagoenean, etxegabeok oinutsik ibiltzea nahiago bait dute.

Bai «cheche» delakoa, bai «dorraa», urdin indigo dira. Tindu hau Arabia-tik etorri ohi zen aspaldian. Gaur kotoinezko oihal urdinak britaindar fabrikazio arruntak dira, eta Nigeria-tik heltzen dira basamortuko zoletako merkatuetaraino. Baina larrua ikutzean destindatzeko berezitasuna atxiki du, eta koloratu egiten du larrua piskanaka. Etxegabe-nagusi hauei urdina horrenbestez atsegin izatea ez da iritzi behar estetika-



Oasi urrunaren bilaketa etengabeak, basamortuko bidesketan barrena eramaten du «gizon urdina».

-pleguko joera baten gisa. Tindu indigo horrek eguzkiaren kontrako babes bikaina ematen du; eta errainu kiskalgarriegitan luzaroan egon direnean, gizon urdinek aurpegia igurzten dute beren «cheche» edo alkandoraz, baita zangoak edo agirian egon diren atal guziak.

Emakumeei dagokienez, gizonek bezala «serual» delakoa daramate («dorraa»ren antzeko atorra bat); baina, honez gain,

Biziera bidaia amaigabe bat iruditzen zaio «gizon urdina»ri.





Beren adatsen orrazkera prestatuz igaro ohi dute emakumeak astirik luzeena.

Orrazketari emandako astiez gain, emakume hauen bizimoduak ez du ia batere entretenigarririk.



oihal urdinezko bi jazkiz estaltzen dira. Ez dute aurpegia estaltzen ohiturako beloaz, hau eta bizimodu erraria ezkondu ezinak bait dira.

Astebete ere ez da pasa ohi orrazketa-saio artatsurik gertatu gabetanik. Karia horretara ordu luzeak pasatzen dituzte elkarrekin, hamaika adasko hestu eta tinko elkarri trentzatuz.

Hauek dira bada karabanan jarraitzeko asmoa dugun gizon eta emakumeak.

Gizarte-oinarria denda da; honetan senarra ,emaztea, haurrek eta zenbait aldiz aitona-amonak bizi direlarik. Poligamia zilegi da, baina pratikan ez dago. Denen gainetik famelia da ageri, arbaso baten ondoko guzien bilduma gisa; leinu-atal-adarra, leinu-atala, eta leinua bera. Buruzagia (leinuarena «caid» izenekoa, eta leinu-atalean «cheik» izenekoa, hau da: zahar) beti izaten da aspaldidanikako famelia bateko lagun, eta ondasun haundien jabe. Ez da gogorkeriaz nagusitzen, eta beste fameliekiko bildua duen itzalaz eusten dio bere aginteari. Hiltzean, urtetan abiatua den ahaideren batek hartzen du segida eskuarki, «djema» edo agure-biltzarrak erabakiko duen arabera. Beste alde batetik, denak dira ahaide leinuaren barruan, hurbilago ala urrunago.

Hauen gizartea, beraz, aiton-semerian edo feudalismoan bizi diren tuareg-ena baino demokratikoagoa da.

BIDAI-PRESTAERAK. Gizon urdinak ibiltzen diren lurraldea ikaragarri zabala da. Mendebaldeko Sahara osoa, Marroka-tik Senegal, Rio de Oro eta Mauritania-raino, haien jabegoa dira. Baina ezina da aldaira haundirik egitea, talde txikitan ez bada: 30/40 lagun, eman dezagun, hamabost bat denda eta ganbelurekin.

Denak mintzo dira Yemen-goak bezain arabe garbiaz. Reggeibat-tarrak dira batzuk, Ely - ben - Ahmed menperatzailearen ondokoak; edo-ta mairuak (Ida-tarrak, Blal-tarrak edo Ait Hussa-tarrak): ez besteak bezain jatorri bakarrekoak, baina ohituretan sakonki arabetartuak.

Hegoaldeko larreetan utzi dira ahuntzak zelatarien ardurapean. Eskualde horiek aspaldi-aspaldidanik daude leinuen artean hertsiki mugatuak. Karabana Atar-tik irten da, Mauritania-ko muturrean. Tinduf aldera doa, handik mila eta gehiago kilometrotara, orain dela berrogei-ta-hamar urte sarraskitu zuten hiria, gaur haien merkatu bihurtua. Ganbelu guziak ez badituzte saltzen, Marrakech-eraino bidaliko dute saltzaile-talde txiki bat Atlas-tik bestaldera.

Denda aztunago eta erosoago bat gan-

beluaren gainean eraman dezaten saiatzea alferrik da: arina, eta eraikitzen eta desmontatzen erraz den bat nahi dute.

Estalkia «flige» izeneko ahuntz-edo ganbelu-xerloz egina da, emakumeek baita lur gorriaren gainean ere jartzen dituzten ehundegi moldagabetan iruna. Nomada aberatsek ez bestek erabiltzen dute horretarako oihal zuria, sapai bikun bat eratuz.

Bi makoren gainean tinkatutako haga batek eusten du denda erditik. Lurrari lotzeko, «talha»-sustraiezko makilak erabiltzen dira —elorri zorrotzak dituen zuhaitz horretxen erresinaz egiten da arabetar kola— eta soka luze xamarrak baliatuz estekatzen, horretara denda haizearen kontra segurtatua utziz, baina era berean laxoki estekatua. Galernak direla-ta, dendak apala izan behar izaten du.

Baina Hego-Ekialdeko haize bildurgarria den «chergui» delakoa txistuka hasten denean, den-dena lehortzen dituzten hondar-ekaitzak altxatuz, erdiko haga nagusia kendu behar izaten dute, eta lurrean kuxkurtu, oihal aztunaren azpian gerizaturik barealdia berriz etorri zai. Bapatean zerua oritu egin ohi da; eta Provenza-ko mistrala bezala, «chergui» delakoa baita bederatzi egunez ari izan daiteke.

Denda bi partetan zatitua dago: emakumeena batetik, sukaldeko tresneria apalarekin; eta gizonena, «ostatu-tresneria»rekin: *alegia, tei-ontzia eta teia zerbitzatzeko gai*nerakoekin: basoak, azukrezko ogia, eta hau puskatzeko erabili ohi den bi ahotako mailua, tupikizkoa.

Tei gordina da, izan ere, etxegabe hauen edari printzipala. Prestaera poliki eta artaz egiten da, benetako zerimonia batetan bezala. Gizonak prestatzen du eskuarki, eta hau dudarik gabe ohore haundia zaio. Etorrera berrikotzat jotzen den tei hau Britaindar-Nigeriak hornitzen du, oihal urdinak bezala; eta kafeari nagusitu zaiola dirudi, Brasil-en gertatutako ekoizpen-krisiaren ondorioz. Txina-tik edo Zeilan-dik heldu da teia, baina bereziki prestatua da, eta oso gozaturik hartzen da, jarabea balitz bezala. Hain zuzen ere «azukrea hartu» entzun ohi da «teia hartu» baino aisago.



Basamortuan zehar gizon urdinek egiten dituzten bidaia luzeetan beharrezkoa da pausaldi egitea.



Pausalekuan zerimonia baten gisa hartzen dute gizonek edari nagusitzat daukaten teiaren garaia.

Eguzki beroaren kontra dendaren itzalak babes atsegina ematen du.





Emakumeek egin behar izaten dituzten lan gogorretako bat hau: dendak eraaxtea.



Erraza da bazkaria prestatzea, hau nahi-ta-ez xuhurra delarik.

Gizon urdinen gutitxia dira datilak, baita hazkurri-oinarri bat.



Eta ura urri ez den jorialdietan bederen oso erruz edaten da. Halaxe dio esakun zaharrak: «baso bakar bat ez da ezer, bi gutxi, hiru ederki, lau fantesia, bost debeku («khamssa»: bost zifra bera, jakina denez, tabu bait da eta gaitz-ekarle); eta sei, hiru baino hobe».

Edo beste atsotitz batek dionez: «Tei-ontzian gelditu diren kondarrak hartzen dituena ez dago zuhur: ez daki ez aditzen ez ikusten».

EMAKUMEEN LANA. Goazen orain dendako beste partera: emakumeenera.

Sutegiaz arduratzen dira; hobeki esateko, harri piloaz eta honen gainean beti ur beroz beterik dagoen marmitaz. Hots, hau ez da erraza; gizon urdinek zeharkatzen dituzten basamortuetan urri bait da egurra. Bide guzian barrena zotzak bilatzen dituzte; eta hauek guziz amaitu direnean, ganbeluen gorotz lehorrak berak hartzen.

«Tuareg»en artean sendimenduzko bizierra badago ere, haien artean alderantziz ez; basamortuak «romance»tarako betarik uzten ez bait du ugaririk, ezer uzten badu. Ez dira maitasunez ezkontzen, egokitasunez baizik; eta beti ere leinu-barruan. Neska; dena dela, ez da ezkontzen bere baimena eman aurretik. Aitak ondasunak eta artaldeak eman badizkio, haren eskuetan gelditzen dira hauek. Eta emaztea senarraz pozik ez dagoenean, bere gurasoen etxera bihurtzeko eskubidea du.

Barne-lanek, eguneko bilaketak, ahuntzen artak, iruteak, eta dendaren eraberritzeak, ez diete emakumeei gizarte-bizitzarako astirik uzten. Aitaren nagusitasuna da lege hemen. Nomada haundi hauen bizimodua gogorra da: hogei urtetako emakumea zimeldua dago, eta berrogei urtetako gizona eskuarki zahartua.

Denda iruteaz gain, aldioro emakumeek eraikitzen duten eta eraaxten. Emakumeek ere egiten dute bazkarien prestaera: bazkari xuhurra, ia beti haragizkoa. Usuena «dchicha» huts bat, garagar-irinez eta argana-olioz irakina.

Emakumeei dagokie era berean ganbeluemeak eta karabanak ekarri dituen ahuntz

urriak jaiztea. Hauen hersgunea, dendaren ondoan, «talha»-elorrizko hesi batek babesten du txakalengandik.

Honela dio atsotitzak:

Etxen esnerik ez duenak, ez du ezer.
Esnerik ez duenak, ez lagunik ere.

Alezko eta datilezko anuak aitu direnean, esnea (ganbelu-esnea batez ere) izaten da leinuaren hazkurri bakarra. Dendara hurbiltzen den arrotzari ere esnea eskeintzen zaio. Ezen esneak zuritasun eta gozotasunaren seinalepean elkartzen bait ditu gizonak, eta behin partekatua dutenen artean, odolak ematen duen batasuna bezain sendo den zerbait ematen bait du. Itzuletara bildutako aker-larru batetan (barne aldeko ileak behar bezala koipeztatu eta pikeztatu ondoren) esnea zenbait orduz eraginik, gurin bihurtzen da, hau ere oso hazkurri istimatua. Ezkonberri den emakumeak dendako hagak gurinez bustitzen ditu, geroko bere etxera joritasuna ekartzeko.

GANBELUAK. Kanpalekuaren inguruan, ganbeluek, loturik, bazkatzeari eusten diote; bazka dei badaitezke harrien artean banaka sortzen diren sasi kaskar iharrak; eta bestetan ere aipatua dugun «talha» sastraka: pozaren pozez mihizkatzen ditu ganbeluak honen adarrak; nahiz hauek burdinhari xixtrodun hutsa diruditen... Baina janari ezin eskasago hau aski zaio.

Afrikatar ganbeluaren jatorrian misterio asko dago. Indiatar arbaso batengandik heldu direla esan ohi da, eta hura kristauaroaren hastapenetan iritxi zela Siria eta Arabia-tik. Konkor bakar bat dauka. Asia-ko ganbelua baino arinago, gorago eta zaluago, ilea motzago eta leunago du. Bere tamaña haundiak eta ibilera patxaratsuak basamortuko jaun egiten dute.

Lanegiten duelarik, hogei-ta-bost urtez bizi da ganbelua; libro delarik ia bikoitza, eta ganbelu emeak urtebetez elikatzen du bere umea. Haren edan-urritasunaz esan ohi dena, ia ipuina da osoki. Geldirik egonda bakarrik, eta belarra hazten den eskualdeetan —alegia, benetako belar gizena— ez bestetan egon daiteke zenbait astez edan gabe, behar hainbateko ura ematen bait dio belar gordinak berak. Fama denez, konkorra hazten du landare berriak jaten dituen ganbeluak. Konkorra, hori bai, haunditu eta gogortu egiten da, konkorrera biltzen bait ditu bere iraungaiak. Baina lanean diharduelarik eta urte-zaro beroan, alderantziz, bigundu egiten zaio, txikitzen eta lekutzen. Orduan ezin daiteke egon urik gabe lau egunez gora, eta pausaldietan urontzi batek bezala jokatuko du, barnea bete beharrez, egun bakar batetan 80 edo 100 litro edanez.

Horrela, bizkar gainean 300 libra daramazkielarik, gizonaren abiadan egin ahalko du zenbait hamarreko kilometro egunean. Higuindua, bere jabeekiko muzin beti eta behin ere ez atxikia, lan horrek nazkatzen duela dirudi: zamatzen dutelarik, kurrinka sakon eta marrantatsuak botatzen ditu. Marraka egiten duela esan ohi da. Gero etsi egiten du; eta etsipen berberean etzango da halako batez hiltzeko hondarraren gainean, Sahara-ko eskergatasunean beste hezurdi xuriska bat utziaz.

Ganbeluek beren jabearekiko senditzen duten mes pretxua gauza ezaguna da, eta funtsezkoa.





Buruzagien emazteek eta haurrek ganbeluen bizkar gainean lotutako ohantzetan bidegiten dute.

IRTEERA. Bai abereentzako bai gizakumeentzako bidaiaren arazo nagusia, bidea baldinduko duena, karabanaren antolamendua ere markatuko duena, urarena da. Euriteak ezin bortitzagoak izaten dira, eta zenbait ordutan, mirakuluetan bezala, belar-izpi berdeak jaio-arazten dituzte; baina bestetan urtebetez eta gehiago luzatzen da horien etorrera. Hemen, eguzkitan eta urik gabe, «ihartu» egiten da gizon bat zortzi ordutan; eta basamortuko hizkuntza gupidagabean hau adierazi nahi da hitz horietaz: egarriak hiltzen duela. Sahara-ko etnografian beste lanabes nagusi bat da «guerba» deritzana, errarien ur-hornitzaile bat, ahuntz larruzko zahagia. Malgu, iraunkor, ezin-iragazia, lurrinera edo evaporazio ttiki bati esker ura tenperatura freskotan atxikitzen du. Larru oso bat da, itzuletara jarria, pikez eta gurin berriaz zurratua. Ganbeluaren lepotik lotzen da. «Guerba» batek hogei/hogei-tabost litro ur ditu: basamortuko «jerrycan» da.

Irteera haundiaren eguna iritxi da. Zenbait astez lehenagotik gizonak, denda-barruan exerita, karabanaren ibilbideaz mintzo dira elkarrekin. Leinu-buruzagia eta leinu-ataleko buruak ere deituak izan dira, zenbait ehun kilometrotako bidaia bat eginkizun zaila delako. Bidaldia mugarriz tartekatu behar da, eta kanpalekuak iturburu ezagunen ondoan hautatu behar dira. Saharako putzu hauek, lurraren azalean ageri diren zulo soil, ez lituzkete arrotzek erreparatuko ere ezta ondo-ondotik pasaturik. Eta bilatu egin behar dira ere basamortu betean uhartetxoen kide diren oasi bakanak.

Goizean goiz da irteera, baina errariak ez dizue ordua esango. Ez du erlojurik, ezta beharrik ere, guk geure esferetan bezain zehazki irakurtzen bait du berak ordua eguzkian. Emakumeek dendak desmontatzean makilak erauzten eta tresneria gertatzen duten artean, gizonek abereak prestatzen dituzte. Gauzarik garrantzitsuenak (soineko, pitxi, tei, azukre, ale eta datilak) «tisufra» izenekoan gordetzen dira, janarientzako zakutzar bat hau, ahuntz-larruz egina eta geometriazko marrazkik dekoratua. Denda batek eta honen makilek ganbelu baten zama osatzen dute. Zakuak beste zamarien artean zatituko dira. Zenbait ganbeluren gainean «araguena» delako oheskak ezartzen dira, bidariak eguzkitatik gerizatzeko lonaz estaliak; eta hauetan bidegiten dute buruzagien andereek eta haurrek. Haundieratik, «araguena»ren apainkeratik, buruzagiaren aberastasuna igar daiteke, baita emazteak harengan piztu dituen maitasunsendimenduak. Gizonezkoak, burua aurrean, ganbeluen ondotik doaz oinez. Zenbait aberek ez darama zamarik batere: hauetxek dira gero azokan salduko direnak.

Karabanak lau edo bost kilometro egiten ditu orduan. Argiak urdin agerrerazten duen harrieta zabalean («reg») luzatu egiten da. «Kram-kram»-ez ereindako dunen ikuskaria ez da sekula aldatzen.

Eguna bukatu aurretik gelditzen da karabana. Gizonek, denda eraiki gabe, lur gorrian pasako dute gaua, orbelez eta ganbelu-gorotzezko su apal baten ondoan. Errari hauek sinisten dutenez ilargia bidaiaren aldeko izana da («quamar» delakoa). Zeruan agertu baino lehenago, gizon urdin guziak La Mecca aldera itzultzen dira, eta otoitz egiten.

OASIAK. Bapatean, urrunaraztean, duna baten atzean lehenengo palmondoa ageri da. Horra hor oasia. Horra hor «ksar» delakoaren murru laukiak, gaur iristen diren gizon urdin hauetxen oldarraldiei ihardukitzeko antzinan eraiki arazi ziren harresi berberak. Karabana hurbiltzean, herri barnera sartu dira korrika «ksar»-tarrak. Oroitzapen txarrak utzi dituzte aspaldiko «rezzu» izeneko sarraskiek; eta gaur berton, leinu ezezagun bat agertzen delarik, murruen atzean izkutatzen dira. Kezkak ez du luzaz iraungo. Gure gizon urdinak ongi ezagunak dira «ksar» tarren artean. Hain zuzen ere, hauen gerizatzaileak dira haiek, eta «debiha» bat sinatu dute elkarrekin.

Sarraski-garaiko oroitzapena den tratu bitxi hau, babesa da batetik, baina baita «rachet» ere. Aletan eta datiletan ordaintzen den «anaitasunezko zerga»ren bidez, ksartarrak edozein sarraskidura edo lapurretaren kontra babesturik daude, eta segurtatzaile edo babes-emaleak antzinan sarraskitu egiten zutenak berak dira. Ba dago funtsezko baldintza bat nahi-ta-ezkoa: edozein liskar baztertzeko: ilunabarrean ksartarrek etxera behar dute, eta hiriko ateak hetsi. «Ra'i»-ak ez beste inork du gauez oasitik eta garagar landetatik pasean ibiltzeko baimena. Baina «ra'i» edo zaindari hau, bere herrikideek han etendurarik gabe utzitako gizon urdin bat da.

Hauxe da bidaiaren lehenengo pausaldia. Hauxe da basamortuko errariak eta mendietako etxedunak (beste mundu batetakoak beraz hauek) lotzen duten lehendabiziko elkarketa. Abereak geratu egin dira. Belaunikarazi egiten dira, zamak kentzeko; eta emakumeak segituan hasten dira lanean. Beti bezala hauetxek eraikitzen dituzte dendak; eta «khaima»ren behere-aldea osoki estaltzeko behar den oihal puska finkatzerakoan, beharrezko diren «orratzak» basamortuko «talha»k hornitzen ditu. Arratseko afaria beste egunetan baino ugariago izango da. Janarien ilaran datilak agertuko dira berriz, eta teia mendaz urrindua.

Karabanak «reg»aren gainean eraiki du bere denda-multzoa, palmadia inguratzen duten «ksur»-etako batetan. Berotasunetik



Sahara-ko ikuskari berezia da hau: hondar eremua haizeak kizkurtua.



Bide luze, kiskalgarri eta aldagabean barrena doa karabana, motel eta nagi.

Oasi baten ondoan, lehen azoka-egunaren zai daudelarik ,gizon urdinek beren denda-multzoa eraikitzen dute.



hobeki gerizatuak izateko, lurrezko etxeek —eguzkitan lehortutako lurrez eginak— leiho edo zulo gutxi dute kanpoaldera. Eguzkia sekula sartzen ez den laberinto bat bihurtzen dira etxeon arteko tarte mehar ilunak.

Hemen ba zen lehen jopu-merkatu bat, hauxe bait zen Sudan-dikako karabana haundien helburua. Hots, hauetan etortzen ziren beltz kateatuak. Gaur egun palmadia errarientzako hornigua bihurtu da (datil, ale, tei, azukre, olio eta oihal); eta basamortuko gizonek ekarritako ganbeluen bila heldu ohi dira honera ondoko herritarrak.

Nekazari-herri batek osatzen du «ksar»a. Batzuk berebertarrak dira: luzeak, begitarte ederrekoak, ilea gaztain usu, kirru zenbait aldiz .Gizon harro eta ertenak dira. Beste batzuek, aldiz, ezpain lodiak dituzte, sudurra motz eta larrua oso ilun: «karatin» deritzate beren buruari (bakarrean «kartani», nekazari beraz). Gehienak Sudan-go aspaldiko jopu ondoko dira, eta Sahara-ko nekazaritzaren langileria osatzen dute. Bi arrazaren elkarketa hau (zuria bata, beltza bestea) ia basamortuko eta Ipar-Afrikako muga guzietan aurkitzen da.

«Ksar» (= alkazar)-eko harresiak, oasia tuareg-tarren sarraldietatik gerizatzeko eraiki ziren.



ALLAH-REN PALMONDOA. «Oi, Jainkoa! Bedeinka zazu otoi Mohammed gure jauna!

Oi, Jainkoa! Agur zazu!

Oi, palmondo hori: zuhaur zara Jainkoaren palmondoa!»

Eresi hau, hamaika abotsek berriztatua, egunsentitik ilunabarreraino altxatzen da palmadian eten gabe. Ksar-tarrak ari dira kantari. Hogei eta hogei-ta-hamar metro gora zuhaitzetan igorik, eta tradizinoaren araberako kinuz eta ia zerimoniaz lagunduz, oasiko bizimoduaren eginkizunik zailenetako eta beharrenetako bat egiten dute: palmondoen ernatzea. Palmondo emearen mulkoan zenbait hazi-irinezko adaxkan sartzean datza.

Sahara-ko Jainko ona diren arbola hauen ernatzea ezin da naturaleza hutsaren esku utzi. Landareentzako eta alimaleentzako beharrezkoa den itzala emanaz gain, Hego-Marroka-ko jendetzaren hazkurri nagusi diren frutuak ematen ditu; alfonbrak iruten, saski eta otarre egiten, eta hondakinez berez soka bihurtzen diren firuak ematen ditu; baita etxeetarako habe nagusiak moldatzeko zura.

Datil-palmondoa burua surtan bizi da, baina ankak uretan behar ditu. Batera behar ditu eguzkia kiskalgarri eta lurra heze. Basamortuko irudiaren antzera egina da, eta ura nahi-ta-ezko eta hil-da-biziko bizikai zaio. Horrengatik, uraren jabea, «kial-el-ma» delakoa oasiko puntuzkoen artean dago, eta lanbidea gurasoengandik seme-alabengana pasa ohi da.

Denborarik luzeenean iturri batek segurtatzen du palmadiaren ureztatzea. Landutako pentzeetara «seguia» deritzan ubide baten bidez iristen da; eta pentzeak elkarretarik berezteko lur-meta bat dago. «Ksar»en artean partitzeko, «kial-el-ma» da arduraduna. Hori lortzeko «ureztapen-txanda» bat muntatzen du. Eta hona hemen nola jokatzen duen: denbora epe batez balia dezake nekazari bakoitzak iturriaren isuri guzia.

Denbora neurtzeko hondar-erloju zaharra erabiltzen da. Ba dago honetan «tighira» deritzan metalezko gatilu bat, erdian oso diametro txikiko zulo bat duena. Urez betetako ontzi haundi batetan jartzen da ga-

tilu hori. Piskanaka piskanaka betetzen da, eta ondoratuz doa apurka azkenean ondoa ikutu arte. Bete arteko epea da, hain zuzen, «uraren txanda» Ksar-eko nekazari bakoitzarentzat.

«Tighira» ondora erortzen den bakoitzean, «kial-el-ma»k korapilo bat egiten du palmondo-adar batetan. Nekazariari eman zaion korapilo-kopurua bete denean, deihadar zorrotz bat botatzen du, eta eztabaida-bideak kito: gizonak hetsi egiten du «seguia», eta ura hurrengoari pasatzen. Bakoitzak izan dezakean txanda-mordoa erosi egiten da edo etorkiz jasotzen, eta alorrak lantzeko aukera ematen.

Ba dago oasian beste putzurik, eta ura sakonago ala axalago izan eta aldatu egiten dira. Arruntena txirrita-putzua da: honen erabilera ifernu-kirriska batez laguntzen da, Sahara-ko palmadian zaratarik nabariena. Txirritaren ardatza eusten duen zur landugabezko alki bat da. Txirritatik soka bat pasarazten da, honen mutur bat zahagi lepo luze bati lotuz; eta beste muturra gizon batek edo abere batek hartzen du, putzuaren sakonaren luzera berbera lurretik eginez. Hau bere ibilkizunaren helburura iritxi denean ontzia azaldu egiten da putzuburuan, eta segidan isurtzen. Egintza hau egunean ehunka aldiz berretzen da.



Oasiko urak elikatzen eta mantentzen ditu bizirik ezin beharrago diren «Alla-ren palmondoak».



Ura, nahiz giza-motorez, nahiz alimale-motorez, ateratzen da oasiko putzuetatik.

HERRIKO AZOKA. Gaur «mussem» nagusia dago palmadian: alegia, alearen uztaren ondo-ondoan udaberri guzietan ospatzen den urte-azoka. Ofizialki bizpahiru egunez irauten du; baina Atlas-ko bereber-tarrak oasian beti uste baino luzeago egoten direlako —eta basamortuko nomada nagusiak areago— aste guzian luzatuko da.

Haseran erromes-helburu bat besterik ez zen «mussem» delakoa. «Marabu» baten hilobian erregutzera etorri ohi zen, alegia, bertako sainduxkari. Mendebaldeko erromes-bide gehienetan bezala, festa sakratuak merkatalgoaren hedakuntza ekarri du, baita mundutar jolaspide askoren jaiotza. Gizon urdinen soraiotasuna harrigarri gertatzen da berebertarren poz errazaren ondoan.

Hazi-irinez gainezka dauden aldaska bitxi hauetxek ernatuko dute gero datil-palmondoa.





Harrosko izanik, goldea lotzera ez du ganbeluak umore txarretan baizik utzi ohi.

Ganbeluen merkatua da denetan inportanteena eta ikusgarriena. Zeiako landan beren gisara ibiltzen dira abereak pasean, milaka batzutan, beren jabeen begirantza pean. Erosleak beretzako ganbelua hautatzen du; baina oraindik harrapatu behar du, eta muturretik soka bat pasa jabego seinale gisa; ez bait da batere erraza, ganbeluak beti uzkur inor hurbil dakion nahi ez duelako.

Ganbeluaren harrapaketa, horretara, benetako «rodeo» bihurtzen da. Cow-boy-ek bezalaxe hemengo erosleak ere belaxeta bat darama; baina aidera bota beharrean, lurrean zabaltzen du, eta gizon batzuk pazientzia haundiaz aberea zoruan soka-lasterrak eratu duen ingurura bultzatzen saiatzen dira. Ganbeluak anka bat zirkuloaren barruan pausatu duenekoxe, sokatik tiratzen dute brauki, eta besteak gainera doazkio segituan, lurreratzeko. Nahaspila horretan batek anka bat helduko dio, beste batek sudurretik pasako dio soka. Eta orduan bai: hezitutako aberea bere jabe berriarekin irten ahalko da.

JAIAK. «Mussem» dela bide, «ksur» hauzo egole guziak festatan daude. Hemen «maruf» bat dakusagu: bertako sainduxkaren ohorezko zerimonia da, eta herriko plazara bildu ditu elkarrekiko bazkari bat egitera gizonezkoak eta mutilak. Famelia bakoitzak estalki koniko batez estalirik dakar bere platera, zenbait ehuneko plateraz betetzen da plaza: usakume eskabetxetan, ojaldre, barazki, mahats, «tadjina» (saltsa bat), «metxui»; eta alkuskus, garagar irinezkoa. Edari bakartzat ura —Koranak alkoola debekatzen du— bazkariaren ondarrean zerbitzatua. Erlijio buruzagiak keinu bat egiten duelarik —buruzagi horri «marabu» deritza, eta gizonak Jainkoaganako bidetik gidatzeko ardura du— gomitak nor bere lekuan esertzen dira. Bazkaria elkar-otoitz batez bukatzen da. Gero proosio bat antolatzen da, eta manifestazio honek ksar-eko kalexka guziak betetzen ditu habaila izugarrian. Proosioa bukaturik, gizonek dantza egiten dute danbolinteroen soinutara.

Orain beste leku batetan gertatzen da jaia, cheik-aren Koran-ezkontzaren karietara, eta herriko gizaseme guziek hartzen dute parte. Ezkontza hau, ikasleak Koran-aren lehenengo hirurogei puntuak buruz ikasi dituenean ospatzen da.

Mando baten gainean jarririk, eta puntuak idatzirik dauden oholtxo bat eskuetan hartuz, herriaren ingurua egiten du, «talba» Koran-erakasleek lagundua (bakarrean «taleb»). Mandoa gizon urdinez jantzitako jopu zahar batek darama bridatik, antzinan Sudan-dik errariek atera zutenean bezala.

Beste «ksar» batetan, karatin-darrek jendetua hau, gizasemeak eta emakumeak elkarrekin ari dira dantzan. Emakumeak, zilarrezko, anbarrezko eta koralezko pitxiz apainduak, herrenkada batetan daude lerro-lerro; eta gizasemeak beste batetan. Dan-

Berebertar leinuak - Ipar-Afrikako jatorrizko arraza nagusia - bere jolaspide bereziak ditu.





Berebertarrak, gizon urdinak bezain libro, gudari bikainak dira.

tzari batek ziplo esakuntza bat bota, eta denek onartuko dute, eta festaren gai nagusi bilakaraziko. Danborrak konpasa markatzen du, dantzariek eskuz txalo jotzen dutelarik. Gero gizon bat aurreratzen da eta emakume baten aurrean makurtzen, hau ere herrenkadatik atereaz. Bikote batzuk irtetzen dira, eta begiraleen inguru barruan dantza egiten, beti kantu, txalo eta danborrak ari Batzutan dantzariak dantzarisaren bizkar gainetik pasako du bere aiztoa, harenganako bere interesa erakusteko. Jaia gau betean amaituko da, eta sarritan biharamunean ere jarraituko.

Palmaditik hurbil, ibiltarien kanpalekuan ere festa da; baina festa idorragoa. Gizon urdinek ez dute parte hartzen gizon egoleen libertimenduetan. Aitzitik mespretxatu egiten dituzte. Aspaldiko gudari hauek fusilen dantza egingo dute.

Eguzkia etzaten ari da; eta basamortu-ertzean izkutatzen den mementoan bertan, «ksur»-etako «muezzin»-ak, dorrera igorik, otoitz-deia zabaldu du. Dorrearen lau ainguruetan abots argiz eta ozenez kantatu ditu ondoko hitz hauek palmadi guzian ongi entzunak izateko moduan:

«Allahú Akbar
La illah illa Allah
Uá Mohammadú rassulú Allah
Hayaú ala Allah».

(Haundia da Jainkoa,
ez dago Allah-z beste Jainkorik,
eta Mahoma da haren iragarlea.
Zatozte otoitz egitera,
Zatozte zorionera).

Zerua gorritu egiten da. Gauak, eguna baino ederrago omen, ibiltarien kanpalekua biltzen du gozoki; eta urrunean gaitzi gertatzen da danbolinen, deihadarren eta kantuen zarata.

Biharamuneko egunsentian dendak altxako dituzte gizon urdinek. Karabanaren parte bat, hirian egindako erospenez zamaturik, basamortura itzuliko da. Bestea saldu ez diren ganbeluak Hegoaldeko hiriburua den Marrakech-eraino eramateko eginkizuna hartuko du bere gain, Atlas eta Anti-Atlas-ko mendi eskerga malkortsuak inguratuz.

MARRAKECH. Berrehun mila biztanletako hiriburu. Jatorrizko hiriaren aldamenean, europatar hiriberria: kale zabalak, estaia askotako bizileku ederrak, eta benetako jauregiak.

Antzinan gizon urdinen jabegoa izan zen Marrakech. Ikaraz jositako berebertarrek «Marrakech» bataiatu zuten kanpalekua (alegia, «aldegin zak hemendik»), handik urruntzea bidezkoa bait zen. Gizon urdinen buruzagiak almorabiden errege-saila sortu zuen, eta zeia bihurtu kanpalekua. Haren ondokoek utzitako Sahara-ren oroitzapenez palmondoak landatu zituzten.

Hala da-izan: hiriburu hau Hegoaldetik

Berebertar emakume hauek, itxuraz geldirik, dantzan ari dira.





Eguratseko azoka, zaratatsu eta bixi, Marrakech-eko erdian egiten da.

sortu zen. XI-mendean, begitartea estalarik eta urdinez jantzirik, gudari herri bat sortu zen Sahara-ko hondarretan; eta mendiez bestaldera joanez, Hauz-ko zelaietara jatsi ziren, Atlas-en oinetan, eta hantxe finkatu ziren. Hamabi kilometro luze eta bederatzi borta haundi dituen murru ezagunen barruan: Marrakech, bi zibilizazioren uztarlekua, etengabeko azokan bizi.

Balek! Balek! (Kontuz! Kontuz!). Deihadar hau, anitz aldiz esana, zaldizkoena da, astoen gidatzaileena, «souk»en ('zoko'en) nahaspilaren artetik onez onean ala zakarki bide bat irekitzen saiatuz. «Souk» horiek dira hiriko merkatuetan bereziena: nork bere berezia saltzen.

Hemen dugu belarraren 'zoko'a, lehorteetan sorta txikitan saldua. Han alearen zokoa, bertan irina eta zahia salgai. Artilearen zokoa «haik» zuri batez eta begitartea belo arin batez estalirik doazen emakumeek bisitatzen dute. Tindarien zokoan, kaleskaren erdian lehor daitezen eguzkitan zintzilik zabaldutako kolore matazen azpirik igarotzen gara.

Urrutiago abereen zeia, erosleek bizkar gainean eramaten dituzten abere txikien 'zoko'a: ahuntz eta ahari. Astoen zokoa, erosi aurretik eroslea beti aberearen gainean ibiliz saiatzen dena. Eta, azkenik, ganbeluen zokoa: hemen aurkituko ditugu berriz gizon urdinak.

Jatorrizko hiriaren bihotza den Djema-el-Fna enparantza zeia gaitza da; eta bertara biltzen dira bai erosleak eta bai langabeak. Haga gainean eutsitako oihalen itzalean, espezia-saltzaileak jartzen dira, frutu, kutun, frejikin, poltsiku-ispilu, otoitzerako alfonbra, arrosa-hosto, krabelin, pikor, suge-larru, zigor xapataxka, erle-argizagi, ezti-poto, euli-harrapakin, aspirina, urrín, eta abar eskeiniz.

Petrikilo ibiltariek xintximariak itsasten dizkiete beren eriei; eta barberoek, eskuak trebe, bezeroei bizarra kentzen. Ur-saltzaileek beren txilina eraginez ibiltzen dira alde batera eta bestera. Gazura-saltzaileek beroaren idorrak egarritutako populuari partekatzen dizkiote beren ontziak. Ogi-saltzailesek, lurrean kuxkurturik, beren

opilak eskeintzen dituzte; eta izkribaua gutun bat idatzi behar dutenen zerbitzutan jartzen da. Eguratseko bazkaldegiek sos batzutan salda bat edo koipetan egindako haragizko kroketak gertatzen dituzte. Giroaren parte dira eskaleak; ezen eskaleen patroina bait da Siddi-bel-Abbes, Marrakech-ko zazpi saindu patroinetatik bat. Maiz hiruk edo lauk batera oinezkoei beren azpiltxoak luzatuz kantatzen dute.

Egunaren erdian, kolore apur bat erantsiko diote ikuskariari interesgarri batzuek. Jendea mordoskatan pilatzen da. Koranaren irakurleak hemen, kondatzaileak han, arrakesta berberarekin berriztatzen du bere kondaira, beste hamaika urtetan bezala. Suaren ireslea ikusiko dugu ere, operaria ezpatarekin; «chleuh» dantzaritxoak soneko luzez jantziak, jiraka ari, eta zangoen eta anken mogimenduaz beren abiada akonpasatuz. Hantxe ere keinulariak, pailasoak, urrundikako batelariak, eta Sudan-go dantzariak.

Noski: hantxe dugu ere suge-xarmatzailearen ondoko jende-piloa, bere ile-adats luzea zakarki daragiela, danbolinteroak urduri jartzen eta kobra beltz diztiranteak buztan gainetik xutitzen direlarik, haren keinuak nagi-nagiro buru haundiarekin segitzen dituzten artean. Bapatean eskuaz hartuko du, eta musura hurbilduko, jende-multxoa bero-bero eta ikaraten utziz.

Gizon urdinak ez dira jende-zurrunbilo honetan gelditukо. Ganbeluak salduta laister, basamortura abiatuko dira, «beren» basamortura, leinuarekin elkartzera.

Kanpalekuan errezebituko dituen'caid' zaharrak, egonarriz entzungo ditu haien pasadizuak. Bitartean arretaz orraztuko dira denda barruan, ezen karabanaren bihurreran «guedra» delakoa dantzatu behar bait da: hau da, beduino ibiltarien dantza zaharra.

«Guedra» etxeko pegarra da. Ahuntz larru batez estalia danbor bihurtzen da, eta bi makilatxorekin marka daiteke konpasa. Dantzarisa, estalgi batez arras estalia, gizonen arteko zirkulo barrura sartzen da, gizonek txalo jotzen dutelarik. Hastapenean ritmoari jarraitzen zaio besterik gabe, gero estalgia erortzera uzten du, eta irribarrez agertzen da. Begitartea bizkortzen du au-



Barazki azoka hau, ofizioka eta salmenta-atalka berezi diren salgu edo 'zoko'etako bat da.



Tindarien zoko'an, kolore diztirantetako artileak hedatzen eta lehortzen dira eguzkitan.

Marrakech-eko harresiek hamairu kilometro luze eta zazpi ate dituzte.



rrenik, gero soina eta gerria, gero eskuak eta behatzak. Adatsek bularra jotzen dute; eta ile kizkurreko gizonak hurbiltzen dira. Zuzien eta egur-suen argitan egingo du dantza, tindu batez gorritutako eskuez keinu misteriozkoak eginez azkenean errendi lurrera erori arte.

Baina, bere etorreraren zai zegozkion jai hauek ikusi arren, Iparraldetik bihurtu den gizonak ba daki bere kondaira, caid-ak arestian kondatu dion hori, ez dela jadanik epopeia bat.

Gizon urdinak kristauen etsai amorratuak izan ziren, hauek sarraskia eta ohointza debekatzen zituztelako. Gaur ganbioiek basamortuko bideskak segitzen dituzte, hango bakardadea eta erreinua zaflatuz. Ba dakite ausaz iraun besterik ez dutela egingo. Ba dakite ausaz berebil modernoaren aurrean, petroleo-ikerketaren zulagailuen aurrean, zenbait belaunetan beren zibilizazioa suntsitua izango dela. Hala ere, goizero itzultzen dute begirada La Mecca aldera, eta Allah eskertzen, hautatuak dituelako eta askatasunaren bedeinkazio paregabea eman dielako. Ez lukete askatasun hori trukatuko, ezta dagozkion sofrikari eta menpetasun guziengatik, ez etxeren ordez, beren bidaietan barrena etxetik ezin eraman daitekealako; ez irrati-posturen ordez, mundu arrotza berentzako ez bait da-izan; ez jeepen truke; ez erlojuen truke ere, denbora ez bait da deus haientzako.

Honela omen ziotsen behin europatar batek gizon urdin bati:

—Zuk karabanan hilabete osoa behar duzun bidea egiteko, nik hegazkinez hiru ordutan aski. Ez ahal da hau aurrerapen bat?

Eta gizon urdinak erantzun:

—Eta gainerako denboran barrena, zertan ari zara?

«Gizon urdin» guziek eskertzen dute Allah askatasunaren eguzkitan bizitzera uzten dituelako.







AMAZONIA

Oihanean ur-gaztelu bat

Hego Ameriketako lehordi eskergan ibaibide-sare zabal bat hedatu zuten antzinako jainkoek. Mendebaldeko itsasertzean Andeetako murru gotorraren kontra lehertzen dira olatuak. Baina itsasertz horretatik 160 km. tara, errekak Ekialderuntz itzultzen dira: ur laster gisa gurutzatzen dituzte aldapak, gero zabaldu egiten dira, eta benetako ibai bihurtzen; hauek gero ibai haundiagotan isurtzen dira, eta azkenean denak biltzen dira bilgune nagusira: alegia, Amazonas zabal eta indartsura. «Ibaia baino alimaleko urtegi bat da», esan zuen behin ikertzaile batek. Ezen tropiko-ibai sare honek bustitzen duen isuraldea ia USA-ren zabaleraren parekoa da: Andeetatik Atlantikoraino, ia laku baten urgaina bezain zelaia da. Eurite garaian hegi apalak gainditzen ditu ibai-sareak, eta ehunka kilometrotan barrena hedatzen da, 600 eta 800 kilometrotako zabalera iritxiz.



Ucayali ibaitik nabegatzen ari dira gizon hauek, Pucalpa-tik hurbil, Peru-n.

GUTXI EZAGUTZEN DEN IBAI BAT. Haren isuraldearen eskerga eta bustitzen duen hedaduraren aberatsa ezagunak izanik ere, hartako zenbait eskualde ez dago oraindik batere ikerturik, eta, oro har, gaizki ezagutzen dira gehienak. Jendetza-maila bost kilometro laukitan lagun bakar batekoa da: munduan hutsenetakoa beraz. Areago: oihaneko anitz lekutan abereak berak dira urri. Goazen ibaian gora Belem erdian duen deltatik, eta bila dezagun egoera horren kakoa.

Ez gara halere egiazko pioneroak izango. Ameriketara Cristobal Colon-ek lehenengo bidaiatik urte gutxitara, gizon zuriak hantxe zeuden Amazonas-ko bokalean, bazterrak miatzen eta ikertzen. 1500-an Vicente Yáñez Pinzón-ek agintzen zuen ikertaldea 80 km. gora joan zen ibaitik, eta ur haiek honela bataiatu: «Itsaso Gezaren Santa Maria Ibaia». Eta bidez egin zuten horrela: Amazonas-ko delta ibai baino itsasoago bait da.

1540-1541 Francisco Orellanak lehenengo aldiz jetxi zuen Amazonas ibaia Andeetatik hasi eta itsasoraino; eta senarrekin batera gudu egiten zuten Tapuya-leinuko emakumeen ohoretan eman zion gaur arte atxiki duen izena. 1637-an Pedro Teixeira portuguesa igo zen ibaian gaindi, Napo ibai-adarrean gero, eta azkenean Quito-ra iritxi zen, Ecuador-en.

Non du iturburua Amazonas-ek? Erantzun asko eman dakioke galdera horri. Iturburuaren bila irtendako ikertalde batzuk galdu egin dira aztarnarik utzi gabe. Lauricocha-lakuskan sortzen dela diote batzuek, Peru-ko hiriburua den Lima-tik 160 km. tara, Ipar-Mendebaldean. Baina haren ibai-adarrek —Xingu, Tapajos, Madeira, Negro,

Blanco, eta beste berrogei-ta-hamar— Hego Ameriketako herrialdeen erdia bustitzen dute.

Urubamba ibaia inkatarren herrialdeko bihotzetik doa, Mendebaldeko Perun; Ucayali-ra isurtzen ditu bere urak; eta honek Marañon-ibaian nahastutzen ditu (perutarrek izen hau eman diote ibai-behereari).

Horretara, nahiz 4.800 km.-tako tarte bat izan, inkatarren lurraldea eta itsasoa loturik zeuden. Ibaian behera oso urruti gatibatutako oihan-txorien lumak, ibaiez garraiatzen zituzten inkatarrek; eta, alderantziz, bokalean bertan aurki zitezkean, haien eltze eder gotorrak.

Ordutik beretik, Colon-en aurreko mendeetatik, ba zegoen beraz benetako ibai-garraiaketa tupi-guarani indioekin: ehiztari arrantzale, eta emakumeek lantzen zuten lurra.

Portuges ikertaldiaren hastapenetan han urruti, oihan betean, eraiki ziren bizitegi batzuk. Geroago, 1850-an, Pedro II-ak, Brasilgo Enperadore, ibaian gaindikako nabegazioa zilegi egin zuen; eta berehala kautxo, kakao eta Brasil-go intxaurren merkatalgo-sare oso bat sortu zuen.

1900 inguruan, «kautxoaren sukarra» dela bide, jendaketaren, ikerketaren eta ekonomiaren emendio harrigarria dakusagu eskualde honetan. Baina Malasia-ko kautxo-landen aurkagoan berehala itzaldu zen urre-aro hau, eta Hego-Ameriketako erdi-erdian mamu-erreinu bat gelditu da.

Ibaian gora igotako atzerritarrik gehienak ez ziren ibai-hegian finkatu kolono gisa lanegitekotan; kautxoaren, urrearen eta diamanteen bidez azkar aberastutzeko asmotan baizik. Mentura-hirrikak edo berriz zeharo hasteko beharrak eragiten zuen beste zenbait, agian. Hala ere, oro har, Amazonas-ko isuraldea oso gaizki ezagutzen da oraindik.

Goazen beraz bokaletik goruntz, eta erne ibil gaitezen.



Chinoco ibaia, Ucayali-ren adar bat, ez da ibai multzo eskerga honetan parte xume bat baizik.

Illunabarrean dakusagu hemen Imaria aintzira. Ezin da bertara iritxi piraguz baizik.



DELTA GAINEKO IKUSKARIA. Gaua da Belem-en lur ikutzean. Hegazkinetik mila



Amapá-lurraldea gurutzatzen duen ibaian egiten dute gobara Cabocio-ko emakumeek.

Amazonia-ko hazienda nahasketa-ondorio izaten da maiz. Idi hauek zebu-motaren kutsua dute ageri.



argi urraideren ñir-ñirra ikusi dugu, baita ibai zabal bihurri baten gainean ilargiaren errainu zilar-apala.

Belem ozeanotik 130-km.tara dago: ez Amazonas-en, itsasora doan Parana ubide haundiko hegian baizik.

Egunargiz balitz, 160 km.tako bandan berez genitzakean ibaiko urak. Ilun oso, Parana-k garraiatutako lohiz beterik, Atlantikoko korronteen kontra egiten dute burruka luzaz, hauetan osoki nahastu eta gesaldu baino lehenago.

Baina gaua da, eta ez dago gauza kosmopolitago eta koloregabeagorik posta-hegazkin bateko barruki bat baino. Nekez esna gaitezke, eta memento bat behar dugu non garen ulertzeko. Baina hegazkinaren gurpilek lur ikutu, eta atea zabaldu ordukoxe ba dakigu: zeren-eta segituan gure larru-xularme guzi-guzietatik sartzen bait da tropikoko aidea: aide maltzur, leun, itogarri, bero eta urrintsu: dena batera.

Biharamun goizean kai ezin biziagoa bisitatzen dugu. Baforeak ba doaz ibaian gora. Kale atseginetatik ibiltzen gara pasean: hauen aldeetan teilatu urdinetako etxeak dakuskigu, miradoreak zuri eta saihetsetan palmondo lerdenak. Azokan oihaneko salgaiak ageri: suge —eta jaguar— larruak, saskiak, zurezko tresnak eta frutuak.

Berehala irtengo den ontzirik ez izanik, Belem-go inguruak ikusteko denbora ba dugu. «Amazonas-ko suge-hautzetako arrautza» gisa azaldua izan den Marajó uharte haundia bisitatzen dugu. Han ari dira alatzen pentze eta belardi ugarietan, abere taldeak. Hauetxela dira, bestalde, bidaian barrena usaiako adarrak dituzten azkeneko abereak: lurraldeen barru aldean aurkitzen diren idi-aide bakanak, zebu konkordunagandik lortutako xinitra-gurutzamenduaren ondorio dira. Marajó uharteaz bestaldera, Amazonas-ko Iparreko besoan, Amapá-lurraldea dugu, eta honen «larrea»: zelai eskerga bat, oihaneko landarediari eusteko txiroegi. Macapé hiri buruan, ekuador gerrian zehatz, portuges gaztelu zahar bat dago: Portugal-dik etorritako bela-ontzien galia gisa erabilitako adreilu soilez eraikia.

IBAIAN GORA. Ibaian gora doazen ontzietako batetan Belem-dik irtetzeko tenorea heldu zaigu. Zenbait kilometrotan barrena hain da zabala, hegiak nekez ikus daitez-

keala. Ontzi asko ikusten da ordea. Hona hemen erdoitutako ontzi bat. Belem-a ari, hari, frutu, Brasil-go intxaur eta landare--tinduak eramaki.

Haratago zola txapaleko bi ontzi doaz; baita bela-ontzi txikiren armada oso bat, bela laukiak gorri, urdin edo marroi; eta, azkenik, joan-etorri bizi horretatik ihesi itxuraz, begi diztirantetako mutil gazte asko, piragu mordotan ibiliz. Baina geure atzean utzi dugun hiria iraungi delarik, ur geldietako argi-errainu diztiranteak itsutu egiten gaitu, eta ezari-ezarian lozorroan uzten. Bazkal-ondoko lo-sustaren garaia da bestalde; eta eguerdi-iriko ordu kiskalgarrietan ahal duten guziek atseden hartzen dute munduko bazter hauetan.

Esnatu garenean, ibai-hegiak ausarki hurbildu zaizkigula erreparatzen dugu. Ez dago hegi-lerro ageririk, hori ez; baina ba dago egon, oihaneko zuhazti eta landarediak nunbait finkatzen bait ditu sustraiak...

Ubide-laberinto mehar batetik abiatu behar du orain ontziak: uharteak lanopean daude, eta pilotuek ia besterik gabe senaz eta usaia hutsez ezagutzen dute bidea. Noizean behin tarteak ageri dira ibai-hegietan, eta horietan txabola arkaikoak: han--hemenka sakabanaturik hostozko teilatuak, eta dena haga gainean eraikirik.

Ibai gainetik hegaz, hegal ñabarretako pinpilinpausen hodeiak pasatzen dira; eta hemen eta han bapatean lumaje ederreko hegaztinak. Gauean, ibai gainera tropikoko ilunpean jetxi denean, oihanatik igotzen den garrasi-nahasketa entzun daiteke: itxura triste, muturra gorri, lotan ez daudelarik ez diote garrasiari uzten tximu baldresek.

Belem-dik 750 km.tara, lohiaz oriturik, ur berdeekin Tapajos delakoa Amazonas-en isurtzen den puntuan, Santarem dago: teilatu zabal gorriek, muno mazelan kokaturik, ibai-hegia alaitzen dute. Hiri koskorra da, eta 15.000 biztanle du; baina ibaian luzean dauden gainerakoak, askoz ere txikiagoak dira, eta bizitasunik ez dute.

Herriska hauetatik gehienak erdibitu eta berehala bildu egiten diren saihetseko «parana» edo ibai-besoetan egiten dira; edo-ta «igarapé»etan: alegia, bi ur-isuri desberdinen «kanoa-jarraigune»etan.

Eskualde honetako biztanleak «cabaclo»ak dira: alegia, portuges, indio eta beltzen ondoko xarneguak: «patrao» edo ugazaba baten babesean bizi dira, poxi bat antzinako joputasunean bezala. Ugazaba hau,



Adar bati heltzen dio «Tximu-urtxintxa» honek, «aticum» frutu baten ondoan.

Amazonas-ko tximu txiki eta ugarietatik bat «uakaria» da.





Manaos-en ondoan, haurrak eta hauen arropak Negro-ibaiko uretan garbitzen ari.

egia esateko, herri guziaren jabea da; eta denek lanegiten dute harentzako.

ZER JAN DAITEKE OIHANEAN? «Cabaclo»-ek zenbait platano eta zenbait mango ekoizten dituzte; eta denak paper-zorro batetan biltzen. Keta txikitan, eta txingurriek hazten uzten badituzte, lekak, kuiak eta pinu-koskorrak ere lantzen dituzte, baita arrantza eta egur-ikatza ere, saltzekotan. Ba dute beste eginkizunik ere: kautxoa biltzeko «hevea»k pikatzea, eta herriko zerratokiak mantentzeko zuhaitzen ebaketa.

Arrain mota anitz dago. Ur ugariko ibaietan «piranha» txikiak daude, giza-jaleak; eta «pirahiba» deritzaten piranha-jaleak, haundi eta gupidagabe. Zenbait «tucunare» ere aurkitzen da, ezkatak nabar, oso haragi urrinztatu eta istimatua; «bacalhau»ak, usaiako makallauen lehengusu, lehortzen eta gazitzen direnak; eta «piracucu» ugotso alimaleak, eskuarki xerra lehor gogor urrintsutan gero janak.

Indio leinu askok, oihanean sakabanaturik, ia-ia bildurgarri den azkartasunez harpointzen dituzte arrainak; eta ia zakurrek bezain usaimen zorrotzez inguratzen dituzte piztia basak: tapirra, «onza» edo jaguarra, «pecari» edo urde basa. «Matamata» apo-armatuak eta «aligator» kokodriloak harrapatzen dituzte, larrua metroka salduz: larru haundi batek are 25 peseta ematen die. Ahalean, «puruque» aingira eletrikoagandik gerizatzen dira: buztankada batez honek gizon bat hil egin bait dezake.

Indio hauetako batzuk ibaitik enbor-mordotan eta kanoatan nabegatzeko duten abileziarengatik oso harro daude. Zibilizazio-lanetarako, berriz, behar diren teknikekiko ez dute batere dohainik eta ba dirudi hartzeko gogorik ez dutela. Haien etxolak txit arkaikoak dira, eta talde oso bat babesten dute. Ohantzeak «tucum»-hariz eginak dira, tropikoko lumaz apainduak, eta etxolako pareta ondotik ilaran zintzilikatuak. Erdian elkar-marmita bat dago; eta eskuarki ez dago bertan egostekorik gauza asko, ezta arrainik ere... Egun luzetan barrena ez dute «farinha» besterik jaten, ibaiko uretan gesaldua.

Irin hau «ñame»z eta «mandioca»z osatzen dute (bigarren hau erro ezin pozointsuago bat da). Patata luze hauek zuritzeko, emakumeek zurikailu berezi bat ohi darabilte, konkorra, mugerrezko eta behatzarrizko puntaz laztua, eta erretxina bigun batez itsatsia. «Mandioca»rentzako zurikailu hauek eguneroko lanabesa dira; baina sarritan apaindura bitxiz edertuak izaten dira. Eta arretaz aztertzea balio du; ezen zurikailu horietako batetan puntta guziak diamantez-

Esku-ahurrean sartzen ahal da «piranha» delakoa; baina giza-jale bildurgarria da.



koak izatea gertatu bait zitzaion behin esploratzaile bati.

Zurikailuaz mamia berezi ondoren, garbitu egiten da, eta gero zukua ateratzeko zapaldu. Palma-hosto sorta batez egina izaten da lakoa, hostoak bihurtuz eta eskola harrigarri batez moldatuz. Ekintza honen ondoren gelditzen den kondarra, buztinezko plater batetan edo estainuzko eltze haundi batetan erretzen da, alea urraide, lehor eta gogor lortu arte, hortzen artean karraska egiten duena. «Farinha» hauxe da indioen hazkurri nagusia. Eta beste janaririk ere bil daitekean eskualdeetan —cabaclo-en artean bezala, zenbait frutu, intxaur, arrautza eta abar dituztenak— janaria osatzen duten arroza irakina, salda eta haragi-puskak moldatzeko erabiltzen da.

Zail da konprenitzen nola lortu duten indioek etekinik batere eta idor dirudien landare horretatik —lehen begi-kolpean bederen—. Bere horretan, esan dugunez, pozoin bortitza da, eta gertabide luze eta nahasi bat behar izaten du. Hobari printzipala hau izaten da: txingurri erraldoiek maite ez duten barazki bakarra dela hau. Urtean sei hilabetez lurra ur azpian egon ez balitz ere, Amazonia-ko isuraldean atsekabea izango zitzakean halere nekazaritzaz arduratzea, Txingurri-eli gaitzak etortzen dira, lur-langintzarik ederrenak hondatuz: babarrun, lusagar, eta azukre-kanabera. Txingurrien ondotik ez da deus hazten gutxienez bi urteren epean.

Amazonia-ko eskualde askotan, aldioroko uholdeek ez dituzte indioak soildu, baina baita ehizatzeko ohitura zuten abererik gehienak ere. Hots, hazkurri duten abere hauek gabe, ezta xomorroek berek ezin iraun, ezpada betiereko txingurri horiek berak.

MAMU-HIRI BAT. Beti berde dirauen mundu honetako bihotzerako bidaia honetan, denboraren iragana neurtzen duenik ezer ez dago, ezpada ibaia eta zerua ia-ia ikusgaitz egiten dituen eguneroko euri jasa; edo-ta



Indioen janari oinarria da «piechi» delakoa. Eta 45/300 kilo iritx ditzake.

zeru azkengabean eguzki kiskaltzaileak egiten duen erronda. Ibaia nagiro doa zeharka, ia ezin-ohartuzko bihurgunean osatuz: hegiak hain dira apal. Noizean behin halere zelai zabaletik at somatzen ditugu muno batzuk. Amazonaraino hedatzen da itsaso barne hau, oihaneko zuhaitzak estaliaz, eta nabegazioa arriskutsu eginez.

Ibaia banatu egiten da hemen anitz besotan, uharte apalak tarteetan utziz, eta sei kilometrotatik hamabitarako zabalera hartzen du. Baina goiz batez haren ur arre oriskak ikustean, aldakuntza harrigarri bat nabaituko dugu. Ibaiaren parte bat beltz diz-

Manaos-ko etxeak haga gainean eta ibai-hegian eraikitako etxolak izaten dira eskuarki.





Kautxoaren «boom»aren garai loriatsuan eraiki zen Manaos-ko Opera.

tirantea da: hauek dira Negro-ibaieko urak, beltz baino beltzagoak, Amazonas-a heldu. Hauen zurrunbiloek luzaz atxikiko diote koloreari, erakartzen dituen korrontearen kontra.

Jakintsuek diotenez, daraman lohiak eta bustitzen dituen sustraiek egiten dute beltz Negro-ibaia. Baina indioek besterik uste dute. Diotenez, han goian, oso urruti, ibaia sortzen den mendietan, Daipurui bizi da, Gaitzaren deabru beltza. Urtean behin ilunabarrean Negro-ibaian mainatzera jexten da, oihanean zehar tapir-gainean bildutako xomorroak uztera. Eta darion zikinkeria beltzak urte guzirako tindatzen ditu ibaieko urak.

Negro-ibaian gora goaz orain 130 kilometrotan; eta han, itsasotik 1.600 km. tara; ikuskari harrigarri bat dakusagu. Iparraldeko hegia inguratzen duten muno apaletan hiri bat dago; eta bertan bi etxe luze gailentzen dira, paraje hauetan «zeru-urratzaile» deitzeko modukoak irudiz. Manaos da: kautxoaren inperio igarokor baten hiriburua izan zen orain dela hirurogei urte. Ibaian barrena kai igerien sistema oso bat ikus daiteke, dudarik gabe miloi asko gostata; ibaia hemen euritea heldu denean zenbait metroz igotzen delako. Aurrez aurre, hautsez betea, parketxo bat: burdina landuzko iturri bat erdian, kolore errugabetan margotua; eta bertan igeri sirenak, izurdeak eta xarmanki jantzitako birjina gazteak. Hirian, beste parke baten aurrean, Opera dago, kautxoaren «boom» betean eraikia. Esan zaigunez, estrainatzerakoan artista konpainia oso bat etor-arazi zen Italiatik; baina kalentura oriagatik haietatik zortzi hil zirenean, beste guziak segituan joan ziren ihesi; eta Opera eta bertako marmolak hantxe geldi-tu dira zutik eta hutsik, balio zituen hirurehun bat miloi pesetak alferrik ehortzirik eta segida gaberik.

Mamu-hiri bat dirudi Manaos-ek. Etxeek ez dute sapairik; aldiz adaburuak ageri dituzte. Harrigarri da halere ehun mila biztanle duela jakitea, baita zenbait fabrika ere. Hauetako batek «jacaré» edo kokodrilo larrua lantzen du; beste batek, kale nagusiko lantegietan, leihoetatik majina bat arrabots dariola, metalezko gatiluak prestatzen ditu, gero kautxondo basetako zukua bertara biltzekoak (gero eta gutxiago, egia esateko).

Manaos-ko batimendu haundiak kautxoaren inperioaren aztarnak dira.



IBAIEKO BIZIA. Manaos-ko etxerik gehienak igeri dira, eta enbordietan eraikitzen diren bizileku txikiak dira. Ibai-hegietan ezartzen dira lerro-lerro, uharteak inguratuz, hauek hiri-erdiko behatz heze lohitsuak balira bezala. Hazaroan hasten den ur beheitien garaian, etxe igeriak ez dira gainaldean egoten, lohian trabaturik baizik. Hala ere ba dute alderdi bat uretan murgildua, eta urez iritx daiteke beraz b e r e t a r a. Arraunlari bat brankan kanoa baten tamañako piragutxoak linburtzen dira ibaitik. Ontzi hauetxek dira gure famelia-kotxeen kideek etxe igerietako bizilagunentzako. Txalupa-taxi batzuek uharteen arteko bidaia egiten dute, langileak hiritik etxe igerietara eramanez, eta artean «monteria» asko pasatzen delarik.

«Monteria» bat ez da-izan hobeki atondutako kanoa haundi bat baizik. Zazpi metrotatik bederatzi metrotara luze, eta atzekaldean babes-leku txiki bat palmondo adarrez estalia. Arraunez higi-arazten da monteria, haga luzeren muturrean bihotz itxurako zaliak tinkatuz. Noski, arraunlariak ezin daitezke itzalean geriza, eta eguzki-izpi kiskalgarritan egoten dira luzaroan, etenunerik gabe arraunean egunsentitik eguerdira arte.

Orduan ordu-erdi bateko atsedenaldi bat hartzen dute, mainu bat hartuz, arrantza eginez, edo besterik gabe geldirik egonez. Batzutan beste bidaldi batzuk egin behar izaten dituzte arratsaldean, gaua pasatzekotan ibai-hegi batetan pausatu aurretik.

Hirirako eta azokarako bidaldi luzeak direnean, monteriak elkartu egiten dira, ontzi herrenkada bat osatzen dute, eta elkarrekin egiten dute bidaia erremolkatzaile baten atzetik. Honela famelia osoak joaten dira hirira, platano, egur-ikatz edo irinezko beren zamarekin, gero azokan salduz.

Manaos-ko azokako txabola txikietako mahainetan, losustaren ordua baino lehenago iritxiz gero, barneko eskualdeetako biztanleek almazen haundietako salgaiak aurki ditzakete: orrazi, jostorratz, kolore bizitako txal, txikikeria, kristaleria merke, estainu margotuzko azpil eta, jakina, beren haurrentzako jostailu.



Txalupa honek Negro-uhartetxo batetik Manaos-a garraitzen ditu bidariak taxi gisa.

IBAI ITZALTSUAN G O R A. Itzulerako bidaian gauza zuhurra da egunsentiaz irtetzea, oraindik ere gaueko hozkirriak giroa bete eta ibaiaren gaineko lano urdina kendu ez delarik. Erremolkatzaileen ondotik monteriak doaz, ertz-ertzetik, etxe igerien aurretixek igarotzen. Hauek urik gorenen gainetik plantatuak dira, ibaiaren aldetik haga gainean pausatuak.

Etxe igerien inguruan bizitasun haundia dago ordu goiztar honetan: tximeneei kea darie hodei txikitan; langileak piragutan doaz, eta etxen gelditzen diren emakumeak lorategi igeriaren puska batez arduratzen dira edo, haurra anketan eser-arazita, dese-

Manaos-en etxe igeriak maltsa gainetan eraiki dira.





Zuhaitz-boa berde hau, boa-esmeralda deitua, adar batetan biribildua.



Jaguar gosea oihaneko zuhaitz baten itzalean izkutatzen da, eta hantxe harrapakinaren zelatan jartzen.

giten ari den lanbroan barreneko ontzien joan-etorria soegiten dute.

Ontzi garraiatzailea isuriaren erditik doa orain, eta inorekin topo egin gabe, sei kilometrotan darama ontzi-herrenkada bat; eta ez du bidean besterik aurkitzen barne-aldetik hirira doan beste ontzi-herrenkada bat baizik. Hau ere bidariz beterik doa, denak mundu bitxi berri bati buruz ari, jakin-eta ikusi-minez ezin sosegaturik. Etxeruntz doazenak, aldiz, mugarik gabeko jakinduriaz senditzen bide dute beren burua.

Erremolkatzaileak jiratu egiten du bapatean «igarapé» batetara sartzeko, oihana gurutzatzen duten ubideen ugaritasunean zalantzarik batere egin gabe. Ibai ondoko kanaberen artean arrantzale batzuk, kuxkurturik, arrainek ausiki zai daude egonarriz. Ikuskari baketsua da, baina oihaneko biztanleek ba dakite bakegune hori egunarekin batera amaitzen dela. Jakina denez, gauean beren saizuloetatik irtetzen dira piztiak, gosea ematzekotan. Orban beltzetako jaguarra usmatzera etorriko da, eta beharbada ibaiertzean geldituko da, uretan isatsa sartzeko, eta arrain gozoren bat hurbil dakion esperantzan atzaparkada batez orduan harrapatzeko. Suge haundiek bildu egiten dituzte beren harrapakinak puskatzekotan. Kokodriloek anka beren gainean pausatzen dituzten txotxoloen gainean hesten dituzte masailak kolpe bortitz batez. Eta gauean oihu basak, marruak eta heriotza-gargarak gailentzen dira isilean.

Erremolkatzailea ibaian barrena aurreratzen delarik, egunsentiko lanoa lekutua da. Orain goizeko urre-eguzkiak uretan diztiratzen du, eta ibai-ertzeraino irixten den oihana kiskaltzen.

Monterietako batek orduan bere ontzi-herrenkadari ihes egiten dio, eta bere bide bereziari ekiten, berehala zuhazti batetan sartu eta oihanean galduz.

Nagia dugu Hego Ameriketako abereetan aspaldikoenetako bat.



Zuhaitz beltzen enbor lodiak ispilu bat bezain laua dagoen ur beltzean bustitzen dira. «Igapo»ak miresten ditugu, eguzkia sekula sartzen ez den oihan-zingirak, gainaldea ur landare hosto zabalez estaliak. Hauen inguruan estalpe bat osatzen du landaredi lodi trinkoak, eta hartaz bestaldera ez da iragazten ez eguzkirik ez egunargirik. Estalpe horretatik lurreraino zintzilik ikusi ezinezko aihenak eta erro bitxiak nahasirik.



Hona hemen Brasil-go papagaio ugarietatik bat, bere luma dirdaitsuez apaindua.

HEGAZTINEN MUNDUA. Itzaletik irtetzen den indio piragu baten txaplataka leunak urratzen du isilpea: urgainetik doa geldiro, eta gero berriz ur itzaltsuetan izkutatzen da. Igarotzean hegalen burrundara ozenaz airatzen dira: lumaje nabarreko txori ilun txikiak dira, batzutan loro, tukan eta lertsun oriskaren bat, lumak haizeak harroturik.

Orkidea basak zerutik etorri iduri direnean, loreen aldia pasea da. Baina hegaztitzeraten du, tximista bezain azkar hegaz nen lumaje ederrak haien hutsunea ahaneta dirdaitsu igarotzen direnean. Papagaio-eli gaitzak pasa ohi dira zerutik: goitik ikusirik, oihanaren alfonbra latza bezain berde; beheitik urrezko eguzkia bezain urre. «Cigana» batzuk, faisanen antzeko, brontzezko tatxez nabartuak, dinosaurioak bizi ziren mendeetako lekuko atzeratuak dira, hegalen muturrean atzaparrak eta anketan ezkatak atxiki dituztelarik. Ba dago ere ontzik; eta hauen oihua gauez entzuna, irri-algara luze, zorrotz eta ikarati dirudi.

Manaos-en ondoan bizi den anana-ondo baten alboan zutik, cabalco neskatila bat.



Ba daude azkenik txori-euli motak, loreak bezain ilaun eta urrabera. Batzuek koilaretxo ñabar bat dute, beste batzuek luma-koroa dotore bat, eta beste batzuek lira itxurako isats luzeak. Hain dira txori-euliak txiki eta diztirante, ez dela harritzekoa ondoko iritzi hau entzutea: lehendabizi beldar gisa ikusi dituztenek, gero eltxo bilakaturik ikusi izan omen dituzte, gero musker, gero *pinpilinpausa*, eta azkenik txori.

Indio alegia polit batek azaltzen digunez, haur bat hiltzean, haren arimak gorputza utzi eta lore baten kokotsean gerizatzen da; eta honetatik txori-euli batek eramaten du mokoan zeruraino.



Etxe zimendua den enbordiaren gainean, indio ama batek bazkaria prestatzen du.

IQUITOS ALDERA. Manaos-tik aurrera ere baforez joan daiteke ibaian gora Iquitos-aino, Perun beraz, itsasotik 3.700 km.tara. Ibaia halere, bai hor bai Iquitos-tik 800 km. gorago, lau metro barneko ontzientzako da nabegagarri. Baina zibilizazio modernoak oihana zulatu du: astero dago hegazkin-lotura bat Manaos-Iquitos; eta bidean ba dira pausaldi batzuk misioetan eta bideko lantegietan.

Emakume hauek Iquitos-ko hauzo jatorra den Belem-go azokan ibai-ontziaren zai.



Ondo txapaleko zenbait baforek arnashestuka eta pufaka egiten dute kontrakarreko bidaia hau, eleboro eta kaobazko egurketa gaitzak xahutuz, ikatza baino askoz merkeago herrialde hauetan. Hortik aurrera ez doaz oso azkar; eta batek baino gehiagok lehorrera jotzen du ezindurik, eta hegian funditzen. Gero eta maizago, bi zubitako ontziak nagusitzen zaizkie, errotaz erabiliak, eta goiko zubian babesleku bat dutenak. Baina bidariek nahiago dute zubi-leku bat, eta dauden hiru gakoak baliatu: bi gakotan etzauntza lotzen dute (askotan oso etzauntza apaina, txaboletan indioek zerabilzkien hari koloretsuen erakoak); eta hirugarren gakoan arriskurik gabe zintzilikatzen dituzte beren fardelak.

Bidari hauek «seringuero» dira askotan, kautxoaren azken biltzaileak; edo «balatero»ak, alegia kautxoaren eitekoa den «balata» gai zuriaren biltzaileak, industrian txit preziatu. Ba dira ere indioekin truke egiteko gauzak bilatzen dituztenak: aizto, aizkora, hamu, perla, ispilu, eta dotore jantzi-nahiak diren indio emakumeentzako soinekoak.

Zenbait aldiz herrialde zolara doan misiolari pare bat aurki daiteke. Misio horrek luzaz ez irauteko arriskua du. Indioak elkartzen direnean, bertan dagoen ehizea akabatzea edo uxatzea erabakitzen dute aguro. Eta, goiz ala berant, berek ere jarraitu beharko dute ehizea, arkuak, geziak, seskak eta guzti. Baina horra hor misioaren geltokian *apaiz bat, ontziaren zai egotera etorria*: eskolako haurrek, ibai-ertzean lerrokaturik, etorrera dela bide petardoak leherrarazten dituzte.

Hemendik aurrera ibai-hegiak gero eta malkorrago dira. Azkenean Benjamin Constant frantses idazlearen izenaz bataiatutako puntura iristen gara. Hiri osoa, hegirik gorenean e r a i k i a, hagategi baten gainean dago.

Kaleak hiru metro t'erditako hagaren gainean eraikiak dira, eta luzera bereko hagen gainean ere etxeak. Zuhurtzia-bide

hauek harturik ere, hiria urpean gertatzen da batzutan; zeren-eta uholde-garaian hamabost metroz igotzen bait da ibaia bere usaiako mailatik.

MARAÑON-EAN. Iquitos-ko hegiak dira denetan gorenak: euriteetan horrenbestez igotzen da ibaia, malkorreko tontorra inguratzen duen paseoa bera mihikatzen duela ibaiak, hormigoizko zabalgune zaharrakatuak eta putreak zintzilik dituzten zuhaitzak bustiz. Hiri-erdiko etxeetatik at —igeltso arrosaz, urdinez eta oriskaz eginak— Belem dago, indioen hiria, bere okolu zabal, dotore eta hondartsuak dituena. Honen etxeak enbordi-maltsa batetan pausaturik, buztin ketsu berdeska baten gainean datza orain; eta bere horretan egongo da arik-eta ibaiaren haunditzeak igeri jar artean.

Idortean bertan, ibaia da Belem-go kalerik haundiena. Ilunabarrean, piragutan abiatzen dira zalu indioak, bihotz itxurako hostoz egindako arraunak eskuetan; eta ba doaz ibarreko azokara, platano gordinak erostera, isuriaren lasterrenean beren sareak hedatzera, edo-ta adiskideak bisitatzera edo egun apalaz solas bat egitera.

Ur edangarri bila joateko, neskatilak munora igotzen dira, eta hirira itzultzean buruaren gainean daramazkite beren buztinezko pitxar zorroiloak. Etxekoandreak ere kale nagusiko azoka bizi zalapartatsura biltzen dira, erosketak bertan egitera. Han daude saltzaileak, salgaiak platano-hosto gordinen gainean jartzen dituzte, eta hautsetan kuxkurtzen dira aldamenean: ezkata diztirantetako arraina, tomate gorri aratzak, tximuki lehorra, gero egosiko dituzten platano gordinak, eskualdeko hazkurri nagusia. Gazteek, lepotik zintzilik, gozoki izoztuak daramazkite erraiteilutan, eta saltzaileen artetik igarotzen dira, beren oin hutsez hautsa harrotuz.

IBAIAREN GOIALDEA. Iquitos-tik Lima-ra



Antzinako hiri harresiduna den Machu Pichu inkaren aztarnak Urubamba ibaiaren gainean dira.

Urubamba-ko mehargunearen gainean zegoen Machu Pichu. Ibai horrek Uyacali-ra isurtzen ditu bere urak, eta honek Amazonas-era.



ez dira hiru ordu baino gehiago behar hegazkinez Andeen gainetik. Baina ibai-bidez bidaia ezinezkoa da batez beste; nahiz ontzitxo batetan oraindik ere 800 km. igo ahal izan. Ur-isuriak Andeetara hurbiltzean, ontzi batek ere gaindi ezin ditzakean laisterguneak agertzen dira. Hauetako bat iragatekotan, burnibide hestu bat eraiki zen 1907-tik 1912-ra, Bolivia —mendi kateen artean jakina denez— Amazonas eta Atlantiko urruna lotzeko. Mendi-mendian egiten ditu 320 km. Lehenengo zortzi kilometroak bizia gosta izan zitzaion hamar bat mila laguni— bizi bat, esan ohi zen saminki, trebeska bakoitzeko—. Oihaneko sukarrek galdu zituen langileak. Hala ta guztiz ere burnibidea burutu egin zen; baina gaur ez da erabiltzen astean behin edo hamabostean behin baizik. Beste itxaropen bat, potto.

Antzinan ba zegoen merkatalgo-harreman bat, eta bidaia asko ibaibide hau baliatuz egiten zen tontor elurtuen artetik. Gaur ordea ez dago ibaibiderik, ezta errepiderik ere. Iquitos-tik hiribururako tartea hegazkinez egin behar da. Bidariez gain nolanahiko salgaiak daramazkite hegazkinek; eta Amazonas-ko isuraldetik etorritako zama honek guziak laister igarotzen du elurrez markatutako isur-muga. Hortik aurrera jetxi egiten da Pazifikoaren alderako basamortu-bandan barrena. Hauxe da hain zuzen Hego Ameriketako zabalgune erdian, munduko ibai-multzorik haundienak ikutzen ez duen barruti bakarra.

Bi zubitako ontzi hau bezain haundiak igo daitezke Pucallpa-raino.







NAVAJOAK

Oroitarrien harana

(Clyde Kluckhorn-en «Navajoak» liburutik hartua)

Ameriketako Basamortu Nagusiko eskualde batetan, lur idor harritsuan, lehoin koloreko harkaitz-dorreak jaikitzen dira, haizeak horretaratuak. Horra hor Oroitarrien Harana, navajo leinuen jatorrizko sorlekua. Hemen egunak orain dela mende bat edo gehiago bezalatsu isurtzen dira.

Nuevo México-ko navajoen herrialdea Kortzega-ren bikoitza da. Ba dago mendi garairik, zelai zabalik, ordoki tristerik eta mehargune basarik. Beste batzuk basamortu-eskualdeak dira, harkaitz berdinak beti eta kolorez nabartuak. Navajo eskualde honetan nabariena, oliba berdezko sastrakak sortzen diren lekuak dira. Izaten dira ere pinadi batzuk, ordoki gorri gorriak eta zuri zurbilak, munoak eta harrizko orratzak, meharguneak, mendixkak, sumendi-jatorriko tontorrak, eta pinondoek berde ilunez margotutako mendi-kateak.



Beren sorterria maite dute navajoek, eta izpirituen hurbiltasuna somatu uste dute natura-monumen-toetan.

LUR-LANAK ETA ARTALDEAK. Bisitatzen duten guzien mirespen itzaltsua idarokitzen du eskualde basa eder honek; eta bertan bizi diren navajoengan maitasun sakona. Baina edertasun berezko horietatik janaririk biltzea... besterik da!

Erresuma Elkartuetako Hego Mendebaldeko barruti hauetan finkatu ziren navajoen arbasoak orain dela mila eta gehiago urte. Frutu basaz eta ehizeaz elikatzen ziren. Joan den mendean, orkatz-nabarraren eta orkatz-adarrutsaren ehizea aski zen hazkurri-oinarria segurtatzeko. Gaur egun, bakarrik bizi diren famelia batzuk kenduz gero, basa-landareak eta ehizea ez dira navajoen usaiako hazkurrian lagungarri txiki bat baizik.

Fameliarik gehienentzako nekazaritza eta artzaintza dira bizipide bakarra. Orain dela mila bat urte finkatu ziren Pueblo indioengandik ikasia dute. Famelia guziek lantzen dituzte artoa eta kuiatxoa. Beste batzuek kuiak, lekak, tipulak eta beste barazki batzuk ereiten dituzte; hau guzia muxikaondoak dituzten puntuzkoak aipatu gabe.

Zoritxarrez navajoak bizi diren lurrek ez du beste lur-lanik uzten; eta ezina da hazienda buru urria baizik bazkatzea. Neguak hotzak dira, askotan elurtsu. Udaberrian haize harroek hondar ekaitz bildurgarriak altxatzen dituzte. Horrez gain, ontzat eman zuten navajoek gehiegizko hazienda batek larreetan bazkatzea, lurraren erosio larri bat erakarriz, eta belar-mota beharrezko batzuk ia itzaldu egin dira.

NAVAJOEN BIZIMODUA. Herrialde eder itun honetan bizia gogorra da: hilkortasun-maila oso gora da navajoen artean, eta lei-

nuaren arazoak ugari. Maiz haiabehar hutsak eta zorteak gobernatutako mundu batetan, navajoek erlijio oso bat moldatu dute, eta segurantzi-kutsua ematen dion bizimodu bat.

Bizi diren iduri bitxi eta harkaitz bikainen artean, eta estaltzen dituen zeruaren bidez, beren deabruei eta beren jainkoei buruz gauza asko ikertu dute. Lurrean, esate baterako, «emakume aldakor» deitu duten jainkosa bat ikusi uste dute. Neguan, elur gain batez eta lanoz estalia denean, zaharra da. Baina udaberria heldu denean, bere edertasuna biltzen du berriz beti ere ederra den «emakume aldakorrak». Navajoek gurtzen dituzten jainkoetan indartsuena da.

Haien etxeak ez dira eskuarki babesleku arkaiko bat baizik, «hogan» bat, leihogabea eta ate bakar batekoa. Hau Ekialdera jarria izaten da, eguzki berriaren izpiak jaso ahal izateko. Emakumeetan zaharrenak gobernatu ohi du klana. Emakume baten seme-alabei anaia eta arreba derizte, benetako anai-arrebei bezalaxe; eta amaren aldeko izebari ama deritza. Maila desberdinetako ahaideen arteko harremanak zuzentzen dituen legedia ezin zailago eta korapilatuago da.

Baina gizartearen oinarria famelia da: emaztea, senarra, eta ezkondu ez diren seme-alabak. Navajoen gizartean senarra da buruzagia teorian; baina ezkontidearen gurasoen etxean bizitzeko ohiturak, eta eskuarki emakumeek oihalak iruten bizia irabazteak, dudarik gabeko hobariak ematen dizkie emaztekiei.

Haurren maitasunak ama du helburu nagusitzat. Ez du honek adierazten haurrek aita gorroto dutenik edo bildur zaizkionik: batez beste ontasunez eta maitagunez betetako pertsonatzat daukate. Baina haurren bizieran, askotan kanpoan egoten delako, bigarren mailako eginkizuna du. Larruaren eta pitxien lanez eta etxeko lan batzuz gain, giza-semeek askotan hartzen dute parte kanpoan eratutako zerimoniatan, maiz ere merkataritza-leku urrunetan egiten diren tra-



Navajoen eginkizun nagusietatik bat idi- eta ahari-taldeez arduratzea da. Hona hemen bere ahari ugariak ureztatzen dituen artzain bat.

Negua, «emakume aldakor», navajoen artean Lurraren jainkosa, elur gain mehe batez estali da. Zaharra den urtezaroa da.





Aitak egindako seaska barruko segurantzian, navajoen haurra zoriontsu bizi da.

tuetan, eta ehize luze urrunetara ere joaten dira.

ETXEAN HAUR BAT. Aitaren betebeharretatik atseginenetako bat, seaska berri bat egitea da. Navajoen bizierako egintza guziek bezala, zerimonia-kutsua du honek ere.

Txotxez eratutako txabola batetan etxetara jostatzen dira navajo haurrak.



Baliatu behar den pinu-zura, hasteko, desberdina da haurra mutikoa ala neska den arabera. Pinu horrek ez du izan behar ez tximistaren aztarnarik ez hartza-atzaparrenik. Luzera haundikoa behar du izan, alegia, urtetan aurreratu xamarra; xuxena eta mardula bestalde, eta leku bakarti batetan hazia. Seaska prestatzeko zura Ekialdeko enborraren alderdian hartu behar da. Lana hasi aurretik, gizonak hazi-irin apur bat erasten dio zuhaitzari, eta otoitzean hasten.

Seaska bukatua denean, gurasoek haurra ezartzen dute bertan, eta kantu hau kantatzen:

«Hiretzako, semetxo hori (edo alabatxo [hori) egin diat seaska hau.
Baldinba urte luzetan biziko ahal haiz!
Seaskaren ondoa egiteko eguzki-izpiak [hartu dizkiat,
Gainaldea egiteko hodei beltzak,
Estalkia egiteko ortzadarra erauzi,
Uhalak egiteko tximistak harrapatu,
Sokak egiteko eguzkiaren argia,
Kirtena egiteko ihortziria baliatu,
Eta ohea bera egiteko egunsentia»

Navajoek egiten duten bizimodua kontutan hartuz gero, ezin manaiukorrago da seaska hau. Oholen lodierak haurra gerizatzen du hausikidura guzietatik: xomorroengandik eta sugeengandik. Estalkia jaso edo jetxi egin daiteke, eta eguzkiaren errainuen bero latza apaltzen du, eta haurraren begiak babesten.

Ama zaldiz doanean, eta abereak jauzi edo estropozo eginez gero, haurraren burua zaituko du estalkiak kolpe guzietatik. Eta hau lauroinka ibiltzen hastean, amak bakarrik utz ahalko du «hogan»ean; eta seaskan dagoeno, ba daki eskierdi surtara hurbiltzerik ez daukala.

Horrez gain, inguratzen duten pertsonen mailan ditu haurrak bai aurpegia bai begiak; eta horretara, berehala ohitzen da familia-giroan. Navajo haurra maitagunez eta begikotasunez inguraturik bizi da: negarrez hasi orduko, ba du bertara joana kontsolatu nahi duen norbait. Loalditik at ez dago luzaz taldetik urruti, eta arrastatzeko, zutitzeko edo hitzegiteko egiten dituen ahaleginak, laister dira erantzunak. Berehala laguntzen da haren nortasuna agertzen, navajoen gizartean bakoitzak bere dinatasuna eta pertsona gisako bere garrantzia bait ditu.



Berehala sartzen dira haurrak gizarte-bizieran. Honek «squaw»-dantza begiratzen du (indio emakumeena).

Navajo gurasoek haurrei ematen dieten hezketan, garrantzi haundia dute esperentziak eta oldezko jokabideak.



GAZTEEN PRESTAERA. Bera artatuz eta penak kontsolatuz gozatzen diren adiskideek osatzen dute navajo haurraren mundua. Haurra beroak esnatzen duenean, maiz ikusten da aita besotan hartzen eta kulunkatzen, berriz loak har dezan arte. Baina navajoek ba dakite utzi egin behar dela haurra bere zailketa egiten, hau gogorregia ez den ber bederen. Ez dute behin ere, ikaskai bezala, haurra zigortzen. Baina bi urte duelarik, inguratzen duten hameka arriskurekin ohitutzen hasi behar du: sua, labanak, abereen atzaparrak. Alferrikako oharpenak egin beharrean, bizi beharko duen munduan bere gisara moldatzera uzten dute nagusiek.

Denbora apur batez etxeko lan batzuk baizik ez zaizkio seinalatzen. Gero, bospasei urte duenean, artaldea zaitzen hasten

da —ahal delarik arreba haundiago baten laguntzaz—. Axolakabekerian edo erdipurdi betetzen badu eginkizun hau, masailekoz edo anketan makilakadaz erasiatzen da haurra.



Oso txikitandik zaitzen dituzte haurrek artaldeak eta hazienda mota guziak.

Abereek bazkatzen duten artean, mutiko honek bere arreba laguntzen du hazienda zaitzen.



Ezen navajoen artean barkatu ezina da gazteengan abereez arreta txikia izatea edo alatzen ari direnean beharrik gabe izutzea.

Indarraren prestaera zortzi urterekin hasten da. Gurasoek egunsenti aurretik iratzartzen dituzte haurrak —mutikoak batez ere— eta kanpora ateratzen dituzte mogitzen eta korrika ibil daitezen. Neguan elur gainetik biloizik pirritaka ibiltzen laguntzen dituzte, eta bizkar biloizik ere elurrez zamatutako adarrez inarrosten. Ohitutzen dituzte ere horma-puskak ahoan dauzkatelarik korritzen, eta urmael edo ibai bat estaltzen duen horma-azala puskatzen eta bertara murgiltzen. Hamar eta hamabi urtetan jinasia egiten dute eguerdiko eguzki kiskalgarritan. Eta adineratzean, lurrin mainuaren zerimoniara gonbidatuak.

Gizasemeak gorputzeko garbitasuna ezezik, arazo jeneralez solastatzera, eta norberaren edo fameliaren gorabeherak aipatzera joaten dira. Zerimoni-kutsua du mainu hauetako giroak: mainukidee izpirituak erregutzen dituzte, mainura etor daitezen eskatuz. Mainu-gelara sartu aitzin, hauts berri apur bat isurten du nork bere buruaren gainera, txirotasuna urruntze arren. Eta kantatzen diren eresiak kantu sakratuak dira.

NESKATXA EMAKUME BIHURTZERAKOAN. Navajo neskatxa batentzat oso gertaera garrantzitsua da emakume bihurtzea; eta hau haren ohoretan gutxienez lau egunez dirauen jai batez egiten da. Ospatua den gaztea ezkontzarako gai gelditzen da.

Sarrera gisa, eta zerimonia-kantuz jainkoengana agertu baino lehenago, liturgia egin behar duten aztiek lurrinezko mainu bat hartzen dute, eta honen bidez gorputza eta izpiritua garbitzen.

Gero aztiak iruteko kilo bat igarotzen du neskaren besotik eta bizkarretik, magiazko makilatxo gisa baliatuz. Zerimonia honen bidez indio neskatxari indarra eta edertasuna eman nahi zaizkio. Xerlo bat moztutzen dio, beraz, eta hori eta «emakume aldakorra'ren» ilearekin alderatzen du.



Emakumeen munduan sartuko badira, neskatxa guziek jakin behar dute garia ehotzen.

inoiz aurreratu gabe, zahartu nahi ez badute...

Sinbolodun eginkizun asko behar du obratu. Beti langile eta erne egoteko, festa honetarako behar den ale guzia ehoko du. Laugarren egunean, inguratzen duten adiskideei eta ahaideei eskaini aurretik arto-irinez hautseztatuko du gozoki berezia. Haur ttipiei aurkeztutzen zaie orduan, eta erregu-keinuz, haundi eta sendo bilakatzen lagun ditzan eskatzen die bere aldeko jainkoei.

«Bedeinkazioaren bidea» da navajoen mitoetan erlijio-kutsua dutenetatik nabarmenenetako bat. Izpirituekin navajo herria adiskidetzeko egina —gero mintzatuko gara horietaz xehekiago— eta «emakume aldakorra'rekin» bereziki, denentzako joritasun eta osasun bolara bat segurtatzen du. Beste anitz okasiotan berretzen da zerimonia hau: *esate baterako, famelia haur baten zai dagoenean.* Eskuarki ez dira behin ere sei hilabete pasatzen famelia batek bere txabolan «bedeinkazioaren zerimonia» egiteko erarik izan gabe. Ahaiderik hurbilenek bertara joan behar izaten dute denek.

Tarteka-marteka neskatxak parte hartzen du festan. Egunean zenbait aldiz eguzki aldera joan behar du. Lagunak haren ondotik doaz korrika, baina bera baino lehenago

Aztiaren makilatxoak (irule-kilo bat) indarra eta edertasuna agintzen dizkio neskatxari.



Zerimoniaren laugarren egunean, neskatxak alea ehotzen du gozoki berezi bat prestatzeko.



Zerimonia-multzo honen kakoa hau da: eguneroko lanetan elkar-laguntzaren ideia. Gonbarazio batez: ama batek bere alaba emakumeen mundurako sarrera ospatzen duenean, eta hau dela bide famelia guzia biltzen, ahizpa etorri ohi da sukaldean laguntzera.

Baino hurrengo hilean ba liteke ama horixe ahizparen etxera deitua izatea; honek laguntza-beharra izan bait dezake ieinuko gizaseme guziak errezebitzeko, eman dezagun, senarra zalditik erortzean kolpatua gertaturik eta ohean ezindurik. Arta horietan eta sendaketa azkarrean laguntzeko, kantariek «biziaren kantua» kantatuko dute.

«Bedeinkazioaren zerimonia» ezin xinpleago eta dinago da. Lehenengo gauean kantu sakratuez hasten da; gero jukazko sustrai-zuku xalbointsuaz arrosatzen da, bustiketa hau kantuz eta otoitzez laguntzen dela. Hurrengo goizean eta ondoko gauean egunsentira arte luzatzen da kantasaioa.

Zerimonia guzian barrena artalea eta arta-irina oparo banatzen dira. Irin horretaz eta zapaldutako lore-hostoez «hondarrezko santuak» egiten dira, edo hondar-margoak, lurrean hedatutako orkatz-nabar-larruen gainean. Margo hauek onak baldin badira, jainkoek aditu egiten dituzte iduritu dituzten eskabideak... Ohar bat egin dezagun bidenabar: behin bakarrik, bedeinkazioaren zerimonian, onartzen dutela navajoek jainkosa nagusitzat daukaten «emakume aldakorra» giza-itxuran iduritzea.

Ritoari jarraituz, aztiak gari-irina ematen dio neskatxari.



Navajoen alegiek, kantuek eta otoitzek eguzkia eta ilargia, mendi sakratuak eta landaredia erregutzen dituzte. Hauek guziak sartzen bait dira munduaren sorreraz navajoek duten ideian. Euriei, hodeiei eta lau haizeburuei dagokienez, esakizun sakonez betetzen dituzte. Beste fenomeno batzuk arrakesta eta zorion-ikurtzat dituzte. Ze navajoen mitologian ikusgarri den munduko gauza bakoitzaren atzean, ikus-ezinezko munduaren izpiritu bat dago.



Izpirituen munduko aldakuntza etengabearen aldi bat da negua navajoen ustez.

IZPIRITUEN HERRIA. Bitasun batetan finkaturik dago navajoen kosmoa: ba dago lurraren gaineko herria —hau da: biziena eta hildakoena, alegia, giza-izaki arruntena (navajoek hildakoen mamuen ahalmen gorenean sinisten dute, eta bildur zaizkie oso)— eta izpirituen herria. Hauek mundu izkutu mixteriotsu batetan bizi dira, eta lur-gaineko herria laguntzerakoan edo zigortzerakoan ahalguztidunak dira. Eguzki izpietan bidegiten dute, ortzadarraren uztaian, turmoiaren tximistetan. Mesede bat eska dakieke aditua izateko segurantzian. Rito sakratuen eta otoitzen bidez, parte harreraztera bortxa daitezke.

Navajoen aspaldiko mitoek diotenez, lurraren muinetan bizi zen antzinan izpirituen herria; baina, magia-bidez baliatuz, gainalderaino iritxi ziren azkenean; alegia, gure mundura. Orduan agertu zen lehenengo aldiz heriotza, eta izpirituen herriak «emakume aldakorra» sortu zuen. Honek bizkiak haurregin zituen, batak gizaseme gizona eta besteak gizaseme gudaria sinbolatuz navajoen iritziz. Gizauren bizkiok bidean abiatu ziren eguzkiaren etxera irixtekotan, eguzkiagana alegia, eta bidean majina bat mentura eta istorio gertatu zitzaien. Topatu zituzten munstrorik gehienak garaitu zituzten; baina ezin izan zituzten gizadiaren etsaiak oro bentzutzea. Gosea, txirotasuna eta zikinkeria itzuri egin zitzaizkien, horrela gizakumeen artean beren lekua ba zutela erakutsiz.

Navajoen jainkoen mailadian, «emakume aldakorra'ren» ondo ondoan, senartzat duen eguzkia heldu da. Gizauren bizkiak, era bertsuan, ia zerimonia guzietan aipatzen dira. Menturaz jositako beren bidaia egiten zuten artean, izpirituen herriak biltzar nagusi bat antolatu zuen; eta honetan navajoen arbasoen herria sortu zuten lur-gainean. Txabolak eraikitzen erakatsi zieten hazkurriak inguratzen, eritasunetik eta gosetik gerizatzen, eta ezkontza, bidaiak eta merkataritza zuzentzen dituzten legeak eman zizkieten. Gero urrenertzeko lau buruetako bizileku berrietara joan ziren, eta artean gaur

Izpirituen Herriak navajoei erakatsi zizkien eskoletatik bat da eltzegintza.





Hondar-margoek navajoen gertaera sakratuak gogorazten dituzte.

navajoak kokatu diren eskualdean finkatu ziren lurgaineko biztanleak.

«Emakume aldakorra'k» erakatsi zien haizeak, ibaiak eta ekaitzak agintzen, abereak elikatzen, eta gauzak eta indarrak adiskidantzan atxikitzen. Jakinduria horren guziaren bilduma da «bedeinkazioaren bidea» eta, ikusi dugunez, leku goren bat du haien erlijioaren sisteman.

Ba dago beste indar talderik: abereak eta naturalezaren indarrak, esate baterako, ihortziriaren herrian eta haizeen herrian nortuak; ba daude koioteak eta herensugea.

Eta ba daude gizadiaren eta izpirituen artean bitarteko diren izakiak, hala-nola «euli haundia», jainkoen eta gizonen arteko mezularia. Lur-gaineko herria larrialdi batetan dagoenean, artoaren kakalardoa baliatuz, oharrak eta aholkuak helarazten ditu. Heriotzaren edo hondamendien lau iragarpideak armiarma-arrak finkatu ditu: eztarri lakarra, belarrietako txistua, sudurreko hazkura, eta larruko hatz-mina. Sinu hauek kontutan har ditzanak arriskua baztertuko du, edo honen larria txikiago egingo bederen. Armiarma-arrak, emearekin batera, erakatsi die navajoei gaur horren garrantzitsu duten iruteko eskola.

Halaz ere, ezin da izpirituen ądiskidetasun fidelaz seguru egon: oroitu ezinezko antzinatetik, arriskuz betetako kosmoa nortzen bait dute hain zuzen. Kosmo-alde ho-



Hondar-margoak eguzkiaren joairaren aldera margotzen dira.



Hondar-margoa erdialdetik hasten da, eta lana eskubiko eskuaz egiten.



Hondar-margoa «hogan» baten barruan egiten da, eta lana ilunabarrerako bukatu behar da.

netan bizi diren izakiak, nahiz funtsean gaistoak ez izan, gizonen ikara sortzen dute; eta hauek, adiskidetasunean atxiki nahiz, rito zail batzuk errespetatzen dituzte.

Debeku eta ezezko itxura duten ritoen inguruan egin ohi da navajoen bizierako parte haundi bat. Beste modu batez esateko: ohitura horiek zenbait 'tabu'ren ondoan eraikitzen dira: sinistunak ez du inolaz ere horietaz ez begiratu, ez jokatu, ez hitzegin behar. Navajoen eguneroko biziaren parte dira. Egintza hauetan murgiltzen dira maiz fameliako lagunak, baita aztia edo zerimonia-burua gabe ere.

Zorion-ekarle diren kantu mordo bat du famelia bakoitzak, honen lagunen eta ondasunen gerizatzaile, eta uztaren oparotasunean eta artaldeen ugaltzean laguntzaile.

Kantu sakratu hauek belaunez belaun jasotzen den ondore garrantzitsu bat dira.



Arta-kakalardoak aholkuak ematen ditu ahapeka.

HONDAR - MARGOAK. Zenbait zerimonia berezitan edo kasu zail eta korapilotsuetan



Artista batek gero margogintzan baliatuko dituen koloreak hemen ehotzen ari.



Squaw-dantza (edo indio emakumearen dantza) egingo den biltokiraino gurdiz ohi doaz navajo fameliak.



Gauero kanpaleku berri bat eraikitzen dute, kantusail berri bat eta dantza desberdinak ematen.

Navajoen zaldi pairatsuek batzutan goiztirira arte itxaron behar izaten dute dantzaldien amaia.



ez dira aski izaten, guztiarekin ere, fameliako lagunen rito-jakintzak. Horietarako ofizioko azti bat deitu behar izaten da, zerbitzuak ordainduz; eta oparo ordainduz gero txit rito zailetan.

Kantuen hautaketa, gertatutako gaitzaren meneko da, eta ustezko kakoaren arabera, xedearen arabera, edo kantariaren jakinduriaren arabera aldatzen da. Bi, hiru edo bost gauez berretzen dituzte eresiak aztirik gehienek. Baina are bederatzi gautan segidan kanta ditzakete. Zerimoniaren gailurrunea su aurreko dantza agerian irixten da: dantzariek orduan jainko irudiko mozorroak *daramazkite*. Ze *kantu sakratu* hauen guzien iturburua, jakina, mitologian bait datza.

Kantariak edo honen laguntzaileetatik batek «zezen marrukari» edo «makilatxo soinulari» deritzana baliatzen du. Ihortziriak jotako arbola bateko egur puska bat da hori, turkesaz josia, eta orkatz-nabarrezko gerrikoaren mutur bati loturik dagoenean jiraarazten bada, deihadar moduko zarata bat egiten du. Navajoei tximisten herriak egindako doia, jiratzearen habaila azkartzen denean, tresna honek turmoiaren antzeko burrunba bat egiten du.

Kantuekin batera eskuarki, «hondar--margo» deritzaten marrazkiak egiten dira Margo horiek halere ez dira hondarrez egiten: pintagaiok ikatza, landarekinak, abere--ile beltzak, eta ehotutako mineralak dauzkate. Zenbait «margok» 30 cm. diametro dute, eta gutxiago; beste batzuk margotzeko, aldiz, «hogan» bereziak moldatu behar dira aurretik. Margo txikiak ordubetean baino lehenago buka daitezke bi edo hiru artistaren artean; baina haundiak egiteko hamabost gizonen lana behar da egun ia osoan zehar. Batzuetan eguratsean egiten dira margoak, baina usuenik barruan egin ohi dira. Eta, nolanahi ere, gaua etorri ondoren sekula ere ez.

Eskubiko eskuaz osatzen dira, eta zenbait proportzio arrabeteka neurtuz hertsi--hertsiki errespetatzeko. Margoaren beste parte batzuk artistaren esku uzten dira. Lehenengo marrak luzera koxkorra iritxi duenean, laguntzaileak hartzen du bere txanda,

eta kolore liferente batez hasten du beste marra bat. Gizonak margoaren erditik abiatzen dira, eta kurubilka urruntzen dira eguzkiari jarraituz; hots, Ekialdetik Mendebalderuntz. Hutseginak ez dira ezabatzen, beste kolore batez estaltzen baizik.

Hondar-margo hauek «izpirituen herriko» gertakarien irudiak dira: mito askotan agertzen diren gizaurenak; artoa, leka, kuia, hirurak landare sakratu; edo mendietako alimaleak: bufalo, zorionaren sinbolo den txori urdina, «gila» munstroa, eta beste narrastari batzuk.

Arkuak eta gezi sakratuak ageri dira ere zenbait aldiz, baita mugerra ere. Ia beti ortzadarrak inguratzen ditu margo hauek alderdi guzietatik Ekialdetik ezik; zeren-eta ortzadarrak eragin gaistoetatik gerizatzen dituela navajoek sinisten bait dute.

Estilozko arte honek, Erdi-Aroko beiragintzaren antzekoa, navajoen erlijio-ideaiak biziarazten ditu eta mamitzen.

Eresien eta otoitzen artean hondar-margoaren prestaera bukatua delarik, gaisoa bertara dator esertzera, behar den jarreran zehatz eseriz, eta honen ondoren bai: sendaketa has daiteke. Eritasunari aldegiteko agindu zaionean, atalka desegiten da egina izan den ilara edo kronologia kontutan hartuz. Gero erkaztatu egiten dira margokinak, eta txabolatik kanpora aurtikitzen dira.

«ETSAIAREN BIDEA» ETA «SQUAW-DANTZA». Hastapenetan «etsaiaren bidea» deritzan zerimonia, gudutan hildako etsaien mamuetatik zaitzeko egiten zen. Gaur eritasunetik begiratzeko edo atzerritarrengandik etorritako beste edozein zoritxarretatik babesteko erabiltzen dute navajoek. Zerimonia honetan neskak berak irtetzen dira dantzara —ezkontzekotan dauden neskak— eta kantatzen ez duten mutilak gomitatzen dituzte dantzara. Ohitura hau dela-ta, atzerritarrek «squaw-dantza» bataiatu dute hau; alegia: indio emakumearen dantza.

Gauero kanpalekuz aldatzen dira jaikideak, eta dantzak eta kantuak gauero ere



«Squaw-dantzak» eritasunetik eta beste kaltetatik begiratzen ditu navajoak.

aldatzen dira. Azkenean «zirkuloaren dantza» famatua heltzen da, egunsentiraino luzatuz. Gero zerimonia labur bat dator; eta festa amaitzeko «bedeinkazioaren ritoa»ri datxekon eresi-saila.

Agerkunde hauek guziek gizarte —eta erlijio— helburu bat dute. Jainkoen babesa

Zerimonia honetan, neska ezkongaiek gomitatzen dituzte mutilak dantzara.





Neskek ongi apaindurik agertu nahi izaten dute «squaw-dantza»ra.

lortzeko esperantzan hartzen dute parte beretan navajoek, baina baita ahaideak ikusteko eta ahaideek ikusiak izateko, entzuteko eta hitzegiteko. Hau oso egia da berezi ki neskek dantzakidea aukeratzeko askatasuna duten dantzari dagokionez.

Aspaldian festa haundi batetako pasadizuetatik bat besterik ez zen squaw-dantza. Gaur berebiziko jolaspide bihurtu da soegileen multzoarentzat.

Agerian iragartzen dute horrela neskarik gehienek ezkontzeko adinean daudela. Mutilak kantu sakratuak kantatzeko, aditzeko, eta noski, neskak begiratzeko datoz. Ostea gauero elkartzen da dantzariekin, eta gizonen kantuak adituz atsegin haundia hartzen du, bidenabar bestalde askoz ere mundutarrago diren pasadizutan murgiltzeko.

Karia honetara, ahal duten eta hobekienik jazten dira denak; batez ere ezkontza bat lortu nahi duten fameliako lagunak. Zaldirik ederrena erakusten da, gurdirik politena. Fameliak pitxiz eta ezteuskeriaz josirik iristen dira festara, askotan horiek bahituran eskatuak. Okasio horietan beste edonungo ama guziak bezain interesdunak agertzen dira navajo amak, eta ez dituzte beren asmoak disimulatzen: habil azkar —dio amak alabari— eta saia hadi mutil hori biltzen: haren amak bostehun ardi din». Aholku hauek bultzaturik baita neskarik izutienak berak dantza-kide bat hautatzen du. Eta suertea izan duela uste izaten da gertakari horren ondorioz mutilaren famelia ezkontza tratatzeko gertu agertzen denean.

EZTAIA. Eskuarki mutilaren fameliak erabakitzen du eztaia. Senargaiaren amaren aldeko osaba edo ama doaz neskaren gurasoak bisitatzera, gauza nolatsu dagoen somatzera. Erantzuna aldekoa baldin bada, ez da eskabidea luzatuko, behar den eran egina gainera.

Hastapeneko ikustamen honetan bi puntutan elkar-adi daiteke: ezkontegunaz, eta mutilak neskaren fameliari eskeini behar dion sariaz. Honek neska «erosia» izan dela idaroki dio arrotz askori. Baina navajoek oso azalpen desberdin bat ematen diote: neskaren fameliarekin bizitzera joango da senargaia —diote navajoek— eta famelia honek hornitu beharko ditu haziendarik gehienak eta bikote gazteak beharko duen tresneria. Saria, beraz, ez da mutilaren fameliari dagokion laguntza normala baizik.

Hain zuzen ere, ondasun-truke horretxek legetzen du ezkontza, emaztearekiko itzala eta geroko seme-alaben segurantzia ekarriz. Senarrak emaztea gaizki tratatzen duen bakoitzean, emaztearen famelia saiatzen da moldatzen; baina senarraren jokabidea arras kondenagarri baldin bada, are «maletak egiteko» ere agintzen zaio. Dibortzioa usua da, eta modu xinplean egiten da: aski da senarra kanpoan dagoen batetan, emazteak horren gauza pertsonalak «hogan»dik at uztea. Kaso honetan senarraren fameliari ezkontsaria bihurtu beharrik ez dagoela onartu ohi da.

Eztaiaren festa beti egin ohi da andra-

gaiaren gurasoen etxean. Ilunabarrean hasi, eta egunsentira arte ez da bukatu ohi: «bedenkazioaren kantua» emana izan arte xuxen.

Senarra «hogan»era sartzen da, eta biraka hasten da suaren ingurutik —eguzkiaren arabera beti—, Ipar Mendebaldean jarri den aulkiraino. Bere aitak gidaturik, mutilaren ondoan dagoen beste aulki batetara doa andragaia era berean. Ezkontza amaitutakoan bi aitek hitzaldi bana egiten dute, ezkonduen betebeharrak azalduz.

NAVAJOAREN IZAKERA. Zein da navajoaren ustez gizon eredua? Itxura atsegin, irabazpidean begiko, erakasle on izateko ezpala, langile, aisa mintzatzaile, eta erantzukizunaren sentidu sakon bat duen gizona. Honek guziak adierazten duenez ba dago hor dohain bilduma bat: dohain berezkoak batetik —gorputzekoak eta arimakoak batera— guraso onak eta famelia ona, eta gaitasun horiek sendotzeko etengabeko ekiera bat.

«Doilorkeria» hitzaz adierazten dituzte batera navajoek gizon ankerraren akatsak, bere buruaren jabe ez izatea, alferra eta xahutzailea. Txirotasun guzizkoa edo berealdiko aberastasuna, gorputzaren makala, zahartzaro zoritxarrekoa edo biziera bakartia, aski dira gizon bat sorginkeriak jota somatzeko.

Bertute moralez gain ere, navajoaren helburuak gaitasun pratiko eta bereziak nahi ditu. Aztiaren erlijio-kantuak eta ritoak osoki ezagutzen dituzten lagunek biltzen dituzte ohorerik preziatuenak; baita artaldeak ernatzen eta ugaltzen dakitenek, alfonbrarik ederrenak dituztenek edo zilarrezko pitxirik politenen jabeek. Berak asmatu duen moldabide bati jarraituz bi zukunetako oihal liferente bat irun duenak; bederatzi egunez eta bederatzi gauez iraun dezaketen zenbait zerimoniaren gidariak: horra hor navajoen ustez artegintzako helburua nortzen dutenak, horiek burutzeko oroimen-ahalegin harrigarri bat behar delako.

Bil ditzagun, beraz, navajoek gorenik istimatzen dituzten puntuak: famelia ugari zoriontsu baten parte izatea; besteekin harreman onak izaten jakitea; norberaren fameliakoak bezelaxe besteak hartzea; lur gizenak eta artalde oparoak izatea; mundu honetako ondasunak atxikitzen eta aurreratzen jakitea; lanean jakitea, baina baita biziera honetako atseginak dastatzen; gizonak mehatxatzen dituzten arriskuei nola edo hala ihardukitzen jakitea; gauza ederrak eduki, edo sortzeko gauza izatea; mundua gobernatzen duten izakiekin eta indarrekin harreman onetan egotea; eta, azkenik, zuhurtasunean eta dinatasunean zahartzea.

Mitoen eta erlijio-zerimonien betekizuna argi-eta-garbi agertzen da helburu horiei buruz ematen duen laguntzan. Ustekabean eta aldakuntzaren jopu hutsa den bizieran, mugarri sendo bakarrak dira mitoak. Gertaerak kausa izkutuen ondoriotzat hartuaz, gauzak inoiz ez direla kausarik gabe edo arrazoin askirik gabe adierazi nahi da.

Erlijio-kantari batek buruz jakin behar du rito, otoitz eta kantu anitz.



Uste dute, esate baterako, eritasuna tabu baten kontrako bekatuek ekarri dutela, edo, «izpirituen herri»ko baten gaistaginak, edo mamu baten edo sorgin baten egintzak; eta, hau dela bide, horretarako agintzen diren ritoen laguntzaz burruka daitekeala. Mitoek eta erlijio-ritoek ere segurantzi itxura bat erasten diote etorkizunari, orainaren eta iraganaren artean etendurarik gabeko jarraitasuna emanez. Sinispen hauek, fede sakon batetatik etorritako mitologia diren aldetik, bozkario osoa ematen diote navajoari.

GEROARI BURUZ. Navajoaz herri emankorra dira, ugaltze betean ari. Horrenbeste haur dute non, hilkortasun-maila gora izan arren, eta oraindik ere goragoa haurren hilkortasuna, beren jendaketa, gaur 80.000 biztanletakoa, goruntz doa, eta 2.000 lagunez urtean emendatzen. Bizitasun hau ez da biologi-kontu hutsa. Hauen arteak, oihalak eta zilar-lanak joriak eta oparoak dira. Orain dela urte batzuz geroztik, navajoek bero-beroan hartzen dute parte politika-arazoetan, leinuaren gobernamenduko aferetan sartzen dira bete-betean, baita erakaskintzaren eta ekonomiaren hedakuntzan ere. Nahi balute ere, amerikatar bizikeratik at ezin bizi daitezkeala ulertu dute. Egokitzeko dohain haundi bat erakutsi dute, eta jakintza eta hedakuntza-nahi egiazkoa. Treinak eta errepide nagusiak igarotzen diren eskualdeetan, areago aldatu da bizimodua azkeneko 30 urteotan, españatarrekin orain dela 400 urtez geroztik baino. Eta, noski, belaun berrien aurrerapenak azkartu egingo du joera hori.

Halaz ere, gauza ageria da navajo-kulturak ez duela errazki bere burua amerikatar bizimoduko ohituretan itotzera utziko. Ze navajoek argitasunez eta azkar ikasten badute ere, harro daude beren herritasunaz eta beti atxikiko dute beren nortasun funtsezkoa.

Askotan emakumerik zaharrenak zuzentzen du navajoen klana.







SAMOA

Uharte sakratuak

(Pierre Métais-en «Polynésie et Samoa»tik hartua)

Pazifikoa ontziz zeharkatzea bidaia luzeada, eta artean nekearen antzeko gaitz batek hartzen bide ditu bidariak. Baina kaleko goiz batez kolorezko eta itzalezko sinfonia harrigarri batek esnatzen ditu, itsas gainean jostari. Eta izaki guziak gainezka betetzen ditu bizi oparoak, bapateko gaztaroak eta hedakuntza-kutsuak. Zergatik hala? Polinesia lehenengo aldiz aurkitu dutelako.

«Uharte asko» adierazten du «Polinesia» hitzak. Osatzen duten lur puskak milaka kilometrotan zehar daude itsaso betean sakabanaturik. Uhartedien artean itsasoetako ur aratz orbangabeak. Nola aurkitu ote zituzten antzinako gizonek uhartetxo ñimino hauetara daramaten bideak? Edo bestela ere geure buruei galdetuz: nondik ote zetozen gizon haiek?



Itsasoz iritxi ziren uharteetara polinesiarrak, baina nondik etorri ote diren inork ez daki.

NONDIK OTE DATOZ POLINESIARRAK? Galdera honi polinesiarrek ematen dioten erantzunak ez du arazoa ezertan argitzen: «bertarako seme gara gu» diote, besterik gabe, gizakume eder, eskuzabal eta bihozkor hauek. Idazkuntzarik ez izanik, ez dute ahozko kondaira baizik; eta hau eta mitoak nahasirik agertzen dira. Beren etorkiaz ez dakite jakin ezertxo ere.

Halaz ere etnologiak, hizkuntzalaritzak, eta gizarte-ekarrien azterketak eta alderaketak erakutsi dutenez, Ozeania-ko herri hauen asiatar jatorriaren alde mintzo bide da jakintza; nahiz Kon-Tiki-ren bidari ausartek defenditutako teoriak Hego-Ameriketatik heldu direla badio ere.

Zalantzarik batere gabe, gure Kristauaroko VIII eta Xgn. mendeen inguruan, edo beranduago zenbait kasotan, eta xehekiago esaten ezina den memento batetan, herri-joaira batzuk gertatu ziren Indotxina-tik, honetan bestalde ordurako europarrak eta asiatarrak nahasten hasiak zirelarik. Herri-joaira hauen kakoa argitzea zail da: zenbait gudu segurki. Nolanahi ere, batzuk Caroline-tara eta Marshall-uharteetara abiatu ziren; beste batzuek, Malasia-ko uharteetan, New Guinea-ko mendebaldeko itsas ertzean, Salomon-etan eta Hebridetan utzi zituzten aztarnak, gero ozeano mugagabean hedatuz; eta eskualde askotan joaira-bidez finkatutako melanesiar kultura hura estali zuten.

Gaur gaitz zaigu somatzen polinesiar ontzitxo horiek ozeanoaren aurka burrukan ari. Itsas gizon haien gogoa, ausardia eta eskola harrigarriak konprenitzeko, aski da gaurko itsas gizon bakartien bidaietan pentsatzea. Nouvelle Calédonie-ko Ekialdeko itsas ertzeko alegia batzuek diotenez, nekeak eta goseak erdi hilik iritxi zen behin hara samoatar bat, txalupa batetan bakar-bakarrik bi milla kilometro egin ondoren. Marinel hauek ederki erakutsi dute gizonaren eta itsasoaren arteko egokiera guzizkoa. Korronteen, haizeen eta ubideen norakoa eta aniztasuna, eta txori bidarien hegabidea ezagutuz, polinesiarrak mendeetan

zehar bildutako ikaspenaz fida daitezke. Eta aitortu egin behar da: sail honetan lortutakoa harrigarria da.

Haiek herritutako uharte mordo bat, ezin ederrago, usaiako itsasbideetatik at egon da aldagabe, eta polinesiar egiazko zibilizazioaren etsenplu gisa. Samoa-koa da.

Maitasunez gorde da Samoan ohitura zaharren altxorra. Hitzak berak polinesieraz, eta kontsonante likidotan, «leku sakratu» adierazten du. Ontziek eta hegazkinek Fidji-n eta Tahiti-n uzten dituzte batez ere beren bidariak; eta horretara biziera patxaratsua daramate, antzina bezalaxe, jatorrizko itsastarren ondorengoek. Hauetaz mintzatuko gara ondorenean.



Jatorrizko itsastarren ondokoak, begitarte oneko herriskatan bizi dira hondartzen ondoan.

UHARTEKO HIRI BAT. Lehenengo begiraldian, gogor, gotor eta berde ilun dirudite uharteek. Labazko mendi-gailurrak, itsas gainetik ailtxatzen dira gaitz eta basa mila metrotaraino.

Baina itsas-ertzera hurbiltzean, piskanaka piskanaka aurkitzen da uhartea estaltzen duen berde leuna, «ogiaren zuhaitz» eta zur burdinaireen basoen gelditasuna, garo erraldoiak eta mahastiak; eta geldi-giro horrek betikotasunaren barne-kutsuz betetzen gaitu. Oihana itsasoraino hedatzen da; eta honen ondoan kokondo-baso bihurten, gizonen eginahalen lekuko.

Kokozko mamia lastaira gainean hedatzen da, eta eguzkitan lehortzera uzten.



Oihanetik harat, kokondo-basotxoek inguratzen dute itsas-ertza.





Gazteen artean tatuajea da froga bat, eta lortzen dutenaz oso pozik gelditu ohi dira.

Goizeko haizean ibiltari, hemen eta han kezko hodeitxoak ageri dira, erreka bukaeretako eta kostaldeko bizilekuen izana salatuz. Hain da nabarmena eskualdeari darion gelditasun barea, senaz iruditzen zaigula huraxe dela —hauta ahal izanez gero— bizitzeko eta hiltzeko aukeratu behar genukean lekua.

Alboan utziko dugu Apia hiriburua, turistentzako dendaz eta ostatuz lerrotutako kaleak. Itsas-hegiko herriska baketsua bisitatu nahiago dugu. Bertan bizi dira lasai naturalezaren oparoaz baliatuz behar apaletako jende xeheak. Samoatar zuhurrak, parabisua bera gozakaitz egin dezakean aspertzea gainditu nahirik, beren bizierari helburu bat ematen saiatu dira, horretarako beren biziera geldiari anitz ohitura zahar eta zerimonia zail erantsiz.

Lehenengo begi-kolpean idiliko iruditzen zaigu herria: «Fales» izeneko bizilekuak osoki irekita daude alderdi batetatik; eta han eta hemen sakabanaturik ageri zaizkigu. Denek dituzte bai belardi berde bat, bai europatar loreak, bai zuhaitz mota asko: kokondo, «ogi-zuhaitz», mango eta hibisko. Eta dena itsashegian beti lehertzen diren uhinen zurrumurru etengabean murgildurik.

Gazteak, lore zuritako galtzatxo gorritan jantzirik, aizkora eskuan doaz taldetan. Ez dira, ordea, herriko kaleetatik oinutsik eta oihal puska bat gerritik zintzilikaturik doazen gizon basati batzuk. Ez horixe. Hain zuzen horietxek gidatuko gaituzte buruzagiaren etxera.

Samoatar gazteoi bideskan barrena jarraikiz, laister heldu gara txabola borobil batetara: horra hor buruzagiaren bizilekua. Aurrekaldean «malac» deritzan gune bat utzi da; eta bertan alatzen da zenbait zaldi,

eta zakur batzuk lozorroan dautza gaur goizean eguzkitan.

Kanpoan gelditu gara, geure gidariak iragar gaitzan zai. Ez bide dago inor presaturik: hemen bizi den moduan denborak eta mendebaldeko hirietan hestutzen gaitunak ez dute batere antzik. Ordu erditsu bat igaro delarik, bi gizon haundi atera dira txabolatik. Batak euli-harrapakin bat dauka eskuetan handiro. Hiztuna da, aginpideari dagokionez, buruzagiaren ondokoa, honen ordezkaria hain zuzen bilkura ofizialetan.



Gazteek arretaz entzuten dituzte buruzagi-biltzarreko hitzaldiak.

BURUZAGIEN BILTZARRA. Europar modura hestutu digute eskua geure sarrerazleek, eta txabola borobilera eraman. Ohitura zaharrari meneginez, bereziki dagozkien aulkietan eseri dira. Eserleku gisa, lerrotako lastaira bat eskeini zaigu, eta bertan eseri gara; ez bait litzake eskola onekoa izango gure burua buruzagienari gailentzea.

Hemen gara —jakizue— herriko «fono»-an; alegia; buruzagien biltzarrean. Famelia bakoitzak «fono»an ordainduko duen bere buruzagia hautatzen du, eta biltzarrean elkar-mailakoak oro eztabaidatzen dira.

Gidari izan ditugun gazteak kanpoaldean esertzen dira, hitzaldiak entzuten, eta zerimoniako xehetasunak segitzen; ezen ba dakite halako batez berak ere buruzagi gerta daitezkeala.

Malio'o da buruzagi nagusia. Halako harrotasunaz erakusten ditu zangoetako bere tatuaje zailak, ausardiaren ikurra. Gainerakoak bezala, «sennit» iruten ari da zerimonian barrena: alegia, koko-hariz egindako soka-mota bat, gero azalduko dugun eran erabilia. Usaiako hitzaldi luzeak datozenean, eginbehar horrek eusten du erne eta iratzarririk, eta hurrengo lanerako behar duen gogoa libro atxikiz.

«Kava»ren zerimoniaz irekitzen da «fono»a ofizialki. Sustraiak zapalduz lortzen den edari alkolgabea da kava. Lehendabizikorik, mutil gazte batek gatilu batetan jartzen du kava-irina. Gero edaria nahasteko ohorea tokatu zaion neska hurbiltzen zaio;



Ohore haundia da «kava» kopa barrura isurtzea.

Herriko neskarik prestuenak, «taupu» delakoak, prestatzen du buruzagientzako «kava».



eta mutilak koko batetako ura isurtzen du neskaren esku-ahurretan, hauek garbitzekotan. Gero «kava»ri ur apur bat erasten dio; eta neskak orduan errauts hura eta ura nahasten ditu bere esku trebeez. Eginkizun hau bere gai hartzen duen neska, herriko guzietan prestuena izan ohi da: «taupu» izateko (hau da, zerimonietako aintzandarisa izateko) aukeratu du buruzagi nagusiak, eskuarki buruzagiren baten alaba bat. «Taupu»-lana ez da nekosoa izaten; eta bestalde behin ere, ezta zingirara doanean ere, abandonatzen ez duen dama laguntzaile bat izateko eskubidea du.

Honetan kava-errautsa osoki urtua da; eta soluzioak krema mehearen itxura hartu du. Ba da halere igeri zenbait kava-hari. «Taupu»ak iragazi egiten du kontu haundiaz hibisko-azal batetarik, eta gero azal-puska hori besaburuaren gainetik aurtikitzen du.

Txabola aurrean eseri diren gazteek arreta osoaz jarraitzen dituzte zerimoniaren xehetasun guziak; eta gauza bat erreparatzen dute bereziki: «taupu»ak iragazkia atzera aurtiki duelarik, ez duela burua atzera itzuli. Iragazkia garbitu behar duen gazteak, hain zuzen, ez du inolaz ere lurra ikutzera utzi behar. Hau gerta balekio, berehala ordain lezake beste mutil batek. Hauek dira samoatar aginpidearen gorabeherak.

«Taupu»a herriko begitarte-emalea da, eta beti ibiltzen da bere dama laguntzailearekin.



Sustrai-aztarnak oro ezabatuak izan direnean, iragazkia xukatu egiten da, eta «taupu»ari bihurtzen. Orduan honek zerimonia-modura garbitzen du gatilua, eta esku ahurren gainean jartzen. Edaria gertu dagoela adierazteko zabaldu egiten ditu eskuak.

Opa den arintasuna lortzeko ur poxi bat erasten zaio nahasketari, eta horra hor heldu dastatzeko unea. Laguntzaileak kopa bat betetzen du, besoa luzatuz altxatxen, eta gatilura botatzen isurkina. Erortzen diren tanto hotsak eta kolore beltz-beltzak ematen dute erantzuna; prest dago dena.

Kava-ren jabeak orduan hau dio deihadarka: «Horra hor! Kava gertu dago, eta neronek zatituko dut. Hurbil bekit zerbitzailea, eta lehenengo kopa eman beza!».

Une haundia hurbil denean, txaloka hasten dira biltzarkideak batera eta konpasetan; eta lehenengo kopa bete denean, zerimonia hasten. Bere gizarte-mailari dagokion ilaran, eta Malio-o-gandik hasita, zerbitzatzen da edaria; eta bere partearen bila doan buruzagiaren izenpuru osoa ematen da goratik.

Kava ez da arinki edaten. Lehendabizi, ohitura zaharrari jarraikiz, tanto batzuk lurrean, isurtzen dira. Tangaloa jainko zaharrari egindako eskeintza gisa, edo-ta kristauen Jainko berrariari agian. Zeren samoatarren ustez ostatasun-legeak sakratu bait dira, eta dena zatitu behar bait da. Denek edan dutelarik, Malio-o-k eskribauari eskatzen dio eguneko lehenengo arazoa irakur dezan. Ba dirudi Malio-o-k denontzako harrera-etxe bat eraikitzea nahi lukeala. Buruzagi nagusia bera izanik, batimendu gaitz dagokion bezain dotorea. Biltzarkide batzuek diotenez lan haundia da bat egin nahi luke, eta duen giza-mailari herriarentzako; eta ohar honek ba du funtsik, zeren-eta beste «taro»-landa batzuk erauzi beharko bait lirake harotzen taldeak lanegin ahal izan dezan. Baina beharbada



Haurtzarotik beretik ikasten dute lastairak iruten samoatar neskatilek.



Samoa-ko fameliaren ondasun-oinarri bera dira lastaira horiek.

Hona hemen Samoa-ko emakume bat, «tapa» tindatuzko mahai-zapi bati azken ikutzapenak ematen ari.



oposizio hau ez da fina, eta itxurari heltzen dio bereziki; gero amor-emanez berentzako lortuko dituzten hobariak zuzenesteko. Dena dela, «hiztunak» —alegia, euli-harrapakinak daramazkiketen bakarrak— Malio-o-ren asmoaren alde ageri dira; eta azkenean denak dira ados: harrera-etxea eraikitzea onartzen da.

ETXEN. Eguzkia gora doa zeruan. «Fono»a desegin egiten da, eta buruzagiak beren bizilekuetara bihurtzen dira, han beren eginkizunei eutsiz. Bizileku hauek, Samoa-ko «fale» jatorrak, goxoak dira, famelia bakarrekoak, eta naturalezak hornitutako aide egokituaz. «Fale»ok, egia esateko, ez dute paretarik. Hauen ordez, eta pareta gisa, hagatan tinkaturik, sapaitik zintzilikatutako koko-hostoz irunik, lurreraino hedatzen dira estalki hauek, babesa emanez bai eguzkiaren gehiegitik, bai haizetik bai euritik.

Kupula-aire eta barne sapaigabea den teilatuak ere bizilekua fresko atxikitzen laguntzen du. Gauza bera hezetasunetik gerizatzekotan, legarrezko zorua pitin bat altxatu duen lur-azalak.

Legar honen gainean hedatzen dira samoatar fameliaren ondasun nagusi diren lastairak, denbora berean gizarte-mailaren ikur. Etxe batetan hogei lastaira izan daiteke, edo gehiago. Bakoitzak apaingarri desberdinak ditu, eta opari gisa pasatzen dira famelia batetik bestera. Balio berezia dutenak bildu egin ohi dira arretaz, eta pilareen arteko gunean aulki gisa erabiltzen.

Aireztutako eta lastairaz jantzitako etxe honetan gordetzen dituzte hazkurriak samoatarrek; baina ez dituzte bertan pausatzen: arratoinengandik gerizatzekotan, sapaitik zintzilikatzen dituzte. Hementxe aurki daitezke ere arrantza-tresna guziak; eta gela luzearen buruan, fameliaren etzalekua.

Dudarik gabe, jainkotar indartzat gurtua izan da sua luzaroan uharte hauetan. Samoatar mitologiak azaltzen duenez, suak eta urak elkar maitatu zuten behin, eta ezkontza hartatik sortu zen Lurra, eta honetako



«Taro»-adarrak zorroztu egiten dira, eta zulo azal xamarretan birlandatzen.

harkaitzak, arbolak eta gauzak oro. Beste tradizino batzuen arabera, Mafuie jainkoarekin harreman onetan zegoen gizon bizi batek eman zion Samoa-ko herriari. Lurpetako eskualdeetan bizi zen, eta hauetan eten gabe zizekan suak.

Nolanahi ere, fameliaren biltokia etxea da; famelia, bestalde, sentido zabalean hartuz; alegia, leinu-buruzagi baten ondorengoen mordoa. Aro hotzean etzauntzaren inguruan eta lastairen gainean egiten dute lo, banbuzko burukoan burua pausatuz, gorputza banbuzko estalki batez estaliz, edo maizago gaur egun: «denda»n erosi, eta goizetan berokitzat erabiltzen diren burusiez estaliz.

Hantxe jaiotzen da haurra, adinetako emaztekiek errezebitua. Hantxe egiten bere lehenengo urratsak, hantxe aita-amaren etxeko lanei soegiten; eta, munduko haur guziek bezala, hantxe iduritzen, imitatzen, jostatzen, jaten eta lo egiten.

Txabolan jaten ditu fameliak kanpoko labean manaiatu eta egosi diren janariak. Gaur egun dendan erositako marmitan prestatzen ditu horiek; Pazifiko guziko polinesiarrek ezagutzen duten eltzegintza samoatarrek ez bait dute ezagutzen.

Samoatarrek bi oturuntza egiten dituzte: bata goiz-ondarrean, eta bestea arrastirian. Ez dago halere haiengan hertsitasun haundirik. Dena da etxen dagoen janari-ketaren, zertzeladen eta arrantza ugari edo urriaren arabera.

«TARO»A HAZKURRI NAGUSI. Ereintzaroan landara doa fameliarik gehiena: lan gogorreko garaia da, eta betekizuna ez da eguerditsura arte gelditu ohi. Langileak bazkaltzera bihurtzen dira etxera. Xehekiago esateko: jetxi egiten dira herrira, zeren-eta «taro»delakoa —polinesiarren hazkurri nagusia— goialdeetan hazten bait da, oihan hezean; alegia, arbolen trinkotasuna, lianek trinkoagotua, berde-sinfonia miresgarri bihurtzen den eskualdeetan.

Gure azaren antzekoa den «taro»a landatzeko, zenbait hutsune utzi da, mazelak

Bildu duen platano-sorta aztuna darama herrira gizon gazteak.



garbituz. Fameliako gizasemeek atxurtzen dute lurra, landatzen, eta uzta biltzen. Lei-nu-buruzagi baten menpekoek batera elkarturik egiten dute lan famelia-langintzan, hau haren izenean emana.

Goizean goizik, saskiz, endaiz eta aizkoraz zamaturik, ba doaz herritik herritarren multzoak. Oinutsik igotzen dira bideska malkorretan gora. 90/120 metrotako goratasunean daudenean, kokondoen eskualdea uzten dute. Taro-landak 600 metro gora daude, eta igoerak zenbait orduz dirau. Irixtean, nekazariak zenbait taldetan zatitzen dira. Gizonezkoek taroa erauzten dute, sustraiak garbitzen, saskiak betetzen; eta enborrik onenak berezi, eta zulo axaletan birlandatzen dituzte.

Emakumeek bitartean belarrak erauzten dituzte, lur gainean utziz, bai on bai txarrak, *gero ongarri gisa erabiltzeko.*

«Taupu»a ere hantxe dago, baina ez du eginbehar hauetan parte hartzen. Platano-hostoz egiten du koilare bat laban txiki baten bidez, eta bere lagunak bizkortzeko alaiki hitzegiten du.

Laister jexten dira denak herrira. Gizasemeek biderik laburrena hautatzen dute, nahiz oso malkorra izan; eta besaburuetan balantzan haga luze baten muturretan daramazkite zintzilikaturik bere taro-saskiak. Batzuek platano-sortak daramazkite era berean (platanoak dira, hain zuzen, «copra»rekin batera, Samoa-ko esportazio-ekoizpen printzipala). Beste batzuek, berriz, naturalezak oparo ematen dituen «ogi-zuhaitz»en frutu helduak.

Itsas-hegiaren ondoan kokondoak hazten dira. Beren buruz eguneroko behargai asko ematen dute zuhaitz hauek. Korapilozko soka bat baliatuz, gauza erraza da adaburuetan kulunka higitzen diren koko-intxaur gaitzak harrapatzea zenbait minututan. Intxaurrak biltzen dituzten hariak oso aproposak dira hain zuzen mordoskatan eraatx ahal izateko. Ba dago ere kokoaren esne freskoa, erruz edateko egokia; bere horretan jan daitekean mami gozoa dago (baita lehorturik esportazio-gai izan daitekeana). Hariak kendurik, erregai izan daiteke azala.



Kokondo baten enborrean gora igota, mutiko batek koko-intxaur bat hautatzen du.



Koko-intxaurra lurrera erori denean, kolpatu egin behar da irekitzeko.

Koko-intxaurreko esne freskoa edari zoragarria da.





Samoatar aita bat kokozko saldaren prestaketan.



Aita-semea «umu» deritzaten lurgaineko su apala puztutzen ari.

Samoatar bazkarietan zerbitzatzen den arraina, horrelako hostotan bildu behar da.



Eta hariek berek, «sennit» izeneko soka ezin zailagoa egiteko erabil daitezke.

BAZKARIA. Eguerdi-iria da, eta laister iritxiko dira langileak landetatik. Goseak datoz, eta bazkari on batez beharko dute bizkortu.

Noski: sua piztu behar da hura prestatzeko. Nahiz samoatarrik gehienek pospolorik ez duten, minutu batetan baino fitetzago lor daiteke han gar bat. Horretarako zutik eusten da zotz bat, mutur bat ohol batetako zuloan jiraraziz. Ozta igurzketak zotza berotu du, kea dariola hasten da; eta arretaz zuloan jarri diren txirbilak berehala piztutzen dira.

Lurrezko labe landugabe batetan eraiki da, eguerdiko janaria prestatzeko; eta labearen gainean txapa berotzaileen pareko izango diren harriak jarri dira.

Samoan gizasemeek egiten dute lan sukaldean eskuarki. Uste dutenez, lan hori inportanteegia da emakumeen eskuetan uzteko. Gizasemeek biltzen dute arraina hostotan, eta gizasemeek ere igurtziaz, koko-irina lortu eta saltsa urrintsua prestatzen; zenbait aldiz zaporea lortzeko harri gori bat erasten diotela. Gizasemeek dute prestatzen «palusami» deritzan gozokia: horretarako taro-hostotara isurtzen dute kokozko salda —hosto bakoitzarentzako aski dena hain zuzen— gero kukurutxo bat egiten dute hostoaz, eta azkenik krema lodi bihurtu arte egostera uzten.

Platera laberako gertu dagoeneko, harriak oso bero daude. Orduan zuzenki erasten dira taroa eta ogiaren zuhaitzaren frutua, baita hostoetan bildutako arraina; eta estali egiten da horretan labea lastaira batez lurrina itzur ez dedin.

Hazkurriak etxeraino garraiatzeko saski berriak antolatu ondoren, gizonezkoek atseden har dezakete, labea hotz dedin zai.

Eskuarki mutikoek zerbitzatzen dute bazkaria, eta nori berea aurkeztutzen diote koko-zurezko erratilutan. Horrela ematen da, beraz; ez aulkirik ez mahairik, ez zali-

rik ez tenedorerik, jateko tresna horiek oso poliki sartzen ari bait dira hango nekazarien artean. Zangoak gurutzatuz bazkariaren aurrean eseri, eta eskuaz jaten dute. Eskuarrean duten urarentzat lehen koko-azalak erabiltzen zituzten, gaur suilak. Basotzat esku-ahurra darabilte. Bazkalondoan zurezko ontzi bat pasarazten da, eta bertan garbitzen dituzte denek beren eskuak.

Bazkaria amaitu denean, haurrak ba doaz inguruetara jolastera, nagusien dantzak imitatuz edo koko-intxaur batekin pilotan jostatzera.

Mutikoek, lastairatan itzal-mutur batetan etzanik, lo-susta egiten dute, edo kantu modernoak jotzen dituzte beren ukelele-etan; edo-ta herrialdeko erlijio-kantu zaharren nahasketa bitxiak. Gazteenak errekara doaz, uxol eta zingira bila.

Gaueko afaria has aurretik, fameliaren jainkoei hotsegiten zaie. Antzinan, kristautasunaren etorrera baino lehenago, jainkoentzako eskeintza modura kava-tanto bat isurtzen zuen lurrera aita-fameliakoak, eta goraki egiten zuen otoitz hau:

«Hona hemen zuen kava, jainkook.
So egizue famelia hau ontasunean
osasun ona atxikiz.
Gure landaketak on gerta daitezela, eta
[gure frutuak oparo.
Joritasuna izan bedi errege.
Hona hemen zuen kava, nabegatuz
[zoazten jainkook!».

Gaur egun gaua etorri eta otoitzera deituz elizako kanpaiak darauntsanean, eten egiten dira «fale»ko arrabotsak, eta argian banan banan itzaltzen. Famelia ilunpera biltzen da; eta aita da mintzo, Jainko berriaren babesa erakarriz, Bibliako pasarte bat irakurriz, eta parte hartzen duten guziek makurtzen dute burua. Gero, itzaletik, jaiera hunkigarriaz jasotzen dira kantak. Argizagiak berpiztutzen dira, eta afaria has daiteke. Eltxoen uxaera lortua denean, mahaikideen aurrean paratzen dute gazteek taroz, platanoz, ogi-zuhaitzaren frutuz, eta arrain egosiz betetako erretilu bat; ez, halere, aurretik janaria santutzeko otoitza esan gabetanik.



Gori-gori berotutako harri baten gainean erretzen da arraina, eta gero hosto oso batez labea estaltzen.

Eskuarki behatzez jaten da koko-harizko plateratan.



Afal ondoan, eta gaua argi denean, «fale»aren ingurura datoz fameliako lagunak. Kalaka egiten da, pipatu egiten da; kartetara jostatzen da. Haurrak kiku-mikuan ari dira egi-zuhaitz enborren atzean, edo aintzirako uretan ilargiaren irudiaren higiera jostalariak so egiten. Neskatilak eta mutikoak, begirantzari ihes eginez, elkargana hulbiltzen dira... lehendabiziko gertaera osotan! Halakoa da Samoan oraindik eguneroko biziera ezin patxaratsuagoa; baina bizimodu berriek herio-zauriz kolpatu dute.



Samoatar aitak oso harro egon ohi dira itsas-lanak semeei erakasten.

ARRANTZA. Itsastar eta errukior, Samoako gizona arrantzan ikasia da oso. Harentzako, eta gauza bera edozein polinesiarrentzako, jakintza da arrantza, antze, gizasemeentzako kirol paregabe, eta erlijio-ekintza. Gurasoengandik senideengana harrokiro pasatzen den izenpurua da «barne haundietako arrantzale»arena.

Samoan tortuga eta aingira harrapatzen dira, eta itsas-golkoetan sargoa. Zenbait aldiz emakume batek laguntzen du arrantzalea; beste batzutan bakarrik doaz emakumeak arrantzara barne txikietako uretara, olagarroei bildurrik gabe erasoaz eta besoak estaltzen dituen hondarra kenduz.

Famelia osoak ere doaz harroketan gaindi. Batek arrain bat harpointzen du, beste batek ganbak eta muskuiloak, eskuez harkaitzen arteko zirrikituetan bilatzen.

Ausartenak beren piragu hauskorretan abiatzen dira olatuak lehertzen diren puntutik harago, zurrunbilo bat gertatu eta hondamendi bat gerta dakien arriskutan. Batek baino gehiagok ikusia du bere piragua uhin hasarre batek arrastatua; eta beste anitz galdua da itsas-hegira sendo eta osorik ezin iritxirik.

Ontzia gabe baina bizirik itzuliz gero, ez du arrantzaleak erremedio bat baizik: hondoratzean galdutako piragua ordaintzea. Lehendabizi enbor luze eta zuzeneko zuhaitz bat hautatu behar du oihanean, eta hantxe berean ebaki eta hustu. Lorketa horrela arinago eginez, famelia osoaren laguntzaz, haundi eta txikiena, eramaten da moztutako enborra herriraino. Haraz gero, harotzen txanda dator: kurbak karkulatzen dituzte begirada antzatsu batez, eta kolpatuz egiten duen soinua arretaz adituz neurtzen dute enborraren lodiera. «Sennit»-hariz lotzen

zaio piraguari zurubio bat; eta oso azkar ontzi berria, dotore eta lerden, bere lehenengo bidaiarako gertu dago.

Jai-bezperako ehizea da pasadizu epiko nagusia: eztai-aurrean, eman dezagun. Baita ekintzarik arruntenetan ere erlijio-ideia bat erantsi du polinesiarrak; eta tiburoia —batez ere giza-jalea den tiburoia— jainkotar sorkaritzat dauka. Horregatik, munstro sakratu horien harrapaketak zerimonia oso bat behar izaten du: irten aurretik, buruzagiak, hiztunak eta arrantza-buruak bildu egiten dira otoitz egitera. Gero, arrantzaleen bihurrerakoan, gaitzeko oturuntza bat ospatzen da, arrantzaren zatiketa zerimoniatsua eginez.

Herri honetaz egiazki esan liteke egunerokо bere bizimodua —arrantza eta laborantzako bizimodua— urtezaroen martxa alaiki onartzean datzala funtsean. Samoatarren ezagugarria da sekulan etekina ez bilatzea. Lurra lantzea eta arrantza ez dituzte soilik elikatu beharrez egiten, besteri ere emateko baizik, edo adiskidantza lekukotasuna emateko edo itzala biltzeko, edo-ta besteak ohoratzeko eta ordaindua izateko. Haien harrera onaren berotasunean datza hein batez haien haunditasuna.



Samoa-ko mutikoek oso gaztetandik ikasten dute piragua baliatzen.



Piragu berri baten antolaketak, eskola zaharrak ezagutzera behartzen du.

ETXE BATEN ERAIKIERAREN RITOA. Hor dugu berriro Malio-o basoan, arbola zail lerden bati so. Biltzarrak baietza eman dionez geroztik, buruzagiak ez du gauza batez baizik pentsatzen: bere harrerako etxeaz. Egun osoak igaro ditu bere «fale tele» berriko haga nagusirako zuhaitz tatxagabea bilatzen. Arbola honen luzerak buruzagien larderiaren ideia idaroki behar du; eta «V» itxurako bere adarrek pausaleku egoki bat eman behar dute.

Azkenean, Tangaloa-ri eta oihaneko izpirituei erruki-sariak eskainiz, eraatxi egiten da zuhaitz erraldoia. Eta herriruntz saria kantu artean arrastatzen denean, biztanle guziek senditzen dute buruzagiaren pozkario ezin haundiagoa.

Haien gizartearekin harreman hestutan egon aurretik, ezinezkoa da samoatarrek

Buruzagi nagusiak bere «fale tele» berriarentzako habe orbangabea emango duen zuhaitza hautatu du.





Etxe berriko eraiki-lekura garraiatzen dute gazteek habe nagusia.



Harotzetatik batek inolako neurkailurik gabe ebakitzen du habediaren puska bat.

etxe baten egintzari erasten dioten inportantzia somatzea. Erlijio, politika, teknika-antzeak, arte-dohain: dena dago langintza horretan hertsiki nahasirik.

Langileak hautatu behar dira aurrenik, eta lan-tratu bat da, hitzezkoa; baina ustekabean ezer utzi gabe. Zeren ohitura zahar bati eusten bait dio eraikitzaileen lagundiak: ohitura zaharreko xehetasun guziak errespetatu behar ditu tratuak.

Harotz-burua eta geroko «fale tele»aren jabea elkartu egiten dira, nor bere gizonekin; eta lehendabiziko opari-trukea hasten da. Aspaldikoen artean lastairak daude (samoatarren artean luzaroan truke-txanpon ohia) baita zerriak eta nolanahiko janariak. Eta berriagoen artean zilarra, tabakoa eta jazkiak. Ondasun hauek gabe ezinezkoa da harotz buruarekin inolako traturik egitea. Beste alde batetik, lanean barrena eraikitzaileak beharko dira hazkurriak: etxe berezi bat utziko zaie berrian, eta janaria emango (are buruzagiarentzakoa baino hobea): ur, koko, kava eta lastaira. Gainerako

Txabola ia amaiturik dagoenean, «fale tele»aren gaineko balago-sapaia ezartzen da.





Arreta haundiaz moldatzen dituzte harotzek etxeko habeak.

behar berri hauek guziak bete ahal izateko, luberri egiten da, anuak metatzen, eta emakumeen biltzarretan lastairak iruten.

Lanak iraungo dituen asteetan barrena, jabearen famelia baino lehenago zerbitzatuak izango direla langileak, markatzen da tratuan. Beroien lan-mota maiseatzea debekatuta dago. Baina, beste aldetik, jabearen nahia edozertan betetzen saiatzera deliberatzen dira langileak. Lanak horrela kantuz hasten dira. Opariak urrituz baldin badoaz, harotzek anka egiten dute, eta inor ez da ausartuko etxea bukatzen.

Horrelako langileok, zeuk asmatu dukezunez, ez dira nolanahiko igeltseroak edo harotzak. Begi hutsez eta zehaztasun harrigarriaz lanegin dezaketen gizon horiek, ez berunik ez inolako lanabesik, «tufuga» delakoen lan-lagundia osatzen dute: alegia, etxeen eta kanoen erzikitzaileen lagundia. Beren asabek bezala, jainko goren eta eraikitzaile nagusia den «Sa Tangaloa»-ren *eginkizuna jarraitzen dute. Honetxek eta* ondokoek iritxi dute samoatarrentzat «Pazifiko-eraikitzaile» izenpurua.

Lanean ari ikusten ditugun harotzak, apaizak dira gutxi gora-behera; eta bai beren buruarentzat bai jende xehearentzat jainkotar etorkia dute. Langintza ohorezkoa da, beraz; eta harotz-multzo bakoitzak apainketa eta eraikikuntza-eskola berezi bat du, baita etxegintzako bere habeetan markaturik utziko dituen bere ikur bereziak.

Jabeak ez dio harotz-buruari pilareen kopurua esan baizik —sei edo zazpi— eta etxe borobil edo luzeska nahi ote duen, eta etxegileak aski duke. Ba du buruan etxegintzako eskema oso bat eta usadio luzea. Karkulurik batere egin gabe ba daki eraiki-beharraren xehetasun guziak nola moldatuko. Oso lanabes gutxi erabiltzen du —ez dauka ez eskuadrarik ez konpasik— baina haren laguntzaileek ba dute eskuarki burdinazko aizkora bat, antzinako harrizkoaren ondorengoa. Horri koko-harizko ikatz-puska bat eta soka zail batzuk erantsi, eta horra hor dena. Aski dute.

Tratua eginda, hautatu den ordura arte garraiatzen da erdiko pilare nagusia, eta han handiro eraikitzaileen buruzagiaren es-

Harotz-buruak ematen dituen aginduen arabera jasotzen da habe nagusia, gero batimendu guziaren eusle.



kuetan uzten.

Oso teknika zahar baten arabera daukan kanoa luze erako bat hartuz, pilare nagusia moldatzetik hasiko da.

Lehenengo zerimonia, herri guziak ikusia, erdiko pilarearen eraikiera izango da; hau bait da herriaren gizon-indartasunaren sostengua eta irudia. Gizakumeen eta jainkoen arteko lokarritzat ere hartu ohi da.

Soketatik tiratuz eta zainak tinkatuz, azkenean pilare nagusia jasotzea lortzen dute gizonek, harotz-buruaren nahiaren arabera. Eta honek orduan, pilarea zeharo zut geldi dedin, azkeneko bultzada-doiak emanarazten ditu keinuka.

Gertakaria jai batez ospatzen da: oturuntza bat egiten da, mahaikide bakoitzak soziedade-mailaren arabera dagokion lekua hertsiki finkaturik daukalarik. Hiztunek, aipaldiz beterikako hitzalditan, zutik eraikitako pilare nagusiaren oreka, bizitasun eta itxaropen-ikurra txalotzen dute.

Gero, bizkarreko edo gailurreko habea jasotzen dute harotzek, eta erdiko pilareari lotzen. Horietatik hasirik eraikiko da orduan etxeko gainerakoa, sapaia jasango duten pilareak kontuz tartetuz, eta borobiltasuna taxuz moldatuz. «Faletele»ko habeak kokondo-ohol malguz egiten dira; eta horretara aisa egoki dakizkioke kupula-sapaiari. Jakina: borobiltasun honen irudi zehatza begirada huts batez erabakitzen du harotz buruak ,inolako lanabesen laguntzarik gabe.

Iltzeen ordez, «sennit»ezko kilometro anitz erabiltzen da. Hau koko-hariz egindako oso soka zaila da, eta eraikibide desberdinen arabera pilareen eta habeen inguruan bilduz baliatzen.

Lanak diraueno, arta guziak merezi dituzte langileek. Eraikialdian gizon bat lotan harrapatua denean, gonbarazio baterako, buruzagiak haren buruaren gainean palmondo-hostozko estalpe bat prestatzeko agintzen du, horrela itzalean atseden har dezan. Emakumeek ere parte hartzen dute etxegintzan. Fameliako gizonezkoekin batera, itsasoak leundutako legarrak eta harri koskor borobilak hautatzen dituzte, eraikilekura eramateko, eta han zimenduetan eta atarian erabiltzeko. Emakumeek prestatzen dute era berean azukrezko kanabera-hostoz



Samoa-ko neskatilak beren herriko dantza sakratuak saiatzen ari.

Loreak erruz sortzen dira Samoan; eta berezko apainketa gisa erabiltzen festetan.



sapaia estaltzeko agotza, teilak bezala elkargainka gurutzatuz, eta horretara zenbait urtez iraun dezakean estalpe ezin-iragazi bat osatuz.

Harri borobilezko zorua estaliko duten lastairak ere iruten dituzte. «Fale tele» guzian lastaira hauetxek dira bertako errediza.

Baina emakumeek azkeneko ikutua eman baino askoz lehenago, langileek lana burutu eta beren etxeetara bihurtu dira; baina aurretik, noski, herri guzia bildu duen

festa batetara joanak dira. Unerik printzipalena harotzei alokairu gisa bertakoek egiten dieten eskaintzarena da. Etxe berriaren aurrean eskaingarri horiek paraturik (lastaira, zerri, dolar, oihal) banaka banaka presentatzen zaizkio eraikitzaileen buruzagiari, hizkuntza dotore eta bitxiaz: «Hau behatzetako zarrastadarengatik. Hau, txirbilarekin mindu ziren begiengatik. Hau, oihaneko lanarengatik eta etxen egindakoarengatik»...

Eta ohitura zaharreko kava prestatzen da. Hasteko Tangaloa-ri eskeintzen zaio zurrutada bat. Gero, oso modu dotorera, zorionean burutatutako lana ospatzen da.

Buruzagiek, hiztunek, aita-fameliakoek, beren janari-sariak ekartzen dituzte. Gero herri osoa etortzen da herrenkan, nor bere eskaintzarekin. Laister sortzen da platanozko eta nolanahiko frutuzko meta gaitz bat, «fale tele» berriaren aurrean ikusgarri. Joritasun eta adiskidetasun giro horretan, uxolen zurrumurruak gurutzatzen duen berdetasun eder horretan, goraipatu egiten dituzte hiztunek bizileku berria eta janari-eskaintzak. Denek aditzen dituzte, eta darabilzkiten hizkera moduak arretaz hausnartzen; eta españatarrek toreroaren paseak jarraitzen dituzten arreta doilor berberaz jarraitzen. Azkenean, ohitura-zatierak hesten du jaiaren aldi hau.



«Fale tele»aren eraikieraren amaia ospatzeko antolatzen diren jaietan, musika da oinarria.

Orduantxe hasten da —guretzako bederen— egiazko jaia txabola barruan, ondoko eskualde itzaltsuetan jarraitua. «Fiaèfia» deritzan festa arrunta. Eta «siva» delakoa hasten da segidan: dantza eragabea eta inolako taxuketarik gabea.

Bapatean gazte bat jaiki, zilipurdi batzuk egin, eta oihuka hasten da: «Jo zazue txalo eskuez bi aldiz». Jendeak obeditu egiten du. Hitz zantar bat harek orduan, eta denek marmarrean: «Ene! Atera zazue hemendik.»

Emakume gaitz bat jaikitzen da orduan,

Herriko biztanle guziei atsegin zaie «fia fia» dantza begiratzea.



eta deihadar egiten: «Egizue erlearena.» Eta denek erantzuten: «Bzzzzz». Jendearen aurrean paratzen da orduan, eta mihia ateratzen. Beste irri-dantza batzuez segitzen da jaialdia. Atso bat jaiki, eta pailasoarena eginez farra eragiten du. Denek jotzen dute txalo, eta orduan atsoak zaldun bat zaldiz joaki imitatzen du, eta ikusleek galderak egiten.

Mutil batzuek neskak zirikatzen dituzte gitarra joaz; eta haiek dantzara irtenaz erantzuten.

Baina horretan «taupú»a gaurko jazkeraz jantzirik, jaiki egiten da, eta bapatean isiltasuna sortzen. Honen urrin ederrak, honen xarmak, honen ritmo-mogidak, zoratzen dituzte ikusleak, hauen irudimena eta sendimena iratzartuz. Laister hurbiltzen zaizkio laguna eta mutikoen hiztuna. Berariaz hauek dantza zakar baten bidez eta mogida kankailuz adierazten dute beren burua, neskarenak leunago eta ederrago agerraraziz.

Dantza bukatzeko zorian dago: bi hitzaldi gehiago, eta jaia kito. Etxea ritoen arabera gurturik dago. Hitzaldietan —hiztunenetan batez ere— diplomaziaz eta joritasunez, olerki-irudiz eta atsotitzez beteak, eta denak lerrokada jakintsu eta zailean emanak; dantzetan, gorputzen ritmo-hizkuntza; oparien truke apainean; denean hitz batez, bere adierazpenik osoena eta egiazkoena aurkitzen du Polinesia-ren gogoak.

Zaharrak berriketan ari direlarik, gazteek hondartzan jarraituko dute beren jaialdi alaia. Samoa-ko herri zoriontsuaren biziera lasai eta istilugabean, uharte xarmagarrien erreinuan, beste zorion-une bat emana dien jaialdia luzatzera.

Haizeak kulunkatzen dituen palmondoen azpian, habaila zoriontsuan isurtzen da bizia.







JAPON

Uharteetako inperioa

Aurkikunde haundien Urre-aroan, bilakuntza eta hedakuntzaren politika beste nazio askok aurrera zeramalarik, Japon-go uharteetako inperioa mundutik berex beren egon zen. Eta bakardade-mende luze horietan, bere gisara bizi izan zen japondar herria, bere-bereak dituen ohitura zahar, usadio eta bizikerak asmatuz.

XIX mendearen erditsuan, uzkurkiro eta gogorik gabe, bere ateak zabaldu zizkion Japon-ek Mendebaldeari. Argi eta erne zen Japon-dar herriak Zientziaren mila zoragarriak ikusita, gogotsu jarri zitzaion begira. Eta mende labur batetan, sinistu ezinezko aurrerapenak egin zituen, eta nazioen artean postu goren bat lortu du, batez ere merkatalgoaren eta industriaren baranoan.

Halaz ere, antzinateko bere ohitura zahar eta tradizino xarmagarri askori loturik dago oraindik. Atxiki dituen ohitura horietantxe aurki dezakegu gaur Japon-en egiazko arima jatorra.



Arroz-eguterek estaiatan segitzen dituzte mendi-mazelak.

ARROZ-LANDAK. Bizi-bizia da aspaldiko denbora laborantzako eskualdeetan, eta arrozetetan oso bereziki. Oraindik ere atxurraz sendotzen dira arrozetak edo arroz-landak mugatzen dituzten hesiak. Oraindik ere eskuz landatzen dira banan-banan arroz-landareak blai-blai dagoen lurrean. Oraindik ere herrenkadatan datoz gizasemeak hildo urtsuetara, nork bere arroz-keta besapean daramalarik, han birlandatzera. Ez dira alogerako langileak: jabeak dira, eta famelia eta auzoak, beharbada aldameneko arroz-landetakoak berak. Ezen, garaia heldu delarik, denek laguntzen diote elkarri. Elkar-laguntza hori da Japon-go nekazaritzaren zimendua.

Nekazari bat Japon-en, arroz-landaketan ari famelia-ren eta auzoen laguntzaz.



Zenbait gizonek «urtxintxaren kaiola» bultzatzen dute elkarrekin etenaldirik gabe: haren jiraketak arrastatzen ditu zaliak, eta arrozaren hazkuntzarako behar den ur-goratasuna abere horretan atxikitzen.

Langile horiek herriska berean bizi dira —beren soroetatik hurbil dagoen etxe arlote multzo bat—. Bizieraren parte haundi bat auzo-lanetan igarotzen dute: famelia-gobara elkarrekin egiten da; oihalak ankaz zapaltzen dira elkarrekin, iturriko edo putzuko ura baliatuz; eta haurrak elkarrekin jostatzen eta garbitzen diren artean.

Japondar nekazariek gauza bat dute maiteenik: festetan elkartzea. Beren bizieraren parte bat da zerimonia. Uzta on bat segurta ahal izateko, lan egitea aski ez dela deritza japondarrak: asaben babesa ere behar duela. Hildakoen arimek tifoiak, lehortea eta bestelako kaltetzak, bazter ditzaketela sinisten du. Haien onginahia biltzeko kriseilu-jai ikusgarriak antolatzen dira herri batzutan.

Anitz jaitan nahi-ta-ezkoak dira kriseilu horiek: fameliakoen izpirituak leinukoen bila lurrera bihurtzen direnean, bidea argitu behar zaie. Jai honetarako «kanto»tan zintzilikatu behar dira kriseiluak. «Kanto»a banbuzko haga luze bat da; eta erraran zor-

tzi bederatzi trebeska ditu, eta hauetantxe zintzilik paperezko kriseiluak.

Diotenez arroz-buru bat, edo-ta arroz--zaku bat ere, iduritzen du kriseiluak; eta hauetako bakoitzak ale bat edo-ta zaku bat. «Kanto» batek 15 metro izan dezake, eta 26-kriseilutatik 48-tara jasan. 40 kilotatik 60-tara pisa dezake; eta hau dela bide, egiazko balentria bat da zutik eta orekan atxikitzea.

Hiriko gazte guziak dira orain jaikide: bankularia, merkataria, burokrata, eta arrozetako langilea. Kantoa gorago euts ahal izan, eta ederkiago haziko da arroza. Horregatik ahalik eta gorenik eusten saiatzen dira gazteak, eskuez edo kopetaz balantzan ongi atxikiz, edo soinburuetan, edo ahoan, edo hanketan; edo, baita hau ere, makuluen bidez goitik ibiliz —eta bidenabar, sinboloz, arrozpuruaren goratasuna altxatuz—. Azkenean sari bat ematen zaio izpirituen jaiera lortzen maltzurrenari, eta oso goitik erakusten da haren kriseilu-haga.

SAMURAI HARROAK. Arrakasta bat izan da jaia. Asaben arimak irribarrez ari zaizkie arrozetako langileei, eta uzta joria agindu diete. Uzta mandioan dagoenean, egunerako arazoez arduratzeko mementoa dator, denboraren isuria geldiarazteko unea, eta pozkarioan parte hartzekoa.

Beti ohoratuz aipatzen den aitzinatea gogoratzen da lipar batez. Japondar kondairako norkirik errespetatuenak eta gorenak samurai gerrariak ziren, nazio-gizaurenak, Mendebaldeko alegietako zaldun ibiltarien kideak-edo hein batez. Gaur egun antzinaldi hartako kapitulu bat oroitarazten da aspaldiko samuraiengandik jasotako soinekoei esker —gudari-jazkiak eta zaltokiak—; ezen samuraiek, liskarraren suaren maitari, berebiziko zaldun-entzutea bait zuten.

Baita haien gerrikorik edo uhalik xumeenak, eta jazki dendena, norberaren etorkiari zegozkion ereduen araberakoa da. Ez zaio inori bururatuko samurai baten ezpata hartzea ez bada haren ondorengo zuzen-zuzena.

Ezen samuraiaren ezpata bere aiton-semetasunaren ikurra bait zen: ezpata zorrotz



Arrozaren laborantzan, arbasoek erabili zuten golde berbera darabilte gaurko nekazariek.



Blai dauden arroz-landetako hildoetan lana buka dedinean, jai haundi bat antolatuko da.

Arrozaren festa ospatzerakoan, banbuzko haga luzetan zintzilikatzen dira kriseiluak.





«Kanto»ak (alegia, kriseiluz apaindutako banbuzko hagak) tente eustea ez da batere erraza.

hartaz ematen zuen ukaldi bakoitzean, bere ohorea eta gizontasuna arriskatzen zituen.

Haren jabearen iritziz samurai-ezpata sakratua izanik, prestagintzaren artea gurasoengandik semeengana etorri da gaur arte ia hamar mendetan zehar, eta izkutukirik beltzenean. Baita gaur berton ere zeharo eskuz egiten dira ezpatak, XIII-XIV mendeetako artesanoen teknika xeheaz eta mistika-itzal osoaz; alegia, ofizioak bere gailurra iritxi zuen garaian bezalaxe.

Erlijio-kutsua du oraindik ezpata baten prestagintzak: lehendabizi bere burua garbitzen du ezpatariak dutxa hotz batetan, eta gero burdina arragoara sartu aurretik, bere arteari dagokion jazkeraz jantzirik hurbiltzen da.

Arrabio edo burdingai mokor bat dauka han zai, tenis-pilota baten tamainakoa: hori da galtzairua lortzeko landuko duen puska. Prestaldian, eta trenpatzeko, buztina, ikatzezko hautsa eta ura erasten dizkio arrabio-pusketari. Hau gori-gori jartzen da egur-ikatzezko surtan. Eta mailuka hosto mehe bihurtzen du, pitin bat mintz baten antzekoa.

Burdingai mokor horretaz egiten da samurai-ezpata.



Ezpata berri hori hausnartzen duen iskilugilea, oso antze zahar batetan da maisu.



Gertabide izkutu sail oso bat baliatuz, galtzairuaren orbanak eta hobenak kentzen ditu langileak, eta segidan ur-ontzi batetan sartzen du memento batez. Lan hau egiteko abilezia eta trebetasun haundiak behar dira, azken ikuturik ez dagoelako. Burdinazko hostoa frogatzeko, arroz-lasto heze eta banbu sorta batez astintzen da. Frogaketak ezezkoa ematekotan, besterik gabe bertan behera puskarazten da ezpata: nahiz hau sinbolo huts izango gaur, eta ez liskar-iskilu, samurai haienak bezain ongi egina behar du izan.

ZUR-GAINEKO GRABAKETAK. Artesania izkutuez ari garelarik, gauza berbera aurkitzen dugu zur-gaineko grabatzaileetan.

Ukiyos-ko eskola zaharrak ba ditu gaur 300 urte. Artista batek paper mehe batetan egiten du bere marrazkia. Orduan grabatzaileak, beste batek beraz, itzuletara ezartzen du papera *gereziondo-ohol baten gainean*, eta artistaren marrazkiari xehe-xeheki jarraituz, zura hustutzen du, marrazkiaren lerrogune hutsa beraz lortuz. Margoa erasten du orduan grabatzaileak, eta bizpahiru do-



Iskilugileak artaz zorrozten du ezpata berria harri baten gainean.

Zuretan margotu nahi duen artistak, aurrenik paper-hosto mehe batetan paratzen du bere marrazkia.



Bigarren aldian, koloreak erasten dizkio bere marrazki kopia zuri-beltzari.





Zur-gaineko irudigile honek zurezko molde hustu eta tindatuaz, kopia bat ateratzen ari.

zena kopia ateratzen du «paper mino» deritzan paper loditan.

Beltzezko marrazki hauek artistari bidaltzen dizkio orduan.

Honek kopia bana erabiltzen du grabakinean lortu nahi dituen koloreetarako (kolore hainbat kopia beraz), eta bakoitzari dagokion koloretik pasatzen du marrazkiaren parte bakoitza. Horrela koloreztutako orriak grabatzaileari helarazten zaizkio, honek koloretako irudiaren inprimaketa egiteko behar den zura hustutzen has dedin. Hiru artesanitako talde honetan, beraz, beti da inprimatzailea azkenik lanegiten duena. Inprimaketak egiteko «hosho»zko papera erabiltzen du, eta koloreak heda ez daitezen alunbrezko mintz segail batez estaltzen du. Margokiak landare-olioz egiten dira, kolorea ezartzen den zur-gaina arroz-almidoiez estalia dago, lehortzea azkartzeko. Inprimatzaileak «hosho»zko orria hartzen du, zur koloreztatuaren gainean ipintzen du, eta atzekaldea barniz apropos batez bustitako tanpoi batez igurtzen du. «Baron» izeneko tanpoi hori banbu-hariz eta paperez egina da. Paper orria gero kolore-zur guzien gainean pausatzen da herronka, kolore guziak inprimatuak horrela ilaran inprimatuak izan arte. Orduan irudia bukatua da. Jatorrizko inprimaketak berrehun ale du eskuarki; baina segidan gero beste mila gehiago atera daiteke. Hiru artesano trebek osatzen dute taldea: artistak, grabaitzaileak eta inprimatzaileak. Eta horrela zur-gaineko irudi koloretsuez pinturazale gehiago goza daiteke.

TEIAREN ZERIMONIA. Ez dago herririk gizarte-bizierako xarmei japondarrek haina garrantzia eman dienik. Baita teiaren zerbitzakera bera oso erregela hestuen arabera egiten da. Heziketa-eskolek, maisu ospatsuen eskutan jarriak, gizarte goreneko neskak prestatzen dituzte gero emazte gisa eta tei-zerbitzaile gisa egokituko zaien betekizunetarako.

Tei-etxea Japon-go lorategi xarmagarri horietako giro baketsuan egon ohi da: narotasunez beterik, belar-izpi bakoitzak, lore bakoitzak, legar bakoitzak, ba du bere funts berezia. Neskek belaunikatu behar izaten dute atetxo batetatik pasatzeko, eta horrela etxeko jaunarengana agertzerakoan behar den umiltasunean egiten dute. Egin-

Tei-etxera sartu aurretik, neskatilak belauniko jartzen dira eta oskiak erazten.





Klase nagusietako neskatilek teiaren zerbitzaile osoak izaten ikasten dute.

tza hau guztiz ongi ikasteko luzaroan prestatu ohi dira neskak.

Erakasleak zerimonia-atal guzietarako trebetasun berbera eskatzen du. Xehetasun bakoitza hurbil-hurbildik ikasten da, ikasleak xarmaz eta aisa oso egin dezakean arte. Baita ura berotzeko behar den suaren gertaketak ba ditu erregela bereziak: ikatz puskatxoak justu ezarri behar dira hondar busti eta garbiak prestatutako sutegitxoan. Teiaren beraren prestagintzari dagokionez, berriz, txit istimatzen den arte oso bat dago.

LIZIFRINAZ MAITEMINDUTAKO HERRI BAT

Lizifrina-ariketa horiek lizifrinari berari dioten itzalaz, besterik gabe, egiten dira. Ariketa atsekabe horiekiko trebetasunak helburu bat du: giroaren edertasun xinple naroa, eta memento guzietako egokera eta jokabidea, gerizatzea.

Biztanleak miloika dituen herrialde honetan, landuak izan daitezkean lurrak urri dira txit; eta herriak edertasuna maite badu, ezin dezake ezertxo ere utz bere kasa hazten. Eskualdeko ikuskari bakoitzean, baita txikietan ere, kontu haundiaz inausi eta artatu den zuhaitz xumea, erortzen den tantotxoa, den-dena, herrialde zoragarri honen edertasun zabalaren sinbolo bihurtzen da. Eta japondar erlijio zaharrean sinisten bait zen zuhaitzek, ibaiek eta lzadiko gauza guziek «arima» bat dutela, are harkaitzik

Teiaren zerimonia ikaskai eder sinplea da, narotasunez betea.





Gaur berton ere askotan moldatzen dituzte ezkontzak gurasoek eta tartekoek.

arruntena bera altxor baten gisa hartzen da. Eta hala da-izan: hondar eder eta finezko jardinean ipinia, eta inguratzen duen guziarekin egokiro elkartua, altxor bat bihur bait daiteke egiazki harri koskor bat.

SINTOISTA EZKONTZA BAT. Ezkontza ere sinbolakuntza hutsa da. Ohiturak aldatu egiten dira, baina zenbait fameliak antzinako tradizinoari eutsi dio; eta honen arabera gurasoek erabakitzen dute ezkontza. Baita bi gaztek elkar ikusi eta elkarrekiko joera nabaitu dutenean ere, beti tarteko gisa jokatzekotan agertuko zaie fameliaren adiskideren bat edo ahaideren bat.

Mutila gazte bada, eta oraindik andragairik hautatua ez badu, famelia egokia bilatzeko saioak hasten dira, alabarentzako senar bila ari diren famelien artean. Tartekoak mutilaren fameliari presentatzen dizkio onargarri litezkean nesken fotoak. Bi alderdien gurasoek begi onez ikusten badute ezkongai daitekeana, tei bat antolatzen da erregela guzien errespetuan. Gurasoek beren burua ezagutarazten dute eta, ·ustekabez antza, senar-emazte-gaiek elkar topatzen dute, beharbada lehenengo aldiz.

Gero usaiako oparitxoen trukea dator: besteren artean, etorkizun atseginaren ikurra den haizagailua; galamu zuri mataza pare bat, ileak urdindu arte elkarrekin biziko direla adierazteko; txipiroi idor bat, emakumearen zahartzaro-sinbolotzat; eta «sake»--gupela bat erosteko dirua: eztai-oturuntza alaitzeko edango den arroz-alkoola. Doteari buruz elkar aditzen badute, sos piska bat eman daiteke; edo horren zorra dagoen aitorra egin bederen.

Mutilaren fameliak garrantzi haundia ematen dio zerimonia egiteko egun-hautaketari; eta tarteko egiten duena apaiz bat ikustera doa orduan. Garrantzi txikiagoa eman ohi zaio emaztearen zorteari; baina hau ere zenbait aldiz zoria asmatzen duen emakume bat ikustera joan ohi da; eta honek, jakina, «oso biziera luze eta zoriontsua» iragarriko dio ,«seme-alaba askorekin».

Emaztegaiarentzako, bere gizarte-mailari dagokion soinekorik dotoreena eta apainena prestatu behar da. Neskak berak prestu izango dela zinegiten du. Igeltso zuriz margotutako begitartea inguratuz daraman pelukak, antzinako orrazkera zailak gogoratzen

ditu. Buruan kapusai zuri bat jartzen du, honek, «bekaizkeriaren adarrak» estaltzen dituela, eta horrela horren akats itsusian inoiz eroriko ez dela adierazi nahi du.

Bere moltsan zorioneko gutun bat darama; baina, enkas ere, aski eragile ez litzakean kasurako, zerimonia-aizto txiki bat ematen zaio...

Ezkontza, sinboloz betea, zerimonia mordo luze eta zail bati lotua da, eta helburutzat jainkoak eta arbaso agurgarriak ospatzea da. «Sake» zurrutada trukeaz sinatzen dira zinak —hiru zurrutada segidan beste hainbeste gatilutan— hirua zifra zorion-ekarlea bait da Japon-en; eta are ekarleago hiru aldiz hirua. Senargaiaren zinak ez zaizkio andragaiari egiten, asaba ospatsuei baizik. Horrela behar du ohitura zaharrak.

ITSASERTZ - HERRIALDE BAT. Hirietan bizimodu modernoaren usadioak sartzen hasiak izanik ere, aldakuntzarik gabe bizi den anitz herri dago Japon-en. Hauxe da arrantzaleak bizi diren itsasertzeko herritxoan kasoa.

Ehunka uhartek osatzen dute Japon, lau uharte nagusiren inguruan sakanabaturik. Pazifikoaren gainetik agertzen den itsaspeko mendi-kateak, uharte nahasi hau osatzen duten tontorrak eman ditu.

Japon-go lurraldea hain da menditsua, laborantzarentzako bosten batek besterik ez duela balio. Baina laborantza-lurrak urri baditu ere, itsasertzak ugari ditu. Beren laborantza-ekoizpenaren urria balantzatzeko, uharteen inguruko itsasora jotzen dute japondarrek. Haragiaren ordez, japondarrek arraina jaten dute; eta nazio-eskaerari erantzun ahal izateko, beti gora ari, egiazko arrantzale-armada oso bat behar da, fameliak eta guzti. Hauetako bat azter dezagun,

Sintoista ezkontzan, senargaiak bere arbaso loriatsuak agurtzen ditu.





Japondar emakumeek jazten dituzten kimonoak, desjosi eta josi egiten dira garbialdi bakoitzean.



Arrantza-ontziak leku segurutan pausatu behar dira, urgoratik at.

Itsasora aurtiki aurretik, gorriz, urdinez edo marroiez tindatu behar dira arrantza-sareak.



eta itsas-ondasunen biltzaile horien eguna nola igarotzen den ikus dezagun; zeren-eta Japon-ek itsasoari eskatzen bait dio eman dizaiokean guzia: arrain, perla, aloka, zarmarki, eskonfa, koral eta gatz.

GOIZEKO LANAK. Arrantzale hauen etxeak gela nagusi bat izaten dute eskuarki, logelatzat ere maiz erabilia. Egunsentiko lehen argi-printzekin haur txikiaren negarrak esnatzen du ama. Lehendabizikorik gosaria prestatu behar du. Nahiz jakiak oso modu arkaikora egosi (sua zoruaren gain-gainean egiten da) «sutondo»tzat erabiltzen den xoko batetan hau beti garbi-garbia da. Laister esnatuko ditu fameliako beste lagunak gar apalen gainean jarritako arroz-eltzetitako urrinak.

Buruzagia aita-fameliakoa da, Sato-San izenekoa, eta arrantza-ontzi batetan kapitain. Alabarik zaharrena, Yukiko, oso harro dago «ama» edo murgildari izendapenagatik. Lehentsemeak eta alabak ez dute postu gorenik bildu, baina ez dira hargatik ere geldirik egongo.

Irakindako arroz-eltze bat eskutik eskura igarotzen da, eta famelia gertu dago lan-egun luze batetarako. Bazkaria bukatutakoan, aita-alaba elkarrekin doaz herrira eta hondartzara, biek itsasoaren mendeko bizipidea dutelako.

Haurrok aita errezebitzen ari, honek bere arrantza-eguna burutu duenean.



Itsaso betean barrena doa Sato-San-en ontzia, ozeanoko barne sakonetan hazkurria aurkitzen duten arrain bila. Sareak urdin indigoz tindatu ditu, horrela arrantza egiten duen lekuko urekin nahas daitezen.

Sareen disimulaketa hau beharrezkoa da arrantzan arrakasta izateko. Baina gerta daiteke ere beste kostaldetan itsas-belarrek bestela koloreztatuta gertaturik, gorriz edo marroi ilunez sareak tindatu beharra. Sareok hauskorrak dira, eta uhinen ukaldi bortitzak jasan behar dituztenez gero, beti izaten dute adabakitzeko beharra. Baina japondar arrantzale herri batetan, elkar-laguntza da arrakastaren giltzarria. Sato-San-ek ez du horrela katramilarik pasa behar sareak konpontzeko: ez laguntzaileak aurkitzeko, ez hondartzaraino garraiatzeko edo ontzi-bizkarreraino jasotzeko. Laguntza horri esker, Sato-San-en ontzia da gau-minean irtetzen direnen artean lehenengoa.

Baita ontzien irteeraren ondoan ere, hondartzak bizi-bizi dirau; itsasoratzen den gizon batekiko, askoz gehiago bait dago eguneko arrantza prestatzen edo, hondartza gakotzarrez arakatzen, itsasoak botatako hondakinen bila. Beste batzuk ontzi berriak moldatzen ari dira; arrantza-eskabideari erantzun ahal izateko (gero eta haundiagoa) ontzitegietan beti ontzi berriak daudelako.

Beste batzuk udaletxeko arrain-tokiaz arduratzen dira: zumezko saskiak jasaten

Harrizko ontzi batetako mainu atsegin batek lan gogorrean egindako eguna bukatzen du.





Arrantzale-famelietan, maiz presentatzen da arrain-plater bat.

dituen zurezko bizkar bat dago, eta hartan atxikitzen dira bizirik sobera diren arrainak. Arrantzale-ospea duten fameliek, beharra gertatuz gero, arrain-toki horretan ingura dezakete arraina. Baina beste herritan lehortu egiten dira txipiroiak, arrain freskorik ezean ordain-gisa gordetzeko.

Aita honek zotzez jateko eskola zaila erakasten dio bere semeari.





Ur hotzetan murgildu aurretik, bere aurpegia estaltzen du «ama» edo itsaspeko murgildari gazteak.



Itsaspeko arroketatik goroldia erauzten du, eta segidan itsas gainera ateratzen.

Murgilguan bere barrika-burua balantzatzen du «amak» eta uretara bere burua aurtikitzen.



MURGILDARIAK. Hona hemen Sato-San-en alaba nagusia bere lanerako gertu. Biltokitzat baliatzen duten golko bakartira etortzen da taldeko beste «amekin». Han jazkera aldatzen dute, pertxa batetan zintzilikatzen dituzte beren soinekoak, «short»ak edo gonak jazten, eta ilea kotoin mehezko zapi batez estaltzen. Yukiko-k blusa bat ere ba darama; baina murgildarik zenbait gabe uretara nahiago dute.

Neska bakoitzak haga bati lotutako saretxo bat hartzen du, eta harkaitz latzetatik gerizatzeko oihalezko zorrotan biltzen ditu bere behatzak. Eta ur-azpian hobeki ikusteko iragazi-ezinak diren antiparrak jarririk hor dugu, urperako prest.

«Ama» batzuk marinelekin ezkonduta daude, eta berekin egiten dute talde. Yukiko ez da oraindik ezkondu; baina arrantzale ezkongai batek gomitatzen du, murgiltzen dakien emakume batek atarramentu ona bait du... Hots, Yukiko hamabost urte duenez geroztik, murgildari bikaina. Eta, segurki, bertako besteak bezala, 55 edo 60 urte izan arte eutsiko dio murgiltzeari; eta gero lehorrean egongo da, besteek ateratako goroldia hautatzen ari.

Hori da-ta «ama» delakoen langitza. Iodoz eta bestelako elementoz aberatsa den «tengus »edo «zeruko belarra» biltzea. Belar mota hau berehala ihartzen eta lehortzen da, eta «agar-agar» bihurtzen duten fabrikei saltzen zaie. Erabilgai itsaskor hau modu askotara erabil daiteke, eta laguntza inportantea da bereziki nazioaren elikaeran.

Gero olatuen lehergunean murgilduko den ontzia urrunarazten laguntzen du Yukiko-k. Memento batez pausatu egiten da, arreta haundiaz izkutuan atxiki den murgil-lekura ontzia iristeko denboraz hain zuzen. Haraz gero, ontzi-bizkarretik botatzen du sare-zirgilu gisa baliatuko duen zurezko barrika; eta batera antiparrak hobeki tinkatzen. Goroldia daukaten arrokak itsas-gainean agertu direlarik, Yukiko-k ez du zenbait oinbetez behera murgildu eta belarra eskuka hartzen hastea baino. Goroldi hautak, ordea, 10 eta 20 metrotako barneetan aurkitu ohi dira.

Ba dago mota ezin harrigarriago bat, oso ur nahasitan baizik ez hazia, eta arroka ezin

zorrotzagoen artean. Batzutan Yukikok arriskua hartzea erabakitzen du, eta haraxe doa bila; goroldi-mota hori askozaz ere galestiago saltzen delako.

Murgildu egiten da, urgainean eragiten ditu lipar batez bere zangoak; eta segidan lekutu egiten da urpean. Murgildu den lekuan ez da beste arrastorik barrikaren kulunka baino, honek, zirgilu batek bezala, *murgilgunea markatzen* duelarik. Minutu bat beranduago hantxe dugu itzulia; eta bildutako belarra utziz, ba doa berriz behera.

Zer egiten du artean marinelak? «Ama» hotzikaran eta arnas-hestuka barrikaren gainean pausatzen denean ,eta hatsa berriz hartzen saiatzen, marinelak hondar bustizko barnetxo batetan sua piztutzen du, eta eskuak leunki berotzen, eta teiarentzako ura irakiten jartzen.

Ez du «ama»k horrelako aiserik, eta berriz ekiten dio arrantzari ur izoztuan eta arroka zorrotzen artetik. Noizean behin ontzi-bizkarrera igotzen da memento batetarako, eta blai eginda dituen jantziak xukatzen ditu. Gero oihalezko esku-zorroak erazten ditu, nagitatako behatzetan barreneko odolaren zirkulazio azkartu nahiz; baina bereala uretara bihurtzen da: «ama» batek, bere langintzan garaituko badu, ezin dezake atsedenaldi luzerik har. Murgilaldi bakoitzean ez du aloka bikain horien ahurtara bat baizik ateratzen; eta arrantzaldia laburra da —maiatzatik urriaren erdira arte— itsasoa bestela askotan nahasiegi dagoelako; eta hori dela-ta denboraren erdia edo gehiago lehorrean egon beharra delako.

Orain eguzkia zeru goian ari da dir-dir, eta garaia heldu da itsasertzean bazkaltzera joateko. Lan-goiz lantsu luze baten ondoren, beti hartzen-da gogoz bazkari eder bat. Itsas-golkoan arroz-eltze bat dago «ama»en zai. Ba dira ere arrautza gordinak; sojazko gatzatua, oso azkarra; eta beharbada sardina sorta bat errea eta zaporetsua. Neskek gogoz jaten dute. Atseden hartu, eta ontzia murgildariek lehergunetako lekura garraiatu baino lehenago, berriketa apur bat egiten dute. Zergatik ez dira marinelak emakumeen ordez murgiltzen eta itsasperatzen?



«Ama»ren lagunak, marinel, tei-gatilu bat prestatzeko beta izaten du.



Beren egun luze gogorraren buruan, itsasertzean gora ontziak garraiatzen lagundu ohi dute «ama» delakoek.

Eguerdian «amek» bazkari ugari bat hartzen dute, eta pausatzen eta erasten.





Lan-eguna amaituta, «ama»k ba du denbora bere garbiketaz arduratzeko.

Neska murgildariek zaharrei ematen diete goroldia; eta hauek zapaldu egiten dute, ore antzean utzi arte.



«Hara —erantzun ohi dute irribarrez eta soinburuak altxatuz— Hori beti izan da emakume-lana!»

Egunaren buruan, beren goroldi-uzta daramate «ama»ek, eta denek ipintzen dute leku berean, eta lehortzera uzten. Prestaldi baten buruan, xehatu egiten da belarra, eta aurrez aurre bi lerrotan eseritako emakume-talde batek zapatzen, kondarrak eta abarrak arras lekuarazi arte. Bildu eta pisatu ondoren, industria-lekuetara bidaltzen da itsas-aloka, eta horietan lehenago ere aipatu dugu hazkurri aberats bihurtzen dute.

Eguna bukatu, eta etxera aurretik, beharbada Yukikok bere adiskide batekin nahi duke herritik pasean ibili, salgaiz betetako eskaparate kilikagarrien aurretik, edo-ta lozorroan bide dagoen orrazlearen etxe ondotik. Honen zerbitzua eskatzeko asmoa du hurrengo egunari buruz. Ezen Japon-en erregela zaharrak dionez, kopetatik leporaino soildu behar bait da buruko ilea, bepuruak barne, eta segidan dena hauts zurizko azal lodi batez estali.

Gero arraina azokara eramateko erabiltzen diren zurezko kaja-egileen haroztegiaren aurretik pasako da Yukiko; sareak konpontzen dituzten langileen aurretik; eta, aldi oroz kimonoak desjosiz, gobara ibaian egiten duten emakumeen aurretik. Bere ahizpa txikiak eta anaiak ikasten duten eskolaren aurretik ere pasako da; eta ikaskai duten alfabetoa ez da hain zuzen gurea bezain ikasterraza: hogei-ta-sei letra izan beharrean, milaka ideograma ikasi behar dituzte. Zenbatzen ere ikasten ari dira, burdinazko zotzetan luzeran lerratzen diren zurezko bolatxoren bidez. Esku trebeetan hauk, elektronika-karkulagailua bezain azkarra eta segurua izan omen daiteke sistema hau.

ONTZI-TALDEA ETXERA ARI. Azkenean bukatu egin da eguna hondartzan. So-egileak, sardin-ontzien bihurreraren zai, arretaz, miatzen du itsas-urruna. Lehendabiziko ontzia sumatu orduko jauzi bat egingo du soegileak, eskailera hurbilean behera azkar abiatuko, eta han dagoen «gong»a joko du berria emateko.



Goroldi-keta kakol-airekotan eramaten da hondartzaraino.



Jendetza haundiago bildu, eta errazago da ardatzaren bidez arrantza-ontziak jasotzea.

Herri guzia, baita nagiturik dauden menditarrak, zutitu egiten dira gong-hotsa entzutean, honek zai duten lana hortxe dutela adierazten dielako. Datorren zamaren ardura hartzeko, denen laguntza behar da: ez dago gizartearentzako uzta funtsezkoagorik, itsasotik lortzen dena baino.

Hau dela bide, ontzia itsas-ertzeruntz lerratzen delarik, gizasemeek eta emakumeek, denek batera, garraio-sokatik tiratzen dute, hondartzaren malda nekez igoaraziz eta ontziak hondarreta lehorreraino eratorriz. Zenbait gizonek koipeztutako zumilak jartzen dituzte bidean, eta korrika doaz gero ontziak artzean utzi dituenak hartu, eta aurrean berriro jartzera. Ontziak hondar gainean daudenean, eta urgoretatik at pausaturik, baina ez inolaz lehenago, amaitutzat emango da eguneko egin-beharra.

Beste talde batek sareak ateratzen ditu: lan atsekabea. Zenbat-eta sareek pisu larriago izan, hainbat-eta garrantzitsuago da harrapaketa. Gizasemeek ere ez dute muzinik egiten itsasertzeruntz zakarriaren kontra zaplastaka doazelarik. Sardinak saski-beteka banatzen dira zurezko kajatan. Suilatan, saretan, ontzi-mota guzietan sardinak ageri- horra hor arrantza bikain bat.

Baina eskaintza ez da behin ere eskae-



Ontziak hondarretan gora garraiatzerakoan, erremorkailu bat osatzen dute ilaran gizasemeek eta emakumeek.

Gabardina batez jantzitako langileek, saskitara biltzen dute arraina.



raren mailakoa, Japon-en toneladaka jaten bait dira sardinak.

Sardinak igortzeko prest daudenean, ontziak kaian ainguraturik daudenean, Sato-San-ek etxerako bidea hartzen du pausaldi bat egiteko. Izan ere, zer izan daiteke hoberik zeharo laxotzeko gaueko mainu bat baino? Amak harrizko altzoaren barruan dizekan sua begiratzen duen bitartean, eta ura irakiten hasi arte berotzen, etxeko gainerakoak xalboineztatu eta xukatu egiten dira kontu haundiaz, eta mainurako beren buruak egokitzen; ezen, noski, inork ez bait du ur bero zoragarria lan-eguneko zikinkeriaz likistu nahi. Azkenean, ongi garbiturik, mainu-ontzian murgiltzen dira, eta konkordurak eta oinazeak ezabatzen dituen berotasun eragileak aise ederra ematen die.

Afaltzeko tenorea heldu da, Sato-San ontzi-kapitaina izanik, berak hamuz edo kanaberaz harrapatu duen itsas-aingira bat jateko. Harrapakin honek ez du inportantzi haundirik, eta merkataritza-baliorik ez du; baina ganbiatu egiten du poxi bat janari arina.

Afariak ez du batere festa-kutsurik, baina aski zaie. Solas atseginek arindua, hauen artean «libratzen dakiten»ez Sato-San-ek egiten dituen hitzaldiak barne, eta lan-egun oso baten ondoan famelia-bizierako une atsegin bat da.

Aitak beste azken begirada bat ematen dio kasetari; azken etxeko lan bat burutzen du amak era berean —sekula amaitzen ez diren etxeko lan zorigaiztokook— eta isilaldia ba dator berriz itsasertzeko herrira.

Bihar berriz hasiko da bizia berdin-berdin, bizimodu xinple eta ederra, mendeetan barrena aldagabea; Japon-go uharteetako bizimodua.

Gaueko afariak mahai apalaren ingurura biltzen du famelia osoa.







THAILANDIA

Herri zoriontsu baten sorlekua

(Pierre Boulle-ren «Le Siam»-etik hartua)

Oihanak estaltzen duen mendi-katea baten gainetik doa hegaz gure hegazkina, eta segidan Thailandia edo Siam-go zelairako bidea hartzen du. Zer dakizue zuek erreinu txiki honetaz?

— Thailandia zoriontsu eta baketsua da; eta zorionaren lehenengo baldintza ondasun-segurtasuna da. Sos-segurtasun honek arroza du oinarri Asia eskergan. Hots, Thailandia-ri arroza dario. Arrozak ura behar du: ura zeruan, ura lur-gainean, ur gordailuak lurrazpiko barneetan. Thailandia da jainkoen maitea, uretan blai dago-ta.

— Entzuten ari nauzu, eta begia eta larrua nahi nituzke hezatu. Oihan-mendi gorak gainditu ditu gure hegazkinak, eta ez dut ezer berezi hostail gorrizta trinkoaz besterik. Zelai honetan barrena abiatu gara orain, eta aintzira zabal bat antzeman uste dut... Nitaz iseka ari zarea? Zeruan urik? Ez dut ikusten ez hodeirik ez lanorik, fabrika-tximenea hari darionaz besterik. Lurrari dagokionaz, berriz, lehorte izugarria salatzen du kolore orizta horrek. Ez belar izpirik ageri! Ai! Hori bai: zenbait zuhaitz, palmondoren bat agian, punttu argi gisa bakar-bakarrik, lehorreta mugagabe horretan galdurik. Baina arretaz hausnartuz gero, ba dira ere agiri berde ilunezko lerrogune batzuk, ozta-ozta somagarri, uharte berde horien arteko lokarri. Gainerako guzia basamortu kolore-bakarra da, lehor, idor, taxurik gabe tartekatua, eta eguzkiak kiskalia.



Siam-en arroz-landak dira ondasun guzien jatorria.

— Lasai zaitez! Hori da Thailandia, bai; baina goiz xamar iritxi gara, sasoin lehorraren buruan hain zuzen, eta zuk aukeratu duzun garraiabideak haundiago agerrerazten ditu lurralde batzuk. Goratasun honetatik zorabiatu egiten du hegazkinetikako ikuspenak, nahiz egiazkoa izan ikusia. Ba dago, jakina, arroz-landen eskergatasun laua; baina lurreraz gero, bestek estonatzen du ikuslearen arreta: biztanle-uharteek eta giza-bideskek. Eta «klong»ek (alegia, tatxa argiok lotzeko balio duten elkarbideak) markatzen dituzten lerro berde ezin finago horietan barrena ibil zaitezenean, ez duzu zeure aurretik ikusiko zuhaitzik, berdetasun eta ura baizik.

EURIA HELDU. Aspaldisko honetan soinu bitxi bat entzuten ari naiz, ibai motel batetako zurrumurrua bai-litzan. Han urruti, mendien gainetik, hodeiak somatu uste ditut. Urrunertza bera bihurritu egiten bide da herensuge urdin eta beltzen katea batetan. Ostarte batetik argi-izpi ahul batzuk iragazten dira; baina ez du euririk ari. Eguzkiak gure buruen gainetik diztiratzen du.

— Galdegiozu harrigarriro jantzita oihanetik irten berria den bertako seme bati. Farrez hasi, eta hau esan dit: «Bere lumak xukatzen ari da txandrawasia». Hindutar mitologiaren alegiazko txori bat da hori. Malasiatar honek euri ari duela esan nahi dizu zuri.

— Orain dela ordu laurden bat bezalako soinua dantzut orain, baina tanto txikienik ere ez dakusat.

— Hemen ez dago soinuaz besterik, eta oihana bere baitara bildu da, sasoineko lehenengo zaparrandaren zai. Euria urrutitik entzuten da, eta zugana heldu baino askozaz lehenago entzuten, Thailandia-ko aidea bare dagoelako.

— Soinua hurbiltzen ari dela deritzat. Ba dakusat orain! Mendiaren gainetik murru arre bat jaiki da antza, eta mazeletan behera hedatzen da azkar. Horren atzetik deus ez da ikusten: pasatzerakoan zerua eta oihana ezabatuko bai-lituan. Orain hosto bakoitzaren ikara eta zartaka entzun ditut. Murrua heldu da, zanpatu egingo gaitu. Erauntsiaren orroak sor eta itsu utzi nau, egiazko itsaso bat mogitzen hasi balitz bezala.

— Ez zenuen bada hezatasuna nahi? Ez zaitez ikara orain, eta jaso zazu buru hori.



Sampan gaineko zubian bazkaria prestatzea, oso eginkizun erraza zaio sukaldarisa onari.

Bukatua da. Lehenengo euri-jasak ez du luzaz irauten, eta horra hor eguzkia berriz diztiratzen ari. Zuhaitz bakoitzak, oihan-zoko bakoitzak, elurra baino zuriago den lurrina sortuaz eskertzen du zeru ongilea. Mendi guziari dario orain lurina, eta jiboiek beren oihu-saio alaia hasi dute.

Itzul zaitez zelaiaren aldera: haren kolore orizta ez da oroitzapen bat baizik. Eta hemendik egun batzutara berdegune horiek hedatu egingo dira herrien eta «klong»en ingurutik, eta arrozeta guzia hartuko. Thailandiak izarlarien begiradan zenbait planetak bezala ganbiatzen du bere kolorea.

— Nik ez dut hor ikusten laku bat baizik; eta ur-gainalde zabal azkengabe honetan ez dut ezer somatzen, ezpada han eta hemen arbola edo etxeren bat. Ez dago hor biziera haundiagorik lehenagoko basamortuan baino.

— *Loak hartu gaitu. Hilabeteak joan dira*, eta Menam edo Mekong-ek gainez egin du. «Ur-ama»k arroz-landa bete du. Aldioroko *gertaera ezaguna da*: ez da gorago igoko, lurralde guzia du hedatzeko. Baina, bizirik ez dagoela? Zingira koloregabe hutsa dela? Beste begi-lilura bat dugu hori; baina aski ibili gara goitik, eta hurbil gakizkien orain bizilagunei.

HIRIA IGERI. Jauz gaitezen sampan batetara, eta sar gaitezen klong horretara.

— Ubideaz bi alderdietan zorua uraren parean duten etxeak ikusten ditut. Eta urgora pittin bat gorago igoko balitz...

— Urgorarekin batera igoko lirake etxeak ere, elkarrekin lotutako banbu gotorren gainean eraikirik daudelako. «Klong»-etako siam-darrek «teck»-zurez egiten dituzte beren etxeak. Zimendu higikorren gainean. Ez zenuen ala mogimendu eta bizia nahi?

— Harrituta nago, hiri igeri honen arrabotsak eta ontzien hotsak zurtuta. Gure sampana ez da behin ere lerratuko ubide mehar eta kukutuan barrena, eta uraren gainean utzitako etxe-aurrekaldeen aurretik,

— Hor dituzu frutuak metaka eta tamaina guzietako arrainak saltzen dituzten azoka-dendak, baita nolanahiko espeziak eta izkirak. Arrabots-giro honetan gesal-usaina da gailen. Sampan-zainak honera datoz beren erosketak egitera; baina ez zaitez bildur izan: txit dira trebeak, ia edozein elkargainkatatik at pasatzen asmatzen duten haur horiek bezain trebe. Hegi batetik bestera deika ari diren saltzaile hauek adi itzazu: aurrez-aurreko auzoek entzun ditzaten nahi dute. Urgaineko hiritar hauek ez zaizkio uholdeari batere bildur: azoka osoa altxatzen da klong-arekin batera. Noe-ren kutxa haundi bat bezala. Pozik zaude, beraz, siamdarrak azkenean ezagututa? Noski: txinatar andana haundi bat dago haien artean, merkatari maltzur; baita annam-dar batzuk, arrantzale bikain.

Orain euritearen abiada moteldu da. Eguneroko eurialdiak jasa batzuk ditu orain, gero eta laburragoak; eta ibaia ezari-ezarian bere isurgunera biltzen ari da. Kutxako biz-

Siam-dar fameliako guziek dute beren betekizun berezia sampan-ean.





Gaueko afaria kilikagarri da oso, eta saltsa bixiak ez ditugu eskas.



Siam-dar sukaldarisa nonek punttua iritxi arte haizatuko du «curry»zko eltze haundia.

Sampan-eko famelia jatekotan eseri da zubian alaiki.



tanleek urrunertza gero eta beherago ikusten dute. Etxeetako bat lurrean kokatu da. Palanka gisako banbu gotorren bidez libratu behar da deihadarren eta jabearen aurkako irainen artean, hiriko bakea hondatzera utzi duelako.

Zelaian sasieta bakar batzuk agertu dira, arrozetak baino gorago.

— Ba dakusat: uholdea amaitu da, eta «uren ama» ba doa. Egun eder honek joritasuna iragarri dio Thailandia-ri. Arrantzaleak eta haurrak zingiretan barrena doaz, eta preso gelditu diren arraintxo batzuk kentzen dizkie zeruko hegaztiei.

Jakinaren gainean dagoen nekazari argiaren ustez, ordea, arrantza apainkeria bat da, uholdean ez beste inoiz onar ezin daitekean entretenigarria. Garaia da orain eginkizun funtsezkoez pentsatzeko: alegia, arrozaz. Uren indarrak burutua du lanaren erdia.

Atzera joan aurretik, lur-azal ezin ekarkorrago bat utzi du Menam-ek. Gainerakoa gizonek egingo dute: gizonezkoek, emakumeek eta idiaketz edo bufaloek.

IDIAKETZAK. A b e r e baketsuak benetan idiaketzak! Lokatzean nekatzen diren bi horiek otzanago dira gure zaldi zamari zaharrak berak baino. Begira itzazu klong luzean aisian bazkatzen ari diren beste horiek, txori zuriz eta beltzez nabarturik.

—Xomorroak kentzen dizkieten txoritxoak dira. Herri-xehearen istorioetan «aberetzarren osagile» bataiatu ohi dira.

—Baina itsatsita dirudien gauza beltzaran luze hori ez da txori bat. Mutiko bat da!

—Bai horixe! Hamahiru edo hamalau urtetako mutil bat da. Taldearen zaindaria da. Zertan ari den bere horretan? Lotan patxaran. Pentsatzen ari ez bada, ametsetan ari da. Horrelaxe jartzen zen Lao-Tseu filosofoa idiaketz baten bizkar zabalaren gainean bere liburuak idazterakoan«

—Menam-adar batetara iristen ari da abere-taldea. Alajainkoa! Ibaian sartzen ari da, eta uraren lasterra haundia da. Ba daramazki arrastaka! Ur gainetik ez dira muturrak baizik azaltzen, eta mutikoa...

—Ez zaitez mutikoaz arrengura: gurutzaera hori beti zaio jolaspide berria. Ira-

tzartu egin da, eta gogoz farreginez zuzentzen du eginkizuna. Abereak esnatzeko egiten du garrasi, eta behatz batez markatzen die iritxi behar duten beste hegia.

Beharbada ez daki igeri egiten, baina hertsiki eusten dio adarrari, eta ez du inolaz ere laxatzen; ez bada beste abere baten buztanari heltzeko.

Horixe da usaiako bidea herrira bihurtzeko. Abere-taldea beste ibai-hegira iritxi da azkenean. Idiaketzek lokatzean pausatzen dituzte ankak, pafaka, muturretik lerdea eta afarra dariela, eta bizkarra urgainaren parean daramatela. Hain zuzen mutikoak behar duen goratasunean dago, eta ongi esnai. Bertan nagitzeko eta luzatzeko joera dutela jakinik, lokatz-arteko mainuaren atseginak utz ditzaten esku-ukaldi babana ematen die bi saihetsetan.

—Nahi bezala erabiltzen ditu. Abereon otzana!

—Bazter zaitez apur bat.

—Oso abere eskurakoiak dira!

—Kontuz diotsut!

—Ai ene! Gure kontra dator hau. Lasterrari eman dio, eta arrozeta ikaran jarri duela dirudi... Ene kontra dator!

—Zu oldartzekotan dago, ez zazu dudarik egin. Ez duzuia ikusi nola apaltzen zuen burua, eta lurra azkazalaz igorzten? Gauza bat esatea ahaztu zait: abere horiek ezin dezaketela mendebaltarrik jasan...

—Baina zer ari da zaindari bihurri hori? Zer ari da haur munstro hori? Farrez ari zaigu!

—Farrez ari zaigu, bai, eta gogotik. Baina ez zaitez hasarre, eta zehatz begira zazu. Begiak ongi zabaltzeko mementoa duzu. Umorea ez du falta, eta maleziarik batere gabe adarra jotzen ari zaigu, eman diozun ikuskari bitxia ari da goxatzen. Ez du sobera errespetatzen gizon zuria. Aurrean thailandiar bat duzu, gizon libro bat, egiazko siamdar bat.

Haren eginbehar kuttuna idiaketzok zaintzea da, eta ikusia duzu ederki betetzen duela bere lana. Laketago du hori, arroza landatzen emaztekiak laguntzea baino.

KATHIN-GO JAIA. Utz dezagun arroz-landa orain. Zinez beren lana hasi aurretik,



Siam-en garraio-abere diren idiaketzak, patxaran ibiltzen dira aintziretan gaindi.

zenbait egunez utziko dute beste lagunek ere.

Thailandia-ko erreinuan gertakari aparta bat prestatzen ari da. Ez da aski inolako aitzekia gizonak eginkizun material bat has dezan lehenik izpiritu-kutsua erasten dion beste zerbait egin gabe. Ekialdeko izakerak festa herrikoi eta jainkoentzako eskaintzen bidez erakusten du sena hori. Kosmoa gobernatzen duten indar izkutuen lokarritzat hartu ohi dira han ordenua eta taxuketa. Budista mundu guzian, euritearen amaia eta uzta oparoaren itxaropena jai haundi batez ospatzen dira; baina ez du inun iristen Thôt Kathin-en —giza libroen herrialdean— lortzen dituen edertasuna eta oparotasun estonagarria. Ikusgarri hau erakutsi nahi dizut.

Idiaketz-talde baten gidaria den mutiko hau, lasai dago lotan eta batere ez du arriskatzen.





Banku-txartelak lore liluragarri bihurtzen dira, eta diruzko zuhaitza apaintzen.

Bangkok-en, herririk eta landarik apalenetan, orain dela egun batzuz geroztik daude gizonak eta emakumeak prestaeratan tematurik, aldareak jaso eta apainduz, eta ezin-zenbatuzko budentzako, eta hauen apaizentzako eta famelia-santuentzako, eskaintza egokiak presenta ahal izatekotan «tikal» guziak xahutuz.

Begira zazu emakume zahar hori: banku-txartelak tolostu eta lore-itxuran jartzen ditu. Lore bakoitza makilatxo baten muturrean tinkatzen da, eta lore-multzoak zerimoniaren ondoan bontzoek jasoko duten diru-zuhaitz bat osatzen du. Karitatearen obratzean horrelako fintasunik somatu ere egingo zenukean zuk inoiz? Jokabidearen eztitasunak diruari erantsi dion baliogoa errepara zazu, eta arte-lan horretan erabili diren egonarri eta arta gaitza. Thailandian baliodunak begien pozgarri izan behar du batera.

Ekialde-buruko agintarietan indartsuenetako bat errege zenean, Birmania-ko, Kanboia-ko eta Laos-ko aiton-semeek horrelakoxe zerga bat ordaintzen zioten urtero. Sosaren gaiaz besterik ezer ez zen ganbiatzen, eta hemen gai hori urrea zen. Baina urre-gorri hau berau ez bide zen berez aski istimagarri; eta zuhaitz-itxuran ematen zioten, hostoak oso artekiro landuta.

Ba dago beste zoragarririk, eta jaia egunsentiarekin hasten da. Jarrai dezagun Bangkok-eko kaleak betetzen dituen herria. Zalaparta sortu, eta jendeak tarte bat utzi dio puntuzko-talde bati. Irten berria da errege bere jauregitik, eta bere laguntzaileek laguntzen dute, eta elkarrekin doaz hiriko «wat» delakoak (hau da, eliza famatuak) bisitatzera. Oste trinkoak hestutu egiten dira erregeren atzetik. Hurbilagotik jarraitu nahiz, gizonek, emakumeek eta haurrek elkar bultzatzen dute.

Hemen dugu Wat-Pô. Harrizko makilatan pausaturik, bi erraldoi eskergak bigiratzen dute sarpidea. Barruan larehun urrezko buda-imajinatatik gora dago. Aretoak urrez eta lakaz apainduak dira; eta budista fedearen ezagugarria den «pratxedi» kono zorrotza hamaika teila berde eta oriz estalia da, denok argi-printzaren emale.

Horra hor orain Wat-Chang delakoa. Honen edertasuna ibai-gaineko idurian ikus daiteke. Purpuraz, troskaz eta esmalte urdinez jositako hiru estalpeen gainetik gailen, dorre lerden bat doa goruntz xuxen-xuxen zeru zuriari buruz. Horra hor ere Wat-Benchera, nabarri zurizko murruen eta irudigintzaz landutako pareta gorrien estalki gisa, haren urre hutsezko sapaia. Eta hemen mosaikoz estalitako sapai-mordo hau; eta hegietako bilguetan alegiazko sugeak, ederki antzaldatuak. «Baga» edo «uren laminen» irudiak dira.

—Horrenbesteko edertasunok txundituta naukate.

—Ez dira monumento ofizialak ohoratu behar bakarrak. Horra hor jende-talde horiek, laisterka eraikitako kaperen aurretik milaka pasatzen ari: egia esateko, horren aberatsak ez izana gatik, besteak bezain harrigarri dira. Budaren imajinei dagokienez, haundi ala txiki izan, aberats ala txiro, den-

da bakoitza aldare eta otoitz-leku bilakatzen da; beti ere lorez, kandelaz, kolorezko paperaz, eta oihal dizdizariz apaindua.

—Hasi besterik ez da egin jaia. Gero uretan jarraituko da, urtero uretan egiten bait da onegitearen jaia. Erregeren segida-taldea, herri osoak jarraituta, ibaiaren hegian gelditzen da.

Orduan erregek, nahiz yate moderno baten jabe izan, antzinako ontzi bat hartzen du. Betets ezazu galera eder lerden hori, purpuraz jantzitako haren arraunlari-ilara bikuna, urrez edo harri bitxiz josítako tronua. Gailen darama branka ibaiaren gainetik. Begira zazu uren lamina den «naga» suge lerden harrosko itxura, pagoden teilatuetan apaingarri.

—Menam-ibaia mila ontzik betetzen dute orain, eta Bangkok-eko herri guzia, itxura desberdinetako armadatxo bat osatuz, itsas-aldera doa erregeren atzetik. «Sampan»ak siamdar eta annamdarrak dira; eta ba dago ere txinatar txaluparik, malasiatar «praus»ik eta plegu guzietako ontzirik, brankak beti irudiz eta kolore biziz ederturik. Haurrek beren kanoa pertsonala alogeratu dute. Nekazari-fameliek banbuzko almadiak prestatu; eta, nola edo hala, denek segitzen dute desfilea.

Eten gabe ugalduz doan armadatxoa jarrai dezagun. Ilunabarrean ibaiaren burura heldu gara; eta uharte batetan Pak-Nam-go pagoda dago zutik bere «pratxedi» landuarekin. Bertan egingo da erlijio-festa nagusia. Erregek lur ikutu, eta apaiz isil barnekoiek errezebitu dute elizarakoan. Lurrera jeistekotan, anitz erromes dator eztabaidan atzetik. Saia gaitezen gu ere ondotik joaten, nahiz erraza ez izan. Ontziek elkarrekin topo-egiten dute, almadiak elkarri lotzen, marinelek elkar madarikatzen; sukarra gora doa eliza sakratuaren inguruan, eta uhartea ontzi kulunkarizko gerri batek hesiturik gelditu da. Aurtik dezagun aingura ertzetik urruti, eta goazen jauzika sampanetik sampan-era, hauxe da-ta lur santura heltzeko bide bakarra. So egizu irakin-zulo harrigarri hori, eta entzun zazu nola doan goruntz jende-piloaren iskanbilaren hotsa.

Gaua dator. Eliza biziago agertzen da, eta barnea anitz kandelaren garraz argitzen.



Siam-go budista elizek apaindura fina eta kolore ezin-ederragoak dituzte.



Banku-txartelezko lore hauskorrak, oso eskaintza preziatua dira.

Pergamino-hostoa ebaki ondoren, diruzko zuhaitzaren habedia estaliko du.





Wat Chang-ko elizaren edertasuna ibaiko uretan islatzen da.

Apaizek ateak zabaldu, eta azkenean jendetza hori barrura sartzera utzi dute. Elizara sartu ala, baretuz doala dirudi. Erlijiozko isiltasunean doa ilaran, eta buda nagusiari egiten dizkio bere eskaintzak.

Kanpoan berriz gau osoan iraun dezake jai herrikoiak, bizi eta alai, bai lehorrean bai uretan. Itxaferoen argiek «pratxedi» ospatsua argitzen dute. Bengalen argitan nabarmendu egiten dira imajinak eta urraideak. Piztu egin dira uhartean eta ontzietan kriseilu-girlandak. Sukarrak hartua den hiriari alaitasuna dario txinpartaka.

Hiriko merkatariak beti erne, herriaren beroaldiok baliatzeko prest daude, eta beren salgaiak populuari erosarazteko. Baina, hara! Erromeria honetan ez dago ezer fedeak goitartutako erromesak besterik. Txinatar eta hindutar musulmanak Menam-ean behera jetxi dira beren denda igeriekin, janariz, edariz, margotutako paperez, intsentsu-kutxaz, gutunez eta Budaren irudiz horniturik. Eta siamdar eskuzabalek eskaintza berritan xahutzen dituzte orain beren azken sosak. Jolas-parkea duen hiri bat da, antzelariak eta erlijio-saioak jokatzen dituzten ofizioko dantzarinak agertzen diren antzoki batekin. Haren enparantza zabaletan, beste dantzarinak imitatzen dituzte ahalik eta zehazkienik ofiziokoak; eta ba ditu ere fakirrak eta geroaren asmatzaileak. Hiriaren gogoak eten gabe gainditzen ditu hararte-

koak asmakari asmutsuz. Begira itzazu hor gazteok; ontzi zaharrak sutan jarri, eta ibaieko isurian pausatu dituzte; eta hor dituzu elkarrekin topeka txinpar-uxol baten erdian, txaloen eta ostiko-hotsen artean.

Mirets ezazu zuk, arrozetako malenkoniak hunkitzen zinduen horrek, zalaparta hau. Egunsentiko eguzki berriak «pratxeki»-aren kupula urreztatzen du, eta horixe duzu sakabanatzeko seinalea. Herrirako edo hirirako bidea hartzen dute ontziek poliki-poliki. Arrakasta bat izan da festa: errendi gelditu dira gorputzak, eta arimak bapo. Siam-go arroza erruz haziko da.

SIAMDAR BUDISMOA. —Ez ahal zara itsuturik gelditu pagoda eta buda-imajina ezin ugariago horiek ikusita? Ez ote zaitu hunkitu oriz jantzi, burua soildu, soinburu bat ageri, eta komentuetako harriak oinutsik higatzen dituzten apaiz horien fede sutsuak?

—Bai. Busdimoa erlijio abstrakto bat da, jainkorik eta zerutar sorkaririk gabea; sinistunek bakardadea, nor bere burura biltzea, mundu honetako pozetatik baztertzea, eta materiazko atseginak ukatzea predikatzen dituzte. Lur gaineko izate aspergarri eta mingarri guzien ondoren, arras ez-deus-

Gazte guziek jantzi behar dute zenbait hilabetez fraileen soineko azafrai-oria.





Kathin-go apaiz bat, apaindura aberatsetako elizarteko patioan.

tatzean datza ongirik haundiena. Ez dea hau?

—Ongi jarri zaitute jakinaren gainean.

—Siamdarrek, bestalde, budista izanik, beren fedea erakusten dute jori eta naro. Ez dago ederragorik mundu guzian. Ba dira dantzak, jokoak, eta eroaldiaren hegian mamitzen diren jaialdiak. Hauetan lehertzen da maiz ederrarekiko, atseginekiko, Izadiarekiko, eta hitz batez biziaren pozekiko maitasuna. Oker nagoa?

—Ez horixe. Diozun bezalaxe da.

—Eta zer esango urreztutako hamaika buda horietaz? eta inolako indar sobrenaturalik onartzen ez zuen Budaz? Eta denak mitologia zaharreko deabruen irudi diren harrizko imajina bildurgarri horiek zaindua.

—Bai: «yack»ak dira, ba dakit. Erresumako eliza guzietan dago horrelakorik; eta eliza aberatsago izan, eta ikaragarriago da deabruaren itxura. Horra hor aurpegiok, erdi gizon erdi alimale; letagin mehatxagarri horiek; eta lokamutsak sortzeko egokia litzakean keinu hori: horietxek lasaitzen dute, ordea, bakea galdua duen siamdar kezkatua. Horietxek urrun ditzakete hain zuzen deabru atsekabe eta gaizkileak, txinatar herensugeak, birmaniar gnomoak, zeilandar munstroak, Malasia-tik larrututako arima errariak, eta Ekialdeko hamar herriren irudimenak asmatu dituen alimale mitologikoak oro. Siamdar herri zabalak aspaldidanik etxekoturik, jakintsuaren nirvana lardazkatzeko itxura hartu dute. Hots budisten bake-eremu horrek ez du aginte izkuturik onartzen.

—Eta zer derizkiezu dantzarina sakratu horiei?

—Garrantzi piska bat duten festetan ez direla behin ere falta. Emakumeen gorputzen mogidek, aldiz xarmagarri aldiz suhar, bai gorputza bai emakumeak gutxiesten dituen erlijio baten sendimenduak azaldu nahi dituzte. Begira itzazu emakumeok. Oso gaztetan hautatzen dira, haien eder edo bizkorrarengatik. Bizi guzia pasatzen dute gorputz horren adieraz-mena lantzen, malgukera berezi eta haragikoi mordo batez arras jabetzen, eta behatz puntak berak ere dantzan parte har dezaten eran. Higikera horiei nabarmentasun haundiagoa emateko, soineko ederrez jazten dira; eta gorputz-



«Yak»-izeneko deabru-imajina erraldoi bik zaintzen dute Wat-Pô-ko eliz-ataria.

-mogida bakoitzean urrearen eta harri-bitxien diztira ageri da. Zer ari dira hemen antzatzen? Parabisurako agerraldia. Begira zazu, eta ez itzazu ahantz ikusleak. Denok dira baturik, eta erlijio-ziztada batez egiten dute dir-dir begiok. Apainduraren aberatsaz, gorputzaren desiragarriaren ritmo-higierez, bizitasun ezin gorenagoko irudi-ernetasunaz, parabisuaren ikustamena sendiarazten dute. Baina parabisu hori, berriz diot, gelditasunean datza, edonolako desira guzien iraungieran, edozelako forma-itxurarik, pozik, oinazerik eta bizirik ezean.

—Bai, ulertu egin dut. Eta, apaizak zer?

—Apaizek ez dute joritasun horretan parte hartzen, eta zuhurtziarren erregelen arabera bazterturik bizi dira. Haientzako ez besterentzako emana izan da budismoaren dotrina hutsa. Gogoetari ekin, eta ez dute alimalerik akabatzen. Erremusinak apaltasunean erabiltzen dituzte, Anitz aingeru eta deabru motaren artean, beren aihurriari dagozkionak hautatu ditu herriak.



BANGKOK-EN MILA AURPEGIAK. —Ba dakusat, bai. Batez beste, erresuma zaharkote bat.

—Ez horixe! Bihur gaitezen Bangkok-era bestela dela ikus dezagun. Hemen dugu aideportua. Ekialde buru guzian modernoena eta ongienik hornitua.

Jarrai gakizkion orain autobus horri. Gure jauregirik onenari ezertan zorrik ez dion ostatu batetara daramazki turistak kale nagusietan barrena. Ez dugu kale horietan ikusiko ez gurdirik ez idirik ez motorezko bizikletarik. Horra: Mercedes, Packard, Buick, Jaguar eta Cadillac. Egia esan, auzo dotore batetan gaude orain. Bizilekuak adreiluzkoak edo harrizko xaletak dira, eta hauen jardinak ederki zainduta daude.

Siamdar dantza jatorretan, keinurik xumeenak bere adierazpen funtsezkoa du.

Mindu egiten zara. Ba deritzazu orain zibilizatuegi daudela siamdarrak. Goazen orain beste auzo batetara; baina joan aurretik so egizu apur batez gazte talde hori. Zu eta biok bezalaxe jantzirik daude mutilak. Kontu haundiagoaz beharbada: beroaren aitzekia dela-ta ez dute lepokoa laxatzen edo gorbata kentzen... Neskak europatar modura jazten dira, eta denek dakite frantsez edo inglesez, biez batera ez dakiteiarik...

Utz dezagun, ordea, zure harritu-nahia betetzen ez duen auzo hau. Bangkok-ek ez dizkizu oraindik bere ikusgarri guziak erakutsi. Ba du ere lehor tinkoan azoka bat, eta horretatikako garrasiak urrutitik entzun zenitzake. Hementxe duzu oihalen zokoa: denda guzietan pilatzen dira apaletan, eta eguratsean ere bai. Plegu guzietako saltzaileek eta erosleek eztabaida latzetan dihardute. Mila esku jakin-minek ikutzen, marruskatzen, tolosten eta zimurtzen dituzte oihal ederrak. Hona hemen «tamil» beltz batzuk, beren «indiana»k eta «sariak» goraipatzen ari. Han berriz banglatarrak dituzu: arroz-landetako nekazarien emazteei loretako oihalak saltzen dizkiete, malasiatarrei sedazko «sarong»ak, eta Kanboia-koei «sompot»ak. Txinatar honek hemen bere sorlekuko troskak eskaintzen ditu, japondar bionboak, Java-ko aiztoak, persiatar tapizak, eta estainuzko eta brontzezko ezteuskeriak. Beste hauek birmaniatarrak dira, eta harriak eskaintzen dituzte, denak diztirante, baina ez beti haiek dioten bezain pitxiak... Kontuz gero! Bere soineko ori leuna kolore-nahaspila honetan barrena poliki arrastatzen duen apaiz hori ez zazu bultza. Urrun zakizkio errespetuz, jendeak egiten duen bezala. Mirets ezazu nola jokatzen duen apaizak: keinu bakar batez bere soinekoaren mantal bat hedatzen du aurrekaldetik, eta horrela emakumeen ikueratik babesten du bere burua; eta denbora berean arropen artean daraman marmita ikus-arazten du, eta egiten zaizkion eskaintzak bertara biltzen. Horra hor laostarrak, zumezko saski haundiak arrantzaleei saltzekotan.

Eta hona hemen, azkenik, askoz ere zabalago, bertako artesanoen partea. Dakus-



Uraren festarako rito-eskaintzak denda Igeritan erosten dituzte erromesek.



Siam-en, nazio desberdinetako langile dira fardelen eramaleak.

Musika-tresnak itxura bitxi eta tamaina harrigarrikoak izaten dira maiz.





Magia-bidez antza sortzen dira loreak siamdar artistaren behatz trebeetatik.

kizun metalezko gauza horiek («niel»ezkoak :alegia, labean eskola haundiaz neurtzen eta urtzen den tupiki eta zilarrezko aleaziozkoak) siamdar artekoak dira. Marrazkiak oso zainduak dira, eta ezin dakizkioke ezeri aldera, ezpada italiar Erdi-aroko pitxiei. Siamdarrak beti izan dira txapeldun metal pitxien lanketan. Bertako erregek Louis XIV-ri opariz betetako ontziak bidali zizkionean, denen artean bi kainoi zegoen; baina zilar hutsezko kainoiak ziren, eta finki landurik zeuden.

—Zorabiatu egiten nauzu. Utz nazazu neskatila hori begiratzera: kontuz eta atseginez ari da aterki batetan loreak margotzen.

Marrazkien kalitatea hainbatez istimatzen dut nik egikeraren antzea: pintzel bakar batez kolore batzuk hedatzen ditu batera.

— Gisa bera nik ere uste... Txinatar batek ez bestek asma zezakean horrelako abileziarik.

— Eta pintzela eusten duten behatzen aproposa... Eta siamdartsa horren itxura lasai barnekoia...

— Gauza bera uste dut nik benetan. Baina begira hara... Neskatilla langile hura, aurpegia borobil, ileak lazo, artea eta langitza horren osoki ezkontzen jakile eskuaren bidez, txinatar odola balu ez nintzake harrituko. Haren ofizioa bezala, haren pertsona ere sintesi bat da. Batera bildu ditu bere buruan balioduna eta dotorea, xarma eta asmamena.

— Bi arrazaren arteko alkarketa dago beragan, bai.

CHANG ELEFANTEA. Hemen gaituzue, Bangkok-etik zortzirehun kilometrotara, Birmania-tik oso hurbil. Chiengmai ez da probintzia-hiriska bat baizik, baina ba du aideportu moderno bat. Kalean bertan ikusgarri asko dago; baina basoak erakartzen gaitu, eta gauza bera teck-zur bikainak.

Lantegi honetan mirets dezakezu Chang elefantearen lana, eta «mahut» ezin-baztertuzko hezlearena. Inoiz ikusi ahal duzu tratoretzar bat «bull-dozer» mintzaren bidez lanean ari, eta gidari trebe batek gobernaturik; eta traba gogor baten kontra topo egiten duenean ihardukitzen? Nik horrentantxe pasa dut astiune asko. Mokor gogorra lehenengo aldiz ikutzean, makina bizi dela dirudi, eta bere zainak eginahaletan tinkatzen dituela... Gorputz guzia makurtzen da, eta endaiaren beso artikulatuak auhenka hasten bide dira: makinaren gidariak, bere eserlekuan koloka, esku bataz burdinazko mintzaren agintailu hidraulikoak manaiatzen ditu; eta besteaz etengabe zaintzen du motorearen indarraldia. eta, eten gabe ere, tratorearen pedalak eragiten ditu bi oinez. Adimendua eta zainak ernai dauzka, indarrak eratuz. Kiskurtzen zaion aurpegian makinaren eta trabagarriaren arteko gorabehera guziak agertzen dira. Segundu-parte bakoitzean indar itsuaren okerrak eta hutsak zuzenduz, izpirituaren bidez eragiten du makina hori beti sentidu onetan mogi dedin.

Hemengo hezleak berdin-berdin jokatzen du haragi eta zainezko bost toneladekin, eta larrua gune sendiberetan ikutuz eragiten du aberea. Lan burutsua da, tratore-zainarena bezala; baina denbora berean gorputz guziaren laguntza behar du. Gelditu direlarik, «mahut»ari izerdia dario, elefanteari bezala. Eman dizaiegun biei enbortzar horien garraioan merezimendu berbera.

Baita erantzukizun berbera ere. Hauxe zen orain dela gutxi arte siamdarren iritzia. Zenbait kasutan (gutxitan egia esateko, elefanteak bere hezlea maite bait du eskuarki, honek hura ongi tratatzen duen ber) nortasun-istiluak gerta daitezke, eta hauek gaizki bukatu ohi dira. Tronpakada batez ateratzen du «mahut»a aulkitik elefanteak, eta aidean gora botatzen; eta erortzean, jakina, desegina dago. Siamdar zuzentza zuhurrak, orduan, aberea juzkatzen zuen. Beharbada hiltzeko arrazoin onen bat izan zezakean. Elefanteak tratu txarrak jasan izan zituela agerrerazten bazen, epailariak defentsa zuzenaren kaso bat aitortzen zuen, eta elefantea libro uzten. Eta beste hezle baten manupean hasten zuen berriz bere lana (ia beti, siamdar kondairagileek diotenez, askoz ere hezle zabalagoa).

Hauzian, aitzitik, funtsik gabe jokatu zuela agertzen bazen, hiltzera kondenatzen zen elefantea. Budista sendimenduak aukera bera ematen zien gizonari eta abereari; eta Kipling-ek gomendatzen zuenez, pitin batez pentsatzen baldin baduzu, hori bidezkoa zela aitortuko duzu.

— Alimaleak defenditzen dituzte budistek? Elefante-ehize gaitzen berri izan dut...

— Gutxi hiltzen dute, eta oso bakanka beharrik gabe. Malasian, Birmanian eta Indotxinan nemrod-ek funditu dituzte elefanteak eta alimale asko beren garaikinak emendatu nahirik. Talde anitz atxiki dute siamdarrek: hauentzako ez dago elefante «basa»rik. Oihaneko elefante-talde horiek Erresumaren jabegotzat hartzen dira, eta akabatzea ez da zilegi. Ni mintzo naizen jazarraldiak ez ziren ehizeak eta ez ziren hilkintza batetan bukatzen. Hazienda bilkura hutsak ziren. Bildutako ehun alimale-burutatik hamar bat besterik ez zuten gordetzen, gazteenen artekoak. Gainerakoak libro uzten zituzten eta oihanera bihurtzen ziren.

— Iraganaz mintzo zatzazkit, ez da hala?

— Guztiz bestaldera. Mende horren haseratik beretik somatu dute siamdarrek, mozketari eutsiz gero «teck»ezko oihan berezkoak laister amaituko zirela. Eta oihan



Elefante langileak eta mahut-ak elkarrekin pasatzen dute beren bizierarik luzeena.



Gutxienez urtebetean zehar egon behar dute lehortzen «teck»-enborrek uretan igeri utzi aitzin.

Egun luze eta neketsuaren ondoren, benetako festa iruditzen zaio elefanteari mainu freskoa.



artifizialak landatu dituzte eskualde zabaletan. Lurralde irisgarri bat hautatzea pentsatu dute era berean, mekanika berrien higierak posible egiteko modukoak. Horrela, beste erresumetan teck-ezko guna bikaina ia osoki lehertu delarik, Siam da tratore modernoen bidez eskualde haundiak lantzen dituen herri bakarra. Ondorio gisa, elefantea ez da noiztenka baizik erabiltzen. Lantegi hau aspaldikoa da, eta «mahu»ta adinetan abiatua. Baina seguru egon zaitez: zenbait egunetan, edo zenbait astetan gehienik, bull-dozer baten gidaritzan moldatuko da.

Beharbada malenkoniaz orituko da elefante onaz, «panung»eko izurren artetik tronpaz miatu eta lanondorako gordetzen zizkion gozokiak kentzen zizkiola.

Orain ba goaz berriz Menam-en aldera. Ibaibidez teck-aren hildotik iritxiko dugu Bangkok txalupa azkar batetan. Presatuak gara, eta zurezko ontzi horiek urte batzuk behar bide dituzte kaia iristeko. Bi oihan gaitzen artetik lerratzen gara. Aratza da hemen Menam, Alpeetako uxol bat bezain diztirantea, eta ozta-ozta zabalago.

Hona hemen zurgintza bat. Egurgileek hil egiten dute, baina ez oraindik ebakitzen. Zarraztada bat egiten dute aizkoraz enborraren inguruan, eta berrogei-ta-zortzi ordutan hiltzen da arbola. Ez dute ordea ebakiko geurtz arte; eta gero ere urtebetez utziko dute oraino lurrean, ihar dedin. Siamdarrek egonarri gaitza dute, eta taxurik gabe atzean utzi ditugun arbola horiek ez lihoazke igeri, gordinik baleude. Ibaiaren bihurguneetan ziri gisa kokatzen dira arroka arteetan ur-laisterguneetan. Batzutan lehorrean gertatzen dira, eta hurrengo uholdekoan berriz igeri jartzen. Dena dela, beti iristen dira azkenean beren helburura.

Menam zalbaldu egiten da, ihanetik irtetzen, eta egiazko ibai bilakatzen. Orain zelaian sartu gara: horra hor teck-aren lehenengo aldia. Honera biltzen dira urte batzutarano enborrak, almadia galantak osatuz. Lastergune arriskutsuak pasa, eta nabigazio zuzendua hasten da hemen. Enbordi honek ibaiaren erdia hartzen du, eta almadia-zainek bertan eraikitzen dituzte beren etxeak.

Bidaiak irauten dituen hilabeteetan barrena, gizonak txola txiki igeritan bizi dira, Bangkok-era ari, eta ez dute betebehar bakar bat baizik: ibai-ertzean eguzkitan berotzen diren kokodriloak begiratzea.

Azkenekoz, hiriko ateak agertzen dira urrunean. Ubideak, hegietan aurrera gero eta ugariago, ehunka ekartzen dituzte Sampan-ak Menam-era. Eta hemen gaituzue berriz ur-gaineko biztanleekin, Thailandia-ko sinbolo biziekin. Erregeak etorri eta igaro egingo dira. Zeruruntz jasoko dira eliza haundiak, eta lurrera eroriko hauts eginak. Baina ibaiek beren urak euritean emenda ditzaten artean, eta landak urezta eta lurra aberats, gizon horiek biziko dira. Zorionak dohain ezin-neurtuzko horrek Thailandia-ko ur ongeleekin adiskidantzan bizitzen ikasi izana eskertuko die beti.

AMAIA